


EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KARTZELETAKO EGOERA



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KARTZELETAKO EGOERA

Eusko Legebiltzarrari Arartekoak egindako txosten berezia

EGILEAK:

Xabier Markiegi, Arartekoa.

Mercedes Agúndez, Arartekoaren Ondokoa.

Faustino López de Foronda, Ararteko erakundearen Lege Aholkulariburua.

Fermín Barceló, Aholkulari berezia, erakundearen gizarte harremanetarako arduraduna.

Miren Ortubai, erakundearen lege aholkularia.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Azaleko irudia: *Anunciación*. Juan José Aquerretaren olio pintura oihalean.

Irudiaren © Bilboko Arte Ederretako Museoa.

Itzultzaileak: Lurdes Auzmendi eta Koldo Biguri.

Paper errezikatua.

I.S.B.N.: 84-87122-66-3.

D.L.: VI-24/96.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KARTZELETAKO EGOERA



Argitalpena: ARARTEKO.

Vitoria-Gasteiz
1996ko marxo

AURKIBIDEA

0. TXOSTENAREN AURKEZPENA	19
I. ARARTEKOAREN EKIMENAREN ESPARRUA ETA EZAUGARRI METODOLOGIKOAK	25
1.1. Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak Alor Penitentziariorako izenpeturiko Hitzarmen Nagusiari buruzko azterketa	27
1.1.1. Informazio alorra.	28
1.1.2. Heziketa alorra.	28
1.1.3. Lanerako prestakuntza eta enplegu-suspertzearen alorra.	29
1.1.4. Suspertze Pertsonalaren alorra.	29
1.1.5. Osasun Laguntzaren alorra.	29
1.1.6. Laguntza Sozialaren alorra.	30
1.1.7. Erregimen irekia.	30
1.2. Arartekoaren ekimenaren metodologia	32
1.2.1. Ikustaldien aurretik.	32
1.2.2. Ikustaldietan zehar.	34
1.2.3. Ikustaldien ondoren.	36
II. KARTZELETAKO EGOERA. Haien arazoei buruzko ikuspegia	41
2.1. Basauriko Kartzelako egoera	44
2.1.1. Zentroaren funtsezko ezaugarriak, eta bertako instalazioak eta ekintzak ezagutzeko eginiko ikustaldia (alderdirik aipagarrienak).	44
2.1.2. Presoekin egindako elkarrizketak (elkarrizketatuen irizkiak).....	46

A/ Elkarrizketatuek beraiek adierazitako interesguneak.	48
B/ Arazo edo kexa azpimarragarriak.	49
a) Aspektu juridikoei dagozkienak	49
b) Zentroko bizitzari zuzenean dagozkienak	49
c) Kartzelatik kanpoko munduarekiko harremanei dagozkienak	50
2.1.3. Profesionalekin egindako bilerak (planteiatutako gaiak).	51
A/ Hitzarmen nagusiari buruzko balorazio orokorra .	52
B/ Iharduera alor bakoitzaren azterketa	52
a) Informazio alorra	52
b) Heziketa alorra	53
c) Lanerako prestakuntza eta enplegu-suspertzearen alorra	54
d) Suspertze pertsonalaren alorra	55
e) Osasun laguntzaren alorra	55
f) Laguntza sozialaren alorra	56
g) Erregimen irekia	57
C/ Elkarrizketatutako presoek emandako informazioei lantaldeek egindako iruzkinak	58
D/ Profesionalen arazo bereziak eta proposatutako hobekuntzak	58
2.2. Martuteneko Kartzelako egoera	60
2.2.1. Zentroaren funtsezko ezaugarriak, eta bertako instalazioak eta ekintzak ezagutzeko eginiko ikustaldia (alderdirik aipagarrienak).	60
2.2.2. Preso batzuekin egindako elkarrizketak (elkarrizketatuen iritziak).	63
A/ Elkarrizketetan agerian jarritako interesguneak	64
B/ Arazo edo kexa azpimarragarriak	65

a)	Aspektu juridikoei dagozkienak	65
b)	Zentroko bizitzari eta jardunari zuzenean dagozkienak	66
c)	Kartzelatik kanpoko munduarekiko harremani dagozkienak	68
2.2.3.	Profesionalekin egindako bilerak (planteiatutako gaiak).	70
A/	Hitzarmen nagusiari buruzko balorazio orokorra	71
B/	Iharduera alor bakoitzaren azterketa	71
a)	Informazio alorra	71
b)	Heziketa alorra	72
c)	Lanerako prestakuntza eta enplegu-suspertzearen alorra	73
d)	Suspertze pertsonalaren alorra	74
e)	Osasun laguntzaren alorra	74
f)	Laguntza sozialaren alorra	76
g)	Erregimen irekia	76
C/	Elkarrizketatutako presoek emandako informazioei lantaldeek egindako iruzkinak	77
D/	Profesionalen arazo bereziak eta proposatutako hobekuntzak	78
2.3.	Langraizko Kartzelako egoera	81
2.3.1.	Zentroaren funtsezko ezaugarriak, eta bertako instalazioak eta ekintzak ezagutzeko eginiko ikustaldia (alderdirik aipagarrienak).	81
2.3.2.	Langraizko presoekin egindako elkarrizketak (elkarrizketatuen iritziak).	86
A/	Elkarrizketatuek beraiek adierazitako interesguneak	88
B/	Arazo edo kexa azpimarragarriak	89
a)	Aspektu juridikoei dagozkienak	89

b)	Zentroko bizitzari eta jardunari zuzenean dagozkienak	90
c)	Kartzelatik kanpoko munduarekiko harremanei dagozkienak	99
2.3.3.	Profesionalekin egindako bilerak (planteiatutako gaiak).	100
A/	Hitzarmen nagusiari buruzko balorazio orokorra	101
B/	Iharduera alor bakoitzaren azterketa	101
a)	Informazio alorra	101
b)	Heziketa alorra	102
c)	Lanerako prestakuntza eta enplegu-suspertzearen alorra	104
d)	Suspertze pertsonalaren alorra	105
e)	Osasun laguntzaren alorra	106
f)	Laguntza sozialaren alorra	107
g)	Erregimen irekia	108
C/	Elkarrizketatutako presoek emandako informazioei lantaldeek egindako iruzkinak	109
D/	Profesionalen arazo bereziak eta proposatutako hobekuntzak	111
2.4.	Presoetz arduratzen diren elkarte, talde eta antolakundeek azaldutako arazo eta proposamenak.	114
2.4.1.	Gaisoei ematen zaien laguntza eta sendabide alternati- boak.....	116
A/	Arazorik nabarmenenak.....	117
B/	Elkarte gisa lan egiteko aurkitzen dituzten trabak .	118
C/	Proposamenak	119
2.4.2.	Atzerritarren arazoak eta haientzako atentzioa.	122
A/	Arazorik nabarmenenak.....	122
B/	Atzerritarrei laguntzen dieten elkarteek beren lana egiteko aurkitzen dituzten oztopoak	124
C/	Proposamenak	125

2.4.3. Presoekin lan egiteko egitarau eta ekintzak aurrera ateratzeko arazo eta proposamenak.	125
A/ Elkarrekin beraien egitarauak aurrera ateratzeko aurkitzen dituzten arazo eta traba nagusiak	126
B/ Proposamenak	126
2.4.4. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideen aldeko lana egiteko arazo eta proposamenak.	127
A/ Arazorik nabarmenenak	127
B/ Elkarrekin beren defentsa eta salaketa lana egiteko aurkitzen dituzten trabak	132
C/ Proposamenak	132
2.4.5. Gogoeta orokorrak.	134

III. ARARTEKOAK ERAKUNDE ARDURADUNEI EGITEN DIZKIEN GOMENDIOAK

3.0. Aurretiazko abiapuntuak eta haien oinarriak	139
3.0.1. Kartzelaren egoera orokorrari buruzko azterketa egiteko beharra.	139
3.0.2. Egoerari buruzko diagnostikoa (antzemandako arazoaren sustraiak).	141
3.0.3. Ekimenaren ildo nagusiak.	145
3.1. Gomendio orokorrak	149
3.1.1. Autonomia Erkidegorako sistema penitentiario baten egitura juridiko eta sozialari buruzkoak.	149
3.1.2. Presoen oinarriko eskubideei buruzkoak.	151
3.1.3. Kartzela zigorrak betearazteko prozesuari eta eskubide penitentiarioei buruzkoak.	154
3.2. Hitzarmenaren garapenari eta haren ekintza-esparruei buruzko gomendio bereziak	161
3.2.0. Hitzarmen nagusiaren garapen orokorrari buruzko gomendioak.	161

3.2.1. Informazio alorrari buruzko gomendio bereziak.	162
3.2.2. Heziketa alorrari buruzko gomendio bereziak.	165
3.2.3. Lanbide heziketa eta enplegu-suspertze alorrari buruzko gomendio bereziak.	167
3.2.4. Suspertze pertsonalaren alorrari buruzko gomendio bereziak.	169
3.2.5. Osasun laguntzaren alorrari buruzko gomendio bereziak.	171
3.2.6. Laguntza sozialaren alorrari buruzko gomendio bereziak.	174
3.2.7. Erregimen irekiari buruzko gomendio bereziak.	177
3.3. Azken gogoetak.	180

DOKUMENTU OSAGARRIA

Kartzela barruko droga-kontsumoari eta gaisotasun infekziosoen kutsapenari buruz Arartekoak egindako proposamen eta iradokizunak.	181
--	-----

IV. ERASKINAK

I. Elkarrizketetan informazioa jasotzeko protokoloa	191
II. Informazio iturri desberdinak triangulatzeko aukerak	193
III. Zentroetako zuzendariekin prestaketak egiteko bileraren eskema	194
IV. Instalakuntzak eta ekintzak ezagutzeko erreferentziatzko zerrenda	196
V. Presoekiko elkarrizketak egiteko erreferentziak	198
VI. Espetxeetako lantalde profesionalekiko bileretan landu beharreko gaien eskema	200
VII. Presoek arduratzen diren gizarteko elkarte, talde eta erakundeen zerrenda	202

ESAPIDE JURIDIKO-PENITENTZIARIO OHIZKOENEN

GLOSARIOA	205
------------------------	-----

LABURDURAK

AP	1981eko Arautegi Penitentziarioa
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EGA	Euskararen Gaitasun Agiria
EHAA	Euskal Herriko Agintaritza Aldizkaria
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
EK	Espainiako Konstituzioa
ELOO	Espetxeetarako Lege Organiko Orokorra
FIES	Zaintza Berezia duten Presoen Fitxeroa
GAD	Drogamenpekoari Laguntzeko Taldea
GKE	Gobernuz Kanpoko Erakundea
HABE	Helduen Alfabetatzerako eta Berreuskalduntzeko Erakundea
HHI	Helduen Heziketa Iraunkorra
INEM	Enplegurako Instituto Nazionala
IRSE	Bergizarteratze Erakundea
KP	Kode Penal
LO	Lege Organikoa
LOGSE	Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea
OHO	Oinarrizko Hezkuntza Orokorra
PAT	Pedagogi Aholkutegia
TAP	Presoentzako Abokatu Laguntzarako Txanda
UBEI	Urrutiko Batxilergorako Euskal Institutoa
UHUN	Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala

1995eko uztailetik abendura bitartean, Arartekoak zenbait ekintza burutu ditu, bere kasa, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru kartzelen egoera hobeto ezagutzeko asmoz. Ekintza horiek ofizioz hasi genituen, Ararteko erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 17.1 artikulua dionari jarraituz.

Hemengo txosten berezi honetan, emandako pausoak azaldu, ikusi ditugun edo jakinarazi dizkiguten arazo nagusiak bildu, eta zenbait hobekuntza proposatzen dizkiegu erakunde arduradunei.

Horretaz gainera, dei egin nahi diogu gizarteari, beraien ekintzengatik askatasunik gabe geratu diren pertsonen giza eskubideen aldeko jarrera har dezan, presoek ere, beste edozein pertsonak bezala, bermatuta eduki behar dituztelako gainontzeko eskubide guztiak.

0. TXOSTENAREN AURKEZPENA

Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoeraren berri jakiteko eta aztertzeke erabakia hartu zuenean, arrazoia ez zen izan presoengandik jasotako kezak, baizik eta bete-betean uste genuela presoak egoera sozial eta pertsonal txarrean dauden pertsonak direla. Beste alde batetik, gure ekimenaren aurreko hiletan (1995eko lehen erdian), bai eta ekimena martxan zegoen bitartean ere (urte horretako bigarren erdian), presoek arduratzeko egitarauak gauzatzen ari diren edota presoek eskubideen aldeko lana egiten duten hainbat talde eta elkarte erakunde honetara hurbildu ziren beren arazo edo kezak azaltzeko, eta Arartekoaren esku hartzea eskatzeko. Horiek horrela, argi egon arren Arartekoaren ekimenak zailtasun eta muga batzuk aurkituko zituela esparru honen gestioa Estatuaren Administrazioaren eskumenekoa delako, gure erakundeak ofiziozko ekimen bat hasi zuen, pertsona horien egoera hobetzen laguntzarren.

Gizarte demokratiko baten bereizgarria da zigorrak eragindako sufrimendua ahalik eta gutxiena izan dadin ahaleginak egitea. Oinarrizko irizpide honen ondoan, hauxe egiaztatu da: gaur egun, askatasunik ez duten pertsonak asko eta asko izateaz gain, gehienetan, kartzelan egoteak berekin dakarrela eskubideak kentzea eta askatasunik eza baino kalte pertsonal handiagoak jasatea.

Kartzela eza nolakoa den ikusita, berau presoek giza eskubide guztiak errespetatzearekin nekez batera daitekeela uste dugu; horregatik, beharrezkoa da eskubideak bermatzen dituen erakunde batek -halakoxea da Arartekoa- “kartzelaren berezko ezaugarriak” pixkanaka gutxitu daitezen sustatzea. Kartzelak kentzea epe laburrean ezinezkoa bada, horiek behar-beharrezko den gutxienezko esparrura mugatzen saiatu beharra dago. Atxilotuak zein egoeratan dauden aztertu, askatasunik gabe egoteak dituen benetako ondorioak egiaztatu eta, ondoren, egoera horren berri Eusko Legebiltzarrari eta gizarte osoari emateak, agian lagundu dezake hiritarrak jabetu daitezen kartzelak sortzen dituen kalte izugarriez, horrek duen giza- eta gizarte-kostuaz eta, beraz, zigortzeko beste bide batzuk erabiltzen hasi beharraz, nor bere buruaz arduratzen eta gizarteratzen lagunduko dutenak, delituak jasan dituztenen interes eta eskubideak ahaztu gabe.

Jakina denez, Euskal Autonomia Erkidegoak arandik ez ditu bere gain hartu zigorrak betearaztearen eta kartzelen antolamenduaren inguruko aginpideari dagozkion betebeharrak. Hala eta guztiz ere, 1994ko apiriletik aurrera, indarrean dago “Eusko Jaurlearitzak eta Justizia Ministerioak alor penitentziariorako izenpeturiko Hitzarmen Nagusia” delakoa. Hitzarmen horren arabera, bi administrazioek batera lan egingo dute interes handiko alor batzuetan: esaterako, presoentzako osasun laguntzan, heziketan, lanerako prestakuntzan edota

gizarteratzean. Hortaz, Arartekoaren ekintza hau hitzarmen horren ildotik ulertu beharra dago, haren eskumenen artean baitago hitzarmen hori izenpetu duen alde baten iharduera kontrolatzea, euskal Administrazioaren iharduera, alegia.

Gaur egun aginpidea banatuta dagoen bezala, Espainiako Herri Defendatzaileak zaindu behar ditu gure Erkidegoko espetxeetan preso daudenen giza eskubideak, legez bera delako berme horiek eman behar dituen erakundea, presoen zaintzarako epaileek duten arduraz aparte. Hori dela eta, erakunde horren bitartez tramitatu dira egindako kexa gehienak, eta oso gutxi Arartekoaren bidez.

Joan den ekainaren 14an, Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak alor penitentziariorako izenpeturiko Hitzarmen Nagusian jasota zeuden ekimen-aukerak aztertu eta gero, Arartekoak baimena eskatu zion Arazo Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzari, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru kartzelak bisitatu ahal izateko. Estatu Idazkari andere txit gorenaren baimena ekainaren 27an iritsi zitzaigun. Handik aurrera, Arartekoa hiru espetxeetako zuzendariekin harremanetan jarri zen, gure egitasmoaren berri jakinarazteko eta eman beharreko hasierako pausoak beraiekin zehazteko.

Txostenaren aurkezpeneko lehen lerro hauetan garbi utzi nahi dut, egiaren mesedetan, oso jarrera ona, erraztasun handiak eta laguntzeko gogoia aurkitu genituela erakunde guztietan eta espetxeetako arduradun guztien aldetik. Benetan eskertzekoa.

Ikusiko den bezala, txosten honek hiru zati desberdin ditu:

- Lehendabizikoa metodologikoa da, eta bertan Arartekoak espetxeei buruzko azterketa osatzeko egin duen lanaren ezaugarriak eta mugak azaltzen ditugu.
- Bigarrena luzeagoa da eta gure ekimenean antzeman ditugun arazo nagusiak azaltzen ditugu, Basauri, Martutene eta Langraizko espetxeetan jasotako kexa eta iritziak bilduz. Bigarren zati honen bukaeran, presoei laguntza ematen dieten Erkidegoko elkarte ezberdinek azaldutako arazo eta proposamenak ere jasotzen dira. Horrela, Arartekoak jakinarazten diotenaren eta ikusten duenaren akta egiten du, eta normalean entzungor egiten zaien pertsonen bozeramaile bihurtzen da, askatasunik gabe daudenen eta gizarte osoaren bitarteko.
- Txostenari hirugarren zatiak ematen dio amaiera, ondorioenak, eta bertan Arartekoak gomendio batzuk arrazoitu egiten dizkie erakunde arduradunei Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoera hobetzeko.

Txosten honek presoen egoera hobetzeko eduki dezakeen balioaz aparte –horixe delako haren helburu nagusia–, beharbada halako dei bat helarazi ahal izango dio gure gizarteari, gehienbat ez baitaki zer gertatzen den kartzeletako harresien artean; bestalde, egiten dugun azterketa hau baliteke baliagarria izatea, euskal erakundeak alor penitentziarioko aginpidea eskuratzeko prest daudela dirudien honetan.

Hain zuzen ere, laster euskal administrazioak aginpide hori bere gain hartuko duela-eta, Arartekoak egoerari buruzko azterketa sakonagoa egin nahi izan du,

argi eta garbi hitzarmenaren esparrutik eta euskal erakundeek gaur egun duten aginpide-alorretik kanpo geratzen diren gomendio batzuk bilduz.

Txosten honen idazketa bukatu dugunerako (1996ko otsaila) onartuak daude bai Kode Penal berria, bai horren alderdi batzuk geratzen dituen Kartzeletako Araudia ere, nahiz eta biak datorren maiatzean indarrean jartzeko asmoa dagoen. Espero eta nahi dugu arau hauek pixkanaka -baina lehenbailehen- ezartzearen ondorioz, hemen azaldutako kartzeletako egoera benetan hobetzea, eta txosten honetan egin ditugun gomendio anitz, gauzatu direlako, beharrezkoak ez izatea.

Norbaitek esan zuen sufrimendua gizaki ez-perfektoek osatutako gizarteko betebeharrak dela. Haatik, sufritu beharra badugu ere, hori ez da aitzakia gaur egungo zigor-bideez gogoeta ez egiteko, eta zigor-bide horiek giza eskubideak zenbateraino errespetatzen dituzten ere pentsatu beharko genuke. Duela bi mende besterik ez, gizarteak itsu-itsuan uste zuen heriotz zigorra elkarbizitzarako guztiz ezinbestekoa zela. Gaur egun kontrako ustea duten herrietan, iritzi aldaketa ez da onurazko arrazoiengatik gertatu -agerian geratu da heriotz zigorra ez dela eraginkorra-, baizik eta, batez ere, konturatu direlako gizakiaren duintasunari zor zaion errespetuak ez duela agintzen, sekula, delitu bat egitearen truke gizakiari bizia kentzea. Halaber, espetxea beharrezkoa den ala ez etika mailako kontua da: gizakiaren duintasuna errespetatzekotan, askatasunik ezaren orde besterik zigor batzuk jarri beharko lirake, pertsona suntsituko ez dutenak, kalte konponezinak sortuko ez dituztenak, zigortua bizitza sozialetik kanpo utziko ez dutenak. Era berean, biktimei bereziki eta gizarteari oro har sortutako kalteak konpondu eta ordaintzeko bitartekoak erabili behar dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelei buruzko txosten hau dela bide, gizarteak eztabaida honen inguruan hausnarketa egin dezan nahi dut, eta, horren ondorioz, eskubide guztiak errespetatuko dituzten sistemetan aurrera pausoak eman daitezten.

Vitoria/Gasteiz, martxoaren 1a

ARARTEKOA

Xabier Markiegi Candina

TXOSTENAREN ESKEMA

0. SARRERA

I. ARARTEKOAREN EKIMENAREN ESPARRUA ETA EZAUGARRI METODOLOGIKOAK

- 1.1. Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak Alor Penitentziariorako izenpeturiko Hitzarmen Nagusiari buruzko azterketa.
- 1.2. Arartekoaren ekimenaren metodologia.

II. KARTZELETAKO EGOERA. Haien arazoei buruzko ikuspegia

- 2.1. Basauriko Kartzelako egoera.
- 2.2. Martuteneko Kartzelako egoera.
- 2.3. Langraizko Kartzelako egoera.

Hiru kartzeletan erabili dugun eskema amankomuna:

1. Zentroaren funtsezko ezaugarriak eta bertako instalazioak eta ekintzak ezagutzeko ikustaldiak
2. Presoekin egindako elkarrizketak.
3. Profesionalekin egindako bilerak.

- 2.4. Presoek arduratzen diren elkarte, talde eta antolakundeek azaldutako arazo eta proposamenak.

III. ARARTEKOAK ERAKUNDE ARDURADUNEI EGITEN DIZKIEN GOMENDIOAK

- 3.0. Aurretiatzko abiapuntuak eta haien oinarriak.
- 3.1. Gomendio orokorrak.
- 3.2. Hitzarmenaren garapenari eta haren ekintza-esparruei buruzko gomendio bereziak.
- 3.3. Azken gogoetak.

DOKUMENTU OSAGARRIA

IV. ERASKINAK

**I. ARARTEKOAREN EKIMENAREN
ESPARRUA
ETA EZAUGARRI
METODOLOGIKOAK**

1.1. **EUSKO JAURLARITZAK ETA JUSTIZIA MINISTERIOAK ALOR PENITENTZIARIORAKO IZENPETURIKO HITZARMEN NAGUSIARI BURUZKO AZTERKETA**

1994ko apirilaren 18an Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak alor penitentziariorako izenpetutako Hitzarmen Nagusiaren bidez (urriaren 5eko EHAA), bi erakundeek elkarlanean hasi nahi dute Espainiako Konstituzioak eta indarrean dauden legeek kartzela zigorrerako ezartzen dituzten helburuak lortzeko, hau da, espetxeetan preso daudenen berreziketa eta bergizarteratzea lortzeko (hitzarmenaren lehen klausula).

Haren indar-esparrua Euskal Erkidegoko hiru espetxeetan (Basauri, Martutene eta Langraizkoan) dauden preso guztiak dira, eta zazpi alorretan banatuta dago bi administrazioen arteko lankidetzaz:

1. Informazio alorra.
2. Heziketa alorra.
3. Lanerako Prestakuntza eta Enplegu-Suspertzearen alorra.
4. Suspertze Pertsonalaren alorra.
5. Osasun Laguntzaren alorra.
6. Laguntza Sozialaren alorra.
7. Erregimen irekiari buruzko ekintzak.

Hitzarmen hau **erakundeen arteko lankidetzarako lanabes** bat da, balio handikoa izan daitekeena, azterketan nabarmendu den bezala, puntu asko ukitzen dituelako, haietako batzuk garrantzi handikoak. Gainera, lanabes horrek eskaintzen dituen aukera guztiak benetan gauzatu ahal izango badira, beharrezkoa izango da alderdi guztiak beraien baliabideak eskaintzeko gai izatea, bai eta, urtez urte, ekintza eta egitarau zehatzen bidez mamitzeko ere beraien lan-ildo nagusiak.

Kontuan izanda hitzarmenean bildutako edukiak nahiko zabalak direla eta, orobat, izenpetu zenetik denbora asko ez dela, bere benetako garapena txiki samarra da oraindik, espero izatekoa zen bezala. Esperokizun hori egiaztatu egin ahal izan dugu gure ikerlana egin dugun bitartean. Esan daiteke, beraz, hitzarmena oraindik praktikan jarri ez diren asmo batzuen adierazpen bat baino ez dela, neurri handi batean; hau da, **eskaintzen dituen aukerak oraindik gutxi garatuta dituen lanabes** bat dela.

Ondoren, haren lan-ildo nagusiak aztertuko ditugu, alorrez alor.

1.1.1. **INFORMAZIO ALORRA (INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA)**

Hitzarmenak finkatzen dituen bi lan-ildo nagusiak espetxeetako presoen bizitzako **bi uneri lotuta** daude:

- a) **Espetxean sartzeko unea.** Honako informazioa:
 - haien eskubideak;
 - espetxearen ezaugarriak, arauak eta ekitaldiak;
 - informazioa eta prestazioak jasotzeko dauden bideak.
- b) **Espetxean dauden bitarteko unea.** Honako informazioa:
 - preso bakoitzaren egoera juridiko eta penitentziarioa;
 - kasu bakoitzean egon daitezkeen alternatibak;
 - presoak edo bere familiak erabil ditzaketen kartzelaz kanpoko baliabideak.

Erabil daitezkeen informazio bideei dagokienez, hainbat aukera eskaintzen ditu:

- informazio bilerak (ikusentzutezkoak);
- argitarapenak;
- presoekin eginiko solasaldiak;
- taldekako bilerak...

1.1.2. **HEZIKETA ALORRA (BERTAKO IKASTAROAK ETA URRUNDIK EGINDAKOAK)**

Hitzarmenak heziketa alorrean markatzen dituen lan-ildo nagusiak honako hauek dira:

- a) **Oinarrizko prestakuntza instrumentala:**
 - Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikastaroak (HHI).
 - Eskola-garaiz kanpoko errehabilitazio egitarauak.
- b) **Irakaskuntza ertainak:**
 - Azpiegitura.
 - Irakasleak aurrez aurre emandako tutoretzak.
- c) **Goi-mailako irakaskuntza:**
 - Irakasleak aurrez aurre emandako tutoretzak, unibertsitaterako sarrera-ikastaroan.
 - Irakasleak aurrez aurre emandako tutoretzak, unibertsitate-ikasketa desberdinetarako.
- d) **Tituluak lortzeko erraztasunak** (azterketak egiteko).
- e) **Irakasleen prestakuntza:** Eusko Jaurlaritzak antolatutako prestakuntza-ikastaro orokorretan parte hartzeko aukera.

1.1.3. LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU-SUSPERTZEAREN ALORRA

Hitzarmenak finkatzen dituen lan-ildoak honako hauek dira:

- a) **Lanerako prestakuntza** espezialitate egokietan. (Presoen ezaugarrien, bitarte erabilgarrien eta aukeren arabera...)
- b) **Prestakuntza-enplegu egitarauak.**
- c) **Hirugarren graduko presoen kontratazioa** EAEko enplegu-suspertzerako egitarauetan.

1.1.4. SUSPERTZE PERTSONALAREN ALORRA

Alor honetan, lan-ildoak baino areago, hitzarmenak halako **egitarau batzuk** eta hainbat **ekitaldi** planteiatzen ditu, besteak beste:

- Irakurketa suspertzeko egitarauak.
- Gaurkotasunezko gaietako buruzko mintzaldi, eztabaida edo mahainguruak.
- Kantaldiak edo poema-emanaldiak.
- Antzerki saioak.
- Proiektzioak (diapositibak, bideoa, zinea).
- Kultur lehiaketa eta erakusketak.
- Argitalpenak.
- Ikastaro monografikoak eta joko-taldeak.
- Kultur bisitaldiak.

1.1.5. OSASUN LAGUNTZAREN ALORRA

Hitzarmenak osasun alorrean aipatzen dituen lan-ildo nagusiak honako hauek dira:

- a) **Oinarrizko laguntza:**
 - Osasun heziketa ikastaroak.
 - Medikuntza prebentiborako eta zaintza epidemiologikorako kanpainiak.
- b) **Laguntza farmazeutikoa:**
 - Osakidetzaren eritetxeetako farmazi zerbitzuek ikuskatutako sendagai deposituak.
- c) **Laguntza berezia:**
 - Espetxeetan.
 - Osasun laguntzarako ambulatioetan.
 - Osakidetzaren ospitaleetan.
- d) **Osasun mentaleko arazoetako laguntza:**
 - Drogamenpekotasun arazoak dauzkaten presoentzako laguntza.
 - Arazo psikopatologikoak dauzkaten presoentzako laguntza psikiatrikoa.
- e) **Osasun langileen prestakuntza etengabea,** Osakidetzaren eskutik.

Bost hauek dira hitzarmenak osasun alorrean jasotzen dituen lan-ildoak. Dena dela, komeni da esatea joan den 1995eko azaroaren 20an Eusko Jaurlearitzaren Osasun Sailak eta Osakidetzak **osasun alorreko hitzarmen berezi bat** izenpetu zutela Justizia eta Barne Ministerioko Arazo Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzarekin. Beste hitzarmen sektorial honetan, lehenagotik aurrikusita zeuden ekintza batzuk zehaztu eta bi administrazioen arteko lankidetzarako esparru gehiago sartu ziren.

1.1.6. LAGUNTZA SOZIALAREN ALORRA

Hitzarmen nagusiak ezarritako lan-ildoak:

- a) **Dauden baliabideei buruzko informazio eta aholkularitza** (zerbitzu sozialei buruz) eta eskariak zerbitzuetara bideratzea.
- b) **Txostenak egiteko lankidetzak**, tratamendu prozesuan zehar hartu beharreko erabakiei beharrezko dokumentazioa eskaini ahal izateko (egoera juridiko edo penitentziarioaren aldaketak, baldintzapeko askatasunaz irtendakoen segimendua, zenbait laguntza sozial ematea).
- c) **Lehentasunezko tratua:**
 - Drogaren menpean dauden presoei (komunitate terapeutiko batean sartzeko aukera duten egitarau amankomunetan parte hartzeko).
 - Emakumeei.
 - Gazteei.
- d) **Senitartekoentzako laguntza.**
- e) **Baldintzapeko askatasunaz irtendakoentzako laguntza eta segimendua**, Arautegi Penitentziarioko¹ 60. artikuluari jarraituz (70 urte baino gehiagokoentzat eta gaiso sendaezinentzat).

1.1.7. ERREGIMEN IREKIA

Erregimen irekiari dagokionez, hitzarmenak bi lan-ildo jasotzen ditu, nahiko modu orokorrean, bosgarren klausulan:

- Bi aldeek ahalegin sendoa egin behar dute presoen egiazko bergizarteratzea bultzatzeko, tratamendu penitentziarioko hirugarren graduaren tresna juridikoa erabiliz, eta horretarako **erregimen irekiaren barruko egitarau berri batzuk prestatzea** erabaki dute.
- **Gobernuz Kanpoko Erakundeei** espetxeetako giza eta kultur egitarauetan parte hartze zuzena izan dezaten ematen zaizkien laguntzei

¹ Arautegi Penitentziarioaz (AP) txosten honetan egin ditugun aipamen guztiak maiatzaren 8ko 1.201/1981 Erret Dekretuak onarturiko arautegikoak dira, hauxe baita lanaldian indarrean egon dena.

buruzko informazioa eta irizpideak elkarri eman. Ildo honetatik, eraginkortasun handiagoa lortzea da hitzarmenaren helburua.

* * *

Orain arte ikusi ditugun hauek dira hitzarmen nagusian finkatutako lan-ildoak. Orobat, badaude halako **koordinazio lanabes** batzuk (segimendubatzerdea, esate baterako), **gauzapean aukera** batzuk (bi aldeen arteko akordio sektorialak edota urteroko elkarlan-egitarauak), eta esparru honetan inplikaturik dauden erakundeen arteko **baliabide eta ardura banaketa** (Eusko Jaurlaritzaren sailak, Justizia Ministerioa, espetxeetako zuzendari-gerenteak...). Azpimarratzekoa da hitzarmenaren arabera Justizia Sailari dagokiola “elkarrizketa eta koordinaziorako organoa” izatea, Eusko Jaurlaritzaren sailek aurrera eramaten dituzten ekintza guztietan.

Lehenago esan dugu hitzarmenak ematen dituen aukerak ez direla gehiegi erabili oraindik. Halaber, esan daiteke hainbat urtez ekintzak egin direla aipatu ditugun zazpi alorretako bakoitzean, baita hitzarmenik ez zegoenean ere. Horrela, adibidez, Eusko Legebiltzarrak zehazki jakin ahal izan zuen zein izan diren 1994an egindako ekintzak eta 1995erako iragarritakoak, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak bere erantzuna bidali zuenean, Izquierda Unida / Ezker Batua Talde Parlamentarioak “Eusko Jaurlaritzaren eta Justizia Ministerioak alor penitentziariorako izenpetutako Hitzarmen Nagusia betetzeko jarritako baliabideak” zehazteko informazioa eskatu ondoren.

1.2. ARARTEKOAREN EKIMENAREN METODOLOGIA

Azalpen argiagoa egitearren, emandako pausoak hiru unetan banatuko ditugu:

- A- Ekimenaren aurretik. (“Bisitaldien aurretik”)
- B- Ekimena bitartean. (“Bisitaldietan zehar”)
- C- Ekimenaren ondoren. (“Bisitaldien ondoren”)

1.2.1. BISITALDIEN AURRETIK

Espetxeak ikustera joan aurretik, bost aztergai landu genituen, batez ere:

1. Geure artean, lortu nahi genituen helburuak, erabili behar zen metodologia eta eman beharreko pausoak zehaztea.

Horrela, honelako lanak egin behar izan genituen:

- Aldez aurretik, azterketarako eskema bat landu.
- Datuak biltzen lagunduko zuten lanabesak (behaketa-gidak, erregistro-orriak...) prestatu (ikus, adibidez, I. eraskina).
- Informazio-iturriak triangulatzeko aukera planteiatu (ikus II. eraskina).
- Bukaeran, helburuen eta jasotzaileen arabera egin litezkeen txosten mota desberdinak pentsatu.
- Prozesuaren simulazioak egin (pausoak, faseak, ondoz ondoko edo aldi bereko metodoa...).
- Lehetasunak finkatu: aurretiaz oinarritzkoak izan daitezkeen puntuak aukeratu.
- Lan-egutegia eta denbora-epea zehaztu...

Barne-antolaketa argitzeko lan hori burutu ondoren ikusi zenez, proposatzen zen ekimenak honako ezaugarriak eduki behar zituen:

- . erabili beharreko metodologiak bai erdi-egituratutako elkarrizketak eta baita behaketa ere onartu behar zituen lehen informazio-iturri moduan;
- . erabilera (jasotzaile) desberdinak eduki zitzaketen datuak eskaini behar zituen;
- . arreta berezia eman behar zien hitzarmen nagusian bildutako edukiei;
- . aukera eman behar zuen beste informazio-iturri batzuekin konparatu eta triangulatzeko;
- . espetxe bakoitza azter-unitate gisa hartu behar zuen, besteekin lotuta, baina bere izaera bereziarekin;
- . Ararteko erakundeko langileek egun-ordu kopuru onargarri batean egiteko modukoa izan behar zuen, beste enpresa batzuetara edo laguntzaile batzuegana jo beharrik gabe;
- . eta eginiko ikustaldien arabera berraztertu eta geroagoko lanetarako abiapuntu gisa erabiltzeko modukoa izan behar zuen.

Jakina, baziren beste aukera metodologiko batzuk erabil zitezkeenak, baina arrazoi desberdinengatik baztertu genituen. Beharbada, proposamen metodologiko honen alderdirik aipagarriena zera da: lehentasuna ematen diela presoekin egin beharreko elkarrizketei, lehen informazio-iturri gisa. Izan ere, pertsona horiek halako zerbitzu (zerbitzu penitentiario) baten erabiltzaileak dira, eta, berez, ezer baino lehen haien iritzia entzun behar da, zerbitzu hori baloratzeko orduan.

Esan gabe doa, aukeratutako metodoak mugak ere baditu. Baina, dena dela, guztiz garrantzitsua iruditu zitzaigun Arartekoa bezalako erakunde eskubide-bermatzaile batek askatasunik ez dutenen “bozeramale” bihurtzea, haien iritziak eta bizipenak jasoz, eta espetxeetako bizimoduaren alderdi gizatiarrak azpimarratzea, eta ez juridikoak soilik.

2. Bisitaldien aurreko kontaktuak.

Erakunde arduradunei gagozkielarik, sarreran bertan adierazi dugun bezala, baimena eskatu genion Arazo Penitentiarioetarako Estatu Idazkaritzari, eta argitasunak emateko lehen kontaktu bat eduki genuen hiru espetxeetako zuzendariekin. Herriaren Defendatzaileari eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailburuari ere jakinarazi genien gure ekimenaren berri.

Orobat, bisitaldiak hasi baino lehen, Langraizko tratamendu-taldeko pertsona batzuekin harremanetan egon ginen, haiekin gure ekimen-proposameneko puntu batzuk aztertu eta zalantza metodologiko batzuk argitzearren.

3. Lanerako erreferentzi puntu gisa kontutan eduki beharreko oinarriko arautegia eta dokumentazioa.

Atal honetan, honako arau eta agiriok aztertu genituen, besteak beste:

- 1978ko Espainiako Konstituzioa.
- Euskadiko Autonomia Estatutua (3/79 LO, abenduaren 18koa).
- Espetxeetarako Lege Organiko Orokorra (1/1979 LO, irailaren 26koa).
- Erregimen Penitentiarioaren Arautegia (1.201/1981 Erret Dekretua, maiatzaren 8koa).
- Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak Alor Penitentiarioarako Izenpetutako Hitzarmen Nagusia, 1994ko apirilaren 18koa (EHAA, 1994ko urriaren 5koa).
- Hitzarmen nagusia betetzeko jarritako baliabideei buruzko eskariari Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak emandako erantzuna (erantzunak Eusko Legebiltzarraren erregistroan jasotako sarrera-eguna: 1995-03-29) (Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, 1995eko otsailaren 24koa).
- Herriaren Defendatzaileak “Espainiako egoera penitentiarioaz” egindako txostena, 1988koa.
- Presoek eta senitartekoek Arartekoari aurkeztu eta Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexak.

- Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideetarako Batzordearen aurrean egindako agerraldiak, ikustaldiak eta azaldutako kexak...
- Presoentzako tratuari buruzko gutxienezko arauak eta arau horiek benetan aplikatzen direla ziurtatzeko prozedurak (Nazio Batuak, 663/1957 Ebazpena eta 47/1984 Ebazpena).
- Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen (73)5 zenbakidun Ebazpena, atxilotuentzako tratuari buruzko gutxienezko araei buruzkoa.
- Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak estatu kideei egindako R (87)3 zenbakidun Gomendioa, Europako arau penitentziarioei buruzkoa.
- Europako Batzordeak torturari eta gizatasunaren aurkako tratu iraingarriei aurre hartzeko egindako txostenak (Espainiara 1991 eta 1994an egindako bisitaldiei buruzkoak).
- Kartzelen Nazioarteko Behatokiak espetxeratuen atxilotze-egoerari buruz egindako txostena (1994).
- Kartzelei eta politika penitentziarioari buruz beste ombudsman batzuek egindako txostenak eta bibliografia orokorra.

4. Konpromezu deontologikoak argitzea.

Gutxienezko baldintza hauek ipini genituen:

- helburuak zehaztea inplikaturiko guztiei;
- argibide-emaielen anonimotasuna bermatzea;
- presoek beren borondatez onartzea elkarrizketak;
- zuzenean inplikaturiko guztiei “informazioa itzultzea”.

5. Beste aukera batzuk kontutan hartzea.

Egon zitezkeen beste aukeren artean, honako hauek aztertu genituen: txosten osagarriak eskatzea; beste erakunde batzuen ordezkariekin batera lan egitea; diziplinarteko ikuspuntua erabiltzea... Aukera hauetako gehienak baztertuta geratu ziren, zeren eta, interesgarriak izan arren, are zailtasun gehiago ipintzen baitzizkioten berez nahiko konplexua zen eta denbora luzeegia igaro gabe bukatu nahi zen prozesu bati. Gainera, haietako asko ez ziren ondo moldatzen Ararteko erakundearen ezaugarrietara, eta nekez laguntzen zuten planteiatutako lana erakundeak berak zuzenean egiten, hau da, beste bitarteko instantzia batzuetara jo gabe.

1.2.2. BISITALDIETAN ZE HAR

Lehen informazio-iturri gisa geure oharpenak eta kartzelaren erabiltzaileekin (hots, preso dauden pertsonekin) egindako elkarrizketak erabiltzeko aukera metodologikoari jarraituz, honako **garapen kronologikoa** egitea komeni zela ikusi zen:

0. Aldez aurretik: espetxeko zuzendariarekin hitz egin.
1. **Ikusi:** modulo guztiak bisitatu eta instalakuntzak eta ekitaldiak aztertu.
2. **Presoekin hitz egin:** preso batzuekin banan-banan hitz egin, espetxe bakoitzeko lagin moduan.
3. **Lantalde profesional, funtzionario eta zuzendaritzarekin bildu.**

Hasieran, egun desberdina jarri zen goian aipatutako lau puntuetako bakoitzerako. Hau da, lau egun desberdin, haien artean behar bezalako tartea utziz, hiru espetxeetako bakoitzerako. Geroago egiaztatu ahal izango den bezala, hasierako asmo hori ez zen nahikoa izan eta, kasu batzuetan, egun gehiago erabili behar izan genituen bisitaldietan.

Aipatutako lau pausoei buruzko ohar batzuk egitea komeni da:

- * **Aurretiaz espetxeko zuzendariarekin egin behar zen elkarrizketaz.**

Bi helburu zituen: 1) Arartekoaren ekimenaren helburuak, metodologia eta pausoak argitu eta zehaztea; eta 2) espetxe bakoitzari buruzko oinarrizko argibide (datu) batzuk biltzea. (Ikus III. eraskinean lehen elkarrizketan jorratutako alderdiak)

- * **Moduloetara egin beharreko bisitaldiaz eta instalakuntza eta ekitaldien azterketaz.**

Modulo guztiak bisitatzea planteiatu zen, arreta berezia emanaz hitzarmenaren edukiarekin lotura zuzena zeukaten instalakuntza edo ekitaldiei: eritegia, eskolak, lantegiak... (Ikus erreferentziazko zerrenda, IV. eraskina)

- * **Presoekin egin beharreko elkarrizketaz.**

Presoak aukeratzeko orduan, honakoa erabaki zen: modulo bakoitzeko zerrendetatik zozketan lortutako izen batzuk ateratzea; borondatearen eta antzinasunaren arabera zuzentzea (espetxeetara sartu berriak kanpoan utziz); eta hasieran aurikusitako tipologiarekin konparatzea (zerrenda hori bigarren buelta batean osatu, egoera desberdineko irudia erdietsi ahal izateko: gazteak, emakumeak, atzerritarrak...).

Elkarrizketak egiteko lekua aukeratzeko orduan, espetxe bakoitzeko zuzendaritzarekin hitz egin genuen, eta modulo bakoitzean edo sarrerako pasabideetan zeuden langela itxiak erabiltzea erabaki genuen.

Hasieran elkarrizketa guztiz irekia egitea pentsatu zen, hau da, elkarrizketatzailearentzako erreferentzi puntu batzuk besterik ez zituena (ikus V. eraskina). Kasu askotan, lehen elkarrizketa sorta egin ondoren, sistema horren ordez aipatutako erreferentzi puntu horien inguruan hobeto egituratutako beste bat aukeratu zen, mintzakideen interesen edo ahalbideen arabera.

Zer esanik ez, elkarrizketa erabat isilpekoa izango zela ziurtatu zitzairen gutxie. Bestalde, aukera eman zitzairen bai euskaraz, bai gazteleraz, edota

beste hizkuntza batzuetan (baina arazo gehiagorekin kasu honetan) hitz egiteko ere.

Hasieran, elkarrizketa bakoitzaren ondoren halako ohar-sistema bat egitea erabaki zen, protokolo sinplea erabiliz (I. eraskina), ondoko hiru puntu hauek azpimarratzeko: 1) interesguneak; 2) arazoak eta kexak; eta 3) eman litezkeen pausoak. Hemen ere aldaketa batzuk sartu ziren, lehen esperientzien ondoren: kasu askotan, elkarrizketa egiteko moduak aukera ematen zuen -bai eta horretara behartzen ere- hura egin bitartean datuak biltzeko, bukaeraren zain egon gabe; horrela, egindako oharrek askoz fidagarriagoak zirela ziurtatzen zen, mintzakidearen berezko iharduna oztopatu gabe.

* **Lantalde profesional, funtzionario eta zuzendaritzarekiko bilerez.**

Hitzarmenaren edukiak kontutan hartuz, guztiz beharrezkoa iruditu zitzaigun honako hiru lantaldeekin behintzat biltzea:

- tratamendu taldearekin;
- irakasle taldearekin;
- sendagile taldearekin.

Gainera, beste lantalde batzuekin edo funtzionarioen ordezkariekin ere biltzea komeni ote zen aztertzea espetxe bakoitzeko zuzendaritzaren esku utzi zen.

Plangintzan sartutako bilera guztietan antzeko eskema erabili zen -egin beharreko moldaketa jakinekin-, hiru atal nagusi aztertzen zituena:

1. Bakoitzaren ardurapeko alorreko arazo, proposamen eta ekintzak (osasuna, heziketa, informazioa...).
2. Elkarrizketetan presoek azaldutako kexak edo proposamenak eta lantaldeetako kideen iritzia alderatu.
3. Beraien egoera profesionalaz edota espetxeari buruzko gai orokorrez lantaldeetako kideek azaldutako arazo, kexa edo hobetzeko proposamenak jaso.

VI. eraskinean ikus daitezke, adibidez, bilerak aurrera eramateko erabilitako eskemetako batzuk.

1.2.3. **BISITALDIEN ONDOREN**

Arartekoak prestaturiko lan-proposamenean zenbait zeregin aipatzen ziren kartzelatarako bisitak bukatu eta gero egiteko; horien artean hauek dira nagusi:

1. Atxilotuei arreta emateko programekin lotura duten **elkarte eta taldeekin** harremanak izatea.
2. **Elkarrizketetan bildutako datuak aztertu eta interpretatzea** (informazio-iturriak alderatu eta egiaztatzea, konstanteak eta lehentasunak bereiztea, egoera nolakoa den zehaztea...).

3. Euskal Herriko kartzelen egoerari buruzko **txosten osoa idaztea** (azalpena, balorazioa, gomendioak...).
4. Aurrerantzean egin beharreko bisitetarako, **proposamen metodologikoa berriz begiratzea** izandako esperientziaren arabera.
5. **Txostena aurkeztea eta** hiru espetxeei **informazioa itzultzea**.
6. Bai **erakunde arduradunei** (Eusko Legebiltzarra, Kartzelen Estatuko Idazkaritza, gai honekin zerikusirik duten Eusko Jaurlaritzako Sailak - Justizia, Osasuna, Hezkuntza-, aldundiak eta udalak, Presoen Zaintzarako Epaitegia...), bai **gizartean eragina duten taldeei** ere (laguntza emateko programekin loturiko elkarte eta taldeak...) **txostena aurkeztu eta/edo ematea**.
7. Euskal erakundeei dagozkien gomendioak Arartekoaren **ofiziozko jarduera** bilakatu, banan-banako espediente bihurtu, gomendioak zenbateraino betetzen diren **hurbiletik** hobeto **ikuskatzeko**.

Argitaratu eta zabaltzeko asmoz txosten honen idazketa bukatzen ari garen unean (1996ko otsaila), goian aipaturiko zereginetako batzuk dagoeneko eginak daude eta beste batzuk egiteke edo egin-bidean. Hortaz, hemen lehenengoei buruzko hainbat datu azalduko ditugu (arreta berezia eskainiz kartzelai “informazioa itzultzea”ri) eta bigarrenekoei buruzko zenbait aurrikuspen.

* Lehendabizi, atxilotuei laguntza emateko programekin lotura duten **elkarte eta taldeekin izandako harremanen** berri zehatza ematen da txosten honen 2.4. atalean.

* **Informazio-iturriak alderatu eta txostena prestatzeari** dagokionez, lana egiteko erabili ditugun informazio-iturri ezberdinak gauza askotan bat datozela adierazi behar dugu. Batzuetan, txostenean bertan jasotzen dira informazio-iturrien arteko alderaketak (esate baterako, kartzela bakoitzeko atxilotuen eta talde profesionalen artekoa).

Ikus daitekeenez, txostena bakarra da, nahiz eta bertan Autonomia Erkidegoko hiru kartzeletako egoera zehatzak jaso: Basaurikoak, Martutenekoak eta Langraitzekoak (ikus 2.1., 2.2. eta 2.3. atalak). Hiru kartzeletarako analisi-eskema bakarra erabiliz, horien artean konstanteak antzemanaz, guztientzat diagnostiko berbera eginez eta lehenasunezko jarraibideak finkatuz gomendio batzuk egin ahal izan dira, neurri batean edo bestean hiru kartzeletan ezar daitezkeenak, bai haietan egon edo lan egiten duten taldeek jarrai ditzaketenak ere.

* **Hiru kartzelai informazioa itzultzearen** garrantzia azpimarratzea komeni da. Une oro komenigarria iruditu zitzaigun txostenaren behin-betiko idazketa amaitu aurretik informazio hori itzultzea, bai eta lanerako informazio-iturri izan ziren pertsona guztiengana iristea ere, hau da:

- . kartzeletako zuzendariengana;
- . talde profesionalen kideengana (tratamendu taldea, mediku taldea, irakasle taldea...);
- . eta elkarrizketetan parte hartu zuten atxilotuengana.

Horretarako bide egokia **kartzela bakoitzean bilera orokorrak** egitea zela bururatu zitzaigun: bata kartzelako zuzendariarekin eta talde profesionalekin, eta bestea, lehenago elkarrizketatuak izan eta bilerara joan nahi zuten atxilotuekin. Bilerak honako egutegi honi jarraiki egin dira:

- . otsailaren 5a: Langraitz, talde profesionalak;
- . otsailaren 7a: Martutene, atxilotuekin eta talde profesionalekin bilera;
- . otsailaren 12a: Langraitz, atxilotuekin bilera;
- . otsailaren 14a: Basauri, atxilotuekin eta talde profesionalekin bilera.

Bilera guztietan eskema beretsuari lotu gatzaizkio, kasuan kasu beharrezko moldaketak eginez:

- Lanaren aurkezpen orokorra.
- Kartzelan bertan jasotako arazo eta kexen azalpena (atxilotuenena zein talde profesionalena).
- Egoera nolakoa den zehaztea eta lehentasunezko jarraibideak.
- Arartekoaren gomendioen aurkezpena, orokorrera nahiz bereziarena.

Eskainitako informazioa ahozkoa izan da, eta eskemak eta testu idatziaren gainean egindako transparentziak erabili dira azalpenerako. Azalpena zuzenean egiteak, beti ere, zenbait puntu zehazteko eta lanerako beste ekarpen batzuk biltzeko aukera eman du. Horrela, **profesionalekin egindako bileretan**, hauek honelako gaiak aipatu dituzte:

- . Atxilotuen gizarte egoera larriak gizarteratze-lanean duen eragina.
- . Kartzelek burujabetasun handiagoz jarduteko aukeraren aurrean zein jarrera duten.
- . Erakunde desberdinek elkar hartuta honako gai honi heldu beharra: kartzelan legezkanpoko drogen sarrera kontrolatzea.
- . LZen (lanpostu zerrendak) egoera.
- . Osasun-egoerak kartzeletako langileen lan-osasunean duen eragina.
- . Beste talde berezi batzuen egoera, adibidez, sexu-delituengatik zigortutako pertsonena.
- . Profesionalen lana eta beren borondatez ari direnena bereiztea...

Atxilotuekin egindako bileretan, hauek berriro ere aurrez jasotako arazoak aipatu dituzte, horiei lehenbailehen arreta eman beharra, eta askotan arazo horiek konpontzeko dagoen aukera, berrikuntza handiak edo programa berriak egin zain egon gabe. Ez dute, egiaz, kexa berririk egin, baina arazo horietako batzuk elkarrizketetan erakutsi zutena baino indar edo gogortasun handiagoz azaldu dituzte (esate baterako, Langraitzeko kartzelan ez dutela ematen banan-banako arreta).

* Hiru kartzeletako atxilotuei egindako elkarrizketak bukatzean, azaroan, hasieran uste ez genuen egoera bati aurre egin behar izan genion.

Aurrerago egiaztatu ahal izango denez, elkarrizketatu ziren pertsonetako askok azaldu zituzten arazoak, txostenaren eduki orokorra tajutzeko informazio erabilgarria eskaintzeaz gain, argi eta garbi norberaren arazoak ziren eta, hainbat kasutan, eskubide bermatzaile den **Ararteko** erakundeak **gestioren** bat egin zezakeen horien alde. Batzuetan duda-mudakoa zen gestioak bidera zitezkeen

ala ez. Hala ere, behin kasuak banan-banan aztertu eta gero, hiru jarduera mota finkatu ziren:

1. Arazoa zuen pertsonarengana zuzenean jotzea, gure ustez baliagarria izango zuen **informazioa eskaintzeko**.
2. Kasua erakundearen tramitatzen diren **kexa-espedienteetako** bat bezala bideratzea eta, beraz, atxiloturik ez dagoen beste edozein hiritarri ematen zaionaren antzeko erantzuna ematea.
3. Kasurik esanguratsuenak **kartzelako zuzendariari idatzitako gutun** batean biltzea, jakinaren gainean egon zedin eta bere eskumen-esparruan zeuden egoerak konpontzeko aukera izan zezan.

Horrela, elkarrizketak egin ondoko asteetan zenbait gestio egin ziren kasu hauen konponbidea errazteko: telefonoz deiak egin, elkarrizketatuetako batzuei informazio idazkiak bidali, hainbat kexa-espediente zabaldu, kartzela bakoitzeko zuzendariari gutunak idatzi... Txosten hau idazteko unean, azaldutako egoera batzuk dagoeneko egoki konpondu dira eta beste batzuk, berriz, bideratzen ari dira.

* Atal hau bukatzeko, **oraindik egin gabe dauden zereginen** buruzko **aurrikuspen** batzuk adieraziko ditugu, txosten hau argitaratu ondoren gauzatu asmo ditugunak:

- Lanaren edukia **zabald**u: aurkezpenak, lana ematea eta bidaltzea.
- Euskal erakundeekin zerikusirik duten gomendioak Arartekoaren **ofiziozko espediente** bihurtu eta zenbateraino betetzen diren **gertutik ikuskatu** (jarduera mota honen adibide bat txosten honen eraskinean ikus daiteke: “Kartzela barruko droga-kontsumoari eta gaisotasun infektzioen kutsapenari buruz Arartekoak egindako proposamen eta iradokizunak.”)
- **Proposamen metodologikoa berriz aztertu**, aurrerantzean burutuko diren ekintzei begira eta neurketa-erakuskari batzuk egiteko aukerari begira.

II. KARTZELETAKO EGOERA

Haien arazoei buruzko ikuspegia

Txosteneko bigarren zati hau luzeena eta batez ere deskribatzailea izango da. Bertan, Erkidegoko kartzeletan ikusi diren arazoak azalduko ditugu eta, batez ere, beraietan jasotako keak eta balorazioak.

Lehenengo hiru ataletan (2.1., 2.2. eta 2.3.), Basauri, Martutene eta Langraizko zentroyen arazo bereziak jasoko dira zehaztasunez. Beraz, kartzela bakoitza izaera propioa daukan azterketa-unitate gisa hartu da, nahiz eta hiru ataletan antzeko eskema jarraitu den:

- Lehenik, testuingurua finkatzen lagunduko diguten zentroari buruzko oinarriko datu batzuk emango dira, eta gero zentroetara eta beraietan burutzen diren ekintzetara egin diren bisiten bidez ikusi ahal izan diren akatsik nabarmenenak.
- Bigarrenik, egindako elkarrizketetan presoek adierazitako kea edo arazo nagusiak jasotzen dira modu nahiko ordenatuan.
- Eta hirugarrenik, zentroetan lan egiten duten profesionalen taldeekin egindako bileren emaitzen berri ematen da (arazoak, iruzkinak, proposamenak, etab.).

Txostenaren zati hau laugarren atal batekin (2.4.) amaitzen da, eta bertan presoen laguntzarako programa ezberdinetan sartuta dauden elkarte, talde eta erakundeek planteiatutako arazoak eta proposamenak jasotzen dira. Kasu honetan arazoak modu osoagoan planteiatzen dira; ez da, beraz, kartzela bakoitzaren egoera zehazten, guztiek amankomunean dauzkaten aspektuak baizik.

2.1. BASAURIKO KARTZELAKO EGOERA

2.1.1. ZENTROAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIAK, ETA BERTAKO INSTALAZIOAK ETA EKINTZAK EZAGUTZEKO EGINIKO IKUSTALDIA (ALDERDIRIK AIPAGARRIENAK)

* Basauriko kartzelak, erabilera amankomunerako eta zerbitzuetarako zonez gain, presoen erabilerarako beste **lau sail** ere badauzka:

- . sail orokorra (73 zelda);
- . I. modulua (26 zelda);
- . eritegia (18 zelda);
- . atal irekia (16 zelda).

Eraikin nahiko zaharra da (duela 40 bat urte hasi zen erabiltzen); urteak joan ahala mantenimendu eta berriztapen obra txikiak etengabe egin dira, egun daukan itxura eman arte. Kartzela honetan 150 bat langile daude.

* **Prebentiboentzako zentroa izan arren, bertan gaur egun dauden pertsona gehienak zigorpetuak dira**, nahiko kartzela zigor txikiak dauzkatenak eta kondena betetzeko denbora gutxi geratzen zaienak. Txosten honetan erabiliko dugun erreferentzia eguna hartuaz (1995eko irailak 30), hona hemen presoen egoera penalari buruzko datu batzuk:

PRESOEN SAILKAPENA

Basauriko K. (95-09-30)	Preso kopurua	Preso guztien artetik %	Zigorpetuen artetik %
Prebentiboak	99	32%	-
Zigorpetuak			
. 1. graduan	2		%1
. 2. graduan	67		%32
. 3. graduan	98		%47
. sailkatu gabe	43		%20
Zigorp. guztira	210	%68	%100
Presoak guztira	309	%100	-

Pertsona horietatik gehienak lapurreta delituengatik (122), edo osasun publikoaren kontrako delituengatik (69) kondenatuak edo akusatuak daude. Lehenago ere kartzelan egondakoak %61 dira. Badaude 60 intsumiso ere, gehienak hirugarren graduan.

Hirugarren graduan sailkatutakoen artetik 23 kartzelatik kanpo ari dira betetzen kondena, kolektibo ezberdinen **errehabilitazio zentroetan** (Gizakia Helburu, Remar, Etorkintza, etab.). Halere, kartzelako presoek artetik %30 inguruk drogarekin arazoak dauzkatela uste da.

Bestalde, **atal irekian** dauden ia preso guztiak (gehienak intsumisoak) ia egunero irteten dira zentrotik lana egitera, ikastera edo tratamendu terapeutikoetara joateko, eta zentrorra egunero itzultzen dira lo egitera.

- * Talde horren **ezaugarri soziologiko** nagusiak hauek dira:
 - Guztiak **gizonezkoak** dira, kartzela honetan ez baitago emakumezko edo gazteentzako modulorik. Gazteak, normalean, Martuteneko kartzelara eta emakumezkoak Langraizkora eramanehi dituzte.
 - Hona hemen **adinaren arabareko sailkapena**:
 - . 25 urtetik beherakoak: 97 - (%31)
 - . 26 eta 30 urte artekoak: 84 - (%27)
 - . 31 eta 40 urte artekoak: 86 - (%28)
 - . 41 eta 60 urte artekoak: 38 - (%12)
 - . 60 urtetik gorakoak: 4 - (%1)
 - Pertsona horietatik gehienak **Bizkaian bizi** dira (%90), eskualdeen araberako banaketa oso ezberdina delarik. Horrela, adibidez, guztietatik %17 San Frantzisko auzoan bizi da, edo %12,5 Otxarkoaga aldean. Bizkaian bizi diren artetik asko jatorriz atzeritarrak dira.
 - Daukaten **ikasketa mailari** dagokionez, aipatzekoa da pertsona hauetako %80k ez dituztela gainditu lehen heziketako ikasketak.

* * *

Basauriko kartzelara egindako bisitak Arartekoak berak, Ondokoak eta erakundeko aholkularietako batek burutu zituzten, ondoren aipatzen diren egunetan:

- . irailak 6: instalazioak eta ekintzak ezagutu.
- . urriak 3: datuak bildu eta lagina aukeratu.
- . urriak 11: presoak elkarrizketatu.
- . urriak 24: profesionalen taldeekin bildu.

Kartzela eta bertan burutzen diren ekintzak ezagutu eta gero, **ondorio orokor hau atera genuen: zentroak presoek premiei behar bezala erantzuteko mugak dauzka (zaharra delako eta daukan egituragatik)**, instalazioak hobetzeko eta aipatutako premietara egokitzeko ahaleginak etengabe egiten diren arren. **Adieraz daitezkeen akats gehienak lehen aipatu diren oinarrizko mugapenetatik sortuak dira.** Esate baterako:

- Lehenago esan den bezala, **emakumeentzako eta gazteentzako modulorik ez dago**, eta horregatik pertsona horiek beraien inguruetik urrutiratu behar izaten dira, haien bergizarteratzeari begira horrek dakartzan ondorioekin.

- **Zelda ia guztiak pertsona batek baino gehiagok erabili beharra.** Dauden espazioen erabilera etengabe aldatzen den arren, esan daiteke 50 bat zelda (gehienak I. modulokoak eta eritegikoak, eta apur batzuk sail orokorrekoak eta atal irekikoak) erabiltzen direla presoak bakarka edukitzeko; gainerantzekoak batek baino gehiagok erabiltzen dituzte. Sail orokorreko zeldak, adibidez I. modulokoak baino handiagoak dira, baina horien erabilpen maila ere altuagoa da: 170 preso 73 zeldatan; horrek esan nahi du batez beste zelda bakoitzean 2,3 preso daudela. Proporzio hori are handiagoa da atal irekian.
- **Lantoki erabilera duten espazioak txikiegiak dira**, dagoen preso kopurua ikusita. Izan ere, era jarraituan bi lantoki produktibo aritzen dira lanean (kartoia eta kableak lantzen dira), eta prestakuntz lanetarako beste hiru lantoki daude (aroztegia, igeltsaritza eta iturgintza, eta pintura).
- Antzeko zerbait gertatzen da **ikasgela erabilera duten lokalekin**. Zentroan dauden pertsonen ezaugarriak kontuan izanik (ikasketa maila...), desiragarria litzateke kartzelan pasatu behar duten denbora ikasten erabiltzeko aukera gehiago emango balitzaie.
- **Liburutegiaren** zerbitzua asko hobetuko litzateke liburuak eguneratu eta presoen interes eta gaitasunetara egokituko balira.
- Zentroaren zahartasunagatik eta eraikuntza lanetan erabilitako materialengatik, kasu batzuetan **garbitasun** sakona egiteko eta bazterrak txukun edukitzeko zailtasunak daude. Hori oso nabaria da, esate baterako, instalazio amankomunetan, dutxetan edo komunetan. Beste kasu batzuetan, zentroa egoera onean **edukitzeko** lan handia egin behar da (etengabeko pintaketa lanak, etab.); beste material batzuk egongo balira, garbiketa lan horiek asko murriztuko lirateke, adibidez axuleiua jarriaz.
- Presoekin ikastaroak eta praktikak burutzeko ordenagailuak dauzkan gela bat dago; deigarria da, ordea, zentroaren beraren gestiorako (presoen espedienteak, tramitazioak, kondena kitapenak, etab.) **azpiegitura informatiko egokirik** ez egotea.

2.1.2. **PRESOEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETAK (ELKARRIZKETATUEN IRITZIAK)**

Urriaren 11an egin ziren Basauriko kartzelako presoekiko elkarrizketak. Horretarako, erakundeko hiru pertsona joan ziren zentrora: Arartekoa bera, Ondokoa eta aholkularietako bat. Modulo edo sailetarako sarrera-pasiloetan zentroko zuzendaritzak eginkizun horretarako egokitu zituen hiru bulegotan egin ziren elkarrizketak. Guztira 21 presorekin hitz egin zen.

Aldez aurretik, urriaren 3an egin zen **elkarrizketatuko ziren presoek hautaketa**. Horretarako, urriaren 2an kartzelan zeuden preso guztien zerrenda erabili zen (303 preso, alfabetoaren arabera ordenatuak), eta modulo edo sail bakoitzeko preso guztien artetik %7 elkarrizketatzea erabaki zen.

Hautaketa hori Ararteko erakundeak berak egin zuen, zentroak eskuratutako zerrendatik presoak zoriz aukeratuz. Zorizko irizpide hori bi kasutan bakarrik zuzendu zen: batean, elkarrizketatuko zen pertsonak egun gutxi barru kartzela utzi behar zuelako, egun gutxi zeramatzalako edo kartzelan beste leku batzuetara eraman zain zegoelako (bi kasu); eta, bestean, aukeratutako pertsona gaztelaraz hitz egiteko zailtasun handiak zeuzkan atzerritarra zelako (kartzelako hezitzaileen esanetan, zoriz aukeratutako pertsona bat egoera horretan zegoen). Kasu horietan, aurrena aukeratutako presoaren ordeztu, zerrendan ondoren zegoena aukeratu zen.

Irizpide horien arabera, elkarrizketatuak izateko pertsonen banaketa eta sailkapena ondorengoak izan zen:

- . Sartu berrien moduloa: 2 preso (1 prebentiboa eta 1 zigorpetua)
- . Sail orokorreko goiko solairua: 8 preso (4 prebentibo eta 4 zigorpetu)
- . Sail orokorreko behe solairua: 3 preso (1 prebentiboa eta 2 zigorpetu)
- . Eritegia: 2 preso (1 prebentiboa eta 1 zigorpetua)
- . Atal irekia: 7 preso (zazpiak zigorpetuak)

Sail bakoitzean, beharra gertatuta ere, «ordezko» batzuk aukeratu ziren, aukeratutako pertsonaren batek elkarrizketara joan nahi ez zuen kasurako: izan ere, esan behar da elkarrizketak beti borondazteko eginkizun gisa planteatu zirela. Atal irekiko zerrendan irizpide berberak jarraitu ziren, nahiz eta jakin, atal horretako presoak zentrorra lotara bakarrik joaten zirenez gero, gehienak ez zirela elkarrizketara joango.

Zerrenda erabat finkatu baino lehen, zentroko zuzendaritzarekin eta hezitzaile batekin kontrastatu zen, beraien iritziz aukeratutako laginak zentroko ohizko egoera ezberdinak biltzen zituen jakiteko. Aukeratutako presoan zerrenda eta aldeztu aurretik ezarritako tipologia alderatu eta gero, ez zen inolako aldaketarik egin.

Zentroaren esku utzi zen presoek elkarrizketarako aukeratuak izan zirela adierazteko eta beraien oniritzia edo ezetza jasotzeko ardura. Hezitzaileek hitzez eta zuzenean adierazpen hori egiteaz gain, Arartekoaren eta zentroko zuzendaritzaren artean informazio-ohar bat idatzi eta modulo bakoitzeko iragarki-oholetan ipini zen.

Aukeratutako pertsonen artetik batek bakarrik esan zuen ez zuela elkarrizketan parte hartu nahi. Alabaina, benetan elkarrizketatu ziren presoan eta osatuta zegoen zerrendaren artean aldeak egon ziren:

- . Bigarren graduko bi intsumisok «taldearen ordezkari gisa» Arartekoarekin hitz egitea eskatu zuten. Aldiz, atal irekitik zoriz aukeratuta zeuden lau intsumisoak ez ziren elkarrizketara aurkeztu, lehen aipatutako bi pertsonen ordezkatzeko zituztela pentsatu zutelako.
- . Sarrera-moduloko preso batek eta goiko solairuko beste bik formalki eskatu zuten errezibituak izatea, eta horrela horiek ere elkarrizketatu beharrekoen artean sartu ziren.

Horrela, bada, aldeztu aurretik osatutako zerrendan ez zeuden bost preso elkarrizketatu ziren beraien eskariz. Bestalde, hasierako zerrendan finkatutakoetatik

sei ez ziren elkarrizketara agertu. Horietako gehienak erregimen irekian zeuden eta, beraz, elkarrizketak egin ziren orduetan ez zeuden espetxean.

* * *

Presoak behar bezala aukeratzeko eta elkarrizketak egiteko aldez aurretik emandako pausoak azaldu ondoren, elkarrizketa horietatik ateratako ondoriorik adierazgarrienen berri emango dugu. **Oinarrizko bi alor azpimarratu behar dira:**

- A/ Elkarrizketatuek beraiek **adierazitako interesguneak** (beraiek behin eta berriz azaltzen edo gehien azpimarratzen dituztenak).
- B/ Zentroan bizi duten egoerarekin lotuta dauden aspektu ezberdinengatik **azaldutako arazoak edo kexak.**

Ezer baino lehen, agian, **bi ohar** egitea komeni da:

- . Elkarrizketa bat baino gehiagotan, presoak beraien arazoetara mugatu ziren, kartzelaren egoera orokorrari buruzko baloraziorik edo ekarpen orokorrik egin gabe. Ekarpene guztiak baloratu eta kontuan hartu dira, baita pertsonalenak ere, era honetako txosten batek horretarako aukera ematen duen neurrian.
- . Txostenean, hitzarmen nagusiaren edukiei zuzenean dagozkien gaiak sarritan azpimarratzen ditugu, nahiz eta beti ez izan presoak gehien kezkatzen dituztenak. Edonola, presoek adierazitako beste gaiak ere aipatzen dira, hitzarmenaren edukiekin harreman zuzenik ez daukaten arren.

A/ Elkarrizketatuek adierazitako interesgune nagusiak.

Adierazi den bezala, elkarrizketatutako preso asko beraien egoeraz biziki kezkatuta daudenez gero, elkarrizketa beraien arazoak azaltzeko aprobetxatu dute, pentsatzekoa den bezala. Informazio hori, zentroaren errealitate orokorretik kanpo dagoen arren, guztiz baliagarria da lan honetan iragarritako helburuak lortzeko, eta errealitate eta ikuspegi pertsonal ezberdinetara hurbiltzeko.

Gainera, batzuek eta besteek behin eta berriz adierazitako hainbat punturen bidez, pertsona horien interesgunean dauden kezkek ezagutzeko ere aukera egoten da. **Elkarrizketetan behin eta berriz azaldu diren kezka nagusiak osasuna, lana, kanpoarekiko harremanak, etabar ageri dira.** Adibidez, hauek dira puntu horietako batzuk:

- . HIES gaitzaren arazoa eta kutsatzeko arriskuak;
- . drogaren arazoa eta xiringarik eza;
- . ikasgela eskasia;
- . lantokietan sartzeko aukera: ordainketa eta kartzela zigorra arintzeko aukerak;
- . «destinoak» emateko irizpideak;
- . kartzelatik irtetean lana lortzeko aukera;
- . irteera-baimen aukerak;
- . familiaren egoera...

Hemen drogaren arazoa azpimarratu behar da, pertsona askok planteiatu dutelako batetik eta, bestetik, osasun alorra ukitzen duelako. Horrekin batera xiringa falta eta ondorioz HIES gaisotasuna eta beste gaisotasun batzuk kutsatzeko dagoen arriskua azpimarratu behar dira.

B/ Arazo edo kexa azpimarragarriak.

Elkarrizketetan behin eta berriz adierazi zitzaizkigun kexak hiru multzo handitan laburbil daitezke:

- a) aspektu juridikoei dagozkienak;
- b) zentroko bizitzari zuzenean dagozkienak;
- c) kartzelatik kanpoko munduarekiko harremanei dagozkienak.

Kontuan hartu behar da kexa hauetako batzuk geroago zentroko talde profesionalek zehaztuko dituztela (ikus 2.1.3., C atala).

a) Lehenengo multzoan, **aspektu juridikoarekin edo egoera prozesalarekin nabarmen lotutako kexen** artean ondorengoak aipa ditzakegu:

- . kondena ez zela zuzena izan, edo egungo egoera ez dela zuzena;
- . epaituak izan aurretik kartzelan igaro beharreko denbora luzeegia da;
- . laguntza juridikorako zerbitzuen akatsak (presoentzako laguntza-txanda);
- . abokatu defendatzaileen jokaeren kontrako kexak;
- . Presoen Zaintzarako Epaitegiaren jokaeren edo eskuhartze faltaren kontrako kexak.

Atal honetan abokatu defendatzaileen jokaeren kontrako kexa kopuru handia azpimarratu behar da. Kexa horiek ofiziozko abokatuen nahiz abokatu partikularren kontra doaz (gehiegizko ordainsariak, kasuarekiko ardura edo dedikazio eskasa...), eta baita abokatu bazkundeen kontra ere (presoentzako laguntza-txandaren aholkularitza juridikorako zerbitzuaren akatsak, idatziei erantzunik ez ematea...).

b) Bigarren multzoan, **kartzelako funtzionamenduarekin zuzenean lotutako kexa ugariak** bil ditzakegu; horien artean, bi multzo egin daitezke:

- * **Bizi-baldintzei buruzko kexak:**
 - . preso batek baino gehiagok erabili beharreko zeldetan dauden espazio arazoak;
 - . otorduei buruzkoak (kantitatea, prestaketa, gero eta txarragoa, egun jakinetako menua...);
 - . egoera higienikoa (dutxa amankomunen garbiketa, patioko komunen egoera...).

- * **Formaziorako eta garapen pertsonalerako ekintzei buruzko kexak:**
 - . ekintza eta aisiarako aukerarik eza;

- . lantokiaren eta beste alor batzuen kudeaketan parte hartzeko preso batzorderik ez egotea...

* **Funtzionario eta tratamendu-pertsonalarekiko harremani buruzko kexak:**

- . graduen berrazterketak araudiak agintzen dituen pauso guztiak eman gabe burutzea: epeak, egoera pertsonala hobeto ezagutzeko aukera ematen duten harreman zuzenak...
- . parteak eta zigorrak, eta horiek kartzela zigorra arintzean dituzten ondorioak;
- . gizarte laguntzarako zerbitzuen laguntza pertsonal urria;
- . eskubideei, preso bakoitzak kartzelan bizi duen egoerari, kartzela-zigorra betetzeko alternatibei eta abarri buruzko informazio urria;
- . burokrazia (tramiteen moteltasuna, dokumentazioak galtzea, eskariei ez erantzutea...).

* **Osasun zerbitzuei eta droga kontsumoari buruzko kexak:**

- . sendagileen arretaren inguruko arazoak, bai zentroko sendagileekin eta baita Osakidetzaren zerbitzuarekin ere;
- . laguntza psikiatrikorik eza, zerbitzua kendu delako;
- . xiringarik eza eta droga kontsumoarekin lotutako arazoak.

Esan behar da kexa horietako batzuk preso bakar batek aurkeztu dituela. Beste kasu batzuetan, ordea, adostasun handia dago. Adibidez, otorduei dagozkien kexak edo sendagileen laguntzari buruzkoak nahiko orokorrak izan dira.

c) Hirugarren multzoan **kartzelako munduaren eta kanpoko munduaren arteko harremani dagozkien kexak** bil ditzakegu:

- . preso dagoenak konpondu ezinezko familia egoera oso zailak (adibidez, baliabiderik eza);
- . errehabilitazio egitarauekin jarraitzeko arazoak (zentroan bertan metadona lortzeko, kanpora irtetean tratamenduarekin jarraitzeko...);
- . HIES gaitzagarri hiltzearen dauden gaisoei Arautegi Penitentziarioko 60. artikulua ezartzeko zailtasunak;
- . kartzelatik irten ondorengo dirulaguntza lortzeko arazoak (aukera hori galdu egiten da arintze bereziengatik, laguntzak jasotzeko eskubidea edukitzeko eskatzen den gutxienezko denboran eragina dutenean...);
- . ospitaleetara egiten diren joan-etorrietan Ertzaintzak ematen dien errespetu gutxiko tratua;
- . komunitate terapeutiko batzuen funtzionamendu-irizpideekiko desadostasuna...

Atal honetan, **familiarekin harremanak izateko dauzkaten arazoei buruzko kexak** ere aipatu behar dira, elkarrizketatu gehienek oso garrantzi handia ematen diotelako gai horri:

- . presoek eta familiartekoez «aurrez aurreko» bisitetan jasan beharreko biluzketak eta miaketak;

- . bisiten eta komunikazioen maiztasuna (gutxiegitan);
- . telefonozko harremanak: hilean behin, irizpide zorrotzegiak eta intimitaterik eza;
- . gutunen bidalketa motelegia;
- . bisitetarako denbora erreala baimendua baino motzagoa izatea...

* * *

Atal honi buruzko **azken gogoeten artean**, hiru hauek jasotzen ditugu:

- . Preso batzuek ez dute inolako kexarik azaldu nahi, ezta zuzenean kexa zehatzen bat aurkeztu nahi al duten galdetzen zaienean ere. Sarritan, lantoki produktiboetan lanpostua daukatenak edo halako destino jakin bat daukatenak dira, eta hori, askorentzat, egoera «pribilegiatua» da beste batzuen aldean, eta ez dute galdu nahi. Interesgarria litzateke aztertzea era horretako egoerek zenbateko eragina eduki dezaketen kritikarik ezean, edo egoera pertsonalek zenbateraino baldintzatzen duten presoaren askatasuna gauzak adierazteko orduan.

Agian, egoera ezberdin horietan eta, beraz, ikuspegi ezberdin horretan egon daiteke zerbitzu jakin batzuei buruz batzuek eta besteek adierazitako balorazio subjektiboaren artean aurkitutako kontraesan txikien zergatia.

- . Kasu apur batzuetan, elkarrizketatuek beren kabuz azaldu dizkigute kartzelako egoera hobetzeko konponbideak eta proposamenak. Proposamenen artean guztiei lana egiteko aukera ematea, edo ikasketa maila jakin bat ez daukatenak hori lortzera behartzea, eta abar daude. Pertsona batek ez zuen kartzela-sistema hobetzeko inolako proposamenik egin nahi izan, sistema hori bere pentsamoldearen aurka doala eta ez lukeela esistitu beharko adieraziz.
- . Kasuren batzuetan, elkarrizketatuek Basauriko kartzela beste batzuekin konparatu dute beraien esperientziaren arabera. Oro har, konparaketa Basauriko zentroaren aldekoa izan da.

Amaitzeko, gogoratu behar da, izaera oso pertsonala zeukaten kexa batzuk ikusi ondoren Ararteko erakundeak berehala erabaki zuela jarduera batzuk egitea, txosten honetako 1.2.3 atalean ikus daitekeen bezala.

2.1.3. **PROFESIONALEKIN EGINDAKO BILERAK (PLANTEIATUTAKO GAIK)**

Basauriko Espetxean ondorengo taldeak izan ziren bileretan parte hartu zutenak:

- . tratamendu taldea;
- . irakasle taldea;
- . sendagile taldea;
- . drogamenpekotasuna sendatzeko egitarauko laguntzaile-taldea.

Egin ziren bilera guztietan antzeko eskema jarraitu zen (ikus 1.2.2. eta VI. eraskina), hitzarmen nagusian iragarritako alorren artetik (hezkuntza, osasuna...) lantalde bakoitzaren ardurapekoei arreta berezia eskainiz.

Alor bakoitzeko edukien azterketara pasa aurretik guztiei eskatu zitzairen hitzarmen nagusiari buruzko eta gaur arteko bere garapenari buruzko balorazio orokorra. Era berean, bileren bigarren partean elkarrizketatutako preso batzuek emandako (beraien lanarekin zerikusia zutenak) erantzunak kontrastatu ziren beraiekin, bai eta profesionalen keak eta proposamenak jaso ere.

Hemen, bileren emaitzak jasotzeko orduan ondorengo eskema erabiliko dugu:

- A/ Hitzarmen nagusiaren balorazio orokorra.
- B/ Iharduera eremu bakoitzari buruzko azterketa.
- C/ Elkarrizketatutako presoek emandako informazioei lantaldeek egindako iruzkinak.
- D/ Profesionalen arazo bereziak eta proposatutako hobekuntzak.

* * *

A/ Hitzarmen nagusiaren balorazio orokorra

Lantalde guztiek uste dute hitzarmena gauzak hobetzeko eta elkarlanerako tresna izan daitekeela, baina oraindik ez direla agerian jarri ematen dituen aukerak: iharduera eremu batzuetan ez da bereziki aurrera egin, ez da sailekin hitzarmenik egin, programak zehazterakoan ez da alorretako profesionalekin kontatu, etab.; are gehiago, profesional batzuek ez dute hitzarmenaren edukia ezagutu ere egiten.

Orokorrean hau da profesionalek uste dutena: alor gehienetan ekintzak burutzen dira, baina ez hitzarmenak proposatzen duelako, baizik eta lehenago egiten zenari jarraituz. Are gehiago, batzuen ustez hitzarmena beste zama bat da: orain azalpenak beste bati ere (Eusko Jaurlaritzari) eman behar.

B/ Iharduera eremu bakoitzari buruzko azterketa

Gehien azpimarratu diren gaiak bakarrik jasoko dira hemen.

a) Informazio alorra

- * **Presoei informazioa helarazteko hainbat sistema** desberdin erabiltzen dira (liburuskak, taldeek beraiek osatutako informazio gidak, argitaratutako gidak, Salhaketak osatutakoa bezalakoak, etab.), baina gauzak argiagoak eta ulergarriagoak izan daitezen, informazioa helarazteko moduak zaindu egin behar direla uste dute. Biderik onena hitzez adieraztea dela uste da, arreta berezia ipiniz irakurtzen ez dakitenekin edo irakurtzen dutena ulertzeko zailtasunak dituztenekin, eta gaztelera ulertzen ez dutenekin.

- * Presoentzako laguntza-txandako abokatuek daramaten **aholkularitza juridikorako** egitarauari dagokionez, profesionalek uste dute ideia ona dela, baina errealitatean arazo asko daudela: abokatuen esperientzia eskasa, zentrorra joaten direnen aldaketa ugariak... Abokatu horiek dagokien lana zuzen burutzeko prestaketa berezia behar dute profesionalen ustetan.
- * Zentroak berak 1995erako proposatu dituen ihardueren artean, ontzat hartzen dira irratia-emisora eta zentroko aldizkaria, eta txartzat **azpiegitura informatikorik eza**, berez espedienteak, zerbitzuak, etab. kudeatzen lagundu eta, horrela, presoek informazio eguneratua emateko bidea emango lukeena.
- * Presoak kartzelatik ateratzen direnerako **zerbitzuen gida edukitzeko premia** ikusten da. Gida orokor eta berezia izan beharko luke.

b) Heziketa alorra

- * Hasteko, **zentroan burutzen diren ikasketak iharduerari buruzko oinarriko datuak** jasotzea komeni da²:
 - . Helduen Heziketa Iraunkorra. Maila ezberdinak:
 - Alfabetizazioa eta neoirakurleak: 8
 - Eskola ziurtagiria: 20
 - Eskola graduatua: 5
 - . Lanbide Heziketa Arautua: ez dago.
 - . Batxilergoa: 7 ikasle (urrundikoa, astean behin tutorearekin).
 - . Unibertsitateko ikasketak : 5 ikasle.
 - . Atzerritarrentzako gaztelerazko ikastaro osagarriak (9), euskara (8) eta informatika.
 - . Unibertsitatean sartzeko ikasketak.
 Irakasleek eta ikasleek oso ontzat hartzen dituzte iharduera horiek. Halere, preso guztien kopuruaren arabera gutxi direla (laurden bat baino gutxiago) eta alfabetatu gabeko eta behar adina alfabetatuta ez daudenezko derrigortasun erreala ezarri beharko litzatekeela uste dute.
- * **Gabezien** artean ondorengoak dira azpimarragarrienak:
 - . **Liburutegia**: testuliburuak, kontsulta, irakurketa eta beste helburu batzuk dituzten liburuak ez dira egokiak, presoen ezaugarri eta

² Gogorarazi behar da datu hauek balio erlatiboa dutela eta asko aldatu direla ikasturtean zehar, batez ere prebentiboen zentroa den Basauriko kartzelan. Hemen agertzen diren datuak irakasle taldearekin egindako bilerakoak dira.

interesetara egokitzen ez direlako. Aldundietara, Eusko Jaurlaritzara eta beste erakunde batzuetara liburu eske jo izan den arren, gehienetan ez da ezer lortu; beste kasu batzuetan liburuak iritsi izan dira (erakundeen argitalpenak, adibidez), baina presoen beharrei erantzuten ez dietenak.

- . **Ikasgelak**: zentroan amankomunean erabiltzeko gela gutxi daudenez gero, ikasgelak hainbat gauza ezberdinetarako erabiltzen dira (meza, lantokiak, etab.).
 - . **Ordenagailu, fotokopiadora** eta antzekorik ez egotea materialak prestatzeko.
 - . Aurrez aurreko **tutoretza** nahikoa ez izatea, ez Urrutiko Batxilergorako Euskal Institutukoa, ezta Unibertsitatekoa ere.
- * Basauriko HHIrako ikastetxearekin dauden harremanak (horri atxikiak daude eta harreman estuak dauzkate), eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko irakasle bat kartzelako irakasle taldean sartu izana positiboki baloratzen da. Halere, hori ez da irtenbiderik onena ezta epe luzerako soluzioa ere, eta horregatik kartzeletako heziketa sistema publiko orokorrean sartzea da helburua.
- * Zentroan ikasketak burutzeko orduan hiru arazo nagusi ikusten dira, ikasketak burutzeko aukerak guztiz baldintzatzen dituztenak, gainera:
- . **Eskoletara joateko behar adina motibazio edo bultzagarri** ez egotea: beste ekintza batzuk burutzeagatik baino kondena-arintze txikiagoa lortzen da, eskoletara modu jarraituan joateko arazoak daude, eskola orduetan beste ekintza batzuk ere burutzen dira, eta batzuek besteei lehia egiten diete, presoek aurretik ikasle gisa dauzkaten esperientzia txarrak... Gutxienez, ikasteagatik lortzen den kondena-arintzeak beste ekintza batzuk burutzeagatik ematen denaren antzekoa izan beharko luke (adibidez destinoengatik murrizten denaren parekoa), eta bestetik, alfabetatuta ez daudenentzako lehentasunezkoak izan beharko luteke.
 - . **Kartzelen barruan, irakaskuntza bigarren mailako kontutzat hartzea**, lehentasunik eman gabe eta tratamendu-lanarekin loturarik gabe.
 - . **Zenbait talderengana iristeko zailtasuna** (adibidez, hogeit hamar drogamenpeko gazte), ez dutelako inolako ekintzatan parte hartzen (ez dira eskolara joaten, ez dute destinoetan, ez lantokietan lan egiten...), batzuetan denbora luzean.

c) Lanerako prestakekuntza eta enplegu-suspertzearen alorra

- * Urtez urte ematen diren lanerako prestaketa **ikastaroei** buruz balorazio positiboa dago; halere, behar adina ez omen dira ematen eta zentroaren ezaugarrietara eta kanpoko lan merkatura ez omen dira beti egokitzen.

- * Zentroan dauden erabilera amankomuneko **gelen** mugapenak kontuan izanik, ezin dira lantoki gehiago eratu, ez lanerako prestaketa emateko ez eta lantoki produktiboak eratzeko ere.
- * Konponbideetako bat **kanpoan INEMek** antolatzen dituen **ikastaroetara joatea** litzateke, baina joan-etorrietarako aurrekontua eta beste arazo ekonomiko batzuk direla medio, praktikan aukera hori mugatuta dago.
- * **Hirugarren graduko presoak edo kartzelatik irten berriak kontratatze**ko sistemak sustatzea oso garrantzitsutzat jotzen dute. Badira bergizarteratzeko plazaren bat gorde ohi duten udal batzuk, baina, oro har, hitzarmenean jasota dagoen aspektu hori ez da garatu, garrantzi handikoa izan arren.
- * Eragozpenak daude kartzela **lanbide heziketa arautua** ematen duen zentrotzat hartzeko (presoen mugitzeko aukera, gelarik eza eta hornidura desegokiak...), eta edonola, preso kopuru txiki bati bakarrik erantzungo lioke.

d) Suspertze pertsonalaren alorra

- * Kirol ekintzetarako **material eskasia** handi samarrak ikusten dira (pantio txikiegia, frontoi estali gabea, gimnasio txikia...); pertsonala ere ez da nahikoa (monitore gutxiegi, egiten zaizkien kontratazioengatik jarraitzeko aukerarik eza...)
- * Kultur ekintzei dagokienez, erakunde ezberdinek (Udalak, Kultur Etxeak, Athletic-ek...) daukaten parte hartze maila positibotzat jotzen da. **Alderdi positiboan** artean, daukaten ezaugarriengatik eta ematen dituzten aukerengatik ondorengo biak ere jaso behar dira: irrati emisora eta tailerra batetik, eta zentroan bertan egiten den *Carcelaria* aldizkariaren argitalpena bestetik.

e) Osasun alorra

- * Hitzarmen nagusian jasotzen diren gai ezberdinen artean, Osakidetzaren sareko zentroetan **laguntza espezializatua** emateari buruzkoa da gehien baloratzen dena. Aurrekoak bezain garrantzitsuak diren beste aspektu batzuk oraindik garatu gabe daude, hala nola: **laguntza farmazeutikoa, osasun mentaleko** arazoak dituztenentzako laguntza, edo osasun saileko langileen **preskaketa iraunkorra**.
- * Gaur egun dagoen **zentrorako espezialisten** laguntza sistema aldatu egin beharko litzateke: Erakunde Penitentziarioak orduka kontratatutako

espezialista pribatuen ordeztu, osasun sare publikoko espezialistak jartzea komeniko litzateke.

- * **Gaisotasun kutsagarrien jarraipenari** dagokionez (HIES, tuberkulosis, etab.), erabiltzen den politika zuzentzat hartzen dute, baina arazo asko omen ditu: tratamenduak oso luzeak dira, osasun ohiturarik ez dago, kartzelatik irten ondoren tratamenduekin jarraitzeko arazoak daude, eta abar.
- * Zentroan **xiringak trukatzeko proposamenaren aurrean**, planteamendu orokorrakoak egiteko eta hainbat iharduera ezberdin burutzeko premia ikusten da. Horrela, arau mailan dauden zenbait kontraesan gainditu ahal izango lirateke, desinfektatze-neurrien premia azpimarratu, etabar. Arazo konplexua da, eta horren inguruan jarrera nahiko ezberdinak eta baita kontrajarriak ere badaude.
- * **Arautegi Penitentiarioak 60. artikuluan xedatzen duena gaiso sendaezinei ezartzeari dagokionez**, historian zehar egon diren irizpide aldaketak jasotzen dira. Irizpide horiek garai batzuetan besteetan baino murriztaileagoak izan dira eta arau-hausteen, gizartearen sentiberatasunaren eta beste baldintza batzuen arabera aldatuz joan dira. Bestalde, aipatutako artikulua HIESdunei ezartzeko dauden zailtasunak ere azpimarratzen dira, besteak beste gaisotasunaren bilakaera jakiteko dauden arazoengatik.
- * Jaso diren **gabezia materialen** artean, ondorengoak azpimarra daitezke:
 - . zentroaren egitura mailako arazoak, higiene-osasun baldintza onetan edukitzea galarazten dutenak;
 - . ordenagailurik ez egotea historia klinikoak eta abar kudeatzeko;
 - . material kliniko-sanitarioa berritzeko arazoak (adibidez, X izpien aparailuak urtebete hondatuta darama).
- * **Drogamenpekoak diren pertsonen laguntzarako gaur egun dauden egitarauen mugak** ere azpimarratzen dira.

f) Gizarte laguntzarako alorra

Alor honen barruan adierazitako alderdi negatiboak ondorengoak dira:

- * **Talde berezi jakin batzuei**, ijitoei adibidez, eman beharreko gizarte laguntza mailako arazoak (familien egoera, eskolaratzea, etab.).
- * Oinarritzko gizarte zerbitzuen eta kartzelaz kanpoko beste zerbitzu batzuen arteko **koordinaziorako** biderik eza; arazo hori konpontzeko harreman informalen eta borondate onaren bidetik jotzen da.

- * Erabateko pobrezian dauden pertsoneri (preso-ohiei eta beraien familiei) laguntzeko gutxienezko **baliabiderik** ez egotea kartzelatik irteten direnean. Arazo honekin topo egin dezakete kartzelatik irten berriek, baita etxera itzultzeko ere.

g) Erregimen irekia

- * Basauriko kartzelan preso asko daude kartzela-zigorra erregimen irekian betetzen dutenak, hainbat egoera ezberdinetan. Horrela, berrogeita hamar bat intsumiso egunero irteten dira kartzelatik eta gauzez lotara itzultzen dira; droga arazoak dituzten hogeit hamar presotik gora zentro terapeutikoetan ari dira betetzen ezarrita daukaten kartzela zigorra, kartzelatik kanpo beraz...
Oro har, **bide alternatibo horien garrantzia** azpimarratzen da, eta horiei buruzko balorazioa oso positiboa da, nahiz eta horien ardua daukaten elkarteetan (Gizakia Helburu, Etorikintza, Remar, etab...), ezberdintasunak nabaritu.
- * **Alderdi negatiboan** artean ondorengoak azpimarratzen dira:
 - . Gaur egun tratamendu alternatiboetarako dauden aukera urriak. Adibidez, APren 57.1. artikulua ezarri, aukerak gehitu egin beharko liriateke.
 - . Talde batzuentzat ez dago alternatiba egiazkorik. Talde horiek ondorengoak dira, besteak beste: kartzela zigor txikietara kondenatutako gazteak, adimen urrikoak eta ijitoak (kasu honetan elkarte batzuek esijitzen dutenaren eta ijitoen kulturak ezartzen duenaren arteko kontraesanengatik).
 - . Kanpoko taldeen eta zentroko profesionalen lantaldeen arteko koordinaziorako eta jarraipenerako zailtasunak.
 - . Hirugarren graduan egonda, lanera edo tratamenduetara joaten diren presoan joan-etorriak ordaintzeko arazo ekonomikoak.
- * 1995erako zenbait aurrikuspen eta **proposamen** iragarrita zeuden (eguneko zentro bat sortzea eta toxikomanoentzako pisu-zubi bat), baina ezin izan dira martxan jarri.
- * Martuteneko espetxearen ardurapean, hitzarmen bidez **Ametzagaña** Fundazioak kudeatzen duen **gazteentzako unitateari** dagokionez, unitateak gaur egun daukan desaprobatxamendua gainditzeko aldaketa handiak egiteko premia ikusten da. Unitate horretako postu guztiak bete gabe daude bertan sartzeko eskatzen diren ezaugarriengatik («*ia-ia arazorik gabeko pertsonak*») eta presoan egiazko ezaugarrien arteko desegokitasunagatik. Horretarako, hitzarmena aldatu beharko litzateke (ezaugarriak zabaldu, adinaren muga luzatu...) eta, ondorioz, heziketa proiektua ere aldatu beharko litzateke (ez diezaion lan premiei bakarrik erantzun), premia berrien arabera.

C/ **Elkarrizketatutako presoek emandako informazioei lantaldeek egindako iruzkinak**

Presoek elkarrizketetan azaldu zituzten **kritika gehienekin ados** daude zentroko profesionalak.

Desadostasunik nabarienak edo iruzkinak ondorengo gaietan egon ziren:

- **Ohizko sendagile laguntzari** dagokionez: zentroko profesionalen ustez, laguntza hori kalean askatasunean dagoen edozein hiritarrek jasoko lukeena baino hobea ere bada. Profesional horien iritziz, osasun ohiturarik eza, tratamendu luzeak jarraitzeko arazo pertsonalak, «norberak eskatuta» kontsultara joateko sistema ez aprobetxatzea eta antzekoak dira dauden arazoak.
- Instalazioetako **osasun baldintzak** edo **janarien** inguruko zenbait puntu kritikatu dituzte presoek, eta profesionalak horietariko batzuekin ez daude ados.
- **Burokrazia**, prozeduren moteltasuna eta antzeko kritikak direla-eta, onartzen da erabiltzen diren sistemak zaharkituta daudela eta informatizazioak arazo asko konponduko lituzkeela.
- Presoekin **harreman zuzena edukitzeko denborari dagokionez**, profesionalek arabera, ez dago horretarako behar adina denborarik giza baliabideak mugatuak daudelako, eta gai burokratikoiei denbora askotxo eskaini behar dietelako.
- **Gradu-hobekuntzak** beti eta salbuespenik gabe arauk egintzen duten epearen barruan egiten dela adierazten da.
- Espetxeratuen arabera ekingen antolaketetan eta abarretan **presoen batzordeek** parte hartzen ez dutela-eta, profesionalen ustez partaidetza informala dago maila horretan, eta partaidetzarako sistema formalagoak ezartzeko orduan presoak beraiek omen dira atzera egiten dutenak, besteak beste «kolaborazionista» salaketak eta abar egoten direlako.

D/ **Profesionalen arazo bereziak eta proposatutako hobekuntzak**

* Profesionalek adierazitako beraien arazo berezien artetik, ondorengoak dira azpimarragarriak:

- Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinek sustatutako **prestakuntza iraunkorreko ekintzetan** egiaz parte hartu ezina. Aspektu hori hitzarmenean zehazki jasota dago. Parte hartzeko ezintasuna ondorengo arrazoiengatik gertatzen da: batzuetan informazioa iristen ez zaielako; besteetan, aukerarik eman ere egiten ez zaielako; eta beste batzuetan kartzelako zuzendaritzak prestaketa ihardueretara joateko behar dituzten bitartekoak jartzen ez dizkielako (ordutegi arazoak, ordezkapenak, kostua ez onartzea, etabar).
- Zentroko bizitzan **lantalde batzuek burutzen duten lanari ez zaio behar duen onespina ematen**, eta ondorioz, adibidez, presoen

egoeraren aurrean erabakiak hartzerakoan beraien informazioa ez da kontuan hartu ere egiten.

- **Plantilen** urritasuna eta baja kasuetan ordezkapenak egiteko sistemaren hutsuneak.
- **Beraien lanari gizartean ez zaio behar adinako balorazioa ematen** (beste lantalde batzuek irabazten dutenarekin dauden aldeak, komunikabideek kartzela-gaiei ematen dieten trataera, etab.).
- **Defentsarik gabe egoteko sentsazioa**, hirugarren pertsoneri, (familiartekoei, abokatu-defendatzaileei, eta abarri) ezagutzera ematen zaizkien txosten pertsonalen aurrean. Batzuen ustez, konponbidea zera litzateke: profesional bakoitza bere aldetik ibili ordeztu, lantalde osoak txostenak egin eta erabakiak hartzea.

* Pertsona horien **etorkizun profesionalari** dagokionez, asko kezkatu ageri dira kartzelarako aginpidea Eusko Jaurlaritzaren eskuetara pasa daitekeelako. Kezka ez dator egon daitekeen eskualdaketagatik, beraien lanarekin gerta daitekeenagatik (traslado aukerak, euskara jakin beharra...) eta gai horri buruz daukaten informazio ezagatik baizik.

* **Profesional talde batzuek proposamen amankomun bat egin dute: laguntzarako sare orokorretan sartzea.** Horrela, irakasleek dozentzia izaera aitor diezaietela eta Hezkuntza Ministerioan edo Hezkuntza Sailean sartzea eskatzen dute (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorretako Legeak xedapen gehigarrietan iragartzen duen moduan). Osasun alorreko profesionalek kartzelarako osasun arduradunak osasun publikoaren alorrean sartzea eskatzen dute (1986ko Osasunaren Lege Orokorrean iragarritako moduan). Talde horietako batzuek beraien egoera profesionala eta eskariak jasotzen dituen dokumentazioa eskuratu zioten Arartekoari.

Aipatutako proposamenez gain azpimarratu beharreko beste batzuk hauek dira:

- Beraiekin kontaktzea egitarauak osatzerakoan, hitzarmenak garatzerakoan, egungo espetxei beste alternatiba batzuk bilatzerakoan, eskualdaketak zehazterakoan eta beste une batzuetan.
- Etorkizunerako zentroak diseinatzerakoan, zentro txikiak eta hiriguneetatik hurbilekoak eraikitzeke apostua egitea, horrela pertsonen arteko ezagutza eta harreman pertsonalak eta gizartearekiko harremanak errazteko.
- Justiziak ezarritako kondenak kartzelan bete beharrik gabe, beste irteera batzuk bilatzea.
- Espetxe barruan heziketa eta lana bultzatzea...

2.2. MARTUTENEO KARTZELAKO EGOERA

2.2.1. ZENTROAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIAK ETA BERTAKO INSTALAZIOAK ETA EKINTZAK EZAGUTZEKO EGINIKO IKUSTALDIA (ALDERDIRIK AIPAGARRIENAK)

* Martuteneko kartzelak ondorengo **sailak edo moduloak** dauzka:

- . emakumeentzako moduloa (11 zelda);
- . gazteentzako moduloa (21 zelda);
- . eritegia (12 zelda);
- . gizonezkoentzako modulo orokorra (5 galeria eta 91 zelda);
- . atal irekia (12 zelda).

Zentro nahiko zaharra da, 1948an eraikia. Egitura erradiala du, eta Basaurikoak bezala, urteak joan ahala berregokitzapen eta birmoldapen lan txikiak egin dira bertan.

Martuteneko zentroaren ardurapean eta handik ez oso urruti, gazteentzako unitate organiko bat dago. Unitate hori Ametzagaña Fundazioak kudeatzen du eta bertan 11 mutilek bizi eta lan egiten dute; gehienak Martuteneko eta Basauriko karteletatik hara pasatuak dira, eta guztiei hirugarren gradua ezarri zaie.

* Martutene **prebentiboan zentro bezala sailkatua** dago, **nahiz eta** gaur egun **bertan dauden presoak zigorpetuak izan**, normalean urte gutxiko kartzela zigorra dutenak. Txosten honetan erabiliko dugun erreferentzia egunean (1995eko irailak 10), hauek ziren beraien kondena egoerari buruzko datu adierazgarri batzuk:

PRESOEN SAIKAPENA

Martuteneko K. (95-09-10)	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Preso guztien artetik %	Zigorpetu guztien artetik %
Prebentiboak	49	1	50	%15	-
Zigorpetuak					
. 1. graduan	-	-	-		-
. 2. graduan	118	17	135		%49
. 3. graduan	104	9	113		%41
. sailkatu gabe	24	2	26		%10
Zigorpetuak guztira	246	28	274	%85	%100
Presoak guztira	295	29	324	%100	-

Pertsona horien artetik gehienak lapurreta delituak burutzeagatik daude zigorpetuak (126), edo osasun publikoaren kontrako delituengatik (71). Badira 20 intsumiso ere, guztiak 3. graduan, eta beste 24 pertsona terrorismo delituengatik.

Hirugarren graduan sailkatutako pertsonen artetik 17 kanpoko elkarte ezberdinen **errehabilitazio zentroetan** betetzen ari dira beren kondena, eta **atal irekian** dauden ia pertsona guztiak (65, guztira, erreferentzia egunean) egunero irteten dira kartzelatik lanera, ikastera edo tratamendu terapeutikoetara joateko, eta gauetz kartzelara itzultzen dira lo egitera. Halaber, badira bost emakume, atal irekian ez egonda ere -zerbitzu hori betetzen duten beren moduloko bi zeldetan baitaude-, egunero lanera joateko ateratzen direnak.

Zentroan **igarotzen duten denborari** dagokionez, alde handiak daude prebentiboen eta zigorpetuen artean. Adibidez, 1994ko datuen arabera, prebentibo egoeran kartzelaratuakoen artetik %41ek 10 egun baino gutxiago igaro zituzten kartzelan; aldiz, zigorpetuen %1 bakarrik izan zen egun kopuru horietan kartzelan egon zena; zigorpetuen %30ek eta prebentiboen %23ek urte osoa igaro zuten espetxean. Urte horretan, 730 pertsona **sartu zituzten kartzelan** (395 prebentibo eta 335 zigorpetu); zentroan batez beste egon zen preso kopurua, berriz 365 izan zen (80 prebentibo eta 285 zigorpetu).

* Preso-multzoaren adin eta ikasketa-mailaren ezaugarriei bagagozkie, ondorengo datuak azpimarra ditzakegu:

- **Adinaren araberako sailkapena:**
 - . 16 eta 20 urte artekoak: 15 gizon (guztien %5).
 - . 21 eta 25 urte artekoak: 77 gizon - 5 emakume (%25).
 - . 26 eta 30 urte artekoak: 79 gizon - 7 emakume (%26).
 - . 31 eta 40 urte artekoak: 71 gizon - 11 emakume (%25).
 - . 41 eta 60 urte artekoak: 47 gizon - 6 emakume (%16).
 - . 60 urtetik gorakoak: 6 gizon (%2).

- Lortutako **ikasketa-mailari** dagokionez, presoen %33k analfabetotzat edo oso gutxi alfabetatutzat daukate beren burua, erdiak baino apur bat gehiagok (%51k) lehen ikasketak edo OHO eginda daukate eta %7k bakarrik dute titulazio ertain edo goi mailakoa.

* * *

Martuteneko kartzela ezagutzeko bisitak Arartekoak berak, Ondokoak eta erakundeko aholkulari batek egin zituzten, ondoko egun hauetan:

- . Uztailak 14: instalazioak eta ekintzak ezagutu.
- . Abuztuak 22: zentroko zuzendaritzarekin bildu.
- . Irailak 12: datuak jaso eta lagina hautatu.
- . Urriak 19: presoekiko elkarrizketak.
- . Azaroak 14: profesional lantaldeekin bildu.

Zentroko instalazioetara eta ekintzetara egindako bisitaren ondoren, Basauriko kasuan (ikus 2.1.1.) adierazitakoaren antzeko ondorioa atera daiteke kasu honetan ere: alegia, zentro honek kartzelako presoei modu egokian erantzuteko **mugak ditu (zahartasunagatik eta bere egituragatik)**, instalazioak premia horietara egokitzeko hobetze lanak etengabe egiten aritu diren arren. Kasu hau, ordea, larriagoa da: **zentroan dauden preso-multzo ezberdinen premiei** eta horien bizi-baldintza ezberdinei (gizonak, emakumeak eta gazteak) era orekatuan erantzuteko arazoak daude.

Aipa daitezkeen arazo gehienak oinarrizko mugapen horiengatik sortzen dira. Adibidez:

- **Erabilera amankomunerako behar adina espazio ez dago** (lanerako eta kirolerako zonak, ikasgelak edo irakurgelak...), batez ere emakumeen eta gazteen moduloetan (emakumeen patioa txiki-txikia da, liburutegi-gelak ere oso txikiak dira...).
- **Zelda gehienak pertsona batek baino gehiagok erabili beharra.** Hau da, ordu asko beste pertsona batekin igaro behar izaten da espazio benetan oso txikian.
- **Lantokietarako dauden espazioak nabarmenki txikiegiak dira,** preso-multzoa kontuan hartzen bada. Hain zuzen, preso talde txiki batek bakarrik lan egin dezake normalean lantoki produktiboetan, horrela lansari bat irabazten dutelarik, jasotzen dutena gutxi bada ere. Emakumeen edo gazteen kasuan, lan egiteko aukera horiek are murriztagoak dira.
- **Ikasteko dauden muga errealak** ere azpimarratu behar dira. Kartzelako presoen ezaugarriak kontuan izanik (ikasketa maila...), desiragarria litzateke zentroan pasatu behar duten denbora ikasketak burutzeko aprobetxatu ahal izatea. Edonola, ikasgelak bisitatu zirenean, hutsik zeuden, udako oporrak zirelako, eta sasoi horretan ikasteko beste ordezko aukerarik ez dagoelako.
- Hemen ere **liburutegia** nabarmen hobe daiteke liburuak eguneratuz eta presoen interes eta gaitasunetara hobeto egokituz.
- **Sukaldean** nahiz **jangeletan** egitura mailako arazoak (keak ateratzeko sistema ez da nahikoa eta sukaldeko isurbideek ez dute ongi funtzionatzen) eta hornidura mailakoak ikusi ziren (sukaldean ez dago presio-eltzerik, eta jangeletan zaborrak biltzeko ontziak ez daude egoera onean...).
- Kasu honetan ere, zentroa zaharra delako eta eraikuntzan erabili ziren materialengatik nekez eduki daitezke bazterrak **txukun** eta egoera onean. Hori garbi ikusten da instalazio amankomunetan, dutxetan eta komunetan esate baterako. Bisita egin zenean, zentroaren kanpoko aldeak ia osorik zuritzen ari ziren eta beste lan txikiago batzuk burutzen (sarrerako eskailerak eta arranpak, zona batzuetan axuleiua jartzen, etab.). Horretarako, zentroan bertan zeuden bitartekoak ari ziren erabiltzen (materialak, langileak...)
- Bisitaren bidez **sendagile taldeak bere lana zuzen burutzeko mugak** zeudela ere ikusi zen: adibidez, zentroan metadona bidezko tratamendurik ezin zen eman.

2.2.2. **PRESOEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETAK (ELKARRIZKETA-TUEN IRITZIAK)**

Martuteneko presoekin urriaren 19an egin ziren elkarrizketak. Horretarako, erakundeko hiru pertsona bertaratu ziren: Arartekoa bera, Ondokoa eta aholkularietako bat. Kartzelako zuzendaritzak moduloetako sarrerako pasiloan bi bulego egokitu zituen eta hirugarrena eritegian. Guztira hogeitalau gizon eta hiru emakumeri egin zitzaizkien elkarrizketak.

Elkarrizketatu beharreko pertsonen hautaketa irailaren 12a geroztik egina zegoen. Horretarako, abuztuaren 22an kartzelan zeudenen zerrenda erabili zen (328 pertsona; horien artetik 31 emakumeak ziren), eta modulo edo sail bakoitzeko preso guztien artetik %7 elkarrizketatzea erabaki zen. Irizpide horren arabera, ondorengo izan zen elkarrizketatu beharreko pertsonen banaketa:

- . Emakumeen moduloa: 3
- . Gazteen moduloa: 2, eta Ametzagañako 1
- . Eritegia: 1
- . Atal irekia: 2
- . 1,2,3,4 eta 5. galeriak: 3 preso galeria bakoitzetik

Elkarrizketatuak izango ziren pertsonen aukeraketa Ararteko erakundeak egin zuen, jarraitu zuen metodoa zentroak eskuratutako zerrendatik presoak zoriz aukeratzea izan zelarik. Zorizko irizpide hori iragarritako kasuetan bakarrik zuzendu zen: elkarrizketatuko zen pertsonak egun gutxi barru kartzela utzi behar zuenean, egun gutxi zeramatzanean edo kartzelan beste leku batzuetara eraman zain zegoenean; eta aukeratutako pertsona gazteleraz hitz egiteko zailtasun handiak zeuzkan atzerritarra zenean. Egoera horiek bi kasutan gertatu ziren, eta bietan aurrena aukeratutako presoaren orde zerrendan jarraian zegoena aukeratu zen.

Sail bakoitzean, beharra gertatuta ere, «ordezko» batzuk aukeratu ziren, hautatutako pertsonaren batek elkarrizketara joan nahi ez zuen kasurako; izan ere, esan behar da elkarrizketak beti borondazteko eginkizun gisa planteiatu zirela. Atal irekiko zerrendan irizpide berdinak erabili ziren, nahiz eta jakin kasu askotan gehienak ez zirela elkarrizketara agertuko, egunez lanera irteten direlako.

Zerrenda erabat finkatu baino lehen, zentroko zuzendaritzarekin eta hezitzaile batekin kontrastatu zen, beraien iritziz aukeratutako laginak zentroko ohizko egoera ezberdinak biltzen al zituen jakiteko. Elkarrizketatzeko osatu zen lehen zerrenda eta alde zurretik ezarritako tipologia erkatu ondoren, bi aldaketa egin ziren, lagina ahalik eta adierazgarriena izan zedin.

Zentroaren esku utzi zen presoei elkarrizketarako aukeratuak izan zirela adierazteko eta beraien oniritzia edo ezetza jasotzeko ardura. Hezitzaileek hitzez eta zuzenean adierazpen hori egiteaz gain, Arartekoaren eta zentroko zuzendaritzaren artean informazio-ohar bat idatzi zen, modulo ezberdinetako iragarki-oholetan ezarri zena.

Aukeratutako pertsonen artetik atzerritar batek bakarrik esan zuen ez zuela elkarrizketatua izan nahi. Alabaina, elkarrizketatu ziren presoaren eta osatuta zegoen zerrendaren artean aldeak egon ziren, alde zurretik iragarri gabeko preso batzuk

beraien eskariz elkarrizketatuak izan zirelako. Horregatik, hasieran 24 elkarrizketa iragarrita bazeuden ere, azkenean 27 egin ziren.

* * *

Presoak behar bezala aukeratzeko eta elkarrizketak burutzeko aldez aurretik emandako pausoak azaldu ondoren, elkarrizketa horietatik ateratako ondorioirik adierazgarrienak jasoko ditugu. **Hemen ere oinarrizko bi alor azpimarratuko ditugu:**

- A/ Elkarrizketatuek beraiek adierazitako **interesguneak** (beraiek behin eta berriz azaltzen edo gehien azpimarratzen dituztenak).
- B/ Zentroan bizi duten egoerarekin lotuta dauden aspektu ezberdinengatik **azaldutako arazoak edo kexak.**

Agian, beste ezer baino lehen, **ohar batzuk** egitea komeni da:

- . Kasu honetan ere, elkarrizketatutako batzuek beraien arazoez bakarrik hitzegin bazuten ere, beste askok kartzelaren edo preso-multzo jakin baten egoera orokorrari buruzko beraien balorazioak edo ekarpen orokorrak egin zituzten.
- . Planteiatu zizkiguten arazoak txosten honetan jasotzean ezberdintasunak beti adieraziko ez badira ere, gazteen eta emakumeen taldeek zenbait kasutan azpimarratzekoak diren ezaugarri bereziak azaltzen dituzte. Arazo berezi deigarrienen datu hori espreski adieraziko da.
- . Kasu batzuetan, elkarrizketatutako pertsonak talde jakin baten izenean hitzegin zuen (eritegiko presoek izenean, adibidez). Batzuetan, bozeramale lanak egiten zituenak garbi uzten zuen zein zen taldearen iritzia eta zein berea, biak bat ez zetozenean.
Atal irekiko intsumiso batek bere taldearen bozeramale lanak egin zituen, eta egun haietan kartzelatan xiringak sartzea eskatzeko hasiko zen kanpainia izan zen elkarrizketaren ardatz nagusia. Pertsona horrek Euskal Herriko kartzela desberdinetako hirurehun preso bakoitzari gehiagok sinatutako eskaria eta gaiari buruzko txosten osoa aurkeztu zion Arartekoari. Txosten horren kopia egun batzuk geroago Presoen Zaintzarako Epaileari aurkeztu zitzaion.
- . Hemen, noski, hitzarmen nagusiarekin harreman zuzenean egon daitezkeen zenbait gai azpimarratzen ditugu. Nolanahi, presoek adierazitako gainerantzeko kexak edo arazoak ere jasotzen ditugu, askotan hitzarmenekoak ez baitira presoak gehien kezkatzen dituzten gaiak.

A/ Elkarrizketatuek adierazitako interesgune nagusiak

Adierazi den bezala, elkarrizketatutako pertsona batzuek bizi duten egoera oso gogorra denez gero, beraien egoera pertsonala azaltzeko aprobeztatu zuten.

Elkarrizketa pertsonal horietan nahiz zentroko ikuspegi osoagoa azaltzen dutenetan, behin eta berriz agertzen dira gai jakin batzuk, nagusiki alor hauei

dagozkienak: osasuna, kanpoarekiko harremanak, eta pertsona bezala garatzeko ekintzak edo bitartekoak:

- . osasunaren gaia eta osasun baldintzak;
- . droga, HIES gaitza eta xiringa gutxi edukitzeagatik kutsatzeko arriskua;
- . baimenak ukatzea;
- . famili egoera larriak (batez ere kartzelatik kanpo seme-alabak dauzkaten emakume presoek kasuan);
- . zentroan kirola egiteko instalazio edo bitartekorik eza;
- . lantoki produktiboetan sartzeko aukerak; lansaria eta kartzela-zigorra arintzeko irizpideak...
- . ikastaroetara edo prestaketa lantokietara joateko bultzagarriak gutxi edo bat ere ez egotea;
- . ekonomatoaren funtzionamendua...

Basauriko Kartzelaren kasuan bezala, hemen ere drogaren arazoa nabarmen da, xiringarik ezarekin eta HIES gaitza edo beste gaisotasun batzuk kutsatzeko arriskuarekin loturik. Kasu askotxotan, behin eta berriz azaldutako arazo hori higie baldintzarik ezarekin lotuta ere agertzen zen. Horrela, beraz, planteiatu zen moduagatik eta presoek behin eta berriz azaltzen zutelako, gai hori berriro azpimarratu beharrean gaude hemen.

B/ Arazo edo kexa azpimarragarriak

Elkarrizketatutako pertsonak adierazi zizkiguten kexak jasotzen dira hemen. Sarriren azaldu direnak eta hitzarmenean jasotako iharduera alorrekin zuzenean edo zeharka lotutako batzuk azpimarratuko ditugu.

Gauzak argi uzteko, kexak ondorengo multzoetan laburbildu dira:

- a) aspektu juridikoei dagozkienak;
- b) zentroko bizitzari zuzenean dagozkienak;
- c) kartzela eta gizartearen arteko harremanei dagozkienak.

Dena dela, esan behar da kexa horietako batzuei buruzko oharra egin zituztela profesionalen lantaldeek (ikus 2.2.3, C atala).

a) Lehenengo multzo honetan, **aspektu juridikoarekin edo egoera prozesalarekin nabarmen lotutako kexak** biltzen ditugu. Leporatutako karguekin, ezarritako kartzela-zigorrekin edo bizi duten kartzela egoerarekin ados ez daudelako egiten dituzten balorazio pertsonalez gain, ondorengo kexak dira azpimarragarriak:

- . epaituak izan aurretik kartzelan igaro beharreko denbora luzeegia;
- . epai judicialak betetzeko dinamikari buruzko informazio eza;
- . Presoen Zaintzarako Epaitegiarekin harremanak izateko arazoak (erantzunik gabeko eskabideak, hilabeteetako itxaroaldia hitz egin ahal izateko, ebazpenen atzerapenak...);
- . sailkapenen atzerapenak (6 hilabetetik gora sailkapena berraztertu gabe);
- . baldintzapeko askatasuna oker ezartzea;

- . kartzela batetik bestera aldatzeko irizpide arbitrarioak;
- . biktimekiko erantzukizun zibilari aurre egiteko arazoak.

Erkidegoko beste bi kartzeletan ez bezala, esan dezagun kartzela honetan abokatuen ihardueraren kontrako askoz kexa gutxiago (ordain-sari garestiegiak, arretarik eza..) aurkeztu direla.

b) Bigarren multzoa luzeena da, eta bertan **kartzelako funtzionamenduarekin zuzenean lotutako kexak** biltzen dira; azterketa honetan, hitzarmenaren alorrekin zerikusia daukatenak (osasuna, hezkuntza...) eta zentroko beste gai batzuekin erlazionatuta daudenak bereiztuko ditugu:

* **Hitzarmeneko alorrekin lotutako kexak:**

- **Informazio** alorra:
 - . kartzelaren ordezeko aukerei, gizarte zerbitzuei, eta abarri buruzko informazio urria.
- **Hezkuntza** alorra:
 - . ikasteko arazoak, batez ere ikasketa ez arautuetan parte hartzeko (materiala eskuratzeko laguntzarik ez, matrikulak...); gela amankomunak ikasteko erabiltzeko arazoak, zelda berean preso gehiegi egotea...
- **Osasun laguntzaren** alorra:
 - . Erakunde Penitentiarioen ardurapekoak ez diren botika eta osasun prestazioetarako erosketak egiteko laguntza mugatuak (adibidez, betaurrekoak erosteko);
 - . eritegian sartzeko edo HIESdunen kasuan eguna zeldan pasatzeko irizpideekiko desadostasuna;
 - . sendagileek galerietara bisitarik ez egitea.
- **Garapen pertsonalaren** alorra:
 - . kirola egiteko zailtasunak: gimnasio zaharkitua, materialik eza, kasu batzuetan monitore gutxi, emakumeen moduloan adibidez.
- **Langabe heziketa eta enplegu sustapenaren** alorra:
 - . lantoki produktiboetan lan egiteagatik oso gutxi ordaintzen da: lanordu asko sartu behar, diru kantitate barregarriak irabazteko.
- **Erregimen irekia:**
 - . drogamenpeko gazteak Ametzagañako unitatean sartu ezina, sarrera irizpide oso zorrotzak daudelako;
 - . alkoholizatutakoak errehabilitatzeko bide alternatiborik ez egotea (ez dago toxikomanoen kasuan ezartzen diren bideen antzekorik).

* **Kartzelako bizitzarekin erlazionatutako beste gai batzuei buruzko kexak:**

Zentroko bizitzaren eta funtzionamenduaren beste aspektu batzuei egindako kritikak hainbat alor ezberdini dagozkie: zentroaren egoera fisikoari, zerbitzu batzuen funtzionamenduari, zigor-irizpideei, funtzionarioekiko harremanei... Adierazi zitzaizkigun kexa nagusiak jasotzen ditugu hemen.

- **Zentroaren egoera fisikoari eta bertako horniduren egoerari dagokienez:**

- . zelda beste pertsona batekin edo gehiagorekin batera erabili beharra; adibidez bost pertsonako zeldak daude;
- . higiene eskasa (komuna eta dutxa amankomunak, zeldak, koltxoi zikinak, arropa garbitzeko makinari ez egotea emakumeen moduloan...);
- . kubiertok plastikozkoak dira, jateko desegokiak;
- . emakumeen patioa oso txikia da;
- . gizonen nahiz emakumeen moduloetan ez dago funtzionatzen duen behar adina dutxa;
- . material amankomunak gutxi zaintzen dira (adibidez: telebista hondatuta eta konpondu gabe denbora luzean).

Kasu batzuetan, presoek beraiek «justifikatzen» dituzte zentroko gabezia batzuk, bereziki espazio arazoei dagozkienak, zaharra dela eta behar bezala egokitzeko eta berritzeko arazoak daudela adieraziz.

- **Zerbitzu batzuen erabilerari dagokienez:**

- . otorduei buruzko kexak (gazteentzako janari osagarririk eza, gosari eskasa; erregimen-dieta desegokiak...);
- . preso bakoitzari hilerok ematen zaizkien higiene gaien kopuru eskasa (zelda berean gaisotasunak kutsa ditzaketen presoekin bizi diren pertsona batzuek azpimarratzen duten puntua);
- . ekonomatua eta kafetegi zerbitzuaren kontrako kexak (prezioak; ofizialki ezarritako salneurrien eta saltzean kobratzen diren arteko aldea...);
- . ileapaindegi zerbitzuaren kontrako kexak (gelaren egoera, ileapain-tzailearen lanorduak...);
- . destinoei lanpostu izaera ez ematea (langile eskubiderik eza: kontratua, ordainketa, gizarte segurantzak, etab.).

- **Funtzionarioekin eta lantaldeekin dauden harremanei dagokienez,** presoak kexu dira haien duintasunari zor zaion errespetua hausten delako; administrazioaren edo burokraziaren funtzionamenduaren eta profesional batzuek eskaintzen dietenaren kontra ere azaltzen dira. Zehazkiago adierazita, hauek dira azaldutako kexak:

- . bi preso kexatu ziren funtzionarioen batek emandako tratu txarreatatik;
 - . epaitegiaren aurrean tratu txarrak salatzerakoan lekukoak lortzeko arazoak, ez baitute azaldu nahi izaten zigortuko dituzten beldurrez;
 - . miaketak egitea desorduetan;
 - . aurkeztutako errekurtsoei berandu erantzutea edo erantzunik ez ematea; papeleoa (eskabide-orriak gauza guztietarako, motel-tasuna...);
 - . profesional batzuen jokabidearekiko desadostasuna («*entzun besterik ez du egiten...*»).
- **Erabakiak hartzerakoan erabiltzen diren irizpideak direla-eta**, diziplina arauen eta komunikazioak eta baimenak emateko moduaren kontra zuzentzen dira kritikak:
 - . parteak bideratzerakoan eta zigorrak ezartzerakoan funtzionarioen hitzari ematen zaion balioa;
 - . erreibindikazioen kontra parteak eta zigorrak erabiltzea;
 - . funtzionario batzuek salaketak egiteko dauzkaten irizpideekiko desadostasuna;
 - . zigorrak baliogabetzeko denbora gehiegi (6 hilabete);
 - . baimenak ukatzea.
 - Azkenik, **talde jakin edo zentroko sail berezi bati dagozkion kexa berezi batzuk** aipatu behar ditugu. Horrela:
 - . gazteen egoera bereziagatik (isolatuak, lantoki gutxi, janari osagarririk eza...);
 - . atzerritarrak baimenak edukitzeko diskriminatuta daude («*gaizki erabiliko dutelako usteagatik*»);
 - . emakumeentzako atal irekirik ez dago;
 - . atal irekiko zeldak egun osoan zabalik edukitzeko arriskua (lapurretak, droga sartzeko bidea, etab.).

c) Hirugarren multzoan, **kartzelako eta kanpoko munduen arteko harremani dagozkienak** biltzen dira:

- . famili egoera oso zailei buruzko kezka (asko azpimarratzen da seme-alaba oso txikiak dauzkaten emakumeen kasuan);
- . «Aurrez aurreko» bisitetan eta ondorengo biluzketa eta miaketetan ezartzen diren irizpide arbitrarioak;
- . komunikazio mozketak, zigor bezala interpretatzen direnak;
- . gutunak, diru igorpenak, eta abar bideratzeko dauden atzerapenak;
- . gizartean dagoen giroak edo funtzionarioek bizi duten egoerak kartzelatik jendea ateratzeko, baimenak emateko... duten eragin gaiztoa («*Kanpoan gertatzen den guztia guk ordaintzen dugu*»);

- . komunitate terauperitiko batzuen funtzionamenduarekin, horietan sartzeko irizpideekin eta beste kasu batzuetarako tratamendu alternatiborik ezarekin dauden desadostasunak;
- . kartzelatik ateratakoan lan merkatuan sartzeko zailtasunak.

Kartzelaren eta gizartearen arteko harremanei dagokien atal honetan, elkarrizketatutako askok azaldu duten gai oso positibo bat azpimarratu behar da: **elkarte askok eta gizarteko beste erakunde batzuek espetxeratuei laguntzeko egitarauen bidez egiten duten lana**. Ildo horretatik, elkarrizketatutako gazte baten lekukotasuna jaso daiteke: *«Beste zulo batzuekin konparatuta Martutene mila aldiz nahiago dut, gizarteak hemen ahanzten ez zaituelako. Kanpotik jende asko etortzen da gurekin egotera. Besteetan ez dugu kanpotik inor sartzan ikusten ezta gomendatuta ere. Nik izugarri baloratzen dut»*.

Puntu txarren artean, eta presoek **familiarekin elkarrizketak izateko aukerari** ematen dioten garrantziagatik, zera azpimarratu behar da: preso batzuek beraien senitartekoekin harreman iraunkorra izateko (telefono bidez, zuzenean...) arazo ekonomikoak dauzkate.

* * *

Atal honekin amaitzeko **azken gogoeta** gisa, ondorengo puntuak aipa ditzakegu:

- . Hemen ere elkarrizketatutako presoetakoren batek kexarik ez azaltzea erabaki zuen. Jarrera hori, lantoki produktiboetan lanpostua edo destino jakinekoak dauzkatenean hartzen dute; edo elkarrizketara joan behar dutela esan dieten, baina inolako federik gabe edo hitz egiteko gogorik gabe joaten direnek ere ageri dute jarrera hori. Kasu gutxitan gertatu da, eta batzuetan presoak arazo edo gabezia batzuk azaldu ditu, bere arazoak baino gehiago guztienak direla adieraziz. Bestalde, elkarrizketa egitea borondatezkoa eta guztiz isilpekoa zen arren, batek baino gehiagok, agian, hori zalantzan jarri du edo pentsatzen duena azaltzeko beldurra eduki du. Edonola ere, badirudi egoera oso bereziak direla, baina ezin da ahaztu askatasunik gabe dauden pertsonak nolako egoera psikologikoan bizi diren. Elkarrizketara beraien hala eskatuta joaten direnen kasua guztiz bestelakoa izan ohi da: zuzenean eta askatasun handiarekin azaltzen dituzte beraien kexak, horretarako eskatu baitute errezibituak izatea.
- . Kasu batzuetan, kartzela erakunde gisa osoki aztertu dute, bergizarteratzen lagundu beharko lukeela adieraziz eta dauzkan gabeziak edo kontraesanak azpimarratuz (droga erraz sartzan dela, laguntza pertsonalik ez dagoela, hezi baino kalte gehiago egin dezaketan taldeekin egon beharra...), edota hobetzeko iradokizunak ere emanaz. Jasotako **proposamenen** artetik ondorengoak aipa ditzakegu:

- * xiringak dohainik eta sendagileen kontrolpean sartzea;
- * zentroa metadona banatzeko onartua izatea;
- * erregimen irekiko atala kartzela barruan ez egotea;
- * kartzela zigorrak kartzelatik kanpo betetzeko aukerak garatzea: errehabilitazio zentroak, tratamendu ambulatorioa, laguntza psikiatrikoa...;
- * Ametzagañako gazteentzako unitatean sartzeko erraztasunak emata;
- * emakumeentzako eta atzerritar zigorpueentzako kondena betetzeko beste alternatiba batzuk sustatzea;
- * presoen zaintzarako epaitegi gehiago sortzea edo egun dagoen epaitegia handitzea;
- * Administrazioak erantzunkizun zibila bere gain hartzea...

. Kartzeletan esperientzia handia daukaten preso batzuek Martutenen bizi duten egoera beste kartzela batzuetan bizitako esperientziekin konparatu dute. Kasu horietan ia beti Martuteneren onerako izan da konparaketa.

Azkenik, Basauriko kasuan bezala, hemen ere esan behar da kexa pertsonal batzuen ondorioz Ararteko erakundeak zenbait iharduera hasi zituela, txosten honetako 1.2.3 atalean jasotzen den bezala.

2.2.3. **PROFESIONALEKIN EGINDAKO BILERAK (PLANTEIATUTAKO GAIAK)**

Martuteneko Kartzelan ondorengo taldeekin egin ziren bilerak:

- . tratamendu taldea;
- . irakasle taldea;
- . sendagile taldea;
- . funtzionarioen ordezkari sindikalak.

Lehenengo hiru bileretan antzeko eskema erabili zen (ikus 1.2.2. eta VI. eraskina), hitzarmen nagusian iragarritako alorren artetik (hezkuntza, osasuna...) lantalde bakoitzaren ardurapekoei arreta berezia eskainiz.

Alor bakoitza aztertzeraz pasa aurretik, talde guztiei hitzarmen nagusiari eta ordurarte izandako garapenari buruzko balorazio orokor bat eskatu zitzaion. Bileren bigarren zatian, elkarrizketatutako pertsonen profesional hauen zereginarekin erlaxionatuta zeuden kexak azaldu zituztenez gero, jasotako informazioak beraiekin alderatu ziren, hauen kexak eta proposamenak ere jaso zirelarik. Ordezkari sindikalekin egindako bilera azken eginkizun horretara mugatu zen.

Bileren edukia azaltzean, Basauriko kartzelari buruzko atalean egin den bezala (ikus 2.1.3.), ondorengo eskemari jarraituko diogu:

- A/ Hitzarmen nagusiaren balorazio orokorra.
- B/ Iharduera eremu bakoitzaren azterketa.

- C/ Elkarrizketatutako presoengandik jasotako informazioei taldeek egindako iruzkinak.
- D/ Profesionalen arazo bereziak eta proposatutako hobekuntzak.

* * *

A/ Hitzarmen nagusiaren balorazio orokorra

Profesionalen lantaldeengandik hitzarmen nagusiari buruz jasotako balorazio orokorra Basaurin egin zigutenaren antzekoa da: **ez da garatu**, praktikan ez da alderik nabaritu, ez dira bitartekoak jarri... Aldi berean, zenbait alorretan iharduera positiboak burutzen ari direla ere esaten da, baina horiek hitzarmenetik kanpo egiten ari direla. Pertsona batzuek, bestalde, hitzarmenaren edukia ez dute ezagutzen.

Inork ez du zalantzan jartzen teoriar eraginkorra izan daitekeela, baina ez dute garbi ikusten praktikara nola eraman daitekeen eta kartzelako preso-multzoari zein zerbitzu, eta profesionalen lan baldintzei zein onura ekar diezaiokeen.

B/ Iharduera eremu bakoitzaren azterketa

Behin eta berriz azaldu diren puntuak bakarrik jasoko ditugu hemen.

a) Informazio alorra

- * **Presoei eta horien familiartekoei informazioa iristarazteko sistema ezberdinak** erabiltzen dira, horien artean informazio-orriak. Baina guztientzat ez da egokia informazio idatzia. Hobetzat jotzen dituzte bide zuzenak, presoekin hitz egitea, eta abar, baina ez dago guztiengana iristeko adina langile.
- * **Laguntza juridikorako egitaraua** positiboa dela diote (astean bi egunetan burutzen da) eta arazoak bi kasutan azaldu dituzte:
 - . laguntza-txandarako abokatu batzuen prestaketa berezirik eza kartzela gaietan;
 - . batzuetan gertatzen den informazio bideen bikoizketa, preso batzuek abokatu horiei ez dagozkien gaiak planteiatzen dizkietelako.
- * Zentroak berak 1995erako proposaturiko ihardueretako bat Erkidegoan dauden baliabideei buruzko sistema informatikoak ezartzea da. Ez da eta ezin da ezer egin orain dagoen **ekipo informatikoarekin** (erregimen bulegoko terminalak, Madrilekin konektatuta daudenak, eta lau ordenagailu pertsonal hainbat eginkizunetarako: baimenak, bisitak...). Gipuzkoako HIES gaitzaren Kontrako Hiritarren Elkartek sustatuta duen osasunerako heziketari buruz iragarritako egitaraua ere ezin izan da burutu.

b) Heziketa alorra

* Ondorengoak dira zentroko **ikasketa iharduerei buruzko oinarrizko datuak**³:

- . Helduen Heziketa Iraunkorra (HHI):
 - Alfabetizazioa: 6
 - Neoirakurleak: 6
 - Graduatu aurrekoak: 8
 - Eskola graduatuak: 11
- . Lanbide Heziketa arautua: ez dago.
- . Batxilergoa: 5 (urrundikoak, tutoretza hilean behin).
- . Unibertsitate mailako ikasketak: 7 (tutoretzak urtean pare bat aldiz EHUko irakasleak aurrez aurre dituztela).
- . Bestelako ikasketak: hizkuntz eskola ofiziala (3) eta EGA (1).

* Iharduera horiek, bai eta liburutegia eta berme sozialerako egitaraua ere Erakunde Penitentiarioaren ardurapean dauden bi irakaslek zuzentzen dituzte, unibertsitate mailako azterketak ere beraiek pasatzen dituztelarik. Gaur egun dagoen irakasle kopurua **nabarmenki txikia dela** diote. Badago hirugarren postu bat oraindik hutsik, eta hilabete hauetan maistretako batek baja hartu du haurra izan duelako, eta inork ez du ordezkatu.

* **Zentroaren 1995erako proposamenen inguruan**, hona hemen ohar batzuk:

- . Donostiako Udal Patronatoarekin eta HABErekin gestioak egin diren arren, ez da euskarazko irakaslerik kontratatu;
- . informatika-gela ordezeko gizarte zerbitzua burutzen ari diren gazteei esker dago funtzionamenduan;
- . gurasoen eskola ez da martxan jarri baliabide ekonomikorik ez dagoelako eta Donostiako Pedagogi Aholkutegiak erantzuteko gaitasunik azaldu ez duelako.

* Azaldutako **gabezien** artean ondorengoak azpimarratu behar dira:

- . Liburutegiak: gela txikiegiak dira, bai liburutegi nagusia eta baita gazte eta emakumeentzako ere.
- . Zentroan ez dago prestaketa eta lan iharduerak osoki planteatzeko proiekturik.
- . Heziketa sistema arruntarekin dagoen lotura ez da nahikoa: Zuloagako Helduen Heziketa Iraunkorrerako Ikastetxearekin eta Donostiako

³ Gogoratu 2. oharrean datu hauen balio erlatiboaz eta aldakortasunaz esandakoa.

Pedagogi Aholkutegiarekin borondate onezko harreman pertsonalak daude.

- . Aurrez aurre egiten diren tutoretzak, UBEIk nahiz unibertsitateak burutzen dituenak, ez dira nahikoak.
- * Irakasle-plantila Hezkuntza Saileko irakasleekin indar badaiteke ere (Basauriko kasuan eta beste zenbait espetxetan gertatzen den bezala), nahiko arazo ikusten dira; izan ere, berehalako arazoari aurre egingo litzaiokeen arren, ez du Erakunde Penitentziarioen ardurapean dagoen **irakaslegoaren lanbide egoera** konpontzen laguntzen.
- * **Eskoletara joateko nahiko motibazio edo bultzagarririk ez dagoela** esaten denean, Basauriko Kartzelan jasotako antzeko hitzen bidez adierazten da: beste iharduera batzuk burutzeagatik baino kondenaarintze txikiagoa lortzen da; prebentiboentzako zentroa izanik, eskoletara modu jarraituan joateko zailtasunak daude; sarritan eskola-orduetan interferentziak egoten dira beste ekintza batzuetarako ordutegiagatik... Guzti horrek argi adierazten du eskola-iharduera ez dela lehentasunen barruan jartzen kartzelan.
- * Baina badago puntu positibo bat ere: zentro honek malgutasun handiz jokatzeko eritegian dauden pertsonen eskoletara joaten uzteko orduan (baldin eta sendagileen aurkako iritzirik ez badago) edo, baita aldi baterako zigorra betetzen ari direnei baimena emateko orduan ere. Beste aspektu positibo bat ere aipatu behar da: Hezkuntza Sailak berme sozialeko egitarauetarako urtero ematen dituen laguntzak aprobetxatzen dira, kasu honetan preso gazteentzat.

c) **Lanerako prestakuntza eta enplegu-suspertzea**

- * **Lanerako prestakuntzari** dagokionez, urtez urte burutzen da eta ontzat jotzeaz gain, nahikoa direla irizten zaio. Ikastaro gehiago antolatu ordez, daudenen kalitatea hobetzea eta preso-multzoen premietara egokitzea komeni dela adierazten da. Bestalde, urtero ikastaroak sustatzen dituzten erakundeen aurrekontu-mekanikarengatik urtariletik martxora gertatzen den ekintzen geraldia konpondu beharko litzatekeela esaten dute.
- * Hirugarren graduan sailkatuta dauden presoak **kanpoan lanbide heziketa ikastaroetara** joateko dauden aukerak erabili egiten dira.
- * **Hirugarren graduako presoak edo kartzela utzi berriak kontratatzeko** sistemak sustatzeko premia azpimarratzen da. Zenbait udalek kasu zehatz batzuek konpontzeko burutzen dituzten iharduereaz gain, hitzarmenean jasota dagoen puntu hori ez da garatu. Gainera, lagun-

tzetarako urteko deialdietan sartzeko baldintzak ia betezinak dira preso gehienentzat.

- * Zailtzat hartzen dute zentroa **lanbide heziketa arautua** emateko erakunde bezala onartua izatea (presoen mugikortasuna prebentiboan zentro batean, modulo profesionalen ordu kopuru handia, aldez aurretik eskatzen den ikasketa maila...). Halere, alternatiba ona litzateke preso batzuentzat, horiek gutxi izango badira ere.
- * Bi **aspektu** oso **positibo** azpimarratu behar dira:
 - Ihardueren koordinazioa, presoek eta lantaldeetako partaideek osatutako batzorde baten bidez.
 - Emakumeentzako ekintzetarako egitarau amankomun bat osatu da, bai eta horrela erakunde ezberdinen parte hartzea eta ekimen desberdinen koordinazioa sustatu ere.

d) **Suspertze pertsonalaren alorra**

Aurreko atalean jaso diren gaietako batzuk hemen ere sar daitezke. Gainditu beharreko hutsuneen artean, urteko lehenengo hilabeteetan aurrekontuen arazoengatik geratzen den geraldia dago.

e) **Osasun laguntzaren alorra**

- * Alor honetarako hitzarmen nagusiak planteiatzen dituen bost lan-ildo nagusien bidetik, ondorengoak aipatu behar dira:
 - **Lehen mailako laguntza:**
Osasunerako heziketa-egitarauak espetxe guztietarako finkatzen diren jarraibideen arabera burutzen dira; medikuntza prebentiborako eta zaintza epidemiologikorako kanpainiak, Osakidetzako langileekin elkarlanean.
 - **Laguntza farmazeutikoa:**
Hitzarmen nagusiak Osakidetzaren esku uzten duen botika-biltegien ikuskapena ez da egiten. Osakidetzak, halere, botika berezi batzuk bai ematen ditu, txertoak esate baterako.
 - **Laguntza espezializatua:**
Gipuzkoako Ospitalean nahiz Arantzazuko Amabirjinaeren Erresidenzian jasotakoa oso modu positiboan baloratzen da.
 - **Osasun mentaleko arazoetarako laguntza:**
Toxiko-menpekotasun arazoak dituzten presoei eman beharreko laguntzari dagokionez, behar duten arreta dagokien osasun mentalerako

zentroan ematea hobesten da, beti ere Erkidegoko osasun maparen arabera.

Ospitalean zaintza behar duten tratamendu psikiatrikoen kasuetan arazoak daude. Ez dago garbi Gipuzkoako Ospitalearen barruan unitate penitentiario bat sortzea komenigarria den ala ez.

- **Osasun alorreko langileen prestaketa iraunkorra**, Osakidetzaren ardurapean.
Ez dago. Kartzelan lan egiten dutenek profesionalekin edo zerbitzuekin harreman onak dauzkaten kasu batzuetan jasotzen dituzten gonbitetara mugatzen da.
- * **Zentroan bertan sendagileen laguntza** jasotzeari dagokionez, laguntza hori eskatu ondoren ematen bada ere, laguntza programatuagoa behar dela esaten da, eta protokoloak finkatzeko premia aldarrikatzen da.
- * Gaur egun, zentrorra joaten diren **espezialista** batzuentzat kontsulta bakoitzeko jarraitzen den hilabeteko kontratu sistema ez omen da egokiena. Horrela, laguntza psikiatrikorako, adibidez, kanpoko laguntzaren aukera nahiago dute.
- * **Metadonarekin** laguntzeko zentro bezala iharduteko aukerei dagokienez, horren premia larria eta beharrezko baldintzak azpimarratzen dira: ez bakarrik mantenimendurako (kanpoan hasitako prozesuekin jarraitzea), baita tratamenduak hasteko, inplikaturako parteen arteko koordinaziorako (Osakidetza, farmazi ikuskaritza...), giza eta material mailako balibideak lortzeko, hasitako tratamenduekin jarraitzeko kanpoko eta barruko zerbitzuen artikulazioa, etab. lortzeko. Saioak egin eta pausoak eman diren arren, bilera egin zen egunera arte eta ulertu ezin diren arrazoiengatik, kanpoan metadonarekin hasitako tratamenduekin barruan jarraitzeko aukerarik ere ez zegoen⁴.
- * Zentroan **xiringak trukatzeko proposamena** dela-eta, sendagileen ikuspegitik ez da horretarako arazorik ikusten; zentro piloto batean esperimendu hori egitea bideragarria eta beharrezkotzat jotzen da. Edonola, kolektibo ezberdinak (bereziki, kartzela barruan lan egiten duten funtzionarioek) inplikatzeko premia ikusten da, bai eta drogaren aurrean (iharduera-ugalketa, metadona egitaraua zabaltzea...) planteiamendu orokorragoak egiteko premia ere; arau mailako kontraesanak gainditu

⁴ Gestio ugari egin ondoren eta zenbait traba gainditu ondoren, egoera hau 1996ko otsailean konpontzen hasi da.

behar dira, prebentzio eta desinfektazio neurrien premia azpimarratzen jarraitu behar da. Arazoa konplexua denez gero, sakonki aztertu behar da, arrakasta izango duela bermatzeko eta pertsona kopuru handi samar bati erantzun ezberdinak eskaintzeko. Martuteneko kartzelan, 114 bat preso izango dira -hau da, hamarretik ia lau- ohiz droga zainetaratzen dutenak.

- * **Drogak kontsumitzeagatik sortzen diren arazoei erantzun orokor bat** emateko, arazoaz lehenik jabetu behar dutenak kartzelako sendagileak dira, eta horrek profesional eta ekipo ezberdinen **elkarlana** eskatzen du: esate baterako, AGIPAD-Drogei buruzko Ikerketarako eta Prebentziorako Gipuzkoako Elkartearen elkarlana. Zentroan Drogamenpekoari Laguntzeko Taldea egotea koordinaziobide egokitzat hartzen da.

f) **Giza laguntzaren alorra**

Ondorengoak dira alor honetan ikusten diren aspektu negatiboak:

- * Kartzeletako gizarte laguntzarako zerbitzuak ez omen daude Erkidegoko beste zerbitzuen mailan, eta oinarritzko gizarte zerbitzuekin eta kartzelaz kanpoko beste batzuekin **koordinazioa ziurtatzeko** biderik ez dago. Gabezia horiek maila pertsonalean gainditzen saiatzen dira, harreman informalen eta borondate onaren bidez.
- * Ezaugarri bereziak dituzten edo egoera larrian dauden pertsonentzako **babes sarerik** ez dago (adibidez familia laguntzarik gabeko HIESdun hilaurrekoak).
- * Baldintzapeko askatasunean dauden pertsonen edo senitartekoen erantzuteko **lokalik ez dago hirian**. Zerbitzu hori, legean ezarrita dagoena, bai egon zen lehenago, baina segurtasun arazoak argudiatuz itxi egin zuten.

g) **Erregimen irekia**

- * Aipatzekoa da Martuteneko kartzelako preso askok erregimen irekian betetzen dutela dagokien kartzela-zigorra: batzuek kartzelan bertan, baina egunero lanera irtenaz, eta beste batzuek komunitate terapeutikoetan, zentrotik kanpo. Oro har, alternatiba horiek oso ontzat hartzen dira eta daukaten garrantzia azpimarratzen da.
- * 1995erako aurrikuspen edo **proposamen** batzuk ez dira praktikara eramanez, hiltzear dauden HIESdunentzako egoitza baten sorrera, adibidez.

- * **Ametzagaña** Fundazioak hitzarmen bidez kudeatu eta Martuteneko Kartzelaren ardurapean dagoen **gazteentzako unitateari** arreta berezia eskaini zitzaion azterketa honetan. Gaur egun unitate horretan sartzeko dauden mugak gainditzeko premia ikusten da: adinaren muga zabaldu edo ezarritako mugaren banakako ezarpenean malgutasun handiagoa eduki behar da, ezarrita dagoen mugak ez duelako kontuan hartu behar adin kronologikoa bakarrik, baizik eta ezaugarri psikologikoak ere; emakumeei zabaldu, etabar. Horretarako indarrean dagoen hitzarmena aldatu beharko litzateke, bai eta, ondorioz, heziketa proiektua ere, premia berrien arabera moldatzeko.

Ametzagañan sartu ahalko liratekeen pertsonen ezaugarriak aldatzeko premiaz gain, daukan kokapena bera auzitan jartzen da. Pertsona gehienak Basauriko kartzelatik iritsi direnez gero, logikoena zentro hori Bizkaian kokatzea litzateke, hartara gazteak beraien gizarte eta familia inguruetan txertatzeko. Nolabaiteko kezka ere badago Justizia Ministerioaren eta Ametzagaña Fundazioaren arteko hitzarmenaren edukiak ezagutzen ez direlako.

C/ Elkarrizketatutako presoek azaldutako informazioei taldeek egiten dizkieten iruzkinak

Oro har, profesionalek presoek elkarrizketetan azaldu zituzten kritika **asko ontzat hartu dituzte**.

Desadostasun edo **zehaztasunik** handienak ondorengo puntuei egin zizkieten:

- **Ikasketa ez arautuetarako laguntzak** lortzeko zailtasunei dagozkienak. Zailtasun hori egon badagoela onartzen da, baina hori ez omen da zentroaren ezaugarria, gizarteari oro har dagokiona baizik.
- **Lantokietan lan egitearen truke jasotzen den soldata eskasari** buruz egindako balorazio kritikoarekin guztiz ados daude, baina enpresa kontratatzaileekin elkarlan aktiboan ez bada konpontzen, zaila ikusten dute horri irtenbidea aurkitzea.
- **Kirol horniduren** eskasari buruz: dauden batzuk ez dira asko erabiltzen.
- **Komunikazioen** mozketak ez da sekula zigor bezala ezartzen, baina bai, aldiz, droga sartzeko eragozteko badaezpadako neurri gisa, adibidez.
- **Ohizko sendagile zerbitzuari** buruzko kexei nahiko iruzkin egin zaizkie: botikak dohainik edo interesatuak dauzkan baliabide ekonomikoen arabera ordainduz emateko irizpidea eta eritegian sartzeko erabiltzen dena ere ontzat hartzen dira; zeldetan «rebaje» gehiago emateko pertsonal nahikorik ez omen dago; normalean sendagileek galeriak zuzenean bisitatzea ezinezkoa dela azpimarratzen da...
- **Zentroko baldintza higienikoei** buruzko zenbait kritikarekin ere ez datoz bat. Arazoetako batzuk preso askoren heziketa higieniko-sanitariorik

ezagatik sortzen direla diote. Hilean behin higienarako ematen den lotea mugatua dela onartu arren, desinfektatzeko erabiltzen den lixiba uretan nahasten ikasi behar dutela adierazten da.

- **Otorduen** kontrako kritikekiko dagoen desadostasun maila handia da. Gai honetan pauso handiak eman omen dira, eguneko eta preso bakoitzeko dauden 440 pezeta (edo gazteentzat eta gaisoentzat dauden kopuru handiagoak) ahalik eta gehien aprobetxatzen omen dira, eta kexa asko elikadura ohiturarik ezari leporatzen dizkiete (ogitartekoak bakarrik jaten ohitutako pertsonak...).
- **Burokrazia** eta prozeduren moteltasuna dela-eta, arrazoi hauek ematen dira: langile gutxiegi eta bitarteko informatikorik eza.
- **Gradu-hobekuntzak** beti eta salbuespenik gabe egiten omen dira arauak agintzen duen epean, epaitegian bideratzen ari den errekurtsoren bat dagoenean izan ezik.

D/ Profesionalen arazo bereziak eta proposatutako hobekuntzak

- * Profesionalen arazo berezien artetik ondorengoak dira azpimarragarrienak, beraiek azalduta bezala:
 - Beraien lana erraztuko luketen **baliabide materialak** urriak dira: ordenagailuak, telefonoak, artxiboak...
 - Kartzelak **aurrekontua gestionatzeko** gaitasun urria dauka, premiei bizkor erantzuteko.
 - **Laguntzarako sare arruntan** egoerari dagokionez: geto batean egoteko sentsazioa, ezezagunak izatekoa, sare horietatik kanpo dauden zerbait bezala hartuak izatekoa, gizarteak dagokien neurrian baloratzen ez dituelako ustea... Sentsazio hori areagotu egiten da sare horiek berritzen direnean: adibidez, nola artikulatuko da hezkuntza sistema berria, derrigorrezko bigarren hezkuntza... kartzelako irakaskuntza sisteman?
 - Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinek sustatutako **prestaketa iraunkorrerako iharduerak** burutu ezina. Ekintza horiek hitzarmeneko alor batzuetan zehazki jasota daude, eta ezintasuna arrazoi hauengatik sumatzen da: informaziorik ez dago, ez zaie eskaintzarik egin, kartzelak ekintzetara joateko behar den laguntza emateari uko egiten dio... Prestaketarako iharduera gutxi edo bat ere ez egoteak profesionalen taldeengan (osasun eta hezkuntza alorrekoetan...) ez ezik, funtzionario talde osoan ere badu eraginik.
 - **Plantila edo langile kopuru** txikiiegia, eta baja kasuetan ordezkoak hartzeko sistemaren hutsuneak. Plantila arazoak talde guztietan daude, adibidez, sendagileen, irakasleen eta gizarte sorosleen artean); sarritan iragarritako postuekin edo bere garaian bete eta arrazoi ezberdinengatik denbora luzean langilerik gabe egoten direnekin ere arazoak daude.

- Desadostasunak daude **zenbait ordutegirekin** (adibidez, goardia sistemekin eta sendagileen goardiekin), edo **lansariei buruzko irizpideekin** (adibidez, «bulegoetarako osagarria» eta ez «eremu misto» edo «barne eremukoa», irakasleen kasuan).
- * Pertsona horien **etorkizun profesionalarekin** lotuta, kartzela gaietan Eusko Jaurlaritzaren eskuetara etor daitekeen aginpidearen aurrean kezkatuta ageri dira. Informazioa eskatzen dute, batez ere beraien lanpostuen egoerarekin zerikusia duen guztiari buruz: traslado aukerak, euskara jakin beharra... Bestalde, administrazio ezberdinekiko (zentrala eta autonomikoarekiko) harreman-bideak behar adina zehaztu gabe daudela ere iruditzen zaie.
- * **Laguntzarako sare orokorretan** (osasuna, hezkuntza...) **integratzeko** profesional talde ezberdinek egiten dituzten **proposamenak**, hemen ere Basauriko moduan planteiatzen dira, argudioak berdinak direlarik. Orain arte azaldutako proposamenez gain, ondorengoak ere azpimarratzekoak dira:
 - Zentroaren kudeaketa informatizatzeari berehala ekitea.
 - Euskara zentroan bertan ikasteko aukera edukitzea.
 - Presoentzako laguntza-txandako abokatuaren prestaketa berezia eta horiekiko koordinazioa hobetzea.
 - Abokatu bazkudeekin dauden hitzarmenen barruan sar dadila Kode Penal berriaren ezarpenari buruzko informazioa presoei emateko premia.
 - Presoen Zaintzarako Epaitegia zabaldu dadila.
 - Presoen Zaintzarako Epaitegiak aurkeztu ahala ebatzi ditzala errekurtsoak.
 - Etorkizunean kartzelak diseinatzerakoan kontuan har dadila tamaina: zentro txikiak aukeratzea proposatzen dute.
 - Kartzelan egon beharreko denbora ikasteko eta lan egiteko erabil dadin bultzagarriak jartzea.
 - Lantokietan lan egiteko kontratazio eta lansari sistemak berraztertu eta hobetzea.
 - Kartzela zigorra betetzeko beste ordezkori bide batzuk, gizartearen inplikazio handiagoa dutenak, bilatzea.
 - Donostian hirugarren graduako emakumeentzat zegoen babes-etxea ireki dadila (bertako hezitzailearen hilketagatik dago itxita).
 - Gaiso sendaezinei Arautegi Penitentiarioak 60. artikuluan xedatzen duena ezartzeko irizpide malguagoak erabil daitezela.
 - Berrito aztertzea gazteentzako moduloak eta unitateak Donostian jarraitu behar ote duen edo antzeko bat Bizkaian sortu behar ote den.
 - Enplegu sustatzeko laguntzak emateko urtero egiten diren deialdietako oinarriak alda daitezela.

- Urteko lehen hilabeteetan egoten diren iharduera gutxiko aldiak saihesteko aurrekontuetan dauden arazoak konpontzea.
- Pobrezia egoera larrian dauden presoei laguntzeko (telefonoz deitzeko, bidaiak egiteko...) diru laguntzak gehitzea.
- Elkarateak eta taldeak zentroan sar daitezzen bideak gehiago erraztea...

2.3. LANGRAIZKO KARTZELAKO EGOERA

2.3.1. ZENTROAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIAK ETA BERTAKO INSTALAZIOAK ETA EKINTZAK EZAGUTZEKO EGINIKO IKUSTALDIA (ALDERDIRIK AIPAGARRIENAK)

* Langraizko Kartzela, Basaurikoa eta Martutenekoa ez bezala -horiek prebentiboentzako zentrotzat jotzen baitira eta hirietan kokatuta baitaude-, kartzela-zigorra betetzeko zentroa da eta Gasteiztik 10 bat kilometrotara dago. Gaur daukan betebeharrari 1981ean ekin zion, aurretik, zentro askoz txikiagoa eta prebentiboentzat bakarrik baitzen.

Gaur egun, presoen bizitzarako **sail** hauek dauzka:

- . emakumeentzako bi modulo;
- . gizonentzako eritegirako modulo bat;
- . gizonentzako bost modulo orokor;
- . gizonentzako atal ireki bat.

Guztira, 562 zelda dauzka. Zelda bakoitzean gizon edo emakume preso bat sartu beharko litzatekeela kontutan izanda, eta sailkapen penitentzioaren, sexu edo osasun egoeraen arabera mailakatzeko premia dela medio, kartzela honen kapazitate erreala **550 postu** ingurukoa dela esan daiteke.

Zentroko zuzendaritzaren iritziz, behar larria gertatuz gero eta behin-behineko izaerarekin kapazitate hori 100 plaza gehiagora igo daiteke; kopuru horietatik aurrera, zentroak pilaketa arazo larriak ditu eta instalazioak ez dira nahikoak presoek behar bezala erantzuteko eta administrazio penitentziarioak eman behar dituen prestazioekin bitzita ordenatu bat bertan burutzeko.

* Txosten honetako datuak kokatzeko erabiliko dugun erreferentzia egunean (1995eko abuztuak 1), **kartzelan, guztira, 908 preso zeuden: 796 gizon eta 112 emakume**. Ikus hurrengo orrialdean horien kartzela-egoerari buruzko datu adierazgarri batzuk.

Pertsona horien artetik gehienak jabetzaren kontrako **delituak** burutzeagatik kondenatuak edo salatuak daude (emakumeen artetik %50 eta gizonen artetik %40), edo osasun publikoaren kontrako delituengatik (emakumeen artetik %44 eta gizonen artetik %37).

Hirugarren graduan sailkatutako pertsona guztien artetik 11 gizon eta 5 emakume **kartzelaz kanpoko erakundeetan** daude drogamenpekotasunetik ateratzeko prozesuetan. **Atal irekiko** beste 38 gizonek kanpoan lan edo prestaketa iharduerak burutzen dituzte, toxikomaniaren kontrako tratamendu ambulatorioa jasoz edo zentroak berak programatutako ekintzetan parte hartuz.

Kartzelan presoek igarotzen duten denbora-kopuruan alde handiak daude, baina bertan daudenetako askok urte dexente daramate kartzelan.

Zentroaren datu adierazgarri eta berezi gisa hau adierazi behar da: **atzerriko pertsona asko daude bertan, 340 hain zuzen, guztien %38, beraz.**

Pertsona horietako gehienak jatorriz afrikarrak dira (128, eta horien artetik %78 Marokokoak). Atzerritarren heren bat europarrak dira (117 erreferentzia egunean). %15 hegoamerikarrak dira eta antzeko portzentaia dute beste jatorri batekoek.

PRESOEN SAILKAPENA

Langraizko K. (95-08-01)	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Preso guztien artetik %	Zigorpetuen artetik %
Prebentiboak	41	33	74	%8	-
Zigorpetuak					
. 1. graduen	4	-	4		%0,5
. 2. graduen	657	48	705		%84,5
. 3. graduen	68	17	185		%10
. sailkatu gabe	26	14	40		%5
Zigorpetuak guztira	755	79	834	%92	%100
Presoak guztira	796	112	908	%100	-

* Preso daudenen adin-ezaugarriari dagokienez, ondorengo da **adinaren arabera**ko banaketa:

- . 16 eta 20 urte artekoak: %0,5
- . 21 eta 25 urte artekoak: %20,5
- . 26 eta 30 urte artekoak: %37
- . 31 eta 40 urte artekoak: %25
- . 41 eta 60 urte artekoak: %10,5
- . 60 urtetik gorakoak: %6,5

* * *

Langraizko Kartzela ezagutzeko **bisitak** Arartekoak berak, Ondokoak eta erakunde aholkularietako batek egin zituzten, eta ondorengo egunetan burutu ziren:

- . Uztailak 4 eta 12: prestaketa bilerak.
- . Irailak 13: instalazio eta ekintza gehienak ezagutzeko bisitak.
- . Irailak 27: datu bilketa eta laginaren aukeraketa.
- . Urriak 26, azaroak 2 eta 7: presoekiko elkarrizketak. Gainera, azaroaren 7an, ikusi gabe geratutako instalazioak eta ekintzak bisitatu ziren.
- . Azaroak 21: profesionalen taldeekiko bilerak.

* Lehenengo **bilera** (uztailak 4) tratamendu taldeko kide batzuekin egin zen, eta helburua proposatzen diren ekimenak aztertzea eta kontrastatzea zen: hitzarmenaren balioa, prozesuan eman beharreko pausoak, elkarrizketatu

beharreko presoak aukeratzeko sistema, informazioa itzultzeko aukerak, presoek laguntza emateko programetan ari ziren talde eta erakunde adierazgarrienak... Esan behar da, aipatutako kideek egin zituzten proposamenetako batzuek ekimenaren zenbait aspektu hobetzeko balio izan zigutela.

Bigarren bilera zuzendariarekin egin zen, eta proposamena formalki aurkezteko eta aspektu batzuk zehazteko balio izan zuen: egunak, orduak, eman beharreko pausoak, etabar.

Lehenengo bilera horietan argi azaltzen dira arazoak planteiatzen dituzten zenbait gai, adibidez:

- . **hitzarmenaren** garapen murrizta;
- . zentroaren kudeaketaren zati handi bat **informatizatu** gabe egotea;
- . **ur zikinen garbigailuarekin** dauden arazoak (gaitasun eskasa, kiratsa, gaez egiten dituen zaratak);
- . **suteen kontrako sistemaren** hutsuneak...

* Presoekin izandako elkarriketen berri txosten honetako hurrengo atalean (2.3.2.) emango da. Horrela, bada, zentroko instalazioetara eta ekintzetara egindako bisitetan ikusi ditugun arazorik larrienak baino ez ditugu jasoko orain.

Ikusitako arazoen artetik ondorengoak azpimarra daitezke:

- Gizonentzako **mintzatokiak**: behar adina ez (hitzeko harremanetarako 10 mintzatoki 800 presorentzat, gehi «aurrez aurreko» harremanetarako lau); txikiak; arazo akustikoak; abokatuen mintzatokiak ez daude behar adina isolatuta.
- **Prestakuntza lantokiak**: ez dago behar adinako espazio fisiko. (Gaur egun 125 bat preso ari dira horietan. Bazegoen proiektu bat 250 presori lana emateko moduko lantokiak egiteko. Gasteizko Udala behar ziren monitoreen kostua bere gain hartzeko prest zegoen. Proiektua geratuta dago lanak aurrera eramateko dirurik ez dagoelako)
- **Liburutegia**: oso txikia. (Unibertsitate mailako ikasketak burutzen ari direnei bakarrik uzten zaie sartzeko. Sartzeko aukerarik ezari aurre egiteko, mailegu zerbitzua dago liburutegitik moduloetara liburuak eramateko)
- **Metadona banaketa**: kanpoan metadonarekin tratamenduan dauden presoek ematen zaie (jarraipen programa), baina ez da lortu barruan antzeko ezaugarriekin egonik premia dutenei eta lehenagotik hartzen ez zutenei programa ezartzea.
- **Jangelak**: modulo ezberdinetako jangeletako postuak gutxiegi dira; horregatik, jangela modura beste gela batzuk erabili behar izaten dira, hala nola, egongela (adibidez, II. moduloan) edo zeldetara joateko pasiloak (adibidez, IV. moduloan). Modulo gehienetan jangela da nahiko neurri handiko gela amankomun bakarra, eta horregatik betebeharrak ezberdinetarako erabiltzen da: jateko, jokatzeko, telebista ikusteko...
- **Lantoki produktiboak**: ez daude behar hainbat postu (produktiorik handiena dagoen momentuetan guztira 100 pertsona inguruk lan egin

dezakete lantoki horietan). Lana hiru edo lau enpresarentzat egiten da, eta normalean pieza montaketa da. Bisitatu genuen lantokian (UFESA enpresarentzat elektragailuak montatzen dira), seguraski neguan hotz handia egingo du, ez baitago behar bezala isolatuta eta berokuntza sistemak eta argindar sarearen kapazitateak ez daukatelako ahalmen handirik. Preso batzuekin lanpostuan zeuden bitartean izandako elkarrizketa informalean arabera, gai asko daude aztertu eta hobetu beharrekoak: lantokietan lan egiteko pertsonak aukeratzeko sistemak (itxaron-zerrenden irizpidea eta kudeaketa), langileen lan egoera (kontratazioa, segurtasuna, soldata...).

Lantoki produktiboak handitzeko proiektua ere badago, baina lanak burutzeko dirulaguntzak noiz jasoko zain.

- **Sukaldeak.** Ondorengoak dira ikusitako arazo nagusiak:
 - . horma batzuk axuleiurik gabe daude, zikin, hezetasunez eta harrotuta;
 - . keak ateratzeko sistema ez da nahikoa, lurrin pilaketa handiak eragiten dituelako;
 - . biltegiaren eta frigorifiko-kamaren kapazitatea txikiegia da;
 - . sukaldean lana egiten dutenentzat dauden sukalde ondoko dutxak egoera penagarrian daude.
- **Eritegia:**
 - . kartzela barruan daukan kokagunea ez da egokia, moduloetatik bertara iristeko zailtasunak daudelako;
 - . muga arkitektonikoak ez dira kendu;
 - . dauden postuak, teoriarik bederen, ez dira nahikoak (35 preso-multzo osoarentzat). Bisita egunean, ordea, 19 pertsona bakarrik zeuden bertan. Beste gaiso asko beraien moduloetan egoten dira.
- **Dutxak:** batzuen eta besteen artean alde handiak daude, batzuk berritu gabe, eta besteak, presoek beraiek egindako lanaren bidez axuleiatuta eta txukunduta daudelako.
- **Jende pilaketa:** jende pilaketa zentroaren kapazitate teorikoaren (550 bat postu dira, lehenago esan den bezala) eta bertan dagoen preso kopuruaren (908 pertsona, erreferentzia egunean) artean dagoen aldeagatik sortzen da. Arazoa ez da mugatzen zeldak preso batek baino gehiagok erabili behar izatera; horretaz gain beste arazo hauek ere badaude: gabeziak lantokietan, jangeletan, gela amankomunetan... Egoera hori modulo batzuetan nabariagoa da besteetan baino. Adibidez, II. moduloan 256 preso bizi dira -atzerritar asko daude tartean-, eta pasiloak eta gelak jendez gainezka daude. Kasu batzuetan, adibidez IV. moduloan, espazio amankomunik nahikorik ez dagoenez gero, zeldetan pasa daiteke ia egun osoa. Jende pilaketaren ondorio nabarietako bat **zelda** gehienak bi pertsonen okupatuak egotea da, banakako zeldena ia salbuespena delarik. Kontuan izan behar da, oro har, eta eritegiko zeldak salbu, zelda oso txikiak direla

(zortzi bat metro karratu), oheak eta arropa eta beste gauzak gordetzeko espazioez gain, zati bat komunak eta lababoak okupatzen dutelarik.

- **Garbitasuna:** Garbitasun arazo batzuk eraikuntzan erabilitako materialengatik sortzen dira. Horrela, adibidez, horma batzuk garbiagoak egongo lirateke axuleiua balego eta, bestalde, behin eta berriz zuritu beharrik ere ez litzakete egongo. Bisitatutako leku batzuetan, zentroak hartu du dagoeneko axuleiua jartzeko erabakia, dauzkan bitartekoez baliatuz.
- **Atal irekia:** oro har, atal honetan dagoen utzikeri sentazioa deigarria da: komunak oso zikinak, sukaldean garbitasun falta, ur-isurketak, kristalik eza, berokuntza zentralik eza (zeldetan berogailu elektrikoak jar daitezke), patioa gaizki zainduta eta erabiltzeko batere prestatu gabe... Atal horretan dauden pertsonak, bestalde, eguna ezer egin gabe pasatzen dute, kanpoan lanik ez daukatelako eta adibidez garbitasun arazo batzuk konpontzeko balioko lukeen «destinorik» gabe.
- **Emakumeentzako moduloak:** emakumeen moduloetan ikusitako arazo askoren oinarria eraikuntzaren estrukturan bertan bilatu behar da (lehen prebentiboentzako zen zentroa egokitu baitzen). Aspektu negatiboen artean ondorengoak aipatu behar dira: batetik, I. moduloko zelda handietako bat lau ohe dituen «eritegi» bihurtu behar izan da, zentroan emakumeentzako eritegirik ez zegoelako; eta, bestetik, espazio amankomun batzuk iharduera ezberdinetarako erabili beharra dago: jangela eta eskola, egongela eta gantxo lantokia, ikasgela eta liburutegia... Amek seme-alaba txikiekin elkarbizitza egiteko espaziorik ere ez dago. Konparazioz, lantokietarako (larrua, jostun lanak, ileapaindegia...) erabil daitezkeen gelak eta horien hornidurak itxuraz beste modulo batzuetan ikusitakoak baino handiagoak dira. Aldiz, gizonentzako lantoki produktiboekin konparatuz, lan ordaindua egiteko aukerak lantoki bakar batera (gantxo lantokira) mugatzen dira, eta lantoki horrek baditu bere berezitasunak: teoriarik, espazioaren arabera nahi duten guztiek lan egin dezakete, baina ez dago kontrataziorik, bukatutako kaxen arabera ordaintzen zaie.
- **V. moduloa:** modulo horretan, besteak beste lehenengo graduan sailkatutako zigorpetuak, graduan atzera egiteko proposamenarekin daudenak eta segurtasun pertsonalagatik eskatzen dutenak aurkitzen dira. Pertsonak beren buruak zauritzea galarazteko bi zelda berezi dauzka, ohea lurrari josita eta presoak bertan geldiarazteko bitartekoekin prestatuta dago. Presoek beren buruak ez zauritzeko helburua errespetatuz, bi zelda horiek hobetu egin behar lirateke, bai planteiamendu aldetik eta baita txukuntasun aldetik ere (garbitasuna, pintura, koltxoia...). Egongela amankomunaren mugak ere azpimarratu behar dira, muga horiek beste moduloen antzekoak badira ere, kasu honetan eragin negatibo bereziak dituztelako; izan ere modulo horretako presoak ez dira

lantokietara irteten eta egin dezaketen iharduera bakarra egongela amankomunean burutu dezaketena besterik ez da.

2.3.2. LANGRAIZKO PRESOEKIN IZANDAKO ELKARRIZKETAK

Basauriko eta Martuteneko zentroetan bezala, kasu honetan ere presoen **lagin adierazgarria lortzeko** jarraitu zen metodoa zorizkoa izan zen, zentroko modulo desberdinetan irailaren 11an zeuden presoen zerrenden arabera. Halere, kasu honetan, zentroan pertsona asko zeudenez gero (895, egun horretan), kopuru txikiagoa aukeratzea erabaki zen: %5. Horrela, elkarrizketatu nahi zirenen hasierako banaketa hau izan zen:

- . Emakumeen saila: 6.
- . I. moduloa: 12.
- . II. moduloa: 12.
- . III. moduloa: 6.
- . IV. moduloa: 5.
- . V. moduloa: 2.
- . Eritegia: 2.
- . Atal irekia: 2.

Horrenbestez, 47 pertsona hartzen ziren guztira, gehienak zigorpetuak eta bigarren graduan sailkatuak. Lehenengo zerrendan zortzi aldaketa sartu ziren, guztiak aipatu diren irizpideei jarraituz (ikus 2.1.2. eta 2.2.2. atalak).

Langraizko presoei hiru egunetan zehar egin zitzaizkien elkarrizketak: urriak 26, azaroak 2 eta azaroak 7. Horretarako, erakundeko hiru pertsona joan ziren kartzelara: Arartekoa bera, Ondokoa eta aholkularietako bat. Moduloen sarreretan zuzendaritzak prestatutako bulegoak erabili ziren. **Guztira 64 presori egin zitzaizen elkarrizketa: 56 gizoni eta 8 emakumeri.**

Ikus daitekeen bezala, hasieran aurrikusi baino askoz pertsona gehiago elkarrizketatu ziren. **Preso askok errezibituak izateko eskaera egin zutelako** gertatu zen horrela. Eskari horietako gehienak idatziz zentroko zuzendaritzari edo Ararteko erakundeari berari igorri zitzaizkion; beste batzuk erakunde honetako ordezkariak zentroan zeudela aprobetxatuz ahoz egin ziren.

Horrela, hogeit hamar pertsonatik gora elkarrizketatu ziren beraien eskariz, zoriz osatutako zerrendan ez zeuden arren. Horretaz gain, atzerritar batzuk interpretari lanak egiten zizkieten lagunekin batera etorri ziren. Kasu horietan, interpretariak, normalean elkarrizketaren bukaera aldera, bere kasua azaltzeko edo bere informazioa emateko aprobetxatzen zuen.

* * *

Presoak aukeratzeko eta horiei elkarrizketak egiteko eman ziren pausoak deskribatu ondoren, jarraian elkarrizketa horietan jasotako informaziorik azpimarragarrienak adieraziko ditugu. Beste bi zentroetan jarraitutako eskema erabiliko dugu gutxi gora-behera, baina, kasu honetan, informazio asko jaso denez

gero, epigrafe edo atal berriak sortuko ditugu informazioa argiago gera dadin. Horrela, beste zentzoei eskainitako ataletan bezala, ondorengo **oinarrizko bi alorrek bereiztuko ditugu:**

- A/ Elkarrizketatutako pertsonak azaldutako **interesguneak** (behin eta berriz azaltzen dituztenak edo gehien azpimarratzen dituztenak).
- B/ Azaldutako **arazoak** edo **kexak** (dagokien zentroko bizitzaren ezaugarrien arabera sailkatuak eta bereiztuak).

Aldez aurretik, ordea, **ohar** batzuk egin behar dira:

- . Adierazi den bezala, presoak kasu bat baino gehiagotan **interpretari** lanak egiten zituen beste pertsona batekin azaldu ziren elkarrizketetara. Ez dirudi horrek eragin txarra izan duenik elkarrizketen garapenean. Kontuan izan behar da kasu horietan presoak berak aukeratzen zuela bere interpretaria eta Langraizko preso asko horretara ohituta daudela. Elkarrizketak beti presoak aukeratutako hizkuntzan egin ziren: gazteleraz, kasu gehienetan; euskaraz, lau kasutan eta beste hizkuntza batzuetan hamar bat kasutan (horietako bostetan interpretariaren laguntzarekin).
- . Sarritan, ahozko azalpenekin batera idatziak edo **agiri gehigarriak** eskuratu zizkiguten (atzera botatutako eskariak, erakunde ezberdinen aurrean bideratutako gorajotzeak, kondena kitapenari buruzko orriak...), ia beti pertsonalak.
- . Kasu batzuetan, elkarrizketatutako pertsonak **talde jakin baten bozeramale** lanak egin zituen. Esate baterako, kasu batean moduloetako preso batek bere modulokoen arazo eta kexak jasotzen zituen idatzia aurkeztu zuen, berrogei presok sinatua zegoena.
- . Seguraski elkarrizketak egin ziren uneak (urriaren bukaera eta azaroaren hasiera, Kode Penal berria Parlamentuan onartzeko azken pausuk ematen ari zirela) badu zerikusirik **kode penal berriaren ezarpenak** beraien egoera penitentziarioan eduki dezakeen eraginari buruz azaldu zizkiguten zalantza ugarietan.
- . Oro har, elkarrizketetan **lankidetzaren giro** handia erakutsi zen eta era guztietako arazoak, kexak eta iradokizunak azaldu ziren. Salbuespen gisa bi kasu aipa ditzakegu: pertsona batek dena ongi zegoela zioen eta bere kezka bakarra kartzelatik irtetean bere jaioterrira (Afrikako zentzora) itzuli nahi ez zuela zen; beste batek zalantzan jartzen zuen guk erakunde arduradunen aurrean eduki genezakeen eragina eta kartzelako egoera hobetzeko guk esandakoak eduki zezakeen pisua. Baina, esan bezala, horiek salbuespenak dira, horien parean elkarlanerako eta kritikarako jarrera azpimarratu behar delarik. Halere, ez da ahaztu behar kartzelako

egoerak eragin handia eduki eta azalpenak emateko askatasuna eragotz dezakeela.

- . Pertsona batek baino gehiagok **zalantzak azaldu zituen gure bisiten balioaz**, eta hori hainbat arrazoiengatik: zentroko zuzendaritzak erakutsi nahi ziguna baino ez genuelako ikusiko; gure bisitarenegatik, espetxea ohiz baino garbiagoa egon zitekeela, eta ez normalean bezain narratsa... Pertsona batzuek ez zuten sinesten elkarrizketatu beharreko pertsonen hautapena inolako «amarrurik» gabe egin zenik ere.
- . Aztertutako arazo-multzoa orokorra eta gutxi gora-behera preso guztiei dagokiena bada ere, preso-multzoaren ezaugarri bereziengatik eta preso horiek osatzen duten proportzio handiarengatik (preso guztien %38), **preso atzerritarren egoera zail samarrak arreta berezia merezi du**. Talde horrek nahiz emakumeenak eta baliabide ekonomikorik gabekoek daukaten arazo-multzo berezia B atalaren amaiera aldera aztertuko da.
- . Egindako lanak dituen ezaugarriengatik, **hitzarmen nagusiaren edukiei zuzenean dagozkien gai** batzuk azpimarratuko ditugu. Edonola, presoek jakitera emandako arazo guztiak jaso ditugu, baita hitzarmen horretako edukiekin zerikusi zuzenik ez daukaten, baina nabarmen kezkatzen dituztenak ere.

A/ Elkarrizketatutako pertsonen adierazitako interesgune nagusiak

Elkarrizketetan gai batzuk behin eta berriz edo intentsitate handiarekin azaldu zirela kontuan izanik, zalantzarik gabe esan daiteke Langraizko kartzelan badaudela zenbait gai behin eta berriz azaltzeaz gain **oro har preso guztiak kezkatzen dituztenak**. Ondorengoak dira:

- . irteera-baimenak (atzerritarrentzat batez ere);
- . kartzela-zigorra betetzeko baldintzak (bereziki kartzelan bertan betetzen diren baldintzapeko askatasunaldi posibleak);
- . kartzela-aldaketak (beste erkidego batzuetatik, edo atzerriko herrialdeetako zentroetara...);
- . otordu kaskarrak;
- . droga (xiringen gaiarekin lotuta, metadona-tratamenduan jarraitzeko aukerak...);
- . barne burokrazia (moteltasuna tramitazioetan, erantzunik eza...).

Elkarrizketa gehienetan errepikatzen diren sei gai horietaz gain, badira asko errepikatzen diren beste batzuk ere, hala nola:

- . zentroko masifikazioa (zeldetan pertsona bat baino gehiagok egon beharra, jangeletan guztientzako lekurik ez egotea, egongela txikiak, guztiek erabili behar izaten dituzten dutxa, eta komun gutxiegi egotea guztientzat...);
- . Arautegi Penitentiarioaren 60. artikulua ezartzeko aukerak (sendabiderik gabeko gaisotasunak...);
- . lantokietan eta ikastaroetan sartzeko eta destinoak lortzeko aukerak;
- . osasun eta higiene baldintzak;
- . tratamendu taldeetako profesionalekin, Presoen Zaintzarako Epailearekin eta abokatuekin harreman zuzen gutxi edo bat ere ez egotea;
- . Eusko Jaurlaritzak kartzela alorreko aginpideak bere gain hartzeko aukeraren aurrean dagoen ikusmina (bereziki Erkidegoko presoen artean);
- . famili egoera larriak;
- . Kode Penal berriaren ezarpenak ekar ditzakeen ondorioak.

Osasun alorrarekin zerikusia duten gaiak azpimarratu behar dira hemen, pertsona askok planteiatzen dituztelako eta hitzarmen nagusiak ekimen-aukerak uzten dituelako: drogaren inguruko arazoak, xiringa ezarekin lotuak; tuberkulosiaren hedapena; HIES eta beste gaisotasun batzuk kutsatzeko arriskua, higiegizko eta osasuneko egoera...

B/ Arazo edo kexa azpimarragarriak

Beste bi zentroetan bezala, hemen ere kexak antolamendu **eskema** berari jarraituz aurkezten ditugu. Kasu honetan, ordea, azpisailkapenerako irizpide gehigarriak erabili dira. Helburua berdina da: argiagoak izatea; eta kasu honetan hori horrela egiteko arrazoiak ongi arruntak dira: **kexa asko** jaso dira, neurri batean elkarrizketa kopuru handiagoari eta beste bi zentroekin konparatuz Langraizkoak dituen ezaugarri bereziei leporatu behar zaizkienak.

Esan behar da kexa horietako batzuk -elkarrizketatutako presoen adieraziak- aurrerago zehaztuko direla (ikus 2.3.3., C atala) zentroko profesionalen taldeen bidez.

a) Lehenengo multzoan, **presoen egoera prozesal edo penitentiarioarekin zerikusia duten aspektu juridikoei** dagozkien kexak jasotzen dira, eta horien artean hauek azpimarratu nahi ditugu:

- . ofiziozko abokatuen kontrako kexak: esperientziarik eza, harreman zuzenik eza (kasu batzuetan, harremanik ez dago epaiketa unera arte), hizkuntza ez jakitea...;
- . kartzelaldi prebentiboa eta/edo ezarritako kartzela zigorra guztiz neurritz gabekoa dela pentsatzen da askotan (pertsonaia publikoei ezartzen zaizkienekin konparatuta sarritan);
- . Presoen Zaintzarako Epaitegiaren ihardueren kontrako kexak (tramite-etako moteltasuna, erantzunik eza, epaileak zentrorra egiten dituen bisitetan harekin hitz egiteko aukerarik eza...);

- . irizpide murriztaileak (gradu-hobekuntzetan, baldintzapeko askatasuna ematerakoan...) hiritarrek kontrako iritzia azalduko duten beldurrari egotziak;
- . guztien iritziz, baldintzapeko askatasuna ez da zuzen ezartzen: kartzelan igaro beharreko denbora alferrik luzatzen omen da;
- . zaintza juridikorako zerbitzuetara jotzeko arazoak (hilabeteetako itxaroaldiak...);
- . abokatu partikularren kontrako kexak (ordain-sari garestiegiak, profesionaltasunik eza...);
- . Kode Penal berriaren ezarpenari buruzko zalantza oso zabalduak.

Atal honetan, eta berez aspektu juridikoa ez bada ere, **trasladoen politikari buruzko kexa oso zabaldua** jaso beharrean gaude. Jatorriz espainiarrak diren pertsonen kasuan, beraien jaioterrietatik urrundu dituztelako, beraien erkidegoetara hurbiltzeko eskariei erantzuten ez zaielako edo ezezko erantzuna ematen zaielako... Europako Elkarteko atzerritarren kasuan, beraien herrialdeetara trasladatzeko tramiteen moteltasunagatik (tramite horiek, kasurik hoberenetan, urtebetez luzatzen dira). Kontuan izatekoa da Langraizko kartzelako preso gehienak jatorriz handik nahiko urrutikoak direla: %38 atzerritarrak eta preso asko eta asko beste autonomi erkidego batzuetakoak.

Ararteko erakunde honetatik zerbait egin dezakegun neurrian, **hemen azpimarratzekoa da abokatuen ihardueraren kontra dagoen kexa kopuru handia**, bai abokatu partikularren kontra eta bereziki txandako ofiziozko abokatuen kontra.

b) Bigarren multzo honetan **kartzelako bizitza eta funtzionamenduaren kontra aurkeztutako kexa** ugariak biltzen ditugu. Hiru atal nagusi bereizten dira:

1. Zentroko bizitzaren aspektu ezberdinei buruzko kexa zabalduak.
2. Hitzarmen nagusian iragarritako iharduera alorrekin zerikusia duten kexak.
3. Talde jakin baten edo espetxeko moduloetakoren baten egoerari buruzko kexa bereziak.

1. Espetxeko bizitzaren aspektu ezberdinei buruzko kexa zabalduak

- Baimenen ukapenei buruz:

- . politika murriztailea, gizartean dagoen giroaren arabera;
- . ukatzeko arrazoen arbitrariotasuna: «kartzela-zigorren 3/4aren urruntasuna», «baimena hausteko arriskua», «gizartean sustraitu gabe egotea»...

Kexa horiek oso adierazgarriak dira atzerritarren taldean. Kasu askotxotan, konparaketak egiten dira beste zentro batzuetan baimenak emateko

jarraitzen den politikarekin. Elkarrizketatutako batzuen ustez, hain zuzen baimenei buruzko politika murriztaile horregatik gertatzen dira hausketak, etsipenak eraginda (denbora luzez itxarondako baimen-aldi batetik ez itzultzea), edo gizarteaz mendekatzeko (berriro delitu-ekintzak egitea).

- **Espetxeko profesionalekiko harremanak:**

- . funtzionarioekin dauzkaten harremanak hotzak dira;
- . tratamendu taldeko profesionalekin (juristak-kriminologoak, psikologoak...) oso noizbehinkako harremana;
- . komunikaziorako traba burokratikoak (eskari idatziak aurkeztu beharra);
- . kartzelak izan behar duen bergizarteratzeko helburuarekiko interesik eza;
- . tratu zorrotza...

Kasu askotan, presoaren bizitzan erabakiek eduki dezaketen garrantziaren arabera, kexak baten edo bestearen kontra zuzentzen dira, hots, zuzendaritzaren, erregimen-bulegoaren edo espetxeko tratamendu taldearen kontra (harreman sistematikorik ez egotea, moduloetan gutxiegi agertzea, kasu batzuk abandonatu eta beste batzuei heltzea, gradua hobetzeko arauak ezartzen dituen epeak ez betetzea, gradu-hobekuntzak burokratikoki egitea, harreman zuzenik eduki gabe...).

- **Tramite burokratikoetarako dagokienez:**

- . gauza guztietarako eskabide-orriak aurkeztu beharra;
- . erantzun bizkorra zigortzeko orduan, eta oso motela onurak ezartzerakoan;
- . aurkeztutako eskabide-orriak erantzunik gabe uztea edo jaso ez balira bezala itzultzea;
- . moteltasuna espedienteak bideratzeko orduan (adibidez, zentroaren eta epaitegien artean);
- . familiaritatekoek bidalitako paketeak galtzea;
- . kartzelatarako ikuskatzaileekin hitz egin ezina;
- . ohizko erantzun-sistema arrunt batzuen desagokitasuna (adibidez, eskabide-orrian bertan eskuz idatzitako oharrik, sinadurarik gabe...).

Kasu askotan, kexa horiek frogatzeko presoek beraiek gordeta zeuzkaten idatziak aurkeztu zituzten (aurkeztutako eskabideak, ezezko erantzunak...). Idatzi horiek batzuetan egiazko artxibo kronologikoak ziren, pertsona batek adibidez onura penitentiario jakin bat lortzeko egindako tramite ugariak biltzen zituztenak.

Tramite konplexuetara jotzeko ohizko premia dela eta, arazo gehigarri bilakatu daitezkeen puntu batzuk aipatu behar dira. Adibidez:

- . oinarrizko kultur ezagutzarik eza desabantaila garbia da preso askorentzat, beste pertsona batzuegana jo behar izaten dutenez gero engainatuak izan daitezkeelako (presoaren izenean orri bateko eskabidemota bat idatzi hutsagatik kantitate garrantzitsuak kobratu dituzten abokatu batzuen kontrako keak jaso dira);
- . nahiko zabaldua dagoen iritzi baten arabera, alferrekoa da gai batzuetarako legetan edo araudietan iragarritako edozein tramite egiten saiatzea (ondorio hauekin: erakundeekiko mesfidantza, etsipena, beste bide batzuk erabiltzeko saioak...).

- **Babesik gabeko egoerei dagokienez:**

Aurreko gaiarekin estuki lotuta dagoen baina beste era batzuetara ere ageri den alorra da:

- . protesta eginez gero zigortua izateko beldurra (parteei zaien beldurra);
- . tratu txar kasu isolatuak eta salatu gabeak;
- . gorajotzeak ez aurkeztea hobe dela sinestea;
- . gora jotzen ez bada bere egoera berraztertuko dela agindu eta bete ez izatea;
- . gora jotzeko biderik ez duten gaiak;
- . kartzela-zigorra kitatzeko arauen eguneraketarik eza, konplexutasuna, aldaketa nabarmenak...;
- . beraiei buruzko txosten jakin batzuk eskuratzeko ezintasuna (beraien egoera penitentiarioari buruzko erabakiak hartzea baldintzatzen duten txostenak).

Askatasunik gabe dagoen pertsona ororen bizitzarako eta askatasunerako duen garrantziagatik, bere «kartzela-zigorraren kitapenarekin» zerikusia duten arazoak azpimarratu behar dira hemen. Informatizaziorik ezagatik kalkuluak eskuz egin beharra, espediente batzuen konplexutasuna, trasladoak, kitapen ezberdinen arteko aldaketak..., guzti horiek preso askori gertatzen dena ulertzeko arazo gehiago ekarri besterik ez dute egiten. Kode Penal berriaren ezarpenak gauzak argitu bai, baina gehiago nahastu ere egiten ditzake, batez ere ezarpenaren lehen uneetan.

- **Drogari dagokionez:**

Beste bi zentroetako azterketetan azpimarratu da (ikus 2.1.2. eta 2.2.2. atalak), eta kasu honetan ere antzera planteiatzen da: droga ugari, xiringarik eza, kutsatzeko arazoak...

Edonola, presoek elkarrizketetan azaldutako iritzien arabera, esan behar da Langraizko espetxean arazo hau are handiagoa dela besteekin konparatuz; hori horrela da arazoaren hedapen handiagotatik eta

presoen arteko elkarbizitzan dituen ondorioengatik (presioak, borrokak, kalte handiagorik ez gertatzeko pertsona batzuk isolatu beharra...).

- **Otorduei dagokienez:**

Gai honek beste karteletan ere kezak jaso dituen arren, hemen askoz indar handiagoa hartzen du. Ondorengoak izan dira gehien azpimarratu diren arazoak:

- . beti menu berdinak jan beharra («*egunero gauza berbera*»);
- . batzuetan janariak egoera txarrean daude;
- . gaizki prestatua, axolagabekeriagatik edo sukaldeetan profesionalik ez dagoelako;
- . erratilu zikinak eta kubierto desegokiak;
- . jangelan behar adina posturik ez dago...

Presoek zentroaren ezaugarriei leporatzen dizkiete arazoetako batzuk (sukalde bakarra, moduloetan pertsona gehiegi...); beste batzuek, ordea, zerbitzuaz arduratzen diren pertsonen axolagabekeria, errutina edo profesionaltasunik ezari leporatzen dizkiete.

- **Espetxeko bizi-baldintzekin zerikusia duten beste gai batzuei dagokienez:**

Aipatutakoez gain, hauek ere azpimarra ditzakegu:

- . Instalazioak masifikatuta eta gainezka daude (zelda oso txikiak eta erdibanatuak, espazio amankomun txikiak hainbeste pertsonarentzat, gaiso kutsagarriekin espazio txikietan bizi beharra...).
- . Presoen arteko harremanetan sortzen diren arazoak (presioak, liskarrak, tresna arriskutsuez egindako erasoak...) sarritan droga trafikoarekin eta egoera horiei behar adinako erantzuna ez ematearekin erlazionatuak.
- . Patioen egoera -askok «*gaizkiletza eskola*» deitzen diete-; horietan ordu asko ezer egin gabe pasatu beharra dago eta sarritan liskarrak gertatzen dira.
- . Dutzetako gabeziak (kopuruagatik eta ur bero aldetik).
- . Espetxetik ateratzeko bidean dauden gaiso sendaezinen egoera (Arautegi Penitentziarioko 60. artikulua) edo espetxetik atera ondoren delituren bat egin eta ondorioz kartzelan jarraitzen dutenena.
- . Joan-etorriak egiteko baldintzak (zentrotik egiten diren trasladoak: beste zentro batera, epaitegira, ospitalera... joateko).
- . Ekonomatoko salneurriak (salneurri errealek eta ofizialen arteko aldeak) eta produktu batzuen gabezia.

- . Zeldetan esnea berotu ezina, araudiak debekatzen duenez gero horregatik zigortuak izan daitezkeelako (zigor-parteen arriskua).
- . Funtzionarioen txanda bikoizketak izan ditzakeen ondorio kaltegarriak (nekea, oldarkortasuna...).

2. Hitzarmen nagusian jasotako iharduera eremuiei dagozkien kexak

Lehenago aipatu dira informazio alorrarekin zerikusia duten hutsune batzuk; bestalde, atal irekiari buruzko kexa zehatzak ondorengo multzoan jasoko dira. Beraz, gainerako bost alorrei dagozkien kexarik adierazgarrienak bilduko ditugu hemen: heziketa, lana eta lanbide heziketa, suspertze pertsonala, osasun laguntza eta gizarte laguntza.

- Heziketa alorrari buruz:

- . eskola orduen eta destinoetako ordutegien arteko bateraezintasuna;
- . beste ekintza batzuk burutzeagatik ez bezala, eskoletara joatea behar adina ez bultzatzea (konparaziorako, kartzela-zigor arintze txikiagoa);
- . eritegitik eskolara joan ezina;
- . ikasgeletako preso pilaketak;
- . eskola ordutegi oso urria...

- Lanbide heziketari eta lan alorrari buruz:

- . lantoki eta prestaketa iharduera gutxi;
- . lantokietan eta bereziki lantoki produktiboetan sartzeko itxaron-zerrenden kudeaketarako dauden irizpideekiko desadostasuna;
- . lan gutxi egon arren lantokietan zortzi ordu sartu beharra;
- . lantoki produktiboetako soldata txikia;
- . kartzela zigorra arintzeko ekintza batzuek daukaten balorazio eskasa...

- Suspertze pertsonalaren alorrari buruz:

Alor berezi honi buruzko kexarik ez da jaso, baina halere gehienek uste dute ekintza gutxi daudela parte hartzeko eta, beraz, patio orduetan denbora galtzen dela.

- Osasun laguntzaren alorra:

Alor honetan jaso dira ezberrik gabe kexarik gehienak, nahiz eta iritziak beti bat ez etorri. Kexa horien artean ondorengoak azpimarratu behar dira:

- . sendagile taldeak uko egiten omen dio Arautegi Penitentiarioko 60. artikulua ezarri (gaiso sendaezinak) presoak kartzelatik ateratzeko pausoak emateari;

- . metadona egitaraua mugatuta dago (badira parte hartu nahi baina egin ezin duten pertsonak);
- . zentroko profesionalak tratamendu jakin batzuetarako (toxikomaniak, HIES gaitza...) prestatuta ote dauden zalantzan jartzen da;
- . tuberkulosia eta HIES gaitza hedatzen ari dira;
- . arazoak sendagile taldeko profesionalen iraunkortasunean (txandak...);
- . gaisotasun infekziosoen kutsapena errazten duten baldintza;
- . toxikomanoei laguntzeko lantaldea gainezka egotea;
- . espezialista batzuek zentroan denbora gutxi pasatzea (okulistak, dentistak... hilean behin);
- . gaisoei jarraipen pertsonalizaturik ez egitea eta botika tratamendu arruntak ematea;
- . sendagile taldeko batzuen profesionaltasunik eta dedikaziorik eza...

Elkarrizketatuek jasotzen duten osasun laguntzari buruz egindako balorazioen aurrean ohar garrantzitsu bi egin behar dira:

- . Oso positiboki baloratzen dute guztiek zentrotik kanpo, bereziki Txagorritxuko Ospitalean ematen zaien tratamendua.
- . Aldiz, beste balorazio batzuetan (esate baterako zentroan bertan ematen zaien osasun laguntzaz) adostasun txikiagoa egoteaz gain, kontrako jarrerak (zerbitzu berari buruzko balorazio positiboak eta negatiboak bakoitzaren esperientziaren arabera) eta iruzkinak egin dira («*niri oso ondo, baina...*»).

Presoek behin eta berriz adierazten eta azpimarratzen duten kezka hau deigarria da: hainbat gaisotasun kutsatzeko arriskua, tuberkulosia eta HIES gaitza batez ere.

- **Gizarte laguntzaren alorra:**

Ez dira kexa orokorrak jaso, ezpada dirulaguntzarik ezari buruzkoak, eta horiek talde zehatz baten kexa berezi bezala aztertuko dira aurrerago.

3. Talde jakin baten edo zentroko moduloetakoren baten egoerari buruzko kexa bereziak

Orain arte, elkarrizketetan azaldu diren kexa orokorrak eta neurri handiagoan edo txikiagoan preso-multzo guztiarengan eragina dutenak jaso dira. Badira, ordea, talde jakin batzuei edo moduloei ere zuzenean eragiten dieten arazoak. Atal honetan arazo berezi horietako batzuk jasoko ditugu.

- **I. moduloan:**

Preso gehien dauden moduloetako bat da (250 bat pertsona, II. moduloan bezala); bertan dauden preso gehienak urte askotako kartzela-zigorrrera kondenatuak eta normalean irteera-baimenik gabe egoten dira. Lehenago esan den bezala, modulo honetako berrogei bat presoko taldeak beraien arazoak jasotzen zituen idatzi sinatu bat aurkeztu zuen. Arazo horien artetik ondorengoak azpimarratu nahi ditugu:

- . zeldetan eta espazio amankomunetan dagoen masifikazioa;
- . beraien gizarte inguruarekiko sustrairik eza (%75 baino gehiago gure erkidegotik kanpokoak dira);
- . jangela eta jokogela funtzioak betetzen dituen gelaren kapazitate urria;
- . sendagilearen kontsulta pasatzen den orduetan egongela txiki batean gaiso kutsagarriekin batera egon beharra...

- **IV. moduloan:**

Modulo honetan drogamenpekotasun arazoak dituzten zigorpetu batzuk eta Estatuaren segurtasunaren kontrako delituengatik (terrorismoagatik) kondenatuta daudenak daude. Modulo honetan nabariena espazio amankomunik eza da, horregatik egun osoan zeldak atea zabalik edukitzera behartuta daude (azken aspektu hau -ordu gehiago bakoitzak bere zeldan pasatzeko aukera- modu positiboan ere baloratzen da).

- **V. moduloan:**

Sartu berriez (lehenengo 24 orduak) eta beste kartzela batera bidean dauden presoek gain, modulo honetan lehenengo graduan sailkatutako presoak eta segurtasun arrazoiengatik lekuz aldatzea eskatzen dutenak egon ohi dira.

Ihardueretan parte hartzeko aukerarik ezari eta moduloaren barruan egiten den bizitzari buruzkoak dira kexa nagusiak; presoek beraien buruak ez zauritzeko prestatuta dauden bi zelden ezaugarrien kontrako kexak ere badaude.

- **Eritegian:**

- . lantokietara, eskolara, eta oro har zentroan burutzen diren ihardueretara joan ezina. Debekua eritegian dauden guztiei ezartzen zaie irizpide orokor gisa, kontuan hartu gabe kasu bakoitzaren ezaugarriak;
- . zentrorra kanpotik joaten diren pertsonekin harremanak izateko aukeren murrizketa;
- . sendagile kontsulta eskatzen den kasuan bakarrik ematen da;
- . desadostasunak botika tratamenduarekin.

Eritegian dauden presoengan (batzuetan urteak pasatzen dituzte) zentroan bertan zokoratuta dauden sentsazioa nabari da, eta horregatik batzuek eritegitik irten eta modulora itzultzea eskatzen dute.

- **Atal irekian:**

- . lana lortzeko zailtasunak eta, beraz, lanegunetan atal irekitik irten eta bertara gauzez lotara bakarrik itzultzeko aukerarik eza;
- . lantokietara joateko garraio arazoak;
- . atal irekian postu gutxi egotea, 48 gehienez 900 presorentzat;
- . emakumeentzat ez dago atal irekirik;
- . zentrotik atera beharrak berarekin dakartzan joan-etorri, otordu, eta abarren gastuei aurre egiteko arazo ekonomikoak;
- . ordutegi arazoak (irteera orduak, itzulera orduak eta asteburu eta abarretako ordutegiak);
- . garbitasun eta berokuntza arazoak;
- . kondena arintzeko aukera ematen duten destinoak ez egotea;

Edozein bergizarteratze politikarentzat dituen ondorio kaltegarriengatik, azpimarratzekoa da Langraizko Espetxearen kokapen geografikoa (hirietatik urrun) eta komunikazio arazoak (garraio publiko gutxi egotea) arazo gehigarri bat direla beraien hirugarren gradua teoriarik baldintza hobea goetan betetzen egoteko aukera daukaten presoentzat.

- **Emakume presoek arazo bereziak:**

Emakumeen taldeak elkarriketen bidez adierazitakoaren bidetik dituen arazorik nagusien artean ondorengoak aipa ditzakegu:

- . ginekologia zerbitzua ez da nahikoa;
- . emakumeek ezin dute sukaldeko destinoa hartu;
- . jangelako egoera txarra;
- . beraien seme-alaba txikiekin harremanak izateko trabak;
- . arratsaldeetan lantoki okupazionalik ez egotea;
- . espetxeko langileen pasibotasuna liskarrak sortzen dituzten eta batez ere emakumerik gazteenak presionatzen dituzten emakumeen aurrean;
- . gantxo lantokiaren antolaketa sistema eta lansari ordainketa kaskarra, beraientzat beste lantokirik ez dagoela kontuan izanik;
- . tratamendu alternatiboetan edo toxikomenpekotasun kasuetako jarraipen egitarauetan sartzeko gizonen baino aukera gutxiago izatea;
- . eritegirik eza (esan den bezala, beraien «eritegia» I. moduloko zelda handi batean lau ohe dituen gela bat da);

- . atal irekira pasatu ezina eta hirugarren graduan sailkatuta egon arren, arazo ekonomikoengatik egunez kanpora irten ezin direnen egoera.

Oro har, elkarrizketatutako emakumeek uste dute zentro bereko gizonak baino okerrago daudela.

- **Atzerritarren taldearen arazo bereziak:**

Langraizko Kartzelan talde hori oso handia da (340 pertsona) eta kartzela zigorra betetzeko oso baldintza berezietan dago. Elkarrizketetan jasotako arazo berezien artean, ondorengoak azpimarra ditzakegu:

- . «*Espanian sustrairik ez daukatelako*» edo «*baimena hausteko arrisku handia dagoelako*» sistematikoki baimenak ukatzea;
- . beraien familiarekin harremanak izateko zailtasunak;
- . agiri arazoak (agiririk eza, agiriak kenduta izatea, egoitza baimenaren epea kartzelan dauden denboran amaitzea, errefuxiatu izaera galtzea...);
- . jatorrizko herrietan kondena betetzeko traslado eskarien moteltasuna (normalean urtebete baino gehiago irauten dute);
- . komunikazio arazoak gaztelera ez jakiteagatik: abokatuekin harremanak izateko eragozpenak, errakuntzak osasun laguntzan, «interpretarien» beharra, informaziorik eza idatzizko informazioak ez ulertzeagatik...;
- . kartzelatik irtetean Espainiatik kanporatuak izatea;
- . jatorrizko herrialdeetako kontsulatuaren ardurarik eza;
- . familien (urruntasuna, arazo ekonomikoak) eta laguntza taldeetako pertsonen bisitarik eza...

- **Baliabide ekonomikorik gabeko pertsonen arazo bereziak:**

Preso batzuen pobrezia egoeragatik, oro har, arazo orokorrak are gogorragoak dira. Adibidez, otordueta dauden hutsuneak ekonomatoan janari alternatiboak erositaz konpentsatu ditzakete batzuek; hori, dirua edukita bakarrik egin daiteke, noski. Era berean, norberak edo familiak dirurik ez edukitzeak asko mugatzen ditu komunikazio aukerak (telefonoz hitz egiteko aukera), bisitak, baimenak, kanpoan lana egiteko aukerak, etabar.

Kexa berezietatik barrena egin dugun bide luze hau amaitzeko, agian oinarrizko ohar bat egin behar da: Langraizko espetxeko preso batzuek aipatu diren alorren artetik bat baino gehiagotako arazoak jasaten dituzte, beraien egoera are larriagoa bihurtuz (adibide gisa atzerritar asko har daitezke, hizkuntza arazoekin, baliabide ekonomikorik gabe, familiaren edo gizartearen laguntzarik gabe baitaude).

c) Hirugarren multzoan **kartzelako munduaren eta kanpoko munduaren arteko harremanari dagozkion kexak** bildu ditugu: familia egoera zailak; metadona tratamenduen jarraipena; Arautegi Penitentiarioko 60. artikulua HIES gaitzarekin hilaurrean dauden gaisoei ezartzeko zailtasunak; komunitate terapeutikoetan sartzeko arazoak... Era honetako gaietan, beste bi zentroetan aurkitu dugun egoera berdintsua jakinarazi zaigu Langraitzen egindako elkarrizketetan ere.

Ez da beste horrenbeste gertatzen **familiarekin harremanetarako aukerei dagokienean**, elkarrizketatutako preso gehienek izugarri baloratzen duten gaia delarik. Familia urrun edukitzearen ondorioz sortzen diren eta lehenago aipatu diren arazoez gain, telefono zerbitzuari eta familia bisiten sistemari kritika ugari egin zaizkio:

- . moduloetako bateko telefonoa, denbora luzez hondatuta egon dena;
- . jasotzaileak ordainduz telefono deiak egiteko aukera kendu izana;
- . deien iraupen motza eta komunikazioa mozteko aukera;
- . familiek bisita egunetan denbora luzez itxaron beharra;
- . familiei errespetu gutxiko tratua;
- . mintzatoki gutxi eta txikiak (gizon guztientzat hamar...).

* * *

Atal honekin amaitzeko **azken ohar** gisa hiru aipatuko ditugu:

- . Adibidez zerbitzu jakin bat baloratzerakoan elkarrizketatuek emandako azalpenetan alde nabariak eta batzuetan balorazio kontrajarriak ageri badira ere, **adostasun handia** dago jasotako lekukotasunetan eta bereziki **gabeziatzat jotako aspektuetan**.
- . Langraitzen preso dauden pertsona gehienak lehenago zigorra betetzeko beste zentro batzuetatik pasatu izan dira. Esperientzia horrek eraginda -kasu batzuetan, zentro askotan eta denbora luzez-, **konparaketak** sarritan egiten dira. Oro har, Basauri eta Martutenerekin egiten diren konparaketetan Langraitz galtzen irteten da. Beste zentro batzuekiko konparaketetan, aldeak handiak dira kasuen arabera eta konparatzen diren gaien arabera. Horrela, adibidez baimenen gaiari dagokionean, konparaketa Langraitzeko kartzelaren kalterako da; aldiz, ETAKoa izateagatik eta delituak egiteagatik kondenatutako pertsonen zentroko bizi-baldintzei buruz egiten duten balorazioa oso ona da. (*«Ez dago konparatzerik: jana, garbiketa... dena. Hemen askoz hobeto.»*)
- . Kexak eta proposamenak txanpon beraren bi aurpegitzat jo daitezke. Elkarrizketa batzuetan, ordea, irtenbide posibleak edo iradokizunak bereiztuta eta argitasun handiarekin planteiatzen dira. Jasotako **propo-samenen** artean, ondorengoak azpimarra ditzakegu:

- . kartzelaratzeko epeak argiago finkatzea eta mugatzea, gorrotoak eta desberdintasunak handiagoak izan ez daitezzen (pertsonekin egiten diren konparaketak);
- . funtzionarioek, epaileek... guztiek Legea bete dezaten esijitzea eta kontrolatzea;
- . errehabilitaziorako egiazko bide izango diren kartzelaren ordezkari aukerak bilatzea;
- . iharduera eskaintza gehitzea: prestaketa ikastaroak, lantokiak...;
- . presoak beraien etxebizitzetara hurbiltzea (kondena gertuko zentroetan betetzeko aukera);
- . droga kontsumitzaile askorentzat formula alternatibo gisa metadona zerbitzua hedatzea;
- . zentroan ere kanpoan eskaintzen diren programa berak eskaintzea (droga kontsumoari erantzuteko);
- . zeldetan bakarka egotea;
- . euskarazko eskolak;
- . beraien berreziketa lanaz arduratuko diren tratamendu taldeak;
- . presoek eta horien seme-alaben arteko harremanak erraztuko dituzten gizarte zerbitzuak sortzea...

Talde jakin batzuen arazo bereziak konpontzeko proposamenen artean, ondokoak dira adierazgarrienak:

- . presoek kondena beraien jaioterrietan bete dezaten, horietara bidaltzeko nazioarteko akordioak finkatzeko eta bizkortzeko premia;
- . Basaurin edo Bizkaian emakumeentzako modulo bat eratzea;
- . hainbat gora-beheraren tratamendurako eta babeserako sarea sendotzea.

Azkenik, eta hurrengo atalera pasatu aurretik, esan behar da beste zentroetan bezala hemen ere aurkeztu ziren zenbait kexa pertsonalen bidetik, Ararteko erakundeak halako iharduera batzuei ekin ziela (ikus txosten honetako 1.2.3 atala).

2.3.3. **PROFESIONALEKIN EGINDAKO BILERAK (PLANTEIATUTAKO GAIAK)**

Langraizko Espetxean ondorengo taldeekin egin ziren bilerak:

- . tratamendu taldearekin;
- . irakasle taldearekin;
- . sendagile eta drogamenpekotasunen zaintzarako taldearekin;
- . funtzionarioen ordezkari sindikalekin.

Lehenbiziko hiru bileretan antzeko eskema erabili zen (ikus 1.2.2. eta VI. eraskina), hitzarmen nagusiaren alorren artetik lantalde bakoitzaren ardurapeko gaietara (hezkuntza, osasuna...) arreta berezia eskainiz.

Beste bi zentroetan bezala, alor bakoitzeko edukiak aztertu baino lehen, hitzarmen nagusiari eta horren ordurarteko garapen mailari buruzko balorazioa egin zezaten eskatu zitzaizkien taldeei. Era berean, bileren bigarren zatian elkarrizketatutako presoei emandako zenbait informazio (beraien lanarekin zerikusi zuzena zeukana) alderatu eta beraien kezak eta proposamenak jasotzen ziren. Batez ere azken puntu hori aztertu zen sindikatoen ordezkariekin egindako bileran.

Hemen, bileren emaitzak jasotzean, Basauriko eta Martuteneko kartzelen kasuan egin den bezala (ikus 2.1.3. eta 2.2.3. atalak), ondorengo eskemari jarraituko diogu:

- A/ Hitzarmen nagusiaren balorazio orokorra.
- B/ Iharduera eremu bakoitzaren azterketa.
- C/ Elkarrizketatutako presoei emandako informazioei buruz taldeek egiten dituzten iruzkinak.
- D/ Profesionalen arazo bereziak eta proposatutako hobekuntzak.

* * *

A/ Hitzarmen nagusiaren balorazioa

Profesional talde ezberdinek hitzarmenari buruz egiten duten balorazio orokorra beste bi zentroetan jasotakoaren antzekoa da: **ez da garatu**, praktikan ez da alderik nabaritu, ez du egoera hobetzeko balio izan, itxaropenak zapuztu ditu...

Ez dute argi ikusten erabilera praktikorik izango duenik edo lan baldintzak eta presoei eman beharreko zerbitzuak hobetzeko balio izango duenik. Datuak eskuratu, alorren arabera iharduera proposamenak eginaz, eta abar beraiek eduki duten partaidetza txikiegia eta beti azken ordukoa izan dela uste dute.

B/ Iharduera alor bakoitzaren azterketa

Gehien azpimarratu diren gaiak bakarrik jasoko ditugu hemen.

a) Informazio alorra

- * Presoei informazioa helarazteko hainbat sistema erabiltzen dituzte. Gai batzuei buruz (adibidez, zentroko baliabideei buruz) taldeek beraiek osatutako materialak egon badaude, baina inprimatu gabe. Badago gai bat profesionalen ustez oso inportantea dena baina konpondu gabe dagoena: **informazioa hizkuntza ezberdinetan eskaintzea**, alegia, arabieraz,

ingelesez, frantsesez, etab. Era berean, informazioa elkarriketen bidez modu zuzen eta pertsonalean helarazteko zailtasun handiak ikusten dituzte.

* **Laguntza juridikorako programari** dagokionez, arazoak dakartzan bi aspektu azpimarratzen dituzte:

- . laguntza txandako abokatu batzuek espetxe gaietan daukaten prestaketa berezi eskasa;
- . Presoen Zaintzarako Epaitegian auzi-txostenak eskuratzeko zailtasunak.

Kode Penal berriaren ezarpenari buruzko informazio premia ere adierazi, dute.

* **Ofiziozko abokatuen jokabidearen kontrako kezak** ugariak dira:

- . kartzelaraino joaten ez diren abokatuak;
- . harremanik eza epaiketa egunera arte;
- . ikuspegi profesionaletik onartezinak diren asistentzi hutsuneak...

Gai honi buruzko arauketa berri bat beharrezkotzat jotzen dute.

* Zentroak berak 1995erako proposatutako **iharduera** nagusiei dago-kienez, ia denak **burutzeke** daude:

- . informazio-liburuskak hizkuntza ezberdinetara itzultzea;
- . erregimen bulegoa informatizatzea;
- . komunikabide lantokia sortzea (irradi emisora...);
- . kanporako informazio bulegoa sortzea: abokatuentzat, familientzat...

Bitxia bada ere, zentroan badaude ekipo informatiko batzuk, baina instalatu gabe.

* Tratamendu taldeak **informazio egokia eskaintzeko aukeretan serio-riki eragiten duten zentroko arazo berezi batzuk** planteiatzen ditu. Besteak beste:

- . zentroaren tamaina eta informazioa mailaz maila zuzen helarazteko trabak: zuzendaritza-funtzionarioak-presoa eta alderantzizko bidea egiteko, alegia;
- . komunikaziorako lokal egokirik eza: bulegorik ez dago, moduloetan eserlekurik ere ez...;
- . profesionalen arteko koordinaziorako arazoak: bakoitzaren betebeharrak zehaztu beharra, helburu garbiak dituzten iharduera egitarauak finkatu beharra...;
- . masifikazioak dakartzan denbora arazoak: denborarik ez arreta zuzena eskaintzeko, gogoetarako, koordinaziorako, etab.;
- . koordinazioarekin gertatzen diren arazoak: edozein pertsona kartzelan sartzen den unetik lehenengo 24 orduak bete arte (egoera penitentiarioari buruzko kezak).

b) Heziketa alorra

- * Hauek dira **kartzelako eskola iharduerari buruzko oinarrizko datuak**:
 - . Helduentzako Heziketa Iraunkorra:
 - Alfabetizazioa: 12 gizon eta 14 emakume
 - Neoirakurketa: 7 gizon eta 10 emakume
 - Ziurtagiriak: 30 gizon
 - Aurre-graduatuak: 35 gizon eta 10 emakume
 - Eskola graduatua: 25 gizon eta 8 emakume
 - . Lanbide Heziketa arautua: ez dago.
 - . Batxilergoa: 18 pertsona (urrundikoa, astean bi tutoretza ordurekin).
 - . Unibertsitate ikasketak: 22 pertsona (12 UNEDen eta 10 EHU).
 - . Gaztelarazko eskolak atzerritarrentzat: 110.

- * Helduentzako heziketa orokorreko maila ezberdinetan burutzen diren irakaskuntza iharduerak eta liburutegiaren antolaketa eta kudeaketa, Erakunde Penitentiarioetako sei irakaslek (plantilan zazpi daude) zuzentzen dituzte. **Irakasle taldeak**, gainera, lankide batzuk dauzka:
 - . Pastoral Penitenciariako zortzi pertsona, atzerritarrentzat gaztelarazko eskolak eta ingelesezko ikastaroak ematen dituztenak;
 - . hizkuntz eskolak ematen dituzten hiru preso eta beste zortzi liburutegiko laguntzaile lanetan aritzen direnak.

- * Irakaskuntza lanetarako **giza baliabideei** dagokienez ondorengo **premiak** azpimarratzen dira:
 - . UBEIren tutoretza orduak gehitzea (gaur egun astean ordubete);
 - . UNEDen tutoretzak gehitzea (gaur egun astean bi ordu);
 - . EHUko tutoretzen berrantolaketa;
 - . liburutegirako dokumentalista lanpostu bat sortzea;
 - . hizkuntz irakasleak (gaztelera atzerritarrentzat, frantsesa, ingelesa eta euskara), ikastaro homologatuak emateko.

- * Lan horietarako, ondoko **gelak** daude:
 - . lau ikasgela gizonen sailean;
 - . bi ikasgela emakumeen sailean;
 - . liburutegi-ikasgela espazio bat.
 Premiazkoa iruditzen zaie **gela horiek handitzea eta behar duten hornidura jartzea**: altzariak, helduentzako ikasmateriala, liburuak, ordenagailua, fotokopiagailua, material suntsigarria...

- * **Liburutegiak dauzkan gabeziak** aipagarriak dira: espazio txikiegia, informatizaziorik eza, fondo bibliografiko urriak, erabateko lanaldia egiten duen pertsona baten falta...

- * **Heziketa sistema arruntarekin** duen loturari dagokionez, ondorengo elementuak adierazi behar dira:

- . Ikasturte honetatik aurrera Helduentzako Heziketa Iraunkorreko gelak Gasteizko Paulo Freire herri-ikastetxearen ardurapean geratuko dira. Koordinaziorako lehen pausoak ematen ari dira.
 - . Gasteizko Jesus Langile eta Diocesanaz zentroekin Lanbide Heziketa ikasketak martxan jartzeko saioek ez dute fruiturik eman. Halere, espetze honen ezaugarriak kontuan izanik (kondena betetzeko zentroa, pertsonalaren egoera nahiko iraunkorra), Lanbide Heziketa aratuak etorkizuna edukiko lukeela eta preso asko ikastera bultzatuko lukeela uste da.
 - . Erakunde Penitentiarioen eta Hezkuntza Sailaren artean koordinazio bideak egoteko premia, esate baterako irakaslegoaren prestaketan partaidetza errazteko.
- * **Eskoletara joateko behar adina motibazio edo bultzagarri** ez edukitzeari dagokion gaia beste bi zentroetakoen antzera planteiatu dute Langraizkoek ere: beste iharduera batzuetan parte hartzeagatik baino kondena-arintze txikiagoa lortzen da, eskola orduetan beste iharduera batzuetarako ordutegiak tartekatzea...
 - * Antza denez, **eritegiko pertsonak eskoletara joateko dauzkaten trabak** hauek dira: atek itxita egoten dira eta joan-etorria egiteko ez daukate lagunduko dien inor.

c) Lanerako prestakuntza eta enplegu-suspertzea

- * Erakunde ezberdinek (INEMek, Gasteizko Udalak, Erakunde Penitentiarioek...) diruz lagundutako **lanbiderako prestakuntza ikastaro**ei dagokienez, dagoen ikuspegi orokorra positiboa da. Ondorengo puntuak hobetu beharko liratekeela uste dute:
 - . erakunde ezberdinen arteko koordinazioa;
 - . programen jarraitasuna;
 - . ikastaro batzuen planteiamendua, ikasteko baino gehiago lan egiteko delako;
 - . lantokietarako erabiltzen diren lokalen azpiegitura.
- * **Lantokietarako leku nahikorik ez dagoenez gero, nekez lortu daiteke egoera hori hobetzea.** Hain zuzen, gaur egun dagoen egoeratik atzera bota behar izan dira enpresa batzuen eskaintzak, eta, orobat, erakunde batzuek, Gasteizko Udalak adibidez, diruz lagundu nahiko litzuketen iharduera guztietarako aukerarik ez dago.
- * **Hirugarren graduan sailkatutako presoak lanera kanpora joateko arazo handiak daude**, eta hori kasuen arabera arrazoi ezberdinetatik gertatzen da:

- . Autonomia Erkidegoan eroldaratu gabe egoteagatik;
- . deialdietako baldintzak betetzen ez direlako;
- . lanera egunero joateko osasun arazoak edukitzeagatik;
- . lantokiak kartzelatik urrun daudelako eta garraio arazoengatik...

Hain zuzen, prestakuntz lanak egiteko aukerak erreagoak dira: Cáritasen, HIES gaitzaren aurkako Batzordean... Egoera hau aldatzekotan, **lan sustapenera zuzendutako programa bereziak bultzatu** (hitzarmen nagusian jasota dagoen puntua) edo presoak programa batzuetan sartu beharko dira, hirugarren graduko presoek egun osoa atal irekian pasatzen dutelako, kanpora irten ezinik, zereginik ez dagoelako.

- * **Espetxea lanbide heziketa arautua emateko zentro bezala aitorzeari** abantaila handiak ikusten zaizkio, baina kasu honetan ere espetxearen azpiegitura gainditu beharreko traba da.
- * **Lantoki produktiboei** dagokienez, ondorengo **gabeziak** adierazten dira:
 - . daudenak ez dira nahikoak (itxaron-zerrendak daude horietan sartzeko);
 - . ordainketa (piezen arabera) eta kondena arintzeko irizpideak ez dira oso interesgarriak;
 - . gizonen eta emakumeen aukerak ez dira berdinak (lantoki kopurua, kontratazio eta lansari sistemak...).

Gaur egun dauden lantoki produktiboentzako sistema osagarri edo alternatibo gisa, presoek beraiek osatutako lan kooperatiba proiekturen bat egon da, aurrera atera ez dena.

Itxaron-zerrendak kudeatzeko eta azkenik lantokietara joan ahalko diren pertsonak hautatzeko erabiltzen diren irizpideak ere aztertu ziren profesionalen taldekin: familia ardurak; zigorpetuak prebentiboen aurretik; pobrezia; tratamendu mailako arazoak; enpresa kontratatzailearen balorazioa; jarraitasun aukerak; zigorrik eza...

d) Suspertze pertsonalaren alorra

- * Zentroak berak 1995erako proposatutako **kultur ekintza** batzuk ez dira burutu (aldizkari bat sortzea, irrati emisora eta argazki-bideo lantokia martxan jartzea), eta beste batzuek ez dute funtzionatzen, esate baterako zine zirkuitoak.
- * **Kirol iharduerei** dagokienez, hornidura materialak eta giza mailakoak hobetu egin direla adierazten da. Halere, monitore gehiago beharko lirateke modulo guztietara iristeko, emakumeena, eritegia eta atal irekia barne.
- * **Baliabide ekonomikorik ez dagoenez gero**, materialak eta ekipoa lortzeko eskean ibili behar izaten dute.

- * **Zentroa herrietarako programen barruan** (kultur eta kirol egitarauetan eta antzekoetan) integratzea beharrezkoa jotzen da: zine zirkuitoak, kirol lehiaketak... Zentzu horretan, badago datu positibo bat: bada lehiaketetan parte hartzen duen futbito talde federatu bat..., beti etxean jokatu behar izaten duena.

e) Osasun laguntzaren alorra

- * Hitzarmen nagusiak alor honetarako planteiatzen dituen ihardueren arabera, ondoko gaiak dira azpimarragarriak:
 - **Farmazi laguntza:**
Hitzarmen nagusiak Osakidetzaren gain uzten duen botika biltegiaren behaketa ez da egiten.
Botikak farmazia militarren bitartez erosten dira.
Farmaziako titulua duen pertsona bat beharko litzateke.
 - **Laguntza berezia:**
Oso positiboki baloratzen da, eta zentrotik ospitalerako joan-etorrietan arazo batzuk omen daude.
 - **Osasun mentaleko arazoak dituztenentzako laguntza:**
Zentroko sendagile taldean psikiatrian espezializatutako pertsona bat edukitzeko premia planteiatzen da.
Santiago Ospitaleko zentro psikiatrikoan presoak sartzeko arazoak egoten dira, nahiko ospitale postu ez daudelako.
 - **Osasun alorreko langileen prestaketa iraunkorra,** Osakidetzaren ardurapean:
Ez dago aukera errealik, Osakidetzaren aldetik ez dago ezta eskaintzarik ere.
Txagorritxuko Ospitalean, txandaka, prestaketaldiak burutzeko aukera interesgarria ikusten dute, baina gaur egun dagoen langile kopuruarekin ezinezkoa da.
- * **Zentroan bertan ematen den sendagile zerbitzuari** buruz eragozpen batzuk aipatzen dira, ondorengoak esate baterako:
 - . sendagile taldea lanez gainezka dago;
 - . sendakuntza tresna bereziak lortzeko aurrekontu mugak;
 - . espediente edo historia klinikoak kudeatzeko euskarri informatikorik eza;
 - . kontsultetarako lokalik eza edo daudenen desegokitasuna;
 - . dedikazio handia eskatzen duten tuberkulosia bezalako gaisotasunen tratamendurako programak zabaltzea (hirurehun kasutik gora aztertu dira).
- * Zerbitzu mailako arazoak orokorrak dira eta **zentroko sendagile taldeari** (Erakunde Penitentziarioen ardurapean) nahiz **drogamen-**

pekotasuna daukaten pertsonen laguntzarako taldeei (Justizia Sailaren ardurapean) eragiten die. Azken kasu honetan, bistan da zerbitzua gainezka dagoela, Martuteneko edo Basauriko taldeen antzeko osaketa baitauka (bi edo hiru pertsona) askoz jende gehiagorentzat. Horrela, metadonarekin tratamenduan daudenen jarraipena egiteko arazoak daukate; hirurogeita hamar pertsona daude naltrexona programan sartzeko zain...

- * Zentroa aldiro joaten diren **espezialistek emandako osasun laguntzaren murrizpenak** ere azpimarratzen dira: hilabeteak daramatzate ginekologia zerbitzurik gabe, eta psikiatria eta odontologia zerbitzuak eskasak dira...
- * **Metadona bidezko laguntzari dagokionez**, programaren baldintzak hobetu beharko lirateke haien ustez: metadona lortzeko sistema hobetu, programa eta horretara zuzendutako baliabideak erabiltzaile gehiagorengana zabaldu eta kanpora irteteen (kartzela uztean) tratamenduarekin jarraitzeko aukera eman.
- * **Sendagile taldea gainezka egotea** ulertzeko ez da kontuan izan behar talde horren konposaketa bakarrik, zentroko preso askoren osasun egoerak ere kontuan hartzekoak dira (drogamenpekoak, hilaurren dauden gaisoak, seropositiboak...). Taldeek beraiek honela laburtzen dute egoera hori: «*Hau ospitale bihurtu da*».
- * Zentroan **xiringak trukatzeko** proposamenaren aurrean premia ezberdinak adierazten dituzte: funtzionario eta profesional talde ezberdinak horretan murgilarazi; drogaren arazoaren aurrean planteiamendu orokorrako egin (iharduera gehiago ezarri, metadona programa zabaldu, prebentziozko neurriak hartu...); arau mailako kontraesanak gainditu; gauzak ongi egiteko egun dauden lantaldeak handitu... Sendabide ikuspegitik, zentroko preso-multzoen ezaugarrien arabera (drogamenpekotasun eta seropositibo tasa altuak...), programa beharrezkoa dela eta jarrera zuriak gaindituz aurre egin behar zaiola esaten da.
- * **Zentro alternatiboetan tratamendu terapeutikoak** (Arautegi Penitentiarioko 57.1. artikulua) eta **gaiso sendaezinentzako baldintzapeko askatasuna** (arautegi bereko 60. artikulua) direla eta, dauden aukera guztiak ez dira erabiltzen erabaki horietan parte hartzen duten alderdi guztien artean antzeko irizpiderik ez dagoelako.

f) Gizarte laguntzaren alorra

Alor honetako aspektu negatiboen artean ondorengoak dira azpimarragarriak:

- * Gizarte laguntzaileen **plantila** mugatua da (guztira zazpi, zentroan sei) kasu pertsonal guztien jarraipena egiteko.
- * Oinarrizko gizarte zerbitzuen arteko **koordinazio** zailtasunak, eta ez bakarrik Euskal Herrikoekin, baita beste erkidegoetakoekin ere. Koordinazio hori beharrezkoa da tratamendu ambulatorioak zehazteko eta komunitate terapeutikoekin harreman sendoagoak edukitzeko.
- * Halako ezaugarri batzuk dituzten edo egoera larrian dauden pertsonen, hala nola, familien laguntzarik ez daukaten hilaurreko presoei **babesa emateko sare**rik eza.
- * Gasteizko pisuaz aparte, bisitetara joaten diren **familiartekoei zentroan arreta eskaintzeko lokal**ik eza. Kontuan izan behar da bisitari gehienak kanpotik datozela eta zuzenean espetxera joaten direla.
- * **Beste zentro terapeutikoekin harreman** urria edo bat ere ez.
- * **Pobrezia egoera**n dauden pertsonentzat laguntza ekonomikoa lortzeko zailtasunak: familiaren egoera edozein dela ere, kartzelan dauden denboran bergizarteratzeko gutxienezko dirulaguntza eskuratu ezina edo hori eskuratzeko eskubidea galtzea; bidaia gastuei aurre egiteko dirulaguntza murrizak.
- * **Epaitegiekin koordinatzeko** arazoak: tratamendu alternatiboak finkatzeko ebazpenetan, egoera ekonomikoa kontuan eduki gabe espetxetik ateratzeko erabakiak...
- * Mugak daude **lan profesionala kanpoan burutzeko** (zentroan zazpi ordu pasatu behar), eta espetxetik ateratako pertsonen zerbitzua eskaintzen jarraitzeko.
- * **Atzerritarrekin** lan egiteko arazo bereziak: hizkuntzaren arazoa eta eskaririk eza.

Premiarik larrienei dagokienez, lantaldeak 1995erako egindako proposamenak aldarrikatzen ditu berriro:

- . zentroan gizarte langile kopurua gehitzea;
- . espazio fisikoak egokitzea;
- . profesionalen berziklaketa.

g) Erregimen irekia

- * Aipagarria da **komunitate terapeutikoetan** kondena betetzen ari den preso **kopuru txikia**, 11 gizon eta 5 emakume, hain zuzen. Oro har,

dauden alternatibei buruzko balorazioa positiboa da, ñabardurekin bada ere, eta horien garrantzia azpimarratzen da.

- * **Atal irekian dagoen preso kopuru txikia** ere aipatzekoa da (38 pertsona); era berean esan behar da 13 **emakumek** beraien moduloetan jarraitzen dutela **beraientzat atal irekirik ez dagoelako**.
- * 1995erako egin zituzten aurrikuspen edo proposamenen arteko batzuk ez dira praktikara eraman, esate baterako bigarren eta hirugarren graduko presoentzat **eguneko zentro** bat sortzea.
- * Martuteneko Espetxearen ardurapean **Ametzagaña** Fundazioak kudeatutako gazteentzako zentroa baliabide praktikotzat baino gehiago teorikotzat jotzen da Langraizko presoentzat. Hain zuzen, 1995 urtean zentro honetatik pertsona batek bakarrik izan du Ametzagañara joateko aukera. Zerbitzu horren erabilgarritasuna gehitzeko egin beharko liratekeen aldaketa proposamenak Basauri eta Martuteneko espetxeetan adierazita koaren bidetik doaz: erabiltzaileen ezaugarriak zabaltzea...
- * **Erregimen irekiko alternatibak bultzatzearen garrantzia** eta premia azpimarratzen dira, beste irtenbiderik ez dagoelako jendea gradu-hobekuntzarik lortu gabe gera ez dadin. **Langraizko atal irekiak** bere helburuak betetzeko duen desegokitasuna ere aipatzen da: aparte dago, langilerik gabe, gizonentzat bakarrik da...

C/ **Presoei egindako elkarrizketetan jasotako informazioei lantaldeek egiten dizkieten iruzkinak**

Presoek elkarrizketetan adierazitako iritzi kritiko asko nahiko ongi hartu dituzte profesionalak. Desadostasunik nabariena, edo hobeto esanda, **iruzkinak eta zehaztapenak** ondorengo puntuetan egin ziren:

- Zentroko **eritegiko** gabeziei buruzko kritiken aurrean ados egoteaz gain, beraien egoera isladatzen duten datu berriak gehitu dituzte: pertsonen elkarbizitzarako arazoak, eritegian sartu nahi eza... Baina hori hobetzea, beharrezkoa izan arren, ez omen da etorkizunari begira irtenbiderik onena edo irtenbide bakarra. Horrela, osasun arazoak dituen presoek gehikuntzari beste era bateko erantzuna eman beharko omen litzaioke, bereziki gaisoak beste sail batzuetara pasatuz, Osakidetzara adibidez. Emakumeentzako moduloetako batean eritegi gisa dauden lau oheei dagokienez zera adierazten dute, modulo horiek ez dutela beste irtenbide hobea baterako aukerarik ematen.
- Gaiso sendaezinei **Arautegi Penitentiarioko 60. artikulua ezartzeko** aukerei dagokienez eragozpen hauek aipatzen dira: kasu batzuetan

profesional ezberdinek irizpide amankomunak edukitzeko dagoen zailtasuna, kanpoan tratamenduarekin jarraitzeko arazoak (familiaren laguntzarik gabeko egoerak, babeserako sarerik eza...).

- **Ukatzen diren baimenei** buruzko ohar ugari egin dituzte. Onartzen da baimenak emateko irizpide murriztaileak daudela, baina horretarako dauden arrazoiak azpimarratzen dira:
 - . ez dago ez ekintza egitaraurik ez eta preso askoren behar adinako ezagutzarik ere;
 - . eskumena duten erakunde ezberdinen arteko koordinaziorik eza: tratamendu taldea, erregimen batzordea eta Presoen Zaintzarako Epaitegia;
 - . baimenen eta kartzelan droga sartzearen arteko harremana eta horri aurre egiteko dauden zailtasunak (legalak, teknikoak...).
- **Presoen eta zentroko profesionalen arteko harremana** (urruntasuna, burokratizazioa...). Datu objetiboen (profesional kopurua eta proportzioak) eta profesional bakoitzaren zeregin eta aukera ezberdinen arteko konparaketa egin behar dela azpimarratzen dute (aldeak daude, adibidez, moduloetan harreman zuzenagoa duten hezitzaileen eta legegarien artean).
- **Tramite burokratikoaren moteltasunaren aurrean**, ondorengo arrazoiak eman dira:
 - . prozedura batzuen konplexutasuna;
 - . ebazten duten organuen (adibidez, Presoen Zaintzarako Epaitegia) eta presoekin harreman zuzena daukaten baina erabakirik hartu ezin duten langileen arteko urruntasuna;
 - . presoek prozesuak motelak direla esaten dute beraiengan berehalakotasunaren kulturak sustrai sendoak dituelako...
- **Txosten profesionalak publikoak** izateko eta, beraz, interesatuek (presoei beraiek, beraien familiartekoei, abokatuei...) ezagutzeko aukeraren aurrean jarrera ezberdinak daude. Edonola, ia gehienak bat datoz presoei beraien espedienteak ikusteko aukera eman behar zaiela esatean, zenbait datu konfidentzial babestuz (adibidez, familien historiak).
- **«Kondena-kitapen»-etan** dauden gora-beherak ulertzeko arrazoiak hauek dira: epaitegi batzuen eta besteen artean dauden irizpide ezberdinak, beraien ekintza eta ebazpenak epaitegi berean zuzentzeko dauden aukerak, kondena arintzeko epeen eguneratzea, eta abar.
- **Janariei** buruzko kritikekin ados daude, gehienbat. Berrito adierazten dute aurrekontua mugatuta dagoela eta sukaldarako profesional gutxi dagoela.

- **Baliabiderik gabeko pertsonen** arazo ekonomikoei dagokienez, informazio akats batzuk daudela, laguntzak emateko irizpideetan aldaketak daudela... diote. Kasu batzuk elkarteen eta borondate oneko pertsonen elkarlanarekin konpon daitezke.
- **Lantokietan lan egiteagatik ordaintzen dena** gutxi dela dioten kritikekin bat dato, baina konponbide zaila duen arazoa dela uste dute.

D/ **Profesionalen arazo bereziak eta proposatzen dituzten hobekuntzak**

- * Profesionalen arazo berezien artetik beraiek azaldu dizkiguten garrantzitsuenak honako hauek dira:
 - Espetxeetan behar adina **langile** ez egotea presoei erantzun egokia emateko.
 - Profesional batzuen **lan baldintzak** (ordutegia, soldatako osagarriak).
 - Lanerako behar adina **baliabide material** ez egotea: batez ere tresna informatikoak.
 - **Aurrekontua gestionatzeko gaitasun** apurra edukitzea zenbait behar asetzeko (tresnak eta bestelako hornidurak erosteko, adibidez).
 - **Laguntza edo zerbitzu sare ohizkoen aldean duten egoera.** Basauri eta Martuteneko espetxeetan bezala, Langraizko profesionalek ere geto batean egoteko, sare horietatik apartekoak balira bezala hartuak izateko, eta beraien lana ezezaguna eta behar bezala baloratuta ez egoteko sentrazioa dute.
 - Eusko Jaurlaritzaren sail desberdinek antolatzen dituzten **prestakuntza iraunkorrerako ekintzetan** parte hartu ezin izatea -hitzarmenean luze eta zabal jasota egon arren-, hainbat arrazoiengatik: informaziorik ez dagoelako; eskaintzari ez dagoelako; espetxeak berak ekintza horietan parte hartzera joateko bideak ipintzen ez dituelako...
 - Tamaina horretako zentro bateko **profesional desberdinen artean koordinatzeko** dauden arazoak, eta presoen egoerari buruzko erabakietan parte hartzeko ahalbideak (batzuentzat eta besteentzat); ahalbide horiek beti ez dute zerikusirik izaten haien arteko harreman mailarekin, edota profesional batzuek edo besteek daukaten haiei buruzko ezagutzarekin.
- * Zentroko langileen **etorkizun profesionalari** dagokionez, nabari da interesa eta kezka ere badutela Eusko Jaurlaritzak **alor penitentiarioko aginpidea eskuratzeko** dauden posibilitateengatik, lehenago esan ditugun puntuetan: informazioa jaso nahi dute, batez ere beraien lan egoerari buruz (batez ere lekuz aldatzeko dauden aukerez). Bestalde, administrazio desberdinekiko (bai zentralarekiko eta bai autonomi-

koarekiko) harreman bideak ere oso ondo zehaztuta ez daudela ere uste dute.

* **Profesional talde desberdinek laguntza sare ohizkoetan (osasun sarean, hezkuntz sarean...) sartzeko egindako proposamena**

Basaurik eta Martutenen bezalatsu planteiatzen da hemen ere: lanpostu zerrenda, oposaketak, atxekipenak, behin-behinekoen eta funtzionarioen egoera...

Sarrera hori gertatzen ez den bitartean -berez premiazkoa izan arren-, beharrezkotzat jotzen da Erakunde Penitentziarioen eta Eusko Jaur-laritzaren sail desberdinen arteko koordinazioa lortzeko bideak antolatzea.

Bestalde, **langileei motibazioa eta bultzagarriak emateko politika** martxan jartzea ere beharrezkoa da: prestakuntza iraunkorra, beraien iritzia aintzat hartzea, hitzarmen eta egitarauetan modu eraginkorren parte hartzea...

Beste proposamen aipagarri batzuk, lehenago esandakoez gain, honako hauek dira.

- Espetxeko kudeaketa bizkor informatizatzea.
- Instalakuntzak (liburutegia, lantokiak, eritegia, atal irekia...) hobetzeko proiektu batzuk, orain geldirik daudenak, berriro abian jartzea.
- Profesional desberdinei beraien kasa iharduteko aukera handiagoa ematea -erregimenari eta segurtasunari garrantzia ematen dioten irizpideen mende beti ez egoteko.
- Diziplinarteko planteiamenduak bultzatzea (adibidez, Drogaren Aurkako Taldea).
- Presoen banaketa egiteko irizpide berriak planteiatzea (adibidez, droga dela-eta: drogarik gabeko lekuak, metadona tratamendua jasotzeko lekuak, sendagileen kontrolpeko drogak jasotzeko lekuak...).
- Preso multzo berezi batzuentzako egitarauak antolatzea: emakumeentzat, gazteentzat, atzerritarrentzat...
- Atala irekiari antolaketa berria ematea: kokapena, egitarauak, lanaldi handiagoko arduradun taldeak...
- Kartzelan egon beharreko epean lan egiteko eta ikasteko bultzagarriak ematea.
- Lantokietako kontratazio sistema eta ordainketa berraztertu eta hobetzea.
- Hirugarren gradura eta erregimen irekira pasatzeko arrazoien artean ikasketak ere aintzat hartzea, eta ez lana bakarrik.
- Urtero enplegua sustatzeko ematen diren laguntzen deialdietako baldintzak aldatzea, edo presoentzako egitarau bereziak planteiatzea.
- Gasteizen lehenago zegoen hirugarren graduko emakumeentzako harrera-pisua berriro irekitzea.
- Pobrezia latzean bizi diren presoentzako laguntzak emateko diru-hornidurak handitzea (telefono deiak, bidaiak, etab. egiteko).

- Zaintza Penitentziariorako Epaitegiaren zerbitzua hobetzea: epaile gehiago, epaitegitik hurbil egotea, zuzeneko presentzia, epaitegiko lantaldeak handitzea...
- Presoentzako laguntza-txandako abokatuen prestakuntza berezia hobetzea.
- Ofiziozko txanda hobeto arautzea.
- Abokatu bazkundeeekiko hitzarmenetan, presoek Kode Penal berriaren ezarpenari buruzko informazioa emateko betekizuna sartzeta.
- Elkarte eta erakundeei espetxera sartzeko erraztasunak ematea, eta kanpoko eta barruko lantaldeen arteko elkarlana hobetzea: ate zabaleko politika, elkarrenganako mesfidantzak gainditu eta zerbitzua hobetzeko.
- Espetxea biztanleria guztiarentzat antolatzen diren kultur eta kirol zirkuituetan sartzeta.

2.4. **PRESOEZ ARDURATZEN DIREN ELKARTE, TALDE ETA ANTOLAKUNDEEK AZALDUTAKO ARAZO ETA PROPOSAMENAK**

Lanaren hasieratik planteiatu zen bezala, presoez arduratzen diren elkarte, talde eta antolakundeekin egin nahi genituen bilerak hiru espetxeetako zuzeneko ekimenak burutu ondoren egin ziren. Talde horiek asko zirenez gero, eta, aldiz, horietako bakoitzarekin egoteko denbora nahikoa ez geneukanez gero, azkenerako hiru bilera orokor antolatu ziren abenduaren 11, 12 eta 18an.

Hiru espetxeetan, arlo desberdinetan lan egiten zuten taldeei buruz geneukan informazioaren arabera (ikus elkarte, talde eta antolakundeen zerrenda VII. eraskinean), **hiru lan arlo handi** bereiz zitezkeen: 1) **drogamenpekoentzako laguntza** eta alternatibak; 2) **espetxean bertan antolatzen diren ekintza** eta atentzio egitarauetako partaidetza; eta 3) **laguntza juridikoa eta eskubideen aldeko defentsa**. Sailkapen honek, berez eztabaidagarria izan arren, aukera ematen zigun bilera horiek gai eta interes desberdinen inguruan antolatzeko. Hartara, ahalik eta irizpiderik zabalenera jarraituz, honako hauek izan ziren bileretara deitutako taldeak:

- Lehen bilerarako:
 - . AGIPAD (Drogen Abusuaren Prebentzio eta Ikerketarako Gipuzkoar Elkarte)
 - . Alcohólicos Anónimos
 - . Bietxeak
 - . Bitarte
 - . D.E.E. (Drogak Eragindakoen Elkarte)
 - . Deustua-San Inazioko Modulu Psikosoziala
 - . Etorkintza
 - . Foronda
 - . Gizakia helburu
 - . HIES gaitzaren kontrako hiritar batzordeak
 - . HIESaren Aurkako eta Gaisoen Aldeko Hiritar Batzordea T-4
 - . Lagun Artean
 - . Remar

- Bigarren bilerarako:
 - . ADSIS-BESTALDE (Gizartearen Ekimenezko Zerbitzuen Elkarte)
 - . Bilbo-Etxezabal
 - . Bizitegi
 - . Cáritas (PAEX-Atzerritarrei Laguntzeko Programa)
 - . Euskal Kriminologi Erakundea
 - . Gizabidea
 - . Gurutze Gorria
 - . I.R.S.E. (Bergizarteratze Erakundea)
 - . Jesus Langile Politeknikoa

- . Pastoral Penitenciaría
- . SOS-Arrazakeria
- Hirugarren bilerarako:
 - . Abokatu bazkudeen presoentzako laguntza-txandak
 - . Amnistiaren Aldeko Batzordeak
 - . Bilbo-Etxezabal
 - . Euskal Herriko Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak
 - . Salhaketa
 - . Senideak
 - . SOS-Arrazakeria
 - . TAT (Torturaren Aurkako Taldea)

Egindako **hiru bileretan antzeko eskema** erabili zen, hiru ardatz hauen inguruan:

1. Arartekoak ordura arte hiru kartzeletan egindako pausoak eta lanaren bukaerari buruzko ikuspegia azaldu.
2. Bileran zeuden elkarte guztiek presoen egoerari buruz egin nahi zituzten kexa eta proposamenak jaso.
3. Elkarte horiek presoen alde egiten duten lanean aurkitzen dituzten arazoak berri eman.

Talde horiei bidalitako deian, beraien **proposamenak idatziz agertzeko** aukera ere izango zutela adierazi zitzaizkien.

Deitu genituen elkarte gehienak etorri ziren bileretara (**26 elkarteren ordezkariak agertu ziren**) eta ahoz azaldu zituzten beren proposamenak eta eragozpenak. Haietako batzuek idatziz erantzun ziguten, bilerara ez joateko arrazoiak azalduz. Gainera, bileran parte hartu zuten elkarteetako askok idatziz batzuk ere ekarri zituzten beraien ahozko azalpenak osatzeko, egiten duten lanari eta aurkitzen dituzten arazoei buruzko datuak emateko eta hobekuntza proposamen zehatzak egiteko.

Ondorengo orrietan, elkarteok azalduzako arazoak eta proposamen nagusien laburpena egingo dugu.

* * *

Jakina, badira **desberdintasunak** presoek aldeko lana era batera edo bestera egiten duten elkarte eta taldeen artean, haien historiagatik beragatik, bakoitza arduratzen den esparruagatik (laguntza juridikoa, osasun laguntza, atzerritarrentzako laguntza...), lan hori egiten duteneko espereagatik edota beraien helburu nagusiengatik. Desberdintasun horien medioz, haietako bakoitzak azalduzako arazoak eta proposamenak ere desberdinak izan dira, baina baita elkarren osagarriak ere, neurri handi batean, oro har oso analisi zabalak egiten dutelako ikuspegi desberdinetatik.

Lan alorren arteko bereizketak beti eztabaidagarriak badira ere, elkarte multzoaren ekarpenak azaltzeko, halako gai handi batzuk bereiztuko ditugu, azalpen argiagoa egitearren.

- . **Lehen atalean**, gaisotasunak eta, batez ere, drogamenpekotasun arazoak dituzten pertsonen **tratamendu terapeutikoa** edo bestelakoa ematen lan egiten duten elkarte askok agertu zizkiguten arazo, eragozpen eta proposamenak bilduko ditugu.
- . **Bigarreanean**, berdin egingo dugu batez ere **atzeritar etorkinei** laguntza ematen lan egiten duten taldeek kolektibo horren egoerari buruz egindako ekarpenekin.
- . **Hirugarren atalean**, kartzelen barruan edo hirugarren graduarekin kanpoan **animazio** lana egiten duten elkarteek azaldu zizkiguten arazoak jaso dira.
- . **Laugarren atalean**, preso dauden pertsonen **eskubideen aldeko defentsaren** inguruko arazo eta proposamen batzuk azalduko dira; hain zuzen ere, hori da presoek laguntzen dieten elkarte askoren helburu nagusia.
- . Bukatzeko, **azken atalean**, gogoeta orokor batzuk egingo ditugu.

Berririo esan nahi dugu sailkapen honek balio instrumental hutsa duela. Antzeko balioa eman behar zaio atal bakoitzean erabilitako eskemari ere; eskema horretan, hiru puntu hauek bereiztu dira:

- A/ Arazorik nabarmenenak.
- B/ Elkarteek beren lana egiteko aurkitzen dituzten trabak.
- C/ Proposamenak.

2.4.1. **GAISOEI EMATEN ZAIEN LAGUNTZA ETA SENDABIDE ALTERNATIBOAK**

Asko dira gaiso dauden presoek eta, batez ere, drogamenpekotasun arazoak dauzkatenei laguntza emateko lan egiten duten elkarteak. Haietako batzuek kartzelatan egiten dute lana (adibidez, AGIPAD edo T-4k), baina gehienek beraien komunitate terapeutikoak edo beraien zerbitzuak eskaintzen dituzte presoentzat. Lehenengo bilerara etorri ziren ia elkarte guztiak (ikus 2.4 atal honen hasierako zerrenda) tankera honetakoak dira.

Lehen azpiatal honetan, elkarte horiek azaldu zizkiguten arazo, eragozpen eta proposamenak bildu ditugu.

A/ Arazorik nabarmenenak

- **APko 60. artikulua gaiso sendaezinei aplikatzeko orduan:**
 - . Kartzela-uzteak oso motel eta irizpide zorrotzekin erabakitzen dira, hiltzear dauden presoek kasu larrietan izan ezik; hauekin, dena azken orduan egin nahi izaten da, kartzelan hil ez daitezzen.
 - . Preso prebentiboek ezin dute artikulua horrek dioenez baliatu, epaitegien mende daudelako eta, beraz, ezin zaielako inolako sailkapenik eman.
 - . Oso egoera larrian daudenei komunikate terapeutikoetan laguntza emateko arazoak daude.
 - . Arriskua dago komunitate terapeutiko horiek aurre-tanatorio antzeko zerbait bihurtzeko, kartzela uzteko baimenak berandu ematen direnean.

- **Drogamenpekotasun arazoak dauzkaten hirugarren graduako kondenatuentzat kartzela zigorra betetzeko ordezkotankera batzuk onartzen dituzten APko 57.1. artikulua eta beste neurri batzuen aplikazioan:**
 - . Pertsona horietako gehienak epailearen erabakiz joaten dira ordezkotankera, eta ez, beraz, tratamendu taldeen proposamenez. Talde horien funtzionamendu okerragatik gertatzen omen da.
 - . Askotan, baliabideak eta familiaren laguntza dauzkaten pertsonak negoziatzen eta lortzen dituzte ordezkotankera; aldez, baliabiderik ez dutenek, kartzelan sartu eta gero, nekez lortuko dute ordezkotankera tratamenduetan sartzea.
 - . Presoak tratamendu ambulatorioetan sartzeko aukerak direla-eta, epaileek ez dute amankomuneko irizpiderik. Horren ondorioz, batzuetan, drogari uzteko prozesuetan sartuta dauden preso batzuek kartzelara itzuli behar izaten dute gaua igarotzera..., eta beraien bilakaeran atzerapausoak emateko arrisku handia dago.
 - . Erabakiak hartzeko orduan, tratamenduari buruzko irizpideak erregimenari buruzkoen azpitik jartzen dira beti.
 - . Tratamendu taldeak gainezka daude beraien lanean (Langraitzen batez ere).
 - . Gehiegizko baldintzak ipintzen dira kartzela zigorra betetzeko ordezkotankera onartzeko orduan: presoek esanekoak izan behar dute, parterik jaso gabeak..., ia «ezin hobeak».

- **Kartzeletan droga arazoak edo HIES gaitza duten pertsonen egoeran:**
 - . Kartzelan sartu eta gero, arazoak egoten dira kanpoan hasitako metadona egitarauarekin aurrera jarraitzeko, egitaraua mugatuta dagoelako eta sendagile taldeek baliabiderik ez dutelako.

- . Immunologi maila oso apalak dauzkaten pertsonentzat kartzeletako bizi baldintzak ez dira batere egokiak.
- . Ez dago kutsatu gabeko xiringarik.

Adierazitakoak bezalako arazo batzuk agertzeaz gainera, elkarre hauek behin eta berri adierazi zuten kartzelak ez direla leku egokiak gaisoak eta, are gutxiago, gaiso larriak edo HIESdunak bezalako gaiso sendaezinak egoteko. Arrazoiak asko dira: presoek pilaketa, higijene egoera, kutsatzeko posibilitatea, sendagai falta, segurtasun neurriek tratamendu beharren eta osasun laguntzaren aldean duten lehentasuna...

Ildo horretatik, berriro aipatzen da Langraizko Espetxeko egoera, bereziki penagarria delako, tuberkulosia bezalako gaisotasunen indize altuengatik, eta eritegiko hutsune ezagun eta askotan salatuengatik.

- **Beste hutsune batzuk:**

- . Zenbait pertsonak arazoak edukitzen dituzte beraien familietan, pisuetan edo horrelakoetan hartuak izateko.
- . Kondena amaitzen dutenei premiazko laguntza emateko sistemarik ez dago; esate baterako, larritasun sozialeko laguntzak lortu ahal izateko hainbat hilabetez itxaron behar izaten da, eta badaude pertsona batzuk denbora horretan bizitzeko inolako baliabiderik ez daukatenak.

B/ Elkarre gisa lan egiteko aurkitzen dituzten trabak

- . Zenbait alorretan ez dago behar bezain argi nola banatuta dauden erakunde desberdinen erantzunkizunak edo aginpidea (epaileena, erakunde penitentiarioena, Eusko Jaurlaritzaren sail edo zerbitzuena...), eta batzuetan elkarri «egozten» dizkiote ardura horiek.
- . Batzuetan arazoak sortzen dira pertsona bati tratamendua ematen zaion bitartean, kondena-epai berrien ondorioz, epaileak kondena hori kartzelaz kanpo betetzeko baimena ematen ez duenean; kasu horietan, tratamendua eten egiten da. Gainera, batzuetan aspalditik ebatzi gabe dauden auzi zaharrak izaten dira horiek.
- . Erakunde arduradunek martxan jarri nahi dituzten plangintza edo egitaraueri buruzko informaziorik ez da egoten, nahiz eta horiek eragin nabaria izan elkarre lanean.
- . Badira pertsona batzuk kartzelara ez joateagatik bakarrik hasten direnak tratamendu terapeutikoa jasotzen, errehabilitatzeko inolako asmorik eduki gabe (motibazio faltagatik); arazoak daude pertsona desegituratu eta deserrotuekin lan egiteko.
- . Erakunde bat baino gehiagotako profesionalek pertsona berberaz arduratzen direnean, beraien lana koordinatzeko arazoak egoten dira.

- . Kasu horietan, drogamenpeketasun arazoak dauzkaten pertsonen errehabilitazioak lan gehiago egitera behartzen du (analisi gehiago, txosten gehiago...), eta gainera ez dago horietaz arduratzeko baliabide ambulatorio nahikorik.
- . Administrazioak ez du behar adinako finantzabiderik ematen elkarteen egitarauetarako.
- . Ez dago oso garbi nolako irizpideekin neurtu behar den halako tratamendu terapeutiko baten arrakasta, eta batzuetan adituek kontrako irizpideak ere edukitzen dituzte (adib.: batzuetan gertatzen diren erorialdiak errehabilitazio prozesuaren pauso normaltzat hartzen dituzte batzuek; aldiz, beste batzuen iritziz, tratamendua eteteko edo tratamendu penitentiarioko graduan atzera egiteko arrazoia dira).
- . Preso prebentiboen kasuan, tratamenduarekin aurrera jarraitzeko arazoak egoten dira.
- . Kasu gehienetarako, gaur egungo arauetan ez dago aurrikusita ere ordezeko tratamenduek arrakasta eduki dezaketenik; horregatik, presoek berriro kartzelara itzuli beharrik izan ez dezaten, indulto eskariak bideratu edota tratamendu-epea artifizialki luzatu beharra egoten da.
- . Tratamendu talde desberdinek erabiltzen dituzten irizpideak ez dira berdinak (adibidez, elkarte arduradunak egunean 24 orduz lanean aritzeko beharrari buruz, edota familien partaidetza edukitzeko aukerari buruz...).
- . Lana egoki bete ahal izateko baliabide materialak falta dira kartzeletan (adib.: Langraitzen ez dago elkarrizketa pertsonalik egiteko leku egokirik...).
- . Dauden giza baliabideekin, ezinezkoa da elkarte batzuen eskaintza zabaltzea, pertsonak tutelatzea...
- . Arazoak sortzen dira errehabilitazio prozesuan dauden pertsonen prozesu hori hausten dutenean.
- . Batzuetan ez datoz bat elkarte batzuek ematen dituzten zerbitzuak (kostua) eta horiek aurrera eramateko erakunde publikoek ematen dituzten finantzabideak (dirulaguntzak).

C/ Proposamenak

Drogamenpeketasunari uzteko egitarau alternatiboetan lan egiten duten elkarrekin honako proposamenak egin zizkiguten, besteak beste:

- . Tratamendua amaitu dutenen **segimendua** eta kontrola egiteko formulak bilatu, kartzelara itzultzera behartu gabe.
- . Pertsona berberaz arduratzen diren profesionalen eta taldeen arteko **koordinazioa** lortzeko bideak aurkitu.
- . Kartzeletako **instalakuntzak** (mintzatokiak, bulegoak, sarrerak...) hobetu, arazo gehiagorik gabeko komunikazio pertsonalak lortu ahal izateko.

- . Tratamendu taldeetako adituek presoei **informazio** gehiago eman ordezko tratamenduak hasteko edo elkarteen laguntza jasotzeko aukerei buruz.
- . Pertsona bati 57.1 edo 60. artikulua aplikatu behar zaionean, **baimena** eman pertsona horiek hartuko dituzten elkarteei horiekin egoteko; horrela, hobeto elkar ezagutuko dute, eta erantzunkizun handiagoko erabakia hartu ahal izago da norbait hartzeko konpromezua onartzean. Horretarako, presoaren segimendua egingo duen elkarteari erraztasunak eta erabateko askatasuna eman behar zaizkio presoarekin egon ahal izateko.
- . Legeetan onartu egin beharko litzateke presoei tratamendua ematen dieten elkarteek **parte hartzeko aukera izan dezaten** pertsona horien egoerari buruzko erabakietan (adibidez, tratamenduari jarraitzeko...).
- . Kartzeletatik kanpo, halako pertsona edo erakunde batzuek ahalmena eduki beharko lukete, preso bakoitzaren azterketa zehatza egin ondoren, beharrezkoak iruditzen zaizkien aldaketak eta zuzenketak proposatzeko.
- . **Dirulaguntzak emateko irizpideak** moldatu beharko liriateke tratamenduen egiazko baldintzetara (adibidez, haien iraupenaren arabera), edo harrerara (diru-partidak zerbitzuen kostura egokitu, hitzarmenen bidez...).
- . **Alkoholak** kartzelan gertatzen diren egoeretan daukan eragina aztertu, eman beharreko lehen pausoa baita gai horri heltzeko, ezkutuan utzi ordez.
- . Arreta berezia eta behar adina baliabide eskaini **kartzelatik irteten direnei bergizarteratzen laguntzeko**, batez ere psikopatologia larriekin edo egoera sozioekonomiko oso gogorretan bizi direnen kasuan.
- . Espetxeetako tratamendu taldeetako giza baliabideak handitu eta haien ekintza-irizpideen jarraitasun handiagoa lortu.
- . **Osakidetzak** era honetako egitarauetan dauzkan giza baliabideak ugaldtu (langilegoa, ordezkapenak...).
- . Kartzela zigorraren ordezko bideak jarri.

Zentzu honetan, Deustua-San Inazioko Modulu Psikosozialak aurkeztutako dokumentuan gizartearen zerbitzuko lana aipatzen da -Kode Penal berrian ere jasota dago- eta honako proposamen hau egiten da: «**Gizartearen zerbitzuko lana** presoak bere kondena kartzelan ez beste era batera bete dezan erabili beharko litzateke, drogamenpekoak harreman eta lotura handiagoa izan dezan gizartearekin, bergizarteratzeko eta gizartean benetan parte hartzeko helburuari begira». Izan ere, proposamen honen oinarrian irizpide hauxe dago: «Drogei uzteko tratamenduak errehabilitazio zentroetan jasotzea onuragarria bada ere, kasu guztietan ez da nahikoa izaten delitugile drogamenpekoaren bergizarteratzea lortzeko».

Beste alde batetik, Bizkaiko HIESaren Kontrako Hiritar Batzordeak bereziki azpimarratu zuen «**70 urtetik gorakoak eta gaiso sendaezinak kartzelatik ateratzearen aldeko Plataforma**» delakoaren manifestuan jasotakoa, eta honako zortzi proposamen hauek egin zituen idatziz:

- « Osasun laguntza eman sare publikoaren bidez. Ezer baino lehen eritegiak hobetu behar dira, baliabide teknikoak eta sendagile eta erizain adituak ipiniz; baina azken helburua kartzeletako osasun sistema berezia desagertzea da.
- Xiringak dohain banatu, presoei izena eskatu gabe eta zigorrik ezarri gabe, zainetaritzen diren drogak kontsumitzen dituzten presoen eskubidea askatasunean bizi direnek dutenaren mailan ipintzeko.
 - Metadona zabaldu eta drogamenpekotasunei aurre egiteko beste tratamendu batzuk ipini, bai eta 57.1 artikulua erabilera azkartzeko neurriak hartu ere.
 - Kartzelatan osasun heziketarako egitarauak martxan jarri.
 - HIES gaitza duten presoei kartzelatik ateratzen utzi; izan ere, espetxeetako eta haien eritegi-tako egoera txarra kontutan izanda, haien bizi itxaropena izugarri gutxitzen da. Hain zuzen ere, kartzela lekuri txarrena da bere inmunitate maila gutxita daukan pertsonarentzat.
 - Bitariko talde batek -hau da, kartzela barruko eta kanpoko adituek osatutako talde batek- egin beharko luke gaiso dauden presoak kartzelatik ateratzen uzteko proposamena bai eta benetan gauzatu ere pertsona horren askatasuna. Irizpide mediku, sozialak eta gizatasun hutsekoak erabili behar dira soilik, eta ez erregimenari begiratzen diotenak, kartzelatik ateratzen uzteko.
 - Presoen Zaintzarako Epaitegiak bere irizpidea aldatu behar du -hau da, hiltzearen dauden presoei bakarrik utzi kartzelatik irteten-, lehenago aipatu ditugun beste irizpideei lehentasuna eman, eta ez ordea berriro delitua egiteko dagoen posibilitateari; izan ere, kasu horretan, berriro kondenatzen du preso, heriotza duina edukitzeko eskubidea kentzen baitio egin ere egin ez duen delitu batengatik.
 - Kartzelatik irteten direnentzako gizarte eta osasun zerbitzuak (harreraretxeak, eguneko zentroak, gizarte-soldata, senitartekoentzako laguntza psikosoziala, metadona-egitarauak, etab.) sortu, berriro delitua egiteko posibilitatea gutxituko luketelako, kontuan izanik hori dela kartzelatik ateratzen ez uzteko erabiltzen den aitzakia.»

AGIPAD (Drogen Abusuaren Prebentzio eta Ikerketarako Gipuzkoar Elkarte) delakoak aurkeztutako agirian, berriz, honako beste proposamen hauek zeuden:

- « Laguntzarako sistema berriak antolatu, ondo hornituak ikuspegi biosiko-sozialetik, eta behar bezala koordinatuta.
- . Kalteak gutxitzeko (xiringak aldatu).
 - . Metadonaren egitaraua.
 - . Desintoxikaziorako protokolo normalduak.
- Tratamenduari buruzko irizpideei lehentasuna eman erregimenean oinarritutakoen gainetik. Presoa erakundearen menpe jartzen ez bada ere, ez dago zertan egin pronostiko txarrik: baimenak, deribazioak, gradu aldaketak, espetxe-aldaketa...

- *Tratamendupean ez jartzeko eskubidea errespetatu.*
- *Ez nahastu kontrol soziala eta tratamendurik egokiena. (Honi dagokionez, kartzela batzuetan ohizko neurria izaten da gernu kontrola eginaraztea baimenak emateko.)*
- *Eskubide konstituzionalak eta, ondorioz, giza eskubideak bermatzeko bideak -erakunde penitentiariotik kanpokoak, beraz- eduki.*
- *Tratamenduetarako baliabide komunitarioei dagokienez:*
 - . *Berehalako harrera egiteko komunitate terapeutikoa behar da.*
 - . *Drogamenpeko ijitoei atentzio berezia eman (haien ezaugarriak errespetatuz eta haietara egokituz).*
 - . *Bergizarteratzeko prozesuan dauden preso-ohiei laguntzeko egitura bitartekariak indartu eta bultzatu.»*

2.4.2. ATZERRITARREN ARAZOAK ETA HAIENTZAKO ATENTZIOA

Gure kartzeletan -eta batez ere Langraizkoan- preso dauden atzerritar ugarien arazo bereziak gehienbat biztanleriaren multzo horrekin lan egiten duten elkarteek jarri zituzten mahai gainean. Zehazkiago, Bilbo Etxezabal, Cáritas (PAEX - Atzerritarrei Laguntzeko Egitaraua), Gizabidea, Pastoral Penitenciarria eta SOS-Arrazakeria elkarteek batez ere jorratu zuten gai hau.

Elkarte hauen arabera preso multzo honek dauzkan arazorik handienak eta preso atzerritarrekin egin genituen elkarrizketetan bildu genituenak antzeko samarrak dira. (Ikus, adibidez, «Atzerritarren arazo bereziak» zatia, Langraizko espetxeari buruzko atalean, 2.3.2 azpiatalean.)

A/ Arazorik nabarmenenak

Atal honetan, aurkeztu ziren arazorik aipagarrienak bakarrik bilduko ditugu. Dena den, ezer baino lehen, ohar bat egin behar dugu: hemengo arazoez gain, elkarteek beste asko (pilaketa, lan egiteko trabak, prestakuntza jasotzeko mugak, osasun laguntza eskasa, tratu umiliagarria, lekualdaketen baldintzak, moduloetako egoera higienikoa...), gehienbat preso guztiengan eragina dutenak, planteiatu zituzten.

Arazo zehatz horien artean, honako hauek azpimarratu behar dira:

- **Baimenei dagokienez**
 - . Espetxeak (Langraitzen, batez ere) sistematikoko uko egitea baimenak emateari; horrelakoetan, Presoen Zaintzarako Epaitegira edo Auzitegira jo eta tramite luzeak egin behar izaten dira (eta, beraz, baimena atzeratu egiten da, noizbait lortzen bada ere).

- . Ukapen horietarako ematen diren arrazoiak (gizarte-sustrairik ez edukitzea, «atzeritartasuna»), baita elkarteek abala ematen dutenean ere (harrera-lekuak eskainiz...).
- . Baimenak emateko orduan kondenaren hiru laurdenak beteta edukitzeko baldintza.

- **Dokumentazioari dagokionez**

- . Dokumentazioa galtzea edo presoari ez itzultzea.
- . Espetxe batetik bestera aldatzean, kondena-arintzeari eta lan banaketari buruzko informazioa galtzea.
- . Kondena beraien jatorrizko herrialdeetan edo biziterrietan betetzea lortzeko tramiteetan gertatzen diren atzerapenak (urtebetetik gora irauten duten tramiteak).
- . Egoitza-baimenak edo beharrezkoak diren beste agiri batzuk berritzeko Administrazio penitentziarioaren axolarik eza.

- **Informazioari dagokionez**

- . Beraien eskubideei, baimenak edo bisitak eskatzeko edo zigorren kontrako errekursoak aurkezteko ahalbideei, ofiziozko abokatuei eta abarrei buruzko informazio urria.
- . Pertsona hauek gaztelaniaz mintzatzen ez jakiteagatik eta haietako askoren hizkuntz errealitatea kontutan ez izateagatik gertatzen diren arazoak (ekintzetan parte hartzeko, idazkiak ulertzeko...).
- . «Interpretariak» erabiltzeko sistemaren ezegokitasuna (beste preso batzuk izaten dira).
- . Ofiziozko abokatuen ardurarik eza edo ekintza ezegokiak...

- **Presoen eta beraien familien arteko harremanekiko errespetuari dagokionez**

- . Familia urrun edukitzeagatik eta haietako askoren egoera sozioekonomikoagatik sortzen diren arazoak (bisitak egiteko, telefonoz hitz egiteko...).
- . Posta bidez paketeak zuzenean ezin jaso izatea; horrelakoetan, elkar-teen bitartekaritza behar izaten da.
- . Paketeak presoei eskuratzeko dagoen sistema txarra; jaso-agiririk ez dagoenez gero, ezinezkoa da galdu direla frogatzea.
- . Bisitak egiteko sistema okerra (itxaroaldiak, iraupen laburra...), kontutan izanik batzuetan presoen senitartekoek milaka kilometro egin behar izaten dituztela.

- **Haiei egoera juridiko edo penitentziarioari dagokionez**

- . Baldintzapeko askatasuna onartzean gertatzen diren atzerapenak, eta Europako Komunitatean egoitza duten zenbait pertsonari baldintzapeko

askatasuna beraien jatorrizko herrialdean (Komunitatetik kanpokoan) betearaztea.

- . Abokatuen atentzioa nahikoa ez izatea, batez ere probintzia bateko ofiziozko abokatuek beste probintzia bateko kartzelan dauden presoek arduratu behar dutenean (adibidez, Martutenen dauden gazteek edo Langraitzen dauden presoek arduratu behar duten Bizkaiko abokatuen kasua). Elkarte batzuek datu zehatzak eman dituzte kartzelan urtebetetik gora pasatu ondoren beraien abokatuen berririk ez duten pertsona batzuei buruz.
- . Kasu batzuetan, badirudi atzerritarrek kartzelaratu egiten direla, haien aurkako inolako salaketarik eduki ez arren, zenbait egunez lokalizatuta edukitzeko.
- . Kanporaketak edo deportazioak, eta horiek zein baldintzatan egiten diren.
- . Gradu-hobekuntzak lortzeko eta atal irekira sartzeko oztupoak.

- **Haien hizkuntz eta kultur ezaugarriekiko errespetuari dagokionez**

- . Arabiera eskolarik ez egotea.
- . Haien hizkuntzetan idatzitako liburu edo egunkaririk ez egotea (liburutegietako hornidura).
- . Haien erlijio-ospakizunak egiteko lekurik ez egotea...

Normalean, preso atzerritarrek nolabaiteko bazterkeria jasaten dutela pentsatzen da, batez ere zenbait onura penitentiario lortzeko arazoei dagokienez. Beste era bateko bazterkeria, tratu iraingarria edo jokamolde arrazistak, aldiz, nekezago frogatu daitezke, pertsona horietako gehienek ez dituztelako salatu nahi izaten jokaera horiek, beraien egoera zailagatik hain zuzen ere.

B/ Atzerritarrei laguntzen dieten elkarteek beren lana egiteko aurkitzen dituzten oztupoak

Presoei zerbitzu egokia emateko dauden traba horietako batzuk aipatu ditugu lehenago: familiak bidalitako paketeak eskuratzeko, elkarte harrera-lekuak asteburuetakoa baimenatarako erabili ahal izateko, baimenak erabakitzeko orduan elkarte abala aintzat hartzeko...

Beste oztupo zehatzago batzuk honako hauek dira:

- . **Koordinaziorik** ez egotea elkarte desberdinen artean, bai eta horien eta espetxeetako tratamendu taldeen artean ere.
- . Elkarteek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko **informazioa** (laguntzak, bisitak...) beti ez zaie zuzen iristen presoek.

- . Pertsona horien egoera pertsonal edo kolektiboari buruzko **salaketak** aurrera eraman ahal izateko arazoak (pertsona horiek beren arazoak adierazteko beldurra izaten dutelako, haien kalterako izango delakoan edo alferrik izango delakoan...).
- . Pertsona horientzako era guztietako materialak (ikasmaterialak, adibidez) lortzeko **laguntzarik** ez egotea.

C/ Proposamenak

Gure espetxeetan dauden atzerritarren egoera hobetzeko egin zaizkigun proposamen zehatz guztiek planteiamendu bikoitza daukate:

- . alde batetik, **inolako bazterkeriarik ez gertatzea** gainontzeko presoen aldean (baimenak, lanpostuak, gradu-hobekuntzak... erabakitzeko orduan);
- . bestetik, **preso multzo berezi horren ezaugarriak errespetatzen direla** ziurtatzea.

Horren erakusgarri, hona hemen Arabako SOS-Arrazakeria taldeak eskuratu zigun testutik ateratako pasarte bat:

«Atzerritarren arazoei erantzun berezia ematea eskatzen dugu. Legearen aurrean berdinak izateko printzipioa, zeinetan oinarrituta kondenatu baitira preso hauek, onura penitentziarioak onartzeko mugarik gabe ezarri behar zaie, hain zuzen ere bazterkeria hori oso larria delako kasu hauen bereizgarriengatik (presoen kultura, hizkuntza, familia, etab.).

Auziperatuta baina baldintzapeko askatasunean dauden preso atzerritarrei dokumentazio pertsonala, administratiboki balioduna, eta Espainiako lurraldean segurtasunez eta duintasunez jarraitzeko iraupen-bideak eman behar zaizkie.»

2.4.3. PRESOEKIN LAN EGITEKO EGITARAU ETA EKINTZAK AURRERA ATERATZEKO ARAZO ETA PROPOSAMENAK

Atal honetan, batez ere espetxeetan ekintzak edo egitarauak lantzen dituzten elkarteek azaldu zizkiguten arazo, oztopo eta proposamenak bildu nahi ditugu; elkarte horien artean honako hauek daude: Gipuzkoako Bergizarteratze Erakundea, ADSIS-Bestalde elkarte, Pastoral Penitenciarria, Gurutze Gorria...

Beraien ekarpenak hobeto ulertzeko, kontutan izan behar da elkarte hauek beraien lana egiteko orduan aurkitzen dituzten baldintzak nahiko desberdinak direla: batzuek espetxean bertan lan egiten dute, beste batzuek kanpoan, hirugarren graduko presoentzako ekintzetan; batzuek astean lan egiten dute, beste batzuek asteburuetan; batzuek lan egiteko dirulaguntzak daukate, beste batzuek borondatez eta administrazioaren inolako laguntzarik gabe lan egiten dute...

Dena dela, hemen bi zati egingo ditugu: alde batetik, lanean aurkitzen dituzten arazo eta trabak; eta, bestetik, haien proposamen zehatzak.

A/ Elkarateek beraien egitarauak aurrera ateratzeko aurkitzen dituzten arazo eta traba nagusiak

Honako hauek dira adierazi zizkiguten arazo eta trabarik garrantzitsuenak:

- . **Instalakuntzak** ez dira egokiak beraien ekintzak egiteko, kasu batzuetan bereziki (Langraizko eritegia, Martuteneko emakumeentzako moduloa...).
- . Preso askoren egoera soziala txarra izanik, apenas duten **motibaziorik** ekintzetan parte hartzeko, edo haietan parte hartzen jarraitzeko.
- . Kartzeletan **preso gehiegi** egonda, eta instalakuntzak eta baliabideak ere mugatuta daudenez gero, nekez antola daitezke guztientzat egokiak diren egitarauak.
- . **Dirulaguntzak banatzeko sistema** bera (urtez urtekoa izatea, diru partidak izoztea, berandu onartzea...); gauzak horrela, egitarauak aurrera jarraitu ahalko ote duten jakitea zaila izaten da, ekintzak askoz gutxiago izaten dira aurrekontu-urtealdi bakoitzeko hasieran...
- . Espetxeetako **funtzionarioen mugikortasunagatik**, harreman sare berriak sortu behar izaten dira, bai eta pertsona berriek elkarteen ekintzetan konfiantza izan dezaten lortu ere.
- . Hirugarren graduan dauden pertsona askorentzat **ekintzarik ez egotea** kanpoan, eta asteburuaren zain egon beharra kartzelatik irteteko.
- . Elkarate desberdinen artean **koordinaziorik** ez egotea; gauza berbera gertatzen da espetxeetako taldeekin eta beste erakunde batzuekin ere.
- . Espetxeetara joaten diren **borondatezkoei ematen zaien tratua**: luzaroan itxaronarazi, espetxeko langileek lagunduta joan beharra, aste-ro-astero sartzeko baimena eskatu behar izatea...

B/ Proposamenak

Elkarate hauek egiten dituzten proposamen gehienek beraien lana erraztea, instantzia desberdinen arteko (espetxe barrukoek eta kanpokoek arteko) koordinazioa lortzea eta, azken buruan, prestakuntz ekintzetan ahalik eta eskaintzarik zabalena egin ahal izatea bilatzen dute. Hauxe proposatzen dute, besteak beste:

- . **Preso batzordeak** sortzea, espetxeetako zuzendaritzaren eta taldeen eta elkarteen arteko bitartekaritza egiteko.
- . **Borondatezkoei erraztasunak ematea kartzelan lan egiteko**: sartzeko baimen iraunkorrak, sartzeko sistema hobetu, presoek partaidetza bultzatu...

- . **Gizarteak kartzelan sarrera eta inplikazioa** izan dezan erraztea: hezkuntz proiektu serioak, jarraitzeko bermea dutenak, finantzabidea dutenak, etab.
- . Suspertze pertsonalerako ekintza eta egitarauetan parte hartzeko aukerei buruzko **informazio** hobea ematea presoei.
- . Erakundeen arteko **koordinazioa** eta elkarlana suspertzea: adibidez, borondatezkoak eta tratamendu taldeek aldiro-aldiro eta jarraitasunez bilerak egitea lortzeko, bai eta bi aldeek egiten duten lanaren balioa elkarri aitortzeko ere...

Honi buruzko argibide bezala, hona hemen hiru lurraldeetako bateko IRSE elkarteak azaldutako agiriko zati bat:

«Gure iritziz, heziketa, kultura, gizarte zerbitzuez baliatzeko aukera, denbora librearen erabilera eta horrelakoei dagokienez presoek dauzkaten eskubideek kartzelan bertan izan behar dute dagokien erantzuna; horretarako hauxe egin beharko da:

- *presoen zerbitzu amankomunak, jokogelak, liburutegiak eta topalekuak sortzeko aukera eman;*
- *delituaren aldeko jokamoldeari alternatibak eskaini;*
- *kartzela eta kanpoko mundua hurbiltzeko ahaleginak egin;*
- *kartzelatik irtendakoan edozein kultur etxetan aurki dezaketen egitura soziokulturalaren antzekoa eskaini, gizartera itzultzeko erraztasunak ematearren.»*

2.4.4. **ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEN ALDEKO LANA EGITEKO ARAZO ETA PROPOSAMENAK**

Ondoren, preso hainbat eskubideri buruz elkarteek egindako ekarpenak azaltzeari ekingo diogu. Kontutan izan behar da atalik orokorra dela, edo, bestela esanda, arazo motarik zabalena biltzen duena. Egia esateko, kartzela barruko bizi-baldintza guztiak aldera daitezke arautegi penitentziarioan aitortuta dauden eskubideekin. Ikuspuntu horretatik, atal hau «osagarritzat» har liteke, aurreko puntuetan (droga/HIES gaitza, atzerritarrak, laguntza-ekitaldiak...) jaso ez diren arazo batzuetan eraginik ez duten gai batzuk jorratzen dituelako.

A/ Arazorik nabarmenenak

- * Elkarrekin guztien arabera, badago arazo garrantzitsu bat gainontzeko guztien iturria eta laburpena ere badena: alegia, **kartzela ez dela egokia bere izateko arrazoa den helburua lortzeko**, ez duelako preso bergi-zarteratzen eta, aitzitik, haren deserrotzea eta kalte fisiko eta psikiko garrantzitsuak, askotan sendaezinak, eragiten dituelako.

Bergizarteratzeko helburu teoriko horren aurrean, gaur egun «gizarteratzeko prozesuaren porrot soziala sartzeko erabiltzen den 'poltsa' da» kartzela (AGIPAD). Horri dagokionez, oso argigarria da ikustea nolako pertsonak sartzen diren kartzelan; Salhaketaren arabera, pertsona multzo horren ezaugarriak honako hauek dira:

- «- langabetuak ziren kartzelaratu aurretik eta langabetuak izango dira irteteen ere,
- drogamenpekotasuna da delituak egitera bultzatzen dituen arrazoi nagusia,
- delitugile goiztiarrak dira, lehen delitua egin zuten adinagatik,
- behin baino gehiagotan egon dira kartzelan (EAEn, %70).»

Presoekin lan egiten duten elkarte gehienen ustez, kartzela bera da arazoa, eta, horregatik, delituari beste era bateko erantzunak eman behar zaizkio, kartzelaren orde.

- * Badago beste gai orokor bat, elkarteek arazotzat hartzen dutena: **arautegi penitentziarioa ez betetzea**, hain zuzen. Izan ere, kartzela zigorra betearazteko ereduari dagokionez, legean eta arautegian azalduta dagoena ez dator bat espetxeetan erabiltzen denarekin. Eta hori ez da bizi-baldintzekin bakarrik gertatzen, oinarrizkoagoa den zerbaitekin baizik, hots, kondena betetzeko moduarekin. Legearen arabera tratamenduak erabateko lehentasuna eduki behar duen arren kartzelako funtzionamendu arautegiaren aldean, egiatan alderantzizkoa gertatzen da, arautegia tratamenduaren gainetik jartzen da, eta kartzela barruko bizitza guztia segurtasun eta barne-antolakuntza beharren ardatzean jiran ibiltzen da: langile gehienak zaindaritza lanetan aritzen dira, bergizarteratzearen aldeko ekintzei behar adinako arreta eman gabe; presoak kartzelatan banatzeko orduan, jarraitzen den irizpidea antolakuntzazkoa da, eta ez tratamenduzkoa. Labur esanda, «*legeak dioena kartzelako baldintza kaskarren azpitik jartzen da*» (Salhaketa).
- * Azaldutako egoeraren aurrean, elkarteek ustez oso garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoak **alor penitentziarioko aginpidea** hartzea, eta zigor penalak betearazteko eginkizunak haren esku geratzea. Talde horien arabera, alor penitentziarioko burujabetasunak espetxeak zaharberritzeko eta administrazio penitentziarioa euskal administrazio publikoaren barruan sartzeko balio behar du, baina, batez ere, «*kartzelaren eta gaur egungo egitura penitentziarioen betekizun politiko ohizkoa aldatzeko, oraingo beharrian sozial eta politikoetara moldatuz*»; horretarako, «*kartzelak ulertu eta administratzeko moduan parte hartzeko bide desberdinak ipini behar dira, zalantzarik gabe gizarte osoaren onerako, kontutan izan behar baita gizartea bera dela bai kartzela zigorren eragilea, bai jasalea ere*» (Salhaketa).

* Adierazitako gai orokorrez aparte, taldeek beste arazo zehatzago batzuk ere aipatu zituzten; horien artetik, aipagarrienak honako hauek dira:

a) Presoen pilaketa neurrigabea

Kartzeletako preso multzoa handitzeko joera dago, eta horrek eragin txarra dauka hango bizimoduan eta Administrazio penitentziarioak ematen dituen zerbitzuetan.

b) Kartzela presoaren ohizko bizilekutik urrun egotea

Arautegi penitentziarioak bestela dioen arren, gure Autonomia Erkidegoko zigorpetu gehienak beraien bizilekutik urrun dauden espetxeetan ari dira kondena betetzen, eta, aldez, euskal kartzeletan erkidego honekin inolako loturarik ez duten pertsonak daude.

c) Osasun arazoak

Kartzeletako biztanleria gaisorik dago, gero eta larriagoak dira gaisotasun kutsakorrek eta, bereziki, droga kontsumitzeko iharduera arriskutsuei eta higiene eta ingurugiro baldintza okerrei lotutako arazoak. Elkarre batek baino gehiagok salatu ditu osasun zerbitzuek eta eritegiaren instalakuntzek dauzkaten akatsak. Tuberkulosiarekin gertatzen dena ere -Langraizko Espetxean batik bat- oso larritzat hartzen da.

Kartzeletako gaisotasun-mailarekin zerikusia duen beste gai bat APko 60. artikulua erabilera da; izan ere, talde batzuen iritziz, oso gutxitan erabiltzen da, bizitzeko denbora gutxi geratzen zaionean bakarrik ematen zaiolako presoari kartzelatik ateratzeko baimena, hain zuzen ere kartzeletan gertatzen diren heriotzei buruzko estatistikak murrizteko.

d) Gaisotasun psikiatrikoak

Sistema penitentziarioak ez ditu ia inoiz kontutan hartzen giltzapeak sortzen dituen kalte psikikoak, jakinekua izan arren hori askotan gertatzen dela, batez ere kartzela zigorra luzea denean edota baldintza txarretan bete behar izaten denean. Gainera, kartzela barruan tratamendu psikiatriko egokia lortzea zaila izateaz aparte, gaisoaren jokamoldeari ematen zaion erantzuna presoaren zigortzea edo familia ingurutik urrun dagoen beste zentru batera aldatzea izaten da. Kasu batzuetan, gaiso psikikoak isolamenduan jartzen dira (22 ordu zelda barruan eta patioa bakarka irten), erregimena sendagileen iritzia gainetik jarriz (TAT).

e) Baimenak

Oro har, baimenekin erabiltzen den irizpidea nahiko zorrotza izaten da, baina, lehenago ere esan dugun bezala, arazo hau are larriagoa da atzeritarrekin, sistematikoki ukatzen baitzaizkie baimenak. Bestalde, baimen-aldietarako eskatzen den jokamolde ona gehiegizkoa da, ez delako bakarrik legez kontrako ekintzarik ez egitea eskatzen; esate baterako, ondoko aldiatarako baimena ukatzeko nahikoa izaten da lehenagoko batean *cannabis*-a kontsumitu izana.

f) Zigorrak

Presoen alde lan egiten duten elkarteek salatzen dutenez, presoek ez dute defentsarik izaten zigortzeko prozesuetan. Oso gutxitan ematen zaie beren burua defenditzeko edo errugabetasun frogak aurkezteko aukera; are okerrago dena, sarritan, presoek aurkezten dituzten kexa edo salaketei ematen zaien erantzuna ere zigorra izaten da. Esate baterako, norbaitek erakundearentzat gogaikarria den jokamoldea edukiz gero, urrutiko beste kartzela batera eraman dezakete.

g) Komunikazioak eta bisitak

Kartzelan dauden pertsonen kanpoko munduarekiko komunikazioetan jasan behar izaten dituzten mugapenak ere indar handiz planteiatzen den gaia da; bereziki azpimarratzen da kalte eta pairamen handiak ekartzen dizkiela horrek presoek senitarteko eta laguneri: *«epaituta egon ez arren, senitartekoek ere ordaintzen dutelako kondena»*.

Horrela:

- presoaren ahaide eta lagunek ia ez dute inolako informaziorik jasotzen kartzelaren arduradunengandik ez eta Presoen Zaintzarako Epaitegitik ere -adibidez, *«epaiketara joateko lekualdaketak egiten direnean, ez zaie horren berririk ere ematen, ez eta aditzera ematen ere noiz arte egongo diren kanpoan»* (IRSE-Bizkaia)-;
- urrutiko kartzeletan dauden presoak bisitatzera joateko laguntzak kendu egin dira, eta horregatik familia askok ez daukate bidaia egiterik;
- bisitarako egiazko denbora mugatu egiten da, eta bisita bera baldintza oso txarretan egin behar izaten da (mintzatokiak txikiak dira, zaratatsuak, intimitaterik gabekoak, etab.);
- komunikazio bereziak (*vis a vis* deitzen direnak) egiteko mugak daude, bakar-bakarrik familiari onartzen baitzaizkie eta oso gutxitan, gainera;
- bisitarien ez zaie tratu egokirik ematen: denbora luzea igaro behar izaten dute itxaroten leku ezegokietan, miaketak egiten zaizkie, etab.;
- korrespondentzia «galdu» edo atxikitzea.

h) Laguntza juridikoa

Abokatu bazkundeen laguntza penitentziariorako zerbitzuek espetxeetako masifikazioa -Langraitzen, batik bat- eta haren ondorio txarrak azpimarratu dituzte. Haien arabera, aipagarriak dira Presoen Zaintzarako Epaitegian tramiteak zertan diren jakiteko dauden arazoak, bai eta horko auziekin gertatzen den pilaketa eta, haren ondorioz, ebazpenen atzerapena ere (adib.: hamaika hilabete baimen-ukapenak tramitzeko). Bestalde, espetxearekin komunikatzeko arazoak egoten dira batzuetan: kontsultei erantzuteko argibideak edo datu zehatzak ez dira ematen, funtzionario batzuek eragozpenak ipintzen dituzte, etab. Azkenik, Fiskaltzaren nola-baiteko gelditasuna ere salatu dute, Legeak haren gain utzi dituen kontrol lanak ez dituelako betetzen.

i) Tratu txarrak

Kondenaz aparte, kartzeletako gaur egungo bizi-baldintzek beste pairamen batzuk eragiten dituztela azpimarratzeaz gainera, kasu batzuetan ustez tratu txarrak ere gertatzen direla salatu dute: presoek kolpeak ematea lekualdaketa eta kartzelan bertan, ohera edo burdinbarretara lotzea... «Presoek beren burua zauri ez dezaten prestatuta» dauden zelden egoera ere kritikatu dute. Bestalde, tratu txarrei buruzko salaketak aurrera ateratzeko dauden trabak ere azpimarratu dira: auzitegiko sendagilearen arreta eskasa, lekuko izan zitezkeenak beste espetxe batzuetara aldatzea, funtzionarioek aldi berean salaketa aurkeztea (TAT).

Elkarte batzuek FIES direlakoak legez kontrakoak direla salatu eta desager daitezela eskatu dute.

j) Emakume presoek bazterkeria

Kartzelan, emakumeek lan egiteko, ikasteko edo aisialdi-ekintzak egiteko aukera gutxiago dituzte gizonezkoek baino, haientzako osasun laguntza ez da inolaz ere nahikoa eta, askotan, behar dituzten higiene-gaiak ez dira aurkitzen. Gainera, erregimen irekia lortzeko arazo gehiago ere edukitzen dituzte, ez dagoelako haientzako modulo irekirik. Bestalde, emakumeek istilu gutxiago sortzen badituzte ere, haientzat dagoen erregimenaren eta segurtasun neurrien zorrozatasuna gizonezkoen moduloan dagoenaren antzekoa da. Euskal Erkidegoko hiru espetxeetan ez dago hiru urtetik beherako umeak edukitzeko prestatutako sailik, eta horregatik haietaz arduratzen diren emakumeak urrutiko kartzeletara bidaltzen dituzte.

k) Beste arazo batzuk

- . **Ordaindutako lanik** eta preso guztiei lanerako trebakuntza emateko ekitaldirik ez egotea. Honen eraginez, kartzelatik irteteko orduan bergizarteratzeko aukerak txikiagoak izateaz gainera, familientzat zama ekonomiko handia izaten da haren kide bat kartzelan edukitzea; gainera, askotan dirulaguntzak, langabe-sariak etab. galdu egiten dira kartzelan sartzeagatik.
- . **Lekurik ez egotea** kartzela barruko ekitaldietarako (ikasteko gelak, erlijio ospakizunetarako tokiak, bileragelak, jokogelak, etab.); ondorioz, presoek ezin dituzte beraien ekintzak antolatu ez eta beraien trebetasun sozialak garatu ere.
- . Bergizarteratzeko lanetan diharduten langileentzat (gizarte laguntzaileentzat, maisu-maistrentzat, etab.) **ordezkorik ez egotea**, bajaran dauden bitartean; horrelakoetan, haien lana etenda geratzen da.

B/ Elkarateek beren defentsa eta salaketa lana egiteko aurkitzen dituzten trabak

Normalean, presoen eskubideak defenditzen dituzten talde eta elkarateek **arazo handiak** aurkitzen dituzte **kartzeletara sartzeko**. Espetxe barruan lan egiten duten kolektiboek sartzeko «paseak» lortzeko oztopoak, itxaroaldi luzeak, etab. salatzen dituzte. Bestalde, espetxeko langileekiko komunikazioa zaila eta urria da, ez dago komunikatzeko eta informazioa trukatzeko biderik, etab.

Errebindikazio joera handiagoa duten elkarateei edo kartzelan gertatzen diren irregulartasunak noizbait salatu dituztenei ez zaie uzten presoekin zuzenean egoten, eta ezin izaten dute baimenik lortu bisitak egiteko. Hari horretatik, Salhaketa elkarateak argitaratzen duen *Barrutik* aldizkaria Langraizko presoei bidali zitzaizenean, zentroko zuzendaritzak atxiki egin zuen, jasotzaileei eskuratu gabe.

C/ Proposamenak

Ondoren datozenak elkarate desberdinek egin zizkiguten aldaketa proposamenak dira. Ideia bakoitza eman zuen elkaratea zein den adierazten bada ere, kontutan izan behar da askotan elkarate batek baino gehiagok egin zutela proposamen bera.

AGIPAD elkarateak, berez drogamenpekotasunaren arazoez arduratzen den arren, honako bi proposamen orokor hauek egin zituen idatziz:

«Gizartea konprometitzea kartzelaren inguruko arazoarekin, haren ordezkari diren erakundeek, GKEen eta arazo horietaz arduratzen diren elkarateen bidez, eta kartzelaren eta kanpoko gizartearen arteko lokarriak sendotzea.

- Deontologia. Beste pertsona batzuekin lan egiten duen edozeinek halako arautegi deontologiko bat behar du bere ekintzaren mugak zehazteko. Kartzeletako biztanleriaren berezitasunak kontutan izanda, garrantzitsua da funtzionarioek beren arautegi deontologikoa edukitzea, bai eta laguntza eta bertziklaia jasotzea ere beraien lanean jarraitzeko.»

Bide beretik, Bizitegik oinarritzko planteiamenduak azpimarratu zituen:

«Gure ustez, sustraietan dauden arrazoiei heldu behar zaie, eta kartze-laratzea guztiz beharrezkoa ez denean, hori baino bidezkoagoak diren erantzunak aurkitu. Hau da, norbait giltzapetu aurretik, erantzun alternatiboak sortzeko beharra adierazten dugu.

- Aurkitzen ditugun arazorik handienetako bat zera da: gure elkarateak ematen duen zerbitzuarekin aurrera jarraitzeko konpromezu handirik ez dela ikusten erakunde publikoen aldetik.»

Gai zehatzagoetan sartuz, IRSE-Bizkaiak proposamen hauek egin zituen:

« Langile gehiago ipintzea Presoen Zaintzarako Epaitegian edo, bestela, beste epaitegi batzuk sortzea, espedienteen pilaketa konpondu eta haien tramitazioa azkartzeko.

- Presoei informazio gehiago ematea edo komunikazioetarako beste sistema batzuk erabiltzea; adibidez, kartzela barruan halako «argibide bulego» bat antola liteke, esperientzia duten presoen ardurapean, badirudielako presoek berek hobeto ematen dutela informazioa.

- Azkenik, familiei presoen egoerari buruzko informazioa emateko modu hobek antolatzea, eta, azken finean, tratu gizabidetsuagoa ematea bai presoari, bai familiari ere.»

Bestalde, Salhaketak **transferentziak jasotzeko oinarrizko baldintzak** jaso zituen bere proposamenean:

- « 1- Jaioterriei eta tratamendu irizpideei lehentasuna eman sailkapenak osatzerakoan.
- 2- Kondena betetzeko gaur egungo baldintzak eta isolamendu zeldan sartzeko zigorrak kendu.
- 3- Zigor prozesuetan berme judizial guztiak eskaini.
- 4- Euskal hiritar askok zenbait kartzelatako sailetan jasaten dituzten bizi-baldintza gogorrak ezabatu.
- 5- Presoek defentsa judizialik ez edukitzea ekiditeko bideak ipini, laguntza eta tutela juridiko eraginkorra antolatuz.
- 6- Espetxe batetik besterako lekualdaketak egiten diren modua hobetu.
- 7- Espainiako Konstituzioaren 25-2 artikulua araberako preso dauden pertsona guztiek dauzkaten eskubideak -ordaindutako lana edukitzea eta Gizarte Segurantzaren onurak jasotzea alegia- bermatu, beraien bergizarteratzerako funtsezkoak direlako.
- 8- Komunikazio intimoetara doazen senitartekoekin erabiltzen diren neurri iraingarri batzuk -miaketak, biluztera behartzea- kentzea.
- 9- Komunikazio eskubidea murrizteko zigorra ez erabiltzea.
- 10- Abokatuekin egiten diren komunikazioak erraztu eta beste profesionalekin (gizarte laguntzaile, sendagile, psikologo eta abarrekin) egiten direnak ugaltu.
- 11- Presoen partaidetza bultzatu Legearen araberako horretarako eskubidea daukaten esparruetan.
- 12- Presoentzako gizarte laguntzarako irizpideak zehaztu, eta hura suspertzeko behar diren baliabide ekonomiko, tekniko eta humanoek hornitu.

- 13- Presoen Zaintzarako Epaitegiaren betekizunak bultzatu, administrazio penitentiarioa kontrolatzeko egiazko ahalmena izan dezan, horretarako behar dituen baliabide teknikoek hornituz eta benetan burujabea den organo judizial baten moduan lan egiteko erraztasunak emanez.
- 14- Zaindaritza lanetan diharduten funtzionarioen eta berreziketan aritzen direnen arteko proportzioa aldatu. Kartzelen administrazioan lan egiten duen pertsonalaren espezializazioa.
- 15- EAEko hiru herrialdeetan erregimen irekiko zentro sozio-penitentiarioak sortu (ikus Eusko Jaurlaritzak argitaratutako ikerlaneko bideragarritasun proiektua: Régimen Abierto en Prisiones, CGPV, Gasteiz, 1992).
- 16- Gizarteko elkarte, zerbitzu eta erakundeekiko lankidetzarako hitzarmenei buruzko plangintza orokorra sortu.
- 17- Kondenarako alternatibak eta errehabilitaziorako zentro bereziak -prebentzio, laguntza eta tratamendu lanak egiteko- sortu halako ezaugarri batzuk dauzkaten zigorpetuentzat: 21 urte baino gutxiagoko gazteentzat, drogamenpekoentzat, gaiso psikikoentzat eta emakumeentzat.
- 18- Espetxeetako osasun baldintzak eta lehen mailako osasun laguntza eta laguntza berezia hobetzeko behar diren giza eta material mailako bitartekoak ipini.
- 19- Ospitale penitentiario bat sortu, psikiatria atala ere izango duena, eta ospitale orokor batetik hurbil, haren zerbitzu bereziak erabili ahal izateko.
- 20- Sistematikoki, presoei beren eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa eman.
- 21- Arautegi Penitentiarioko 60. artikuluari buruzko ulerbidea aldatu, kartzeletan HIES gaitzak kutsatutako pertsonarik ez egoteko.
- 22- Drogamenpekotasunak tratatzeko egitarauekin hitzarmenak egin, kartzeletako drogamenpekoiei laguntza emateko.

Idatziz aurkeztutako proposamenez gain, bileretan beste batzuk ahoz egin ziren; honako hauek, adibidez: Martutenen preso batzorde bat sortu, laguntza juridikorako zerbitzuaren eta kartzelaren arteko erlazioa errazteko, informazio trukea eta komunikazio arina sustatuz, edo Fiskaltzari alor penitentiarioko legezketasuna kontrolatzeko lana indar dezala eskatu.

2.4.5. GOGOETA OROKORRAK

Orain arteko ataletan egiaztatu ahal izan den bezala, kartzeletan **arazo eta gora-behera** oso zehatzak aurkitzen dira batzuetan, atzerritarrekin edo

drogamenpekoen errehabilitaziorako lan egiten duten elkarteek izaten dituztenak kasu; baina badira beste hainbat, kartzela guztietan antzematen direnak:

- . egitarauak aurrera jarraitzeko ziurtasuna lortzea;
- . elkarteen arteko edo haien eta espetxeetako taldeen arteko koordinazio arazoak;
- . informazioa eman edo jasotzeko zailtasunak;
- . laguntza lanak egiteko trabak (arazo ekonomikoak, espetxeetara sartzeko arazoak, kolaboraziorik eza...);
- . erabakietan parte hartzeko bide nahikorik ez egotea...

Elkarte askok -batez ere aspalditik bidegabeko egoerak salatzen eta horiek konpontzeko ahaleginak egiten ari direnek- ez dute sineste handirik espetxe erakundean ez eta hura hobetuko den itxaropenik ere, hain zuzen ere beraien esperientziagatik beragatik eta kartzela bezalako erakunde itxi batean kanpoaldetik eragin onuragarria edukitzeko dauden zailtasunengatik, batzuetan gaindiezinak diren zailtasunengatik, hain zuzen.

Hala ere, aurrera jarraitzeko dauden traba guztien gainetik, pertsona horiek eta elkarte horiek ez dute etsitzen. Horixe da, hain zuzen, kartzeletako egoerari buruzko gure azterketan nabarmen geratu dena: pertsona eta talde asko eta asko ari direla lanean, beraien borondatez eta, gehienetan, gizatasun eta erlijio arrazoiengatik bakarrik, presoei beraien ahaleginak, denbora edo baliabideak eskaintzeko. Errealitate hori askotan ez da ezaguna, baina gizarte osoak aintzat eta ontzat hartu beharko luke.

**III. ARARTEKOAK ERAKUNDE
ARDURADUNEI EGINDAKO
GOMENDIOAK**

3.0. **AURRETIAZKO ABIAPUNTUAK ETA HAIEN OINARRIAK**

Euskal Erkidegoko hiru espetxeen egoera azaldu eta gero, eta kartzelekin zerikusia duten pertsona talde desberdinek agertu dizkiguten arazo, iritzi eta proposamenen berri eman ondoren, Arartekoak osatzen dituen txostenetako zatirik funtsezkoena eta seguru aski garrantzitsuena jorratu behar dugu: hau da, gomendioen zatia.

Gomendioak egiteko orduan, **etorkizunera begirako ikuspegia** erabiltzen dugu, euskal administrazioaren agintepeko oraingo esparruari dagozkion gaietara soilik mugatu gabe. Hala, bada, oraingoa oso une garrantzitsua da, badirudielako laster Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartuko dituela alor penitentziarioko eskumenak. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak eta gizarteak berak eskumen horiek nola hartuko dituen aztertu beharra dago. Arartekoaren ustez, gauzarik funtsezkoena ez da langileriaren eta bitarteko materialen transferentzia, baizik eta eskumen horrek dakarren burujabetasuna, hots, alor honetarako berrikuntzak eta antolakuntza berriak erabakitzeko ahalmena. Euskal Autonomia Erkidegoak aukera edukiko du orain giza eskubideen errespetuan sakontzen joateko, zigorrak betearazteko bere eredu berezia taiutuz. Ikuspuntu horretatik, bai gizarteak eta bai herri-aginteak garbi jakin behar dute pentsatu, aurrera egin, asmatu eta beren burua arriskatzeko ardura hartu behar dutela beren gain. Bada, horretxetan laguntzea da ondoko gomendio hauen helburua.

Baina, haien azalpenari ekin baino lehenago, bidezkoa da halako abiapuntu batzuk finkatzea, gomendioak ulertzen lagunduko duen testuingurua zein den argitzea, eta gomendioen azpian dautzan oinarriak eta lan-ildoak zehazteko.

3.0.1. **KARTZELEN EGOERARI BURUZKO AZTERKETA OROKORRA EGITEKO BEHARRA**

Txosten osoan zehar behin baino gehiagotan aditzera eman dugunez, Arartekoaren ekimen honen helburu nagusia gure Erkidegoko kartzeletan preso daudenen egoera ezagutzea eta ezagutzera ematea zen. Pairamen asko jasaten dituzten pertsonak izan arren, gizarteak baztertuta eta ahaztuta dauzka, eta horregatik kartzelen egoera aztertzea behar-beharrezkoa zen, egoera hori aldatu ahal izateko. Hortaz, kartzeletako bizimodua hobetzea nahi dugu, baina uko egin gabe **espetxeak baino zerbait hobea -eta desberdina- lortzeko** azken helburuari.

Txostena etorkizunera begira egina dagoen arren, gure ekimenaren esparru kompetentziala Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak alor penitentziariorako

izenpetu duten elkarlan hitzarmenak emana da; hain zuzen ere, hitzarmen hori zein neurritan bete eta garatu den aztertu nahi genuen. Dena dela, ez zen komenigarria -ez eta posiblea ere- azterketa hori erakunde horien arteko lankidetzak daukan testuingurutik kanpo ateratzea, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeen egoeratik kanpo.

Arartekoak egiten duen gogoetaren abiapuntua honako hauxe da: kartzela zigorra betetzen ari direnek **nahikoa zaila dute beraien funtsezko eskubideez baliatu ahal izatea**. Beraz, askatasunik gabe egotea zigorra den arren eta zigor osagarririk eduki behar ez duen arren, kontua da espetxeetako gaur egungo bizimoduak zaildu -eta, batzuetan, oztopatu- egiten duela pertsonaren funtsezko eskubideen erabilpena. Arrazoi hori aski da Euskal Erkidegoko espetxeetan askatasunik gabe daudenen egoerari buruzko azterketa orokorra egiteko; jakina, Arartekoaren esparru konpetentziala gainditzen duten gaiak Herriaren Defendatzaleari jakinarazi behar zaizkio, beharrezkoa bada haietan esku har dezan, Legearen arabera bi erakundeen artean egon behar duen koordinazioaren bidetik.

Beste ikuspegi batetik begiratuta, kartzela **erakunde erabatekoa** da, hots, bertan sartuta dauden pertsonen bizitzako gora-behera guzti-guztiak kontrolpean eta araututa daude. Hori dela eta, gora-behera horiek guztiak elkarri lotuta daude, eta horregatik ezin dira halako puntu batzuk aztertu besteak alde batera utziz, beste horiek funtsezkoak eta egiazko bizimoduaren baldintzagarriak izan daitezkeelako. Hor daude, esate baterako, zeldetako higiena, janarien kalitatea, edota intimitate eskubideari zor zaion errespetua, edo tratu txarrik ez jasotzeko eskubidea; denak garrantzi handikoak dira, heziketaren edo suspertze pertsonalaren alorrean egiten diren ekintza jakineko batzuek emaitza onak edukitzea nahi bada.

Beste alde batetik, lehenago ere adierazi dugun bezala, badirudi EAEk laster jasoko dituela alor penitentziarioko eskumenak. Ikuspuntu horretatik ere komenigarria eta beharrezkoa da kartzelen **egoera zehazki ezagutzea**, bai haien gabeziak eta bai haien beharrik larrienak ere, euskal presondegiak egiatan bergizarteratzeko zentroak izan daitezen egin beharko diren aldaketak aurrera eramateko. Arartekoak hiritarren funtsezko eskubideak zainduarazteko ardura dauka, eta ezin da ahaztu kartzela zigorrak eduki behar duen bergizarteratzeko helburua eskubide horien artean sartuta dagoela Konstituzioan bertan.

Beraz, gure Erkidegoko egoera penitentziarioari buruzko azterketa orokorra, txosten osoan zehar egin nahi izan duguna, euskal Administrazioak alor honetan egun dauzkan eskumenak bere testuinguruan sartzeko ahalegina baino ez dela ulertu behar da. Arartekoaren ekimen honek, ezer baino lehen, egoera hori hobetzea bilatzen du, baina urrutirago ere iritsi nahi du. Nabarmen geratu den bezala, eskubideak bermatzeko betekizuna duen erakunde honek giza eskubideak errespetatu egiten direla ziurtatu behar du, eta, kartzelak presoek eskubide horiei zor zaien errespetua zailtzen duen neurrian, zigor penitentziarioa erabat beharrezkoa den gutxienezko mailaraino murriztea proposatu behar du. Euskal espetxeak nolako egoeran dauden jakiteak lagundu behar du giza eta gizarte mailako kostu txikiagoa daukaten bestelako neurri alternatiboak -kartzela zigorraren ordekoak, alegia- hartzeko.

3.0.2. EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA (ANTZEMANDAKO ARAZOEN SUSTRAIAK)

Txosten honetan, eta batez ere gure Erkidegoko espetxeetako arazoak aztertzen dituen atal zabalean, ahalik eta argitasun eta zabaltasun handienaz jaso nahi izan ditugu zentro horietako bizimoduan egon ohi diren arazoak, akatsak, zailtasunak eta kexak. Horrenbestez, Arartekoak nolabait baztertuta eta ahaztuta dauden pertsona askoren **bozeramale** bihurtu nahi izan du bere burua.

Zer esanik ez, gure kartzeletako arazo guzti-guztiak ez daude hemen. Seguru aski, jaso gabe geratu dira haietan dauden akats larri batzuk. Hutsune horiek aukeratu dugun lan metodoari zor zaizkio. Horrela, adibidez, badira puntu garrantzitsu batzuk azaletik baino ukitu ez direnak, edota bidenabar baino agertu ez direnak; esaterako: espetxe batetik besterako lekualdaketak egiteko modua, senitartekoen ikuspegitik komunikazioei buruz egin beharreko ebaluaketa, preso ijitoen arazo bereziak, edota delitu sexualengatik preso dauden pertsonenak.

Hala eta guztiz ere, horien guztien inguruan jaso ditugun kexa ugariengatik eta haietako askoren garrantzi handiagatik, gizartearen elkartasunari aldaba jotzeko balio behar du gure azalpenak. **Euskal gizarteak ezin du bizkarra ematen jarraitu** egoera latz horri.

Askotan, arazoak pilatzen direnean ezintasun sentsazioa eta etsipena nagusitu egiten dira eta geldikerian erortzeko arriskua egoten da..., egoerak usteldu edo lehertzen diren arte. Preso daudenen eskubideak defenditu nahi baditugu, egoera hori bizkor aldatu beharko dugu, eraginkortasunez eta errealitatean oinarrituz; horrek zera esan nahi du:

- . lor daitekeen helburu komenigarri bat, ekintzek eduki behar duten helmuga bat ipintzea;
- . abiapuntuko egoera zuzen ezagutzea;
- . jarritako norabiderantz pauso sendoak ematea.

Oso berandu baino lehen Euskal Autonomia Erkidegoak alor penitentiarioko transferentzia jasoko duela-eta, **lortu nahi den helburua jarri eta abiapuntuko egoeraren azterketa egin behar da; bi zeregin horiek beharrezkoak dira eta inolako arazorik gabe bete daitezke eskumenak jaso baino lehen**. Horregatik, kontuan izanda txosten hau noiz egiten ari den, bai eta norentzat osatzen den ere -Eusko Legebiltzarrarentzat, alegia-, aurkitzen dugun egoera aztertzeraz eta euskal erakundeen gaurko aginpide-esparrutik kanpo dauden hobekuntza batzuk proposatzeraz ausartu gara.

Zergatik gertatzen dira gure txosten honetan azaldu ditugun arazoetako asko?

Ararteko honek bereziki azpimarratu nahi ditu antzeman ditugun akatsen jatorria eta sustraiak. **Gure ikerlanaren argitan**, gure Erkidegoko espetxeei buruzko kexa eta **arazo gehienek jatorrian** bost gai nagusi daude; bestela esanda, kartzeletako arazoek dauzkaten **sustraiak honako bost puntu hauek dira**:

- 1. Sistema penitentiarioa bakartuta dago, gainontzeko gizartetik aparte, eta ez da gardena.**
- 2. Presoen multzoa gehiegizkoa da eta haien beharrei erantzuteko dauden bitartekoak ez dira aski.**
- 3. Erakundeek akatsak dituzte beraien antolaketan.**
- 4. Alde handia dago legearen eta errealitatearen artean.**
- 5. Espetxeetako bizimoduan gero eta eragin handiagoa daukate halako gora-behera batzuek (drogak, edo presoen osasun egoerak, adibidez).**

Ez dugu nahi kartzela erakundeari buruzko azterlan teorikorik egin, hori beste azterketa mota baten helburua delako eta, gainera, ez dagokiolako Arartekoa bezalako erakunde bati. Aldiz, aurrean emandako diagnostikoa bai arrazoitu eta adibidez hornitu behar dugu, erakunde honek espetxe horiei buruz egin duen ikerlanaren argitan.

* Jarri dugun lehen arrazoa -eta zerbaitegatik jarri dugu toki horretan- zera da: **sistema penitentiarioa bakartuta dago, gainontzeko gizartetik aparte, eta ez da gardena.**

Gure gizartean, pertsona gehienak kartzeletan gertatzen denari bizkarra emanda bizi dira, hango egoeraren berririk ere ez dakitela. Hain zuzen ere, kartzela erakunde itxia denez gero, oso zaila da gizartearekin eduki beharko lukeen lotura hori benetan lortzea. Kartzeletako hormek, presoek kanpora irtetea galarazteko ez ezik, barruko errealitatea gainontzeko gizarteari ezkutatzeko ere balio dute.

Gizartearen ezjakintasun horren eraginez, gaurko egoerak bere hartan dirau, gizarteak arazoak ditu erakunde penitentiarioak behar bezala kontrolatzeko orduan, eta, azken finean, legea hautsi arren eskubide osoz gure gizarteko partaide diren pertsona batzuen bazterketa soziala indartzen da.

Denak laguntzen du sistema hori bakartuta eta gizartetik aparte egonarazteko: erakundea bera itxia izateak, bisitak egiteko arazoek, borondatezkoen elkartasun lanari ipintzen zaizkion trabek, preso multzoko zati handi baten famili eta gizarte baldintzek (haietako asko jende baztertua izaten da), laguntza-sare bereziak eta sare ohizkoetatik apartekoak egotea (heziketari, osasunean, etab.).

Kartzela bera da «bergizarteratu» behar dena, erakunde bezala, hots, gizartean sartu, eta hori lortzerik ez da egongo hornez bestaldea gertatzen dena ezkutatzen jarraitzen bada.

* Bigarren lekuan, **gehiiegizkoa den preso multzo bati erantzuteko dauden bitartekoak gutxi direla** esan behar da.

Kartzeletako presoen kopurua izugarri handitu da azken urteotan, eta horren ondorioz espetxeak masifikatuta daude. Euskal lurraldean dauden hiru kartzeletan preso gehiegi dago, eta Langraizkoan egoera benetan larria da.

Pilaketaren eraginez elkarbizitza arazoak gertatzen dira, eta espetxeak dituen baliabideak (tokiak, pertsonala, ekintzak...) ezin dira inolaz ere nahikoak izan.

Txosten honetan jaso ditugun arazo asko eta asko instalakuntzak eta lantalde profesionalak **gainezka egoteari** zor zaizkio, bai eta baliabide teknikoen eskasiari ere. Baina gainezka daudenak ez dira kartzelak bakarrik, baita funtsezkoak diren beste zerbitzu batzuk ere, Presoen Zaintzarako Epaitegia, adibidez.

Intenbidea bilatu nahi bada, derrigorrez presoan kopurua gutxitu beharko da eta zentro berriak sortu, betiko kartzelak ez bezalakoak. Dena dela, gai hori geroago landuko dugu txosten honetxetan.

* Hirugarren lekuan, bitartekoen eskasiaz gain, **espetxeetako antolaketan dauden akatsak** ere aipatu behar dira.

Antolaketaren barruko akatsen artean sartu behar dira bai espetxean bertan aurkitzen diren barne arazoak, bai kartzelak berak beste erakunde edo zerbitzuekin dauzkan harremanetan gertatzen direnak ere. Honako hauek, besteak beste: ez dago behar bezalako koordinaziorik pertsona eta lantaldeen artean, ez dago behar adinako informaziorik edo informazioa bideratzeko modu egokirik, erabakiak moteltasunez eta arazoekin hartzen dira, kartzelak autonomoki gestionatzeko gaitasuna txikia da...

Ukitu ditugun alderdietako askotan (osasun laguntza, lan iharduera, laguntza soziala, hezkuntz eskaintza...) argitu behar den funtsezko puntu bat dago: **zein diren espetxeako pertsonalak bere gain hartu behar dituen zerbitzuak, eta zein ohizko laguntza sareak eskaini behar dituenak**. Horrela, adibidez, esparru batzuetan behar adina pertsona ez egoteak eragiten dituen arazoak beste era batera konpon litezke, aurreko puntuari ematen zaion erantzunaren arabera.

* Laugarren lekuan, arazo asko **legearen eta errealitatearen artean dagoen alde handiagatik** gertatzen dira; horrek eredia bera jartzen du auzitan, hau da, kartzela sistemaren oinarria bera.

Gaur egun indarrean dauden lege eta arauak (Konstituzioa, Espetxeetarako Lege Orokorra, Arautegi Penitentziarioa) eta gure kartzelatarako egoera konparatzen baditugu, bien artean dagoen alde handia ikusita benetan zalantzatan jar daiteke eredu penitentziariorik ba ote dagoen ala ez, edota, bestela, pentsatu behar da bi eredu guztiz desberdin daudela, berez, aldi berean: gure legeetan aipatzen dena eta gure kartzelatan aurkitzen dena.

Horrela, adibide argigarri batzuk ipintzearen, gure legeetan argi jasota daude bergizarteratzeko funtsezko helburua, preso guztien osasun eskubidea, zigorpetu guztien lan egiteko eskubidea, banakako zeldak egon beharra, presoan arteko banaketa egoera penalararen arabera, pertsona horietako bakoitzari banan-banan eman beharreko atentzioa... Baina horrelako ezer ere ez da gertatzen gure kartzelatan.

Kontraesan horrek **eragin okerra** baino ezin du eduki, legea ez betetzeagatik hain zuzen, gizarteak askatasunik gabe utzi dituen pertsona horiengan. Izan ere, pertsona horiek egunez egun ikusten ari dira gizarteak haiekin ez dituela betetzen bere arauak.

Egoera honetan, Kartzeletarako Araudi berria egiteari (otsailaren 9ko 190/1996 Erret Dekretua) kontu handiz ekin behar zaio. Nahiz eta egokia izan berme

juridiko batzuk sendotzea eta zigorra erregimen irekian betetzeko aukera emango duten bideak sortzea, araudi berria hutsean gera daiteke berrikuntza egiteko epeak ezartzen ez badira eta horretarako bitartekoak ziurtatzen ez badira. Presoen egoera hobetu beharrean, legearen eta errealtatearen arteko aldea -are gehiago-handitzeko arriskua dago.

* Eta bosgarren lekuan, agerian utzi nahi dut **gero eta eragin handiagoa dutela espetxeetako bizimoduan halako gora-behera batzuek (drogak, edo presoen osasun egoerak, adibidez).**

Azken urteotan, kartzeletako presoen multzoa dexente ugaltu ez ezik, ezaugarri ere asko aldatu da, oraingo egoerara iritsi arte. Gaur egun, gure kartzeletan preso dauden pertsona asko legez kanpoko drogen inguruko delituengatik espetxeratu dituzte. Haietako askok droga kontsumitzen jarraitzen dute kartzelan, arrisku handiko bideak erabiliz. Halaber, ezin aipatu gabe utz daiteke presoen arteko portzentaia handi bat HIES gaitzak jota dagoela. Garbi dago espetxeak ez zirela pentsatu era honetako preso multzo baten (osasun arazo larriak dauzkaten preso batzuen) beharrek eskatzen duten erantzuna emateko.

Administrazio penitentiarioak espetxeratuen osasuna zaindu behar du. Hala ere, kartzelak **gaisotasun foko bat** dira gaur egun. Presoen pilaketa, higienarik eza, egitarau prebentibo batzuek edo arriskuak gutxitzeko egitarau batzuek dauzkaten trabak eta antzeko arazoak direla bide, gaisotasun infekziosoak (hepatitisa, tuberkulosia edo HIES gaitza) arazo larria dira, kalte handiak ekartzen dizkiona preso daudenen osasunari, baina baita espetxeetan lan egiten duten profesionalen lan osasunari ere. Gainera, ezin da ahaztu kartzelaldi luzeak arazo psikologiko ugari sortarazten dituela, eta nortasuna desegituratzen eta autoestima galtzen laguntzen duela.

Sistemaren ezegokitasun hori (haren instalazioengatik, mendekotasunean oinarritzen den haren antolaketarengatik, pertsonen arteko harremanak erantzunkizunean eta partaidetzan oinarri daitezen daukan gaitasun eskasarengatik...) gaisoak bezala kartzeletan ugaltuz joan diren **beste kolektibo batzuetan ere** gertatzen da: emakume, gazte, atzerritar eta abarren artean.

* * *

Jakina, aipaturiko faktoreak ez dira banaka gertatzen diren kontuak, eta bai ordea askotan elkarri lotuta daudenak. Baina lehenago aipatu ditugun **funtssezko bost puntu** horiek (gizartetik aparte egotea, bitarteko gutxi edukitzea, antolaketaren akatsak, legearen eta kartzeletako egoeraren arteko aldea, eta kartzeletako bizimoduan halako gora-behera batzuek daukaten eragin gero eta handiagoa) dira **espetxeetako eguneroko bizitza etengabe baldintzatzen ari direnak**. Gora-behera horiengatik, **zaila edo ezinezkoa izaten da oinarrizko eskubideak** (osasuna, lana...) erabili ahal izatea, eta beste horrenbeste esan daiteke espetxeratuen eskubide penitentiarioei buruz ere (banan-banako atentzioa...).

Egia da egoera honek daukanean eragin txarrak handiagoak direla pertsona edo **kolektibo** batzuentzat (gazte, emakume, drogamenpeko, behartsu, atzerritar

eta abarrentzat) beste batzuentzat baino, baina guzti-guztiengan dauka nolabaiteko eragina.

Hortaz, funtsezko puntu horiek **konpontzen ez diren bitartean** (arazo gehienen sustraian baitaude), **presoen eskubideek mugatuta edo ezerezuta egoten jarraituko dute.**

Pertsonen eskubideen aldeko lana egitea da Arartekoa bezalako erakunde eskubide-bermatzaile bati dagokiona, eta horrexegatik **egoera hauek ezagutzera eman eta halako neurri batzuk proposatu nahi ditugu, askatasunik gabe daudenen bizimodua behar bezainbat hobetzen laguntzeko.**

3.0.3. EKIMENAREN ILDO NAGUSIAK

Txosten honetan aurrerago biltzen diren Arartekoaren gomendio gehienak bost lan-ildo nagusiri jarraituz egin ditugu. Hona hemen **ekimenaren ildo nagusiak**:

1. **Kartzelaren alternatiba diren beste tratamenduak emateko aukerak ugaltu eta erregimen irekia ahalik eta gehien bultzatu.**

Lehenago azaldu dugun bezala, nahi badugu gure kartzeletako pilaketa konpondu eta gainezka dauden baliabideentzat irtenbide bat bilatu, kartzeletako presoen kopurua gutxitu, zentro berriak eta ohizko kartzelen eredutik kanpo daudenak sortu beharko dira.

Kartzeletako presoen kopurua gutxitu ahal izateko (espetxe gehiago eraiki gabe, horiek ere berehala beteko bailirateke), **zera egin behar da**:

- **beste zigor tankera alternatibo batzuk bultzatu**; hau da, leku itxi batean giltzapeturik egonaztea ez direnak (isunak, gizartearen aldeko lana egitea...);
- Lege Penitentsiarioak berak kartzela zigorrak betetzeko modu arinagoei buruz dauzkan aurrikuspenak **gauzatu: erregimen irekia eta baldintzapeko askatasuna.**

Zentro berriak (zentro «gehiago» ez, zentro «berriak» baizik) eta ohizko kartzelen eredutik kanpo daudenak eraikitzekotan, halako **zerbitzu eredu berezi baten aldeko apustua** egin beharko da:

- **Zentro txikiak**, ondo kokatuak, haien barruan eta kanpoan giza harremanak errazten dituztenak.
- **Beharren arabera berezitatea dauden eta helburu jakinak daukaten zentroak -erantzun berezitu-**: erregimen irekiko pisu edo zentroak (kartzelatik kanpo), gazteentzako zentroak, heziketari eta nortasunaren garapenari garrantzia ematen diotenak; emakumeentzako zentroak; drogamenpekotasunari uzten laguntzeko zentroak; gaisotasun fisiko edo psikikoak tratatzeko zentroak...

2. **Preso guztien iharduera bultzatu (lana, kultura...), haien trebakuntza eta garapen pertsonala sustatzeko.**

Gure legeek presoiei aitortzen dizkieten **lan egiteko edo ikasteko eskubideak** egia bihurtu behar dira kartzeletan dauden pertsona guztientzat. Horretarako, ezinbestekoa da behar adina **bitarteko** edukitzea, pertsona horien ezaugarrien arabera egitarauak egotea, kanpoko ekitaldietan parte hartzeko aukerak edukitzea, etab.; baina, halaber, **motibazioa lortzeko sistemak eta bultzagarriak** (zigorra arintzea, lana ordaintzea, ikasketak aintzat hartzea...) ere garatu behar dira.

Askotan aipatzen da arazo handiak edukitzen dituela sistema penitentiarioak haren pean gertatzen diren pertsonak bergizarteratu ahal izateko. Bestalde, ezin gera gaitezke esan gabe nolako aukerak eduki ditzaketen pertsona askok kartzela zigorra betetzen duten bitartean ikasteko edo lan trebakuntza lortzeko. Preso dauden askoren ezaugarriak kontutan izanda (alfabetizazio maila eskasa, lan trebakuntza urria...), pertsona horientzat kartzela halako jakintza batzuk eta halako trebetasun batzuk, gizarteak baloratzen dituenak eta presoek bergizarteratzea erraztuko dietenak, jasotzeko lehen aukera eta agian bakarra ere izaten da. Hori dela eta, oso garrantzitsua da presoek trebakuntza eta garapen pertsonala bilatzen duten ekintzak bultzatzea.

3. **Espetxeen irekitasun handiagoa eta gainontzeko gizartearekiko harreman estuagoa lortu.**

Txosten honetan behin baino gehiagotan esan dugu espetxeak eta gainontzeko gizartea elkarrengandik aparte egotea dela gaur egun aurkitzen dugun egoeraren arrazoi edo sustrai nagusietako bat. Adierazi dugun bezala, kartzela erakundea da «bergizarteratu» eta gizartean txertatu behar dena.

Hori lortu nahi bada, aldaketak sartu beharko dira espetxeen eremuan eta haien antolaketan, borondatezkoen elkarteetan partaidetza onartu beharko da, eta zentroak zerbitzu-sare orokorretan (heziketa, osasuna...) txertatu beharko dira. Baina, orobat, gizarte osoak berak ere, edo gehiengoak behintzat, horretaz jabetu beharko du.

4. **Partaidetza sistemak aurrera atera.**

Gaur egungo antolaketak eragile desberdinen partaidetza eta, beraz, erantzunkizun-hartzea oztopatu egiten ditu, suspertu beharrean; horregatik, ez dira behar bezala aprobetxatzen dauden baliabideak, eta asko dira informaziorik eta koordinaziorik ez egoteak sortarazten dituen arazoak.

Ahalik eta pertsona eta zerbitzu gehienek partaidetza lortzen laguntzeko sistemak prestatu beharko dira; honako hauen partaidetza, alegia:

- **presoen;**
- **espetxeetako profesionalena;**
- **borondatezkoena;**
- **sistema penitentiarioaz kanpoko laguntza sarena.**

5. Preso multzoarentzat dauden baliabide eta bitartekoak dextente ugaldtu.

Kasu askotan, txosten honetan agertu ditugun akatsak edo gabeziak baliabide gehiago eskainiz bakarrik konpon daitezke. Eta Arartekoaren txosten honetan egiten diren gomendio askoren bidez, administrazio arduradunek presoentzat dauden baliabideak ugaltzea nahi da: bai giza baliabideak, bai baliabide materialak ere.

Ekimenaren ildo hau azken lekuan jaso dugu -baliabide eta bitartekoei buruzko gomendioak ugariak badira ere- **haien izaera instrumentala** azpimarratzeko hain zuzen: hau da, kontua ez da baliabideak besterik gabe ugaltzea (hori ez da, berez, helburu bat), baizik eta espetxeratuen bizi-baldintzen hobekuntza handi bat lortzea (horretarako ugaldtu behar dira baliabideak, hain zuzen ere).

Dena den, baliabideak beharrezkoak eta garrantzitsuak direla esan behar da behin eta berriro. Izan ere, hemen egiten ditugun gomendio asko asmo on hutsak baino ez dira izango, beharrezkoak diren inbertsioak egiten ez badira. Transferentziekin gaur egun dagoen egoerak ez luke oztopo edo aitzakia izan behar inplikaturiko administrazioek (euskal erkidegokoak eta estatukoak) espetxeen gaurko egoera hobetzeko behar diren baliabideak ipintzeko orduan.

* * *

Kapitulu honetako gomendio gehientsuenak (ikus 3.1 eta 3.2) sar daitezke goian adierazitako ekimenaren bost ildo horietakoren batean.

Berez **gomendio orokorrak** badira ere, **ez dira berdin egiten** kasu guztietarako. Horrela, adibidez, gure Erkidegoko hiru espetxeen (**Basauri, Martutene eta Langraitz**) errealtatearen arabera, gomendio batzuek indar gehiago dute zentro baterako, beste baterako baino. Hiru herrialdeetako kartzelei buruzko txosten orokorra osatu nahi izan dugunez gero, gomendioak ere orokorrak dira, nahiz eta kasu aipagarri batzuetan espetxeetako bati edo besteari buruzko aipamen bereziak ere egin.

Zentroen artean dagoen aldeaz gain, badira **zeharreko puntu batzuk ere gomendio askorekin zerikusia dutenak** eta hemen azaldu behar direnak. Kolektibo batetik bestera egin beharreko aplikazio desberdinaz ari gara hemen. Izan ere, txostenean agerian jarri nahi izan dugu halako **kolektibo** batzuen arazo bereziak: **emakumeenak, gazteenak, atzerritarrenak, baliabide ekonomikorik gabeko pertsonenak...** Seguru aski, espetxeetan badira antzeko arazoak dauzkaten beste talde batzuk ere, baina ez dira behar bezain ondo agertu (ijitoak, delitu sexualengatik preso daudenak...). Oso kasu deigarrietan bakarrik aipatzen dira talde berezi horiek gure gomendioetan. Hala ere, gomendio hauek mamitzeko orduan, bide desberdinak erabili ahal izango lirатеke, talde horien ezaugarri, egoera eta beharrezanaren arabera.

Ikusiko den bezala, hemen ematen ditugun **gomendioak maila desberdinekoak dira** (orokorrak, bereziak...), **erakunde desberdinentzat eginak dira** (erakunde autonomikoentzat eta bestelakoentzat), **eta aplikatzeko aukera**

desberdinak aurkezten dituzte, euskal erakundeek jadanik hartuta dauzkaten edo hartzeko dauzkaten eskumenen arabera.

Gomendio guztiekin batera haien arrazoia edo oinarria ere jarri nahi izan dugu, laburrago edo zabalagoa, eman beharreko zehaztasunak argi uztearren. Kontutan hartzeko zerbait da hori, zeren eta askotan gomendio bakarraren barruan neurri edo proposamen bat baino gehiago egiten baitira, haien ondoko azalpen-testuan zehaztuta daudenak.

Esan bezala, gomendioak bi ataletan banatuta aurkeztu ditugu:

- Gomendio orokorrak.
- Gomendio bereziak.

«**Gomendio orokorrak**» atalaren hasieran, kartzelai buruzko politika autonomoa eta oinarrizko eskubideak errespetatzen dituen abian jartzeko behar den markoa sortu nahi duen ekintzaren ildo nagusiak zehazten dira.

Ondoren, gizarteratzeak bete behar dituen gutxienezko baldintzak dei genitzakeenak datoz. Gai horiek, oraingoz, euskal erakundeen aginpidetik kanpo daude, baina gure ustez beharrezkoa da horiek ere ukitzea, ez duelako zentzurik bergizarteratzea bilatzen duten halako ekintza batzuk egiteak, ez badira ziurtatzen helburu horrek eduki behar dituen oinarriak.

Bergizarteratzearen helburua ulertzeko modu desberdinak egon daitezke, baina hari buruzko irizpiderik mugatuenean ere -hau da, giltzapeak eragindako kalteak eragozteak- ezinbestekoa da pertsonaren oinarrizko eskubideak bermatzea. Horregatik, presoen oinarrizko eskubideekin zerikusia duten gomendioak bildu ditugu bigarren zatian.

Hirugarren lekuan, ordea, kartzela zigorrak gauzatzeko eredia aztertzen da, eta han egiten diren gomendioen bidez lortu nahi da zigorrak betetzeko prozesuan erabat errespetatu daitezela indarren dauden legeek aipatzen dituzten eskubide penitentiarioak.

Gomendio orokorren ondoren, beste batzuk **bereziagoak** datoz, hitzarmen nagusiak jorratzen dituen alor desberdinei zuzenean lotuta daudenak; dena dela, esan dugun bezala, hitzarmenak jasotzen dituen edukiak ezin dira sakontasunez bete, ez eta euskal espetxeen egoera orokorra hobetzeko ahaleginetatik kanpo egon ere.

3.1. GOMENDIO OROKORRAK

3.1.1. AUTONOMIA ERKIDEGORAKO SISTEMA PENITENTZIARIO BATEN EGITURA JURIDIKO ETA SOZIALARI BURUZKOAK

1. EAEk alor penitentziarioan duen aginpidearen barruko betekizunen transferentzia berehala egin dadila eskatu.

Autonomi Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak aginpide osoa duen arren «*kartzelen eta bergizarteratzeko zentroen antolaketa, erregimen eta funtzionamendu*» alorrean, horri dagozkion betekizunen transferentziari ez zaio oraindik ekin. Ildo honetatik, Eusko Legebiltzarrak prestatu zuen Burutu gabeko Transferentzien Negoziaketarako Lehentasunei buruzko Txostenean (Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, 95-10-17koa), lehentasuna duten transferentzien artean sartuta dago espetxeena.

Kartzela zigorren betearazpenaren alorrean burujabe izatea ezinbesteko baldintza da euskal erakundeak politika penitentziariorako eredu orokor baterantz joan daitezen, beti ere giza eskubideekiko errespetu mailarik handienean eta elkarbizitza baketsuan oinarrituta.

Giltzapean egoteak bai presoei eta bai beren familiei eta gizarte osoari ere eragiten dizkien kalte eta ondorio txarrak alor penitentziarioan behar adina bitarteko eta azpiegitura ez egoteari zor zaizkio, neurri handi batean. Alor honetan burujabe izanik, instalakuntzak zaharberritu eta pertsonal mailako hutsuneak konpondu ahal izango dira, baina, batez ere, aukera edukiko da arazoan sustraiei begiratzuz zigorrak betearazteko eredu egokia martxan jartzeko, erantzunak behar desberdinen arabera moldatuz.

2. Kode Penal berriak kartzelaldiaren ordez aipatzen dituen bestelako zigorrak betearazteko behar diren azpiegiturak sortu.

Joan den 1995eko azaroaren 8an onartu zen Kode Penal berriak halako zigor batzuk sartu ditu, ohizko kartzelaldia ez direnak eta horren ordez ezar daitezkeenak delitu txikiak zigortzeko.

Oso aipagarriak dira, adibidez, *asteburuko atxiloketak* edo *gizartearen onerako lanak egitea* batetik, eta bestetik biktimari eragindako kalteak ordaintzera behartzen duten prozedurak. Hala zigor mota horiek, nola delitua egin duenaren eta jasan duenaren arteko akordioa lortzeko negoziazioa sustatu nahi badira, beharrezkoa da tankera berriko baliabide eta azpiegitura batzuk abian jartzea, bestela legearen aplikazioa ezinezkoa delako.

Aipatu dugun *asteburuko atxiloketa* delakoari dagokionez, KParen 37. artikulua dioenez, zigorpetuaren etxetik hurbileneko espetxean bete beharko da, edota udal kalabojoetan, epai-barrutian horrelakorik ez badago.

Erakunde honek 1991an aurkeztu zuen *Udalen eta Ertzaintzaren kalabozoak* izeneko txostenean argi eta garbi azaldu ziren horietan antzemandako akatsak. Geroagoko txosten batzuetan (ikus *1994ko Txosten Arrunta*) haietako zenbaitetan egin diren hobekuntzak aipatu ditugun arren, gauza segurua dirudi oraindik ere badiren akats horiek -bai arazo materialak eta bai horietaz arduratzeko trebatutako pertsonala- areago larrituko direla, atxiloteta hutsa baino zerbañt gehiagotan erabili nahi badira. Horregatik, guztiz beharrezkoa da kalabozo horiek ahalik eta lasterren hobetzea, bai eta, beharbada, **atxiloteqi berriak** sortzea komeni ote den aztertzea ere, zigorren berezitasunei eta haien bidez lortu nahi diren helburuei erantzun egokia emateko.

Bestalde, **gizartearen onerako lanak egiteari** dagokionez, Kode Penalaren arabera «*Administrazioak berak eskaini beharko ditu lan horiek, horretarako behar diren hitzarmenak egin ondoren*». Gure Autonomia Erkidegoak penak betearazteko eginkizuna bere gain hartzen badu, gizartearen onerako lan horiek zein zerbitzutan eta zein esparrutan egin ahalko diren zehaztu beharko du. Kontutan izan behar da zer lortu nahi den zigor horren bitartez, alegia, zigorpetuak gizartearekiko erantzunkizuna, bai eta bere gaitasun eta trebetasun sozialak ere garatzea. Horregatik, gai honetan, ezinbestekoa da borondatezkoen elkarteekin eta interes orokorreko beste elkarte batzuekin harreman ugariak eta koordinazio egokia edukitzea.

Illo horretatik jarraituz, **delitua egin duen pertsonaren eta jasan dutenen arteko negoziazioa eta adiskidetzea** bultzatzeko neurriak hartzea ere beharrezkoa da. Biktimaren interesak ahaztuta geratu dira askotan sistema penalean. Kode berrian kalteak ordaintzeko aukera sartzen da, delitua jasan dutenen beharrei erantzuteko modu bezala eta, baita ere, gaizkiletzari zigor hutsak ez diren bestelako erantzunak emateko ere. Jakina, kalte ordainketa hori eraginkorra izango bada, aldean arteko bitartekotza eta adiskidetzea posible egiteko baliabide batzuk ipini beharko dira martxan. Ekintza hauetan ere guztiz garrantzitsua izango da hiritarren talde eta elkarteek parte hartzea, bide hauek jadanik jorratu dituzten herrialdeetan egiaztatu den bezala.

3. Gaur egungo zigor penalen sistemari eta aukerako alternatibei buruzko informazioa eta gizarte barruko eztabaida suspertu.

Txosten osoan zehar ikusi dugun bezala, arazo askoren sorburua erakunde penitentziarioaren isolamendua eta gizarteak berak kartzela zigorrak betetzeko baldintzen berri ez jakitea dira.

Jakina, zigorrak betearazteko ereduari erantzuteko modu berriak ezartzeko orduan ezingo da inolako aldaketarik sartu, bertan inplikaturiko sektoreen onarpenik -eta partaidetzarik- gabe. Sektore horien barruan, funtsezkoa da sistema penalaren eragileen beraien laguntza edukitzea: hots,

poliziarrena, epaileena, abokatuena, oinarrizko gizarte langileena eta espetxeetako funtzionarioena. Baina, gainera, **gizarte osoak ezagutu eta onartu behar ditu, derrigorrez, martxan jarri nahi den penak betearazteko ereduaren ardatz nagusiak.**

Delitutzat hartzen diren arazoen laztasun eta gogortasunagatik, esparru penalean oso erraz gerta daitezke irrazionalak diren jarrerak, mendekua lortu nahi dutenak. Askotan, gizarte barruko elkarbizitzaren segurtasuna eta ordenua zigorren gogortasunarekin lotu ohi dira. Hain zuzen ere horregatik, herri-aginteez arrazionaltasuna eta zentzu ona erabili behar dituzte zigor penalak ezartzeko orduan. Eginkizun horretan, beharrezkoa da hiritarrei informazioa ematea eta **gogoeta suspertzea sistema penalaren egiazko funtzionamenduaz.**

lido horretatik, guztiz beharrezkoa da iritzi publikoari informazio egoki eta osoa ematea kartzelaren ordeztiko zigorrei buruz, komeni dela beste aukera horiek erabiltzea eta gizarte osoak esku hartu behar duela beste aukera horien garapenean, kartzelak daukan prezio soziala galarazteko era bakarra delako. Hiritarrek ongi jakin behar dute askatasuna kentzeak zer-nolako arazo eta kalteak eragiten dituen, nolako zama ekonomikoa duen, eta, batez ere, delituak galarazteko eraginkortasun txikia duela.

3.1.2. **PRESOEN OINARRIZKO ESKUBIDEEI BURUZKOAK**

4. Espetxeetako preso pilaketa neurrigabea galarazi.

Txosten honetako datuek erakusten dutenez, Euskal Erkidegoko hiru espetxeak erabat gainezka daude: izan ere, komeni baino bi aldiz handiagoa da, gutxi gora-behera, gaur egun haietan dagoen preso kopurua.

Expetxeetan preso gehiegi dagoenez gero, zelda berberean pertsona batek baino gehiagok egon beharra daukate (lauk edo bostek, batzuetan), eta **instalakuntzak dituen zerbitzu guztiak txiki geratzen dira**, bai azpiegiturakoak (jantokiak, dutxak, patioak, lantokiak, liburutegiak, mintzatokiak, eritegiak, etab.), bai pertsonal mailakoak (behaketa eta tratamendu taldea, irakasleak, zaindariak, administrariak, etab.), bai ekintzak ere (heziketa, lana, kirola, ekintza terapeutikoak, etab.). Baldintza horietan, **ezinezkoa da pertsonen intimitatea errespetatzea**, eta **higiene eta osasungarritasun arazo** larriak sortzen dira, presoek osasun fisiko eta psikikoan eragin txarra dutenak eta kartzela barruko segurtasuna eta elkarbizitza baketsua kolokan jartzen dituztenak.

Kartzela batean dauden presoek kopurua gehiegizkoa denean -eta horixe gertatzen ari da euskal kartzelatan-, espetxerata dauden pertsonen bergizarteratzea bera ez ezik, haien giza duintasunarekiko, eta bizitzeko eta tratatu txarrik ez jasotzeko eskubiderarekiko errespetua ere arriskuan jartzen dira. Nazioartean presoentzako tratuei buruz dauden testuetan eta Lege

Penitentziarioan bertan, garbi adierazten da kartzelek **banakako logelak** eduki behar dituztela (ELOOko 13. art.), giltzapetuta egoteak gehiegizko kalteak eragin ez diezaizkion preso dagoen pertsonari.

Dena dela, kartzeletan preso gehiegi egotea ez da konponduko «betikoen moduko» espetze gehiago edo handiagoak eraikiz, aukera desberdinak eskainiz baizik. Erakunde itxiak -hau da, gaiso psikikoak, adin txikikoak, aiton-amonak etab. jasotzeko daudenak- egiteko joera berrietan, gero eta gehiago ikusten da **tamaina txikiko lekuak** nahiago izaten direla, hau da, giza neurriera egindakoak, hain zuzen ere beraietan dauden pertsonen arteko harremanak suspertzeko. Ildo horretatik, hitzarmen nagusiko alorrei buruzko gomendioetan errepikatuko dugun bezala, ezbairik gabe komeni da **leku bereziak egitea** gazteentzat, ume txikiez arduratzen diren pertsonentzat, eta erregimen irekian daudenentzat; era berean, drogamenpekotasunak tratatzeko eta osasun eta psikiatri laguntzarako zentro berezituak ere behar dira. Zer esanik ez, aukera horiek bai gizonezkoentzat eta bai emakumezkoentzat ipini beharko lirатеke, nolana ere.

Espetzeak gainezka egoteak dakarren arazoari dagokionez, badira penitentziarioak ez diren halako faktore batzuk eragin handia dutenak preso kopuruaren handitasunean. Aipagarriena, alde batetik, **kartzela prebentiboaren** erabilera handia; garbi dago gaur egungo kartzelak ez direla iristen beraien egitekoa baldintza egokietan betetzera, bi arrazoiengatik: batetik, auzi penalak aurrera eramateko orduan dagoen atzerapenagatik; eta, bestetik, prozesua bitartean badaezpadako kartzela erabiltzeko joera orokorragatik. Ezin ahaz daitekeen datu bat badago: alegia, Europar Batasun osoan, Espainiako estatuak daukala preso prebentiboen portzentaiarik altuena (%28, gaur egun). Bestalde, gogoan izan behar dugu gure Erkidegoko hiru espetzeetako bi -Basauri eta Martutene- prebentiboentzat sortu zirela, nahiz eta kondena betetzen ari diren presoak ere eduki.

Esan gabe doa, kartzelan dauden presoen kopurua benetan gutxitu nahi baldin bada, derrigorrez hartu beharko diren neurriak honako hauek izan beharko dute: alde batetik, kartzela prebentiboa bakar-bakarrik beharrezkoa den kasuetarako utzi; eta, bestetik, askatasuna kentzea ez dakarten bestelako badaezpadako neurriak hartu.

Beste alde batetik, jakina denez, **legeria penalean, askatasuna kentzea dagoen zigorrik handiena da, bai eta delitu gehienekin erabiltzen den neurririk ohizkoena ere**; horrela, oso gutxitan jotzen da giltzapea ez dakarren bestelako zigorrik hartzera. Zentzu horretan, Kode Penal berrian ipini diren itxaropenak gora-behera, kode hori laster indarrean jarriko bada ere, ez dirudi lortuko denik kartzeletako presoen kopurua gutxitzea, ez direlako funtsean jaitsi kartzela zigorrak, eta ez direlako gehiegi bultzatu askatasuna kentzearen ordeko beste zigor tankerak.

Nahiz eta oharpen hauek alor penitentziario hutsetik eta, beraz, euskal administrazio publikoak noizbait jasoko duen aginpidetik kanpo geratu,

komeni da gogoan izatea Herriaren Defendatzaileak bere txostenetan askotan aipatu dituela puntu horiek, konpondu beharreko akats bezala.

5. **Kartzelaldia zigorpetuen bizilekutik hurbileneko espetxeetan bete dadin saiatu.**

EAEko kartzeletan -eta batez ere Langraizkoan- kondena betetzen ari diren pertsona gehienek ez dute Euskal Herriarekin inolako lotura pertsonalik. Bestalde, Erkidego honetako biztanle diren beste pertsona asko, aldiz, Estatuko beste lurralde guztietako kartzeletan sakabanatuta daude.

Ezbairik gabe, ez bada nahi zigorpetuta dagoena kartzelaren bidez behinbetiko gizartetik kanpo geratzea, harreman pertsonal eta sozialak mantendu ahal izateko aukera edukitzea funtsezkoa da. Ohizko bizilekutik kanpo egonda, bidegabeko pairamen gehiago ezartzen zaizkio askatasunik gabe dagoenari, errazagoa da haren oinarritzko eskubideei kalte egitea, eta askotan oso zaila -edo ezinezkoa- izaten da pertsona horrentzat bere senitarteko eta lagunekin harremanetan egotea -eta hori hauentzako zigorra da, argi eta garbi.

Alor penitentiarioko legeen arabera, kondena helburuak bergizarteratzea izan behar duela dioen agindu konstituzionala betez, erkidego autonomo bakoitzak *«bere behar penitentiarioak asetzeko eta zigorpetuen deserrotze soziala eragozteko behar adina espetxe eduki behar ditu»* (ELOOko 12.1. art., eta APko 9.1. art.).

Zentzu berean, Europako arau penitentiarioetan (Europako Kontseiluaren R (87) 3 gomendioa) garbi esaten da zigorpetuta dauden pertsonak kartzeletan banatuz *«haien tratamendua eta bergizarteratzea erraztu»* nahi direla, baina aitortu ere aitortzen dute kontuan izan behar direla *«administrazioaren eta segurtasunaren derrigorrezko baldintzak»* (12.b araua). Bestalde, espetheen erregimenari dagokionez, argi utzi nahi da haien bidez *«ahalik eta gehien gutxitu behar direla atxilotetaren ondorio kaltegarriak eta kartzela barruko bizimoduaren eta bizimodu askearen arteko aldea»* (65.b araua); helburu horri begira, preso dagoen pertsona bere familiarengandik hurbil egoteko nahia kontutan izan behar dela eta horretarako banakako egitarau bereziak prestatu behar direla esaten da (68. araua).

Azken finean, zigorra nozitzen ari den pertsonak gizarteko kidea izaten jarraitzen duenez gero, **erraztasunak eman behar zaizkio bere harreman pertsonal eta sozialei eusteko**, bere bizilekutik hurbileko espetxe batean sartuz. Puntu honi dagokionez, Estatuko beste leku batzuetako kartzeletan dauden euskal hiritarrak ez ezik, kontutan izan behar dira, orobat, Autonomia Erkidegoko beraien lurraldean kartzela zigorra bete ezin duten beste pertsonak; izan ere, Basaurin ez dago emakumeentzako atalik, eta Martutenen bakarrik dago gazteentzako (gizonezkoentzako) modulo bat eta kolektibo horrentzako kanpoko atal berezi bat (Ametzagaña).

6. Askatasunik gabe dauden pertsonen osasun babesa bermatu.

Administrazio penitentziarioak presoena bizitza eta osasunazaindu beharadauka. Betebehar hori presoak Administrazioarekin lotzen dituen lokarri bereziak sortarazten du, eta gizarteratzeko helburua lortzeko ezinbesteko oinarria da.

Aurreko baieztapenak jakinek gauzabadi rudi ere, gogoan izan behar dake kartzeletako gaisotasun eta heriotz maila gizarartean dagoena baino askoz handiagoa dela.

Osasun laguntzari buruzko atalean (ikus 3.2.5 atala eta dokumentu osagarria) berriro aztertuko dugu nolako arazo bereziak sortzen dituzten halako gaisotasun batzuek, gaisotasun kutsakor eta psikikoek batez ere; baina hemen, irizpide orokor gisa, garbi utzi nahi dugu beharrezkoa dela arreta berezia eskaintzea halako baldintza funtsezko batzuei, bestela alferrik delako presoena osasuna zaindu behar dela esatea.

Illo horretatik, espetxe osoko eta, bereziki, leku amankomunetako **higiene orokorra** zaindu behar da derrigorrez. Era berean, garrantzitsua da presoek **janari egokia** ematea, ez bakarrik oinarrizko eskubidea delako, baina baita ere hainbat gaisotasun eragozteko modua delako. Halaber, **ariketa fisikoa edota aire libreko ariketak** egiteko aukera ere eman behar zaie.

Nolanahi ere, garbi dago gure Erkidegoko kartzeletan gertatzen den masifikazioaren ondorioz, haietako osasun baldintzak kolokan daudela, eta horrek kaltea eragiten diela bai presoek, bai espetxeko langileei ere.

Espetxeetan lan egiten dutenek **laneko osasun** arazoak eduki ditzakete, langile bezala dauzkaten eskubideak kaltetzen dizkietenak, eta, bestalde, beraien lana oztopatu ere egiten dietenak; gainera, horrek txartu ere egin ditzake langile horiek presoekin dauzkaten harremanak.

Presoena **pilaketak arazo fisiko eta psikikoak sortarazten ditu**, haien egonezina eta oldarkortasuna eragiten ditu, eta horrek, zeharka, osasun eskubidea eta baita bizitzeko eskubidea ere nolabait kalte ditzake. Zentzu horretan, elkarbizitza giroan garrantzi handia dute gertatzen diren buruhilketa kasuek, edo tratu txarrekin, bai eta presoena arteko borroka eta liskarrekin ere. Horregatik, **kasu bakoitzean zer eta zergatik gertatu den aztertu** behar da, baina, gainera, kasu horiek kartzeletako egoerari buruzko «alarma seinale» gisa ere hartu behar dira.

3.1.3. KARTZELA ZIGORRAK BETEARAZTEKO PROZESUARI ETA ESKUBIDE PENITENTZARIOEI BURUZKOAK

7. Presoena zaintzarako epailearen egitekoa erraztu, haren esku dituen bitarteko material eta pertsonalak ugalduz.

Jakinek da zaintza-epaileak preso dauden pertsonen oinarrizko eskubideak zaintzeko orduan daukan garrantzia. Izan ere, haren sorrera Lege Peniten-

tziarioaren ekarpen nagusietako bat izan zen eta ordura arte ez zegoen aukera bat eman zuen: alegia, kartzela zigorrak betearazteko prozesua epaileen kontrolpean egotea.

Hala ere, gaur egungo Presoen Zaintzarako Epaitegiaren lan eta kontrol aukerak gainezka eginda daude, hain zuzen ere presoen kopurua gero eta handiagoa delako. Epaitegiko pertsonalaren lankidetzeta eta partaidetzeta osoa eduki arren, epaile bakar batek nekez eman diezaioke erantzuna Euskal Erkidegoko espetxeetan sartuta dauden ia 1.600 pertsonaren arazoari.

Presoen ikuspegitik begiratuta, premiazkoa da **zaintza-epailearen egitekoak erraztu eta bultzatzea**, eta horretarako, ahal den neurrian, bere lana egin ahal izateko behar dituen bitarteko material eta pertsonalak eskaini behar zaizkio. Helburu horrek lehentasun osoa eduki beharko du Eusko Jaurlaritzak Justiziako pertsonalaren inguruko aginpidea jasotzen duenean.

Helburu hori lortzen lagundu dezaketen **hainbat eta hainbat neurri daude aukeran**: adibidez, lurralde historiko bakoitzean presoen zaintzarako epaitegi bana sortzea -gaur egungo Ley de Planta delakoa aldatu beharko litzateke, kasu horretan-, Presoen Zaintzarako Epailearen «laguntzailea» edo «ordezkoa» figurak sortzea, edota aditu talde tekniko bat ipintzea epaitegian, lehen instantziako edo instrukzioko epaitegietan bezala, epaileari laguntzeko, kartzeletan eman beharreko tratamenduei buruzko erabakiak kontrolatzeko betekizun horretan.

8. Lege Penitentziarioak dioen bezala presoentzako arreta pertsonalizatua ziurtatu.

Bai preso daudenen ustez, eta bai tratamendu taldeen ustez ere, ez dago behar adina baliabide, «indibidualizazio zientifikorako sistema» delakoak -Legearen arabera bergizarteratzea lortzen lagundu behar duen bideak, hain zuzen ere- behar bezala funtzionatzeko.

Funtzionario gehienak oso lanpeturik egon ohi dira zaindari lanetan eta, bestalde, pertsonal teknikoak denbora luze samarra pasatu behar izaten du lan burokratikoak egiten, benetan egin behar luketen heziketa, terapia edo laguntza lanetan aritu beharrean.

Zalantzarik gabe, tratamendu taldeak gainezka daude kartzeletan dagoen preso pilaketa neurrigabeagatik; hori oso nabarmena da Langraitzen, bertan askoz zigorpetu gehiago dagoelako. Hori benetan arazo larria da eta, gainera, asko zailtzen du kondenaren bidez lortu nahi den helburua, presoak bergizarteratzea, alegia.

Premiazkoa da presoei **tratamendua eta laguntza emateko lanetan diharduen langilego teknikoa ugaltzea**. Horretarako bide bat baino

gehiago daude: adibidez, espetxeak ematen dituen prestazioak gizarteko zerbitzu sare orokorretan sartzea: kasu horretan, pertsonala sare horietan sartuta egongo litzateke. Beste aukera bat espetxeko lan administratibo hutsa egiteko pertsona gehiago sartzea edo, bestela, lan horiek informatizatzea litzateke; horrela, tratamendu lanak egiteko baliabideak libre edukitzea lortuko litzateke.

Dena dela, onartzen bada kartzelak askatasuna kentzeko baino zerbaiz gehiagotarako balio behar duela, eta, bestalde, legeak dioena betetzearren, kartzela zigorrarekin etorkizunean gerta daitezkeen delituei aurre egin nahi bazaie, derrigorrez **inbertsio handiak egin beharko dira espetxeetako langilegoa** behar bezala hornitzeko, hau da, kartzeletan profesional adituak eta beraien lana egiteko motibatuta eta gizartean baloratuta daudenak edukitzeko.

9. Erregimen irekia eta baldintzapeko askatasunaren aukerak bultzatu, zigorrak betetzeko modu horietarako behar diren baliabideak ipiniz.

Administrazio penitentziarioari dagokio, batez ere, zigorpetuen sailkapena egitea haien tratamenduaren bilakaeraren arabera; izan ere, berak bakarrik dauka preso bakoitzak bergizarteratzeko prozesuan egindako ibilbidea neurtzeko ahalmena. Hala ere, kartzela zigorraren azken faseaz bereziki arduratzeko dauden bitarteko material eta pertsonalen ekarpenak eta erregimen irekia betetzeko zentro egokiak egoteak eragin nabaria edukiko dute erregimen hori onartzeko eta haren helburuak lortzeko orduan.

Gaur egun ez dira nahikoak hirugarren graduan sailkatuta dauden pertsonentzat dauden zerbitzuak, eta ez dago emakumeentzako erregimen irekiko atalik ere. Horrek eragin txarra dauka hirugarren gradua onartzeko erabiltzen den irizpidean -irizpide nahiko zorrotzean-, eta, gainera, horregatik apenas dagoen ekintzarik edo eskaintzarik laster hirugarren graduan egongo diren pertsonen bizitza askea prestatzen laguntzeko.

Hitzarmenaren alor honi buruzko gomendio berezietan (ikus 3.2.7 atala), garbi esaten da beharrezkoa dela **kartzelaren mendekoak ez diren erregimen irekiko zentroak** egotea, hirietatik hurbil, eta preso mota desberdinak (emakumeak, gazteak, atzerritarrak, etab.) jasotzeko moduan. Nolanahi ere, ikuspegi orokor batetik begiratuta, azpimarratu nahi dugu oso gutxi gauzatu direla Lege Penitentziarioak erregimen irekirako finkatuta dauzkan aurrikuspenak. Kondena betetzeko modu hau, presoak bergizarteratzeko helburua lortzeko egokiena izan behar zuena eta zigorpetuen arteko portzentaia handi batekin erabili behar zena, ia ez da erabiltzen. Erregimen irekia ezin har daiteke salbuespenezko onuratzat, kondena betetzeko aldiaren etapatzat baizik.

Antzeko zerbaiz esan daiteke kartzelan ematen den tratamenduaren azken maila den **baldintzapeko askatasunari** buruz ere. Preso baten askatasuna

onartzeko orduan, kontuan izan behar dira preso horrek kanpoan dauzkan euskarriak, eta ez bakarrik kartzela barruan eduki duen «jokabide ona».

Dena dela, baldintzapeko askatasuna onartzerakoan, halako bitarteko batzuk ipini beharko dira martxan, **kartzelatik irtetean presoak izango dituen beharrei erantzun** ahal izateko: adibidez, aldi baterako pisuak baliabide ekonomikorik edo familiarik ez dutenentzat, harrera eta tratamendu zentroak gaisotasun sendaezinak dituztenentzat, etab.

10. Presoen eta kanpoko munduaren arteko komunikazioa erraztu.

Behin eta berriz esan dugu, oinarrizko abiapuntu bezala, preso dagoen pertsona ez dagoela gizartetik kanporatuta, eta haren partaide izaten jarraitzen duela (AP berriaren 3.3. art.). Hala ere, errealitateak argi erakusten du askotan kartzelaren mundua eta kanpokoak elkarren arteko loturarik eta harremanik ez duten bi esparru itxi direla.

Gomendio berezien atalean, presoek jasaten duten bakartzea edo isolamendua apurtzeko modu jakin batzuk proposatu ditugu. Dena dela, berriro esan behar da -planteiamendu orokorrako batekin- zeinen beharrezkoa den kartzelaren eta gizartearen arteko komunikazioa. Bi zentzutan, gainera: hots, batetik, preso daudenek aukera eduki behar dute kartzelatik irteteko; eta, bestetik, kartzelak bere ateak zabaldu behar dizkio gizarteari.

Lehendabiziko zentzuan, askatasuna galdu dutenen **deserrotzea** eta haien harreman sozial eta pertsonalen etena **galarazi** nahi badira, **irteera-baimenak** ematearen aldeko politika zabal eta kementsua ipini behar da martxan. Denbora baterako baimen horiek bergizarteratzearen giltzarria dira, behar-beharrezkoak direlako kartzela zigorra bete ondoko bizimodu askea prestatu ahal izateko.

Bestalde, presoari berari irteteko baimena ematerik ez dagoenean, aukerarik onena haren senitartekoak eta lagunak **kartzelan bisita egitera joan** ahal izatea da. Horregatik, komunikazio guztiak, bai ohizkoak eta bai bereziak ere (*vis a vis* deitzen direnak, alegia), presoen funtsezko eskubidetzat hartu behar dira, eta ez onuratzat edo saritzat. Ildo horretatik, gaur egungo mintzatokien egoera hobetzeaz gain, komunikaziorako egiazko denbora errespetatu eta, ahal den neurrian, zabaldu ere egin behar da. Beste alde batetik, bisitarien sarrera erraztu behar da, gehiegizkoak edo batzuetan iraingarriak ere diren kontroletatik pasarazi gabe, denbora-muga estuegiak ipini gabe eta itxaroaldi luzeak egitera behartu gabe.

Azkenik, **kartzela bera gizartearen txertatuta egoteari** dagokionez, presoen egoeraz arduratzen diren talde eta elkarrekin harremana eta elkartrukea suspertu behar dira. Kartzela eta gizartea elkarri lotuta eta elkarrentzat zabalik egotea aberasgarria da bi aldeentzat, bai eta espetxeak gizartearen bilakaeratik aparte ez egoteko modu bakarra ere.

11. Gelditasunaren arazoa eta, haren ondorioz, presoek jasaten duten kalte pertsonala galarazi.

Konstituzioaren 25.2 artikulua esaten duenean «*edonola ere*» -hau da, beste eskubideentzat onartzen dituen salbuespenak egin gabe-, kartzelara kondenatuta dagoenak «*lan ordaindu batetara eskubidea izango du, eta baita giza asegurantzari dagozkion etekinetara ere, kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkundera*», aitortzen ari da baldintza horietan direla zigorrak daukan bergizarteratzeko helburuaren muina.

Era berean, Europako arau penitentiarioek tratamendu penitentiarioaren helburuen artean jartzen dute -kartzelaren ondorio txarrak ahalik eta gehien murrizteaz gainera- **presoei aukera ematea beraien jakintza eta gaitasuna hobetzeko**, askatasuna lortu ondoren errazagoa izan dadin haietaz gizartera itzultzea (65 b eta d arauak). Bi helburu horiek lortzekotan, Administrazioa presoentzako prestakuntz ekintzak eskaintzera derrigorputa dago, kartzelan egon beharreko denbora alferrik galdutakoa izan ez dadin. Tamalez, preso dauden pertsona askok salatzen dutenez, gaur egun kasu askotan ez daiaezertxo ere egiten kartzelan egun osoan, eta horrek nekez konpondaitezkeen hainbat arazo eta desoreka pertsonal sortzen ditu presoaren artean.

Suspertze pertsonalaren gaia gomendio berezietan zehaztasun handiagoz jorratzen bada ere, hemen bertan esan nahi dugu kartzela barruan ekintza gutxi egoteaz gainera, presoek ia ez dutela inola ere parte hartzen ekintza horien antolaketan. Deliturik egin gabe bizi ahal izateko, pertsona hauen erantzunkizun zentzua sustatu behar da, eta hori lortzeko erarik egokiena haien gain halako ardura eta erantzunkizun batzuk uztea da, hain zuzen ere. Lege Penitentiarioan bertan esaten da **presoei parte har dezaketela hainbat ekintzari buruzko erabakiak hartzeko orduan** (lan, kirol edo bestelako ekintzak antolatzeko...). Legeak dioen hori praktikara eraman behar da, beraz, aukera horiek ahal den neurrian zabalduz, sistema juridiko-penal osoak eduki behar duen norabide demokratikoaren bidetik.

12. Tratamenduko lehen graduako sailkapenaren erabilera murriztu behar da, bai eta gradu hori betetzeko baldintzen gogortasuna arindu ere.

ELOOko 10. artikulua dioenaren arabera, erregimen itxiak salbuespenazko izaera eduki behar du erabat, eta, beraz, «*oso arriskutsuak diren zigorpetuei*» bakarrik ezarri behar zaie, edo bestelako erregimenetan egon ezin direnei; baina, nolahi ere, egoera horretan egon beharreko aldia ezin da luzatu neurri hori hartzera behartu zuten arrazoiak desagertu edo gutxitzeko behar den denboratik harantzago.

Erregimen itxiak, praktikan lehen graduarekin bat datorrenak, esan nahi du zigorrak eduki behar duen bergizarteratzeko helburua segurtasun eta diziplina mailako beharren azpitik jartzen dela.

Erregimen itxiko bizi-baldintzak oso zorrotzak dira eta, batzuetan, bertan behera uzten dituzte lege penitentziarioek preso guztientzat inolako salbuespenik gabe aitortzen dituzten oinarrizko eskubide batzuk. Hori komunikazioetan eta lan egiteko aukeran ikusten da batik bat.

ELOOko 10. artikuluko horri jarraituz, erregimen itxietan preso guztiek egin ditzaketen ekintzak mugatu egiten dira, eta kontrol eta zaindaritza zorrotzagoa ezartzen zaie. Baina **horrek ez du esan nahi**, batzuetan gertatzen den bezala, **isolamendurik handiengan ipini behar direnik**.

Kartzeletan noizbait segurtasun arazoak edo elkarbizitza apurtzen duten gora-beherak gertatzen direla jakin arren, erregimen itxiaren arauetan zorrotz bete behar da legeak dioena. Ildo horretatik, lehen graduan sailkatuta dauden pertsonen arazo berezietarako **terapia eta ekintza bereziak** ipini behar dira martxan. Hortaz, erregimen itxiaren gehiegizko gogortasunak ez die kalterik egin behar preso oinarrizko eskubideei, eta, are gutxiago, ezin du bertan behera utzi kartzela zigorrak, Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua araberak, eduki behar duen bergizarteratzeko helburua.

13. Diziiplina arauak eta zigortzeko prozedurak aztertu, beti ere defentsarako eskubidea eta organo zigortzailearen alderdi-keriarik eza bermatuz.

Kartzelak dirauen bitartean, badirudi sistema penitentziarioa ere ezinbestekoa dela. Hala ere, ez da ahaztu behar kartzela barruko bizimoduan zigor sistemak hainbat arazo eta tentsio sortarazten dituela, txosten honetan jaso ditugun gai honi buruzko kexa ugariak erakusten duten bezala.

Erregimen penitentziarioak dituen berezitasunengatik, ipintzen diren zigorrek zigortze hutsaren gainetik dauden beste ondorio txar batzuk ere izaten dituzte. Esate baterako, halako pertsona bat konturatzen denean araren bat hautsi duela, badaki nolako ondorioak izango dituen -adibidez, kartzela zigorra lanaren bidez arintzeko aukera galtzea, destinoa galtzea, irteteko baimenik gabe geratzea edota, baita ere, tratamenduko gradu zorrotzago batean sartzea-, eta askotan zigorra bera baino garrantzi eta larritasun handiagoko nahigabeak sortzen dizkio horrek. Hori dela bide, eta kontutan izanda Lege Penitentziarioan jasota dauden zigorren zorrotzotasuna, garbi dago ezinbestekoa dela behar bezalako bermeak dituen zigor prozedura bat osatzea.

Ildo horretatik, doktrinak noizbait salatu duen bezala, diziplinazko arau-hausteak ez daude Legean finkatuta, eta bai ordea arautegiaren baitan, baina zehaztasun gehiegirik gabe; eta horrek legezkotasun printzipioaren haustura esan nahi du.

Orobat, auzitan jar daiteke Legean jasota dauden zigorren edukia bera ere. Irudimen handiegirik gabe eta -beharbada- kartzelako egunerokotasuna ezagutu gabe, arauak ezartzen dituen zigorrak normalean atxiloketaren

baldintzak gogortzea izaten da -hots, berez gutxituta dagoen askatasuna areago gutxitzea: isolamendua-, edota kanpoko munduarekin egiten diren harremanak mugatzea -hau da, bisitaldiatarako denbora gutxitu edo baimenak ukatzea-. Hobe litzateke zigor horien orde, kartzela barruan garrantzia daukaten, baina presoek funtsezko eskubideetan eraginik ez duten zenbait ekintza murrizteko neurria besterik ez erabiltzea.

Nolanahi ere, bistan da komeni dela diziplinazko zigorrei buruzko legeetan aldaketak sartzea. Kartzeletarako Araudi berriak, oraintsu onartu dena, hobekuntza dakar, izan ere, faltaren larritasunaren arabera, halako faltagatik nolako zigorra ezarri behar den zehazten du. Legezketasun irizpidea errespetatzeari dagokionean ere aurrera egin da, baina alor honetan oraindik badira aldatu beharreko alderdiak.

Bestalde, Araudi berriak dextente aldatzen du zigortzeko prozedura, funtsik ez zuten lehengo sistemaren bereizgarri batzuk kenduz. Araudi berria Administrazio alorreko zigor-prozeduren lege-jaurbide orokorrari hurbiltzen zaionez gero, aldaketa hori txalogarria da. Hala ere, ahaleginak egin behar dira araudi aldaketak egitez benetako aldaketa ekar dezan, espedienteak zabaldu zaion pertsonaren babesik eza areagotzen duten zenbait usadio kenduz.

Adibidez, prozeduran alde berdintasuna bultzatu behar da, bertsioak kontrastatzeko aukera emanez, errugabetasun ustea errespetatuz, eta arau bezala funtzionarioen adierazpenei sinesgarritasun handiagoa emateko joera eduki gabe. Gainera, norbaiti espediente irekitzen zaionean, aukera eman behar zaio frogaketan parte hartzeko, bai eta frogaketaren emaitza eta erabaki proposamena ezagutzeko ere, hain zuzen ere bere aldeko alegazioak egiteko parada eduki dezan. Ildo horretatik, presoentzako zerbitzu juridikoa -gaur egun Erkidegoko hiru abokatu bazkondeek ematen dutena- zabaldu beharko litzateke, presoak aholkularitza teknikoa eta defentsa egokia eduki ditzan, zigor prozeduran erabateko garrantzia daukaten uneetan.

3.2. HITZARMENAREN GARAPENARI ETA HAREN EKINTZA-ESPARRUEI BURUZKO GOMENDIO BEREZIAK

3.2.0. HITZARMEN NAGUSIAREN GARAPEN OROKORRARI BURUZKO GOMENDIOAK

Hitzarmen nagusian jasotako zazpi ekintza-esparruetako bakoitzean sartu eta haietako bakoitzari buruzko gomendio bereziak aurkeztu baino lehen, halako proposamen batzuk ekarriko ditugu hona hitzarmenaren garapenari berari buruz, kartzeletako egoera hobetzeko erakundearteko lankidetzarako lanabesa den aldetik.

Bildu ahal izan dugun informazioaren argitan, eta kontutan izanda lanabes horrek duen ahalmena, haren garapen maila txikia eta haren indar-epea, Ararteko erakundeak honako gomendio hauek egin nahi ditu:

14. Hitzarmen nagusian jasotako ekintza-esparru eta lan-ildo guztiak praktikan jarri eta aurrera eraman, behar diren bitarteko guztiak erabiliz.

Horren arabera, kasu batzuetan beharrezkoak diren **diru baliabideak** ipini behar izateaz gainera, ahalik eta hobekien aprobeztatu beharko dira hitzarmenean bertan dauden zehaztapen eta segimendu tresnak, hots:

- . **urteko egitarauak;**
- . **alor bereziei buruzko akordioak;**
- . **segimendu batzordea...**

15. Hitzarmenaren garapenean inplikaturik daudenen partaidetza aktiboa eta haientzako informazio mailarik handiena bultzatu, batik bat hiru espetxeetako lantalde profesionali dagokienez.

Bistan da orain arte erabili diren informazio eta partaidetzarako tresnak ez direla inondik ere nahikoak izan, eta lantalde profesional desberdinen (sendagile, irakasle, tratamendu talde eta abarren) konpromezu aktiboa suspertu beharreak, murriztu egin dutela. Konpromezu aktibo hori lortu ezean, hitzarmenak paper errea izaten jarraituko du, neurri handi batean.

16. Lehenetsuna duten kolektiboentzako (hitzarmenaren beraren arabera, gazte, drogamenpeko eta emakumeentzako) egitarau bereziak bultzatu, eta atzerritarren kolektibo zabala ere sartu lehenetsunezko arreta jaso behar duten taldeen artean.

Txosten honetan behin baino gehiagotan nabarmendu dira kolektibo hauetako batzuen arazo bereziak. Ekintza-esparruetako bakoitzean

(informazioa, heziketa...) egin ditugun gomendio berezietako askok garrantzi nabarmena daukate kolektibo horientzat, berez espetxeetan sartutako guztientzat eginak diren arren.

Beste alde batetik, agerian utzi nahi izan ditugu espetxeotan eta, batez ere, Langraizkoan preso dauden atzerritar ugarien arazo bereziak. Egoera horrek bere hartan dirauen bitartean, beharrezkoa iruditzen zaigu lehenetasunezko arreta jaso beharrekoen artean sartzea kolektibo hori.

17. Ekintzak aurrera eramateko epe jakin bateko konpromezu publikoak bultzatu, lorpenak neurtzeko eta itxarokizun errealistagoak sortu ahal izateko.

Berez, haien ezaugarriengatik, hitzarmen nagusi guztiek lankidetzarako esparru zabal samarra eskaintzen badute ere hainbat ekintza desberdin burutu ahal izateko, haien gauzapan zehatzak bakarrik (urteko planen, edo alor bereziei buruzko plangintzen bidez) balio du itxarokizun faltsuak eragozteko eta ebaluaketa zuzenerako behar diren erreferenteak eskaintzeko.

Erakunde honen iritziz, hitzarmen nagusia urteko egitarau batzuetan gauzatzeko aukera -adostutako testuak berak aipatzen duen bezala- haren garapenean inplikaturik dauden guztiek ezagutu beharko lukete (ez bakarrik administrazio bakoitzeko arduradunek, baina baita lantalde teknikoek eta presoek berek ere), publikoa izan beharko luke (eta, beraz, Legebiltzarra bezalako kontrol organoen segimendua eta beste indar sozial batzuen eskuhartzea onartu, gobernuz kanpoko erakundeena, esate baterako) eta haren ebaluaketa errazteko moduko egitura eduki (helburuak, epeak, bitarteak, arduradunak, etab.).

3.2.1. INFORMAZIO ALORRARI BURUZKO GOMENDIO BEREZIAK

Informazioa eta aholkularitza tresna funtsezkoak dira askatasunik gabe daudenen eskubideak bermatzeko, eta haietako bakoitzari eman nahi zaion atentzioak eskatzen duen zerbait, gainera.

Are gehiago, Ararteko honen ustez, kartzela bezalako erakunde batek informazioa eduki beharko luke bere ezaugarri nagusien artean, eta ez estalketa. Informazioa eta gardentasuna, gainera, espetxeko bizimoduaren alderdi oinarrikoetara ere eraman beharko lirateke (barne erregimenaren arauetara, espediente pertsonaletara, txosten teknikoetara...), eta zilegizko interesak dauzkaten pertsonen artera ere, hots: profesional, preso, abokatu, senitarteko, atentzio-egitarauetan inplikaturiko elkarte eta abarretara.

Aurreko jarraibidearen ildotik, alor honetan antzeman ditugun akatsak zuzendu ahal izateko, erakunde honek honako gomendio hauek egin nahi ditu:

18. Gaur egun presoentzako laguntza-txandaren bidez ematen den aholkularitza egitarauan funtsezko hobekuntza batzuk sartu.

Horrek esan nahi du **bitarteko** gehiago ipini behar direla egitaraua aurrera ateratzeko, eta laguntza-txandan sartuta dauden abokatuek **denbora gehiago eskaini** eta **prestakuntza** handiagoa eduki behar dutela; **koordinazio** handiagoa behar dela pertsona hauen eta espetxeetako profesional (legelari...) batzuen artean... Kasu batzuetan, alor penitentiarioan eduki beharreko **prestakuntza** berezia bultzatzearen, egitarau batzuk antola litezke txanda horietan parte hartzen duten pertsonen prestakuntza berezia emateko.

19. Bazkunde profesionalek beraien bazkideen lan-ihardueraz egin behar duten kontrola bultzatu eta zaindu.

Presoentzako laguntza-txanda horretaz aparte, kontrolpean egon behar luke ofiziozko txandak, bai eta beste lan-iharduera batzuek ere; haiei buruzko keza ugari jaso ditugu, hain zuzen ere, txostenean aditzera eman dugun bezala.

20. Informazio-bide desberdinak erabili, arreta berezia eskainiz ulertzeko arazoak dauzkaten pertsonen.

Gomendio hau batez ere alfabetizazio maila nahikoa ez duten, edota gaztelera ondo ez dakiten edo menderatzen ez duten pertsonen buruzkoa da. Lehendabizikoei ahozko edo ikusentzutezko informazioa eman beharko litzaieke, eta bigarrenen interpretariak edo beraien hizkuntzetan idatzitako dokumentazioa eskaini.

Baina dimentsio orokorragoa ere badu, eta espetxeetako preso multzo osoan dauka eragina, baina bere aplikazioan ahalik eta gehien eduki behar dira kontutan pertsona bakoitzaren ezaugarri bereziak. Izan ere, hitzarmenean aipatzen diren informazio-bide asko (taldekako bilerak, ikusentzutezko emanaldiak...) ez dira batere erabiltzen edo ez behar bezainbat.

21. Espetxeetako informatizazioari ahalik eta lasterren ekin, haien gestioa bizkortu eta gardentasuna handitzeko.

Espetxeetako informatizazioak hainbat erabilera eduki ditzake. Hemen, batez ere gestioaren informatizazioaz hitz egingo dugu, eta, zehazkiago, erregimen-bulegoaren betekizunei buruz, garrantzi handia baitauka preso daudenen egoera penitentiarioa gaurkotuta edukitzeko; horretarako, beharrezkoa da konektatuta egotea justizi auzitegiekin eta Erakunde Penitentiarioen zerbitzu zentralekin.

Jakina, ez gara besterik gabe informatizazioaren alde ateratzen ari, baizik eta iruditzen zaigulako tresna egokia dela halako helburu batzuk lortzeko:

adibidez, informazioa bizkor eta argi emateko (esate baterako, «kondena kitatzerakoan»), eta, bestalde, profesional batzuen lana arintzeko, horrela denbora gehiago erabili ahal izango baitute harreman pertsonaletarako, zortzigarren gomendio orokorrean proposatu dugun bezala.

22. Elkarrizketa eta komunikazio pertsonaletarako leku egokiak eta nahikoak prestatu.

Modulo bakoitzean halako bilera gela txiki batzuk atondu beharko liratekeela esan nahi dugu honekin. Profesionalek ez ezik, kartzelan lan egiten duten beste elkarte edo antolakundeetako langileek ere eduki beharko lukete gela horiek erabiltzeko aukera.

23. Espetxeko ekintzetan hainbat gizarte-eragilek parte har dezaten bultzatzeko ahaleginak egin.

Jakina, gomendio hau ez da mugatzen informazio alorrera, bertan erabiltzeko aukera ugari baditu ere. Bestalde, kontua ez da bakarrik egitarau edo iharduera desberdinetan gobernuz kanpoko erakundeen partaidetza bultzatzea. Izan ere, gomendio honen bidez nahi duguna zera da: parte hartzeak eskaintzen dituen abantailak -eta hor sortzen diren lotura eta harremanak- aprobetxatu, besteak beste informazioa trukatu ahal izateko, baldintza egokietan.

Gomendio honek dituen lehen erabileren artean kasu bakoitzerako dauden alternatiba desberdinak ditugu: zigorra betetzeko era alternatiboak, lan egiteko eta laguntza jasotzeko aukerak, espetxean bertan hainbat ekintza egiteko aukera... Era honetako informazioa emateko saioak egiten diren arren, espetxeetan dauden presoek askotan ez dute izaten informazio hori edota zalantzatan jartzen dute haien informatzaileen fidagarritasuna.

Kontutan izanda paper garrantzitsua izaten dutela lagunek informazioa edo laguntza emateko orduan, haien ahalbideen arabera, parte hartzeko halako bide batzuk ipini beharko lirateke -autolaguntzarako talde edo batzordeak, adibidez-, preso daudenek partehartze zuzena eta erantzukizun handiagoa izan dezaten beraien egoera hobetzeko betekizun horretan.

24. Kode Penal berria eta beronek zigorra betetzen ari direnentzat izan ditzakeen ondorioak ezagutarazi, indarrean hasi ondorengo lehen hilabeteetan batez ere.

Gomendio honek eragin zuzena dauka hainbat profesionalen lanean: espetxeetako legelari, presoentzako laguntza-txandako abokatu eta abarren lanean.

Kode berriaren ezarpenak eragin nabaria duenez gero preso gehientzat, eta kontuan izanda zalantza ugari daudela haren ezarpenari buruz, datozen

hilabeteetan gai honi premiazko arreta eskaini beharko liokete inplikaturak dauden erakundeek, hots: espetxeek, epaileek, abokatu bazkondeek...

3.2.2. HEZIKETA ALORRARI BURUZKO GOMENDIO BEREZIAK

Txosten honetan, hainbat jakingarri esanguratsu eskaini ditugu gure Erkidegoko espetxeetan preso dauden pertsonen ikas-mailari buruz, bai eta kartzela barruko egonaldia aprobeztatzeko ikasten diharduten presoek buruz ere.

Atal honetan bildu ditugun gomendioak azaltzean, kontutan izan behar dugu alfabetizazio maila eta lanerako gaitasun eskasa daukan jendea izaten dela espetxeetan preso dagoena; baina, orobat, egia da era honetako erakunde batean egin behar den egonaldia, luzea izan edo laburra izan, aprobezta daitekeela maila edo gaitasun hori hobetzeko, hutsune horietako asko zuzentzeko bideak egon badaudelako (denbora, langileak, motibaziorako aukera...).

Hortaz, espetxeek heziketa alorrean dauzkaten ahalbideak behar beste ugaltu ahal izateko, erakunde honek honako gomendio hauek egin nahi izan ditu:

25. Espetxeetan egiten diren heziketa-ekintzetan presoek parte hartzeari lehentasuna emateko aukera aztertzea, ondorio guztietarako.

Horrek esan nahi du, besteak beste:

- . heziketa-ekintzetan **parte hartzera bultzateko dauden sistemak** aztertu behar direla, espetxean egiten diren gainontzeko ekintzekin (lantoki, destino eta abarrekin) konparatuz;
- . **eskolak jaso ahal izateko aukera eman behar dela edozein egoeratan** (eritegia, atal irekia, destinoak, zigorrak, etab.).

26. Espetxeetako heziketa-eskaintza ugaltu eta alor gehiagotara zabaltzeko, postu, ordutegi eta ikasketak dagokienez.

Espetxeetan gaur egun ematen diren edo haietan egin daitezkeen heziketa mailak gainera (Helduen Heziketa Iraunkorra, Urrundiko Batxilergoa...), badira beste batzuk presoentzat interesgarriak izanda eskaini beharko litatekeenak, espetxe bakoitzaren ezaugarrietara moldatuta. Honako hauek aipa ditzakegu:

- . **Lanbide Heziketa** ikasketak;
- . **hizkuntza** ikasketak.

Hezkuntza sistemaren berrantolakuntza eragin duen heziketa-erreforma orokorki ezartzen ari den une honetan, erabat beharrezkoa da aztertzea nolako aukerak ematen dituzten heziketaren **etapa eta modalitate berriak**, espetxeetan ere horiek aplikatu ahal izateko.

Beste alde batetik, kartzela berez erakunde erabatekoa izanda, beharrezkoa iruditzen zaigu **ikasketetako ordutegi eta egutegiak moldatzea** ezaugarri berezi horretara. Horrela, hobeto aprobetxatuko litzateke denbora, orain ikasteko dauden ordutegi eta egutegiak zabalduz.

27. Heziketarako dauden bitartekoak hobetu: ikastokiak, irakasle taldeak, irakaslanerako denbora...

Jakina, gaur egun dauden bitartekoekin ezinezkoa da hemen esaten ari garen moduko hobekuntzarik sartu hezkuntz eskaintzan. Honako hauek dira konpondu beharko diren arazoak: orain dagoen azpiegitura mugatua da (ikasgelak zabaldu), langile gutxi dago (espetxerako lan egiten duten irakasleak gehitu), eta goi-mailetako tutore-lana ez da nahikoa (urrundiko irakaskuntza).

Kasu batzuetan, baliabide edo bitarteko gehiago baino areago, baliabide desberdinak beharko lirateke. Esate baterako, ikasketa mota berriak (lanbide-heziketa, hizkuntzak...) eskainiz gero, gaur egungo irakasle-plantila bermoldatu edota kontratazio edo lankidetzeta formula berriak bilatu beharko lirateke.

28. Liburutegi zerbitzua zabaldu eta hobetu.

Espetxeetako liburutegi zerbitzua orain dauzkan akatsak konpondu behar dira. Horretarako, hauxe egin beharko litzateke ia kasu guztietan:

- . **liburutokiak** handitu;
- . **fondo** bibliografiko eta dokumentalak gaurkotu eta ugaltu;
- . **zerbitzua** hobetu (informatizazioa, mailebuak, moduloka deszentralizazioa egin...).

Espetxeetako liburutegia hobetzeaz gainera -behar den bezala-, kontutan izan behar dira, orobat, **liburutegi publikoen sareak** eskaintzen dituen aukerak ere: haien fondoak erabili ahal izatea, zerbitzuekin konexioa egin ahal izatea...

29. Espetxeetako irakasleen lan egoera hobetu.

Hori, funtsean, hiru alorretan egin beharko litzateke:

- . haien lan egoera argitu (LOGSE delakoaren 10. gehigarriaz baliatu, maisu-maistren kidegoan sartzeko aukera ematen baitu);
- . prestakuntza iraunkorra eta garapen profesionala lortzeko aukerak eskaini;
- . irakasle taldea espetxeko bizitzan txertatu (hartzen diren erabakietan parte hartu, tratamendu taldearekin erlazioa eduki...).

Hitzarmenean espreski jasota dagoen puntua denez gero, **prestakuntza iraunkorra** azpimarratu nahi dugu. Azken urteotako esperientziak irakatsi

digun bezala, ez da nahikoa Hezkuntza Sailak espetxeetako maisu-maistrei ere egitea irakasleentzat daukan eskaintza; izan ere, beharrezkoa da inplikaturiko bi administrazioak (EAEkoa eta Madrilekoa) elkarturik aritzea lanean, prestakuntzarako dauden bitartekoak aztertzea eta prestakuntza hori jaso ahal izateko irizpideak finkatzea.

30. Espetxeen eta hezkuntza sare arruntaren arteko harreman sendoagoa lortu.

Honek eragin zuzena dauka espetxeentzako erreferentziazko **HHI (Helduen Heziketa Iraunkorra)** delakoa ematen duten hiru zentroetan, **UBEI (Urrutiko Batxilergorako Euskal Institutua)** delakoan, **Unibertsi-tatean** bertan... Ikuspegi zabalago batez -hau da, kartzelen eta gainontzeko gizartearen arteko harreman handiagoa bilatuz-, lotura finko eta errazagoa eduki beharko litzateke beste zerbitzu batzuekin: **Lanbide-Heziketa eskolekin, hizkuntz eskolekin, Pedagogi Aholkutegiekin...**

31. Espetxetik kanpo ikasteko eta azterketak egiteko erraztasunak eman.

Gomendio hau praktikan jarritz gero, ikasketak egiteko askoz aukera gehiago edukiko litzukete presoek, eta gainera gizarteko baliabideak hobeto erabili eta harreman zuzenagoa edukiko lukete gizartearekin. Bestalde, espetxeek eduki ohi dituzten muga batzuk (irakaskuntza alorreko langileak...) gainditu egingo lirateke.

Hitzarmenak espreski jasotzen du tituluak lortzeko azterketak egin ahal izateko aukera eman behar zaiela presoek. Baina erakunde honek beste proposamen bat ere egin nahi du: alegia, **espetxetik kanpo ikastea** lana edukitzea bezala har dadila **erregimen irekirako sarrera** erabakitzeko orduan.

3.2.3. LANBIDE-HEZIKETA ETA ENPLEGU-SUSPERTZE ALORRARI BURUZKO GOMENDIO BEREZIAK

Heziketa alorrari buruz eman ditugun gogoetagai asko beste alor honetan ere egin litezke (preso multzoaren ezaugarriak, kartzela barruan ikasteko aukerak...). Are gehiago, gomendioetako batzuk alor honi buruzkoak dira, hain zuzen ere (adibidez, lanbide heziketa sartzea espetxe barruko ikasketa aukeren artean).

Espetxeratuetak asko jende baztertua denez gero -hau da, lanbide zirkuituetatik kanpo dagoena-, are garrantzitsuagoa da pertsona horiei lanbide prestakuntza ematea kartzelan dauden bitartean, eta enplegu-suspertzerako neurriak hartzea kartzelatik irteten direnerako, gizartearen eta lan merkatuan sartzeko aukera handiagoa izan dezaten.

Gomendio orokorretan aditzera eman dugun bezala (ikus hamaikagarrena), gelditasuna eragotzi behar da. Ildo horretatik, behin eta berriz ekarri behar dira gogora Konstituzioak berak pertsona horiei aitortzen dizkien eskubideak: lan ordaindua egitea, kulturarako sarbidea edukitzea, garapen orokorra lortzea... (Konstituzioaren 25.2 artikulua).

Horregatik, honako gomendio berezi hauek egin behar ditugu:

32. Espetxe bakoitzak bere lanbide heziketa eta enplegu-suspertze alorreko egitarau zabal eta ugaria eduki beharko luke, inplikaturiko erakunde guztien elkarlanarekin, eta denboran zehar irauteko bermearekin.

Egitarau berezituak izan behar dute, espetxe bakoitzeko presoen behar eta nahietara moldatuak, eta mugarik ohizkoenak gainditu behar dituzte, alegia:

- . ekintzak sakabanatuta egotea;
- . erakunde desberdinen (udalen, aldundien, INEMen...) ekimenak deskoordinaturik egotea;
- . ekitaldi gutxikoaldiak eta jarraitzeko arazoak...

33. Lanerako aukerak eta lantoki produktiboen baldintzak hobetu.

Argi bereiztu behar dira lanerako gaitasuna bilatzen duten ekintzetan (ikasteko lantokietan) parte hartu eta lan egiteko baldintzak, eta produktiora zuzendutako ekintzetakoak (lantoki produktiboetakoak). Horrek ez du esan nahi bi ekintza mota horien artean ezin denik interes-loturarik egon. Baina, lantoki produktiboen kasuan, beharrezkoa eta premiazkoa iruditzen zaigu gaur egungo lan baldintzak hobetzea: **kontratazio sistemak, ordaintzeko irizpideak, gizarte-segurantza...**

34. Dauden baliabide guztiak erabili behar dira lan egin nahi duen edonork lan egiteko edo ikasteko tokia izan dezan kartzelan dagoen bitartean.

Irizpidea oso garbia da, eta alor honetan eta heziketarenean dauka eragina: alegia, eragozpen fisiko edo psikikorik ez daukan edota gaisorik edo ezinduta ez dagoen edonork benetako aukera eduki behar du lan egiteko edo ikasteko.

Helburu hori lortzekotan -hau da, denek izan dezatela ikasteko edo lan egiteko aukera-, bermoldatze lan sakona egin beharko litzateke espetxeetan, bai haien egituran eta bai haien funtzionamenduan ere. Bestela esanda:

- . **Espetxeek dauzkaten baliabideak dexente ugaltu beharko lirateke: hots, tokiak, hornigaiak, eginkizun hauetan aritzen diren langileak...**

- **Erraztasunak eman beharko litzaizkieke presoeri kartzelatik kanpoan lan egiteko**, eta, orobat, kanpoko lanari (enpresa, kooperatiba eta abarrei) espetxeetara sartzeari erraztu.

Berrito azpimarratu nahi dugu espetxeratu «guztiek» erabili behar dela hemen agertu dugun irizpidea, baita kartzela barruan bizimodu berezia daukaten kolektiboetako presoekin ere (emakume, gazte eta abarrekin).

Bestalde, komenigarria eta beharrezkoa da destinoak (sukaldea, ileapaidegia, garbitokia, mantenu-lanak) lantzat hartzea eta, beraz, lantokietan egiten diren lan produktiboekin parekatzea.

35. Lehenago azaldu dugun helburua orokor bihurtzea lortzen ez den bitartean, irizpide garbiak eta publikoak erabili behar dira lantoki eta lanpostuetan aritu ahal izateko.

Irizpide garbiak, itxaron-zerrendak gardentasunez gestionatzea errazten dutenak, beste alderdi batzuetan ere erabili beharko dira; esate baterako, kartzela zigorra ikasketen edo lanaren bidez arintzeko, edo postua berritu edo aldatzeko...

Seguru aski, espetxeratuek heziketa eta lan ekitaldien garapenean **parte hartzeko sistemak** bultzatzea izango da helburu horiek lortzeko biderik onena.

36. Hirugarren graduko espetxeratuen edo kartzelatik irten berrien (baldintzapeko askatasuna edo behin-betikoa lortu dutenen) kontratazioa erraztea, enplegua suspertzeko egitarauen bitartez.

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegua suspertzeko egitarauen bidez hirugarren graduko presoak kontratatzea espreski jasota dago hitzarmenean. Baina txosten honetan erakutsi dugunez, orain arte oso gutxi erabili da aukera hori.

Gomendio honekin, erakunde honek berrito eman nahi du aditzera egitarau hauek beharrezkoak direla eta gardenak izan behar dutela; gainera, beste kasu batzuetara ere (kartzelatik irten direnentzat) zabaldu beharko litzatekeela esan nahi dugu.

Kontuan izanik gaur egungo lan merkatuaren egoera orokorra, eta pertsona hauetako askok lanpostu bat lortzeko dauzkaten arazo handiak, are errazagoa da pertsona hauek berrito erortzea delituan. Datuak ikuste hutsarekin, garbi dago enplegu-egitarau bere lehentasunen artean eduki beharko litzatekela presoak.

3.2.4. SUSPERTZE PERTSONALAREN ALORRARI BURUZKO GOMENDIO BEREZIAK

Espetxeratuen suspertze pertsonalaren alorreko egitarau eta ekintzak (kultura, kirola...) hobetzeari dagokionez, Arartekoak honako gomendio hauek egiten ditu:

37. Ekintza horien eskaintzak behar bezain zabala eta ugaria izan behar luke, eta preso gehienen partaidetza lortzeko moduko iraupena eduki.

Hemen egin behar dena zera da: urteko zenbait garaitan egoten den ekintza urritasuna galeraztea, kolektibo edo erakunde desberdinen aldetik sor daitezkeen ekimen eta proposamenak koordinatzea, eta espetxeetako preso multzoek (gazte, emakume, atzerritar eta abarrek) logikoki dauzkaten interes desberdinei orekaz erantzuteko moduko eskaintza bilatzea.

38. Egitarauak prestatzeko eta ekintzak aurrera eramateko orduan, presoen parte hartzea bultzatu.

Gomendio honek bi alderdi ditu:

- . Presoek egitarauak prestatzen parte hartu ahal izanez gero, ekintzak hobeto molda daitezke haien interesetara.
- . Partaidetza eskatzen duten ekintzak (irradi emisora, kirol lehiaketak, aldizkariak prestatu eta zabaldu...) eskainiz gero, pertsona hauek ardura eta erantzunkizun handiagoa hartzen dute, eta horiek bide egokiak izan daitezke haien eskariak jasotzeko.

39. Espetxeetan dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatu, eta parte hartzeko prest dauden erakunde eta kolektiboan lankidetzara bultzatu.

Txostenean nabarmendu denez, badira akats batzuk kirol instalakuntzetan eta ekintzak antolatzeko erabil daitezkeen baliabide ekonomikoetan. Beharrezkoa da akats horiek konpontzeko bideak ipintzea.

Baina badira beste muga batzuk ere (ekintzak aurrera eramateko ardura duen pertsonalean, adibidez), borondatezkoen talde eta elkarleen partaidetza aktiboarekin konpon litezkeenak. Jakina, hori lortzekotan, ate zabaleko politika eta espetxearen eta eragile sozialen arteko lankidetzara bultzatu beharko dira.

40. Espetxe barruan egiten diren kultureta kirolekintzen eta biztanleria osoari eskaintzen zaizkionen arteko lotura handiagoa lortu.

Gure Erkidegoko herri-erakundeek (aldundiek, jaurlaritzak, udalek...) aintzat hartu beharko lituzkete espetxeak, beraien egitarauak antolatzean eta beraien ekintza eta zirkuituak planifikatzean. Gainera, dirulaguntzak banatzeko egiten dituzten deialdiak zentroetara ere iritsi beharko lirateke.

Beste alde batetik, oro har gizarteko pertsonentzat antolatzen diren kirol eta kultur ekitaldietan presoek ere parte hartzeko aukera bultzatu beharko litzateke, batez ere espetxeetatik gertu egiten direnetan.

3.2.5. OSASUN LAGUNTZAREN ALORRARI BURUZKO GOMENDIO BEREZIAK

Garbi utzi nahi dugu gaur egungo espetxeetan alor honek garrantzi benetan handia duela hainbat arrazoiengatik: preso multzoaren ezaugarri sozio-sanitarioengatik; haren helburuengatik (osasuna eta bizitza); dauden beharrei erantzun egokia emateko batzuetan egoten diren arazo teknikoengatik, etab.

Nolanahi ere, duela gutxi, ikerlan hau egiten ari ginen bitartean hain zuzen, osasun laguntzaren alorrerako hitzarmen bat izenpetu dela eta -Osasun Sailaren, Osakidetza eta Erakunde Penitentiarioetako Estatu Idazkaritzaren artean-, itxaropentsu egoteko motiborik ere badago, espero izatekoa baita hitzarmen horri esker dexente hobetu ahal izango dela kartzeletako presoek osasun eta higieine goera.

Beste alde batetik, gogoan eduki behar da Ararteko erakunde honek, preso kopuru handi samarraren eskari bati erantzunez, **droga arazoari buruzko zenbait gomendio eta iradokizun** egin zituela orain dela gutxi, kartzeletako gaur egungo egoeran presoentzat dauden arriskuak gutxitzen laguntzeko asmoz. Gomendio eta iradokizun horiek joan den abenduaren 1ean eman genizkien erakunde arduradunei, eta txosten honetako dokumentu osagarri batean jasota daude. Hala, bada, dokumentu horretan azaldutako datuak kontuan izatea beharrezkoa da, ondo ulertu ahal izateko jarraian osasun laguntzaren gainean egitera goazen gomendioak.

Hortaz, ezer alferrik ez errepikatzeko, eta testua argiagoa egitearren, horren inguruko gomendio bakar bat ekarri dugu hona, dokumentu osagarri horretako iradokizun eta proposamen berezien multzoa nolabait jasotzeko; ondoren, osasun alorreko beste alderdi batzuei buruzkoak doaz.

Hala, bada, Arartekoak honako gomendio hauek egin nahi ditu, pertsona guztiak daukaten osasun eskubidearen alde, kontuan izanik Administrazioak erantzunkizun berezia daukala askatasunik gabe dauden pertsonen osasuna eta bizitza zaintzeko orduan:

41. Erakunde arduradun guztiak ahalik eta interesik eta premiarik handienaz hartu behar dituzte aintzakotzat Arartekoak joan den abenduaren 1ean egindako proposamen eta iradokizunak, kartzeletako drogamenpekotasunak eragiten dituen egoera batzuei erantzuteko eta horri lotuta dauden gaisotasunak -HIES, esaterako-kutsatzeko arriskuari aurre egiteko.

Txosten honi erantsita doan dokumentu osagarrian egiazta daitekeen bezala, gure iradokizun eta proposamen horiek:

. gure Erkidegoko espetxeetako droga-kontsumoaren inguruko egoera orokorra, eta xiringa berbera pertsona batek baino gehiagok erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen gaisotasun kutsagarriak gertatzeko aukera handia aztertu ondoren eginak dira;

- . erakundeen ekimenak zuzentzeko irizpide eta jokabide batzuk planteiatzen dituzte;
- . halako egitarau batzuk, bai terapeutikoak eta bai arriskuak gutxitzeko helburua dutenak, abian jarri edo zabaltzeko beharra erakusten dute; esate baterako: **tratamendu alternatiboak, metadona eskaintzea, xiringa berriak ematea lehenago erabilitakoen orde, osasunerako eta prebentziorako ikasketak ematea, baldintzapeko askatasuna onartzea gaisotasun sendaezinak dituzten presoei...**;
- . egitarau horiek emaitza onak edukitzeko, hainbat erakundek eta gizarte-eragilek ere parte hartu beharko dutela erakusten dute.

Ikus dokumentu osagarria: «*Kartzela barruko droga-kontsumoari eta gaisotasun infekziosoen kutsapenari buruz Arartekoak egindako proposamen eta iradokizunak*».

42. Presoen osasun beharrei erantzuteko lanean (kartzela barruan eta kanpoan) parte hartzen duten zerbitzu desberdinen elkarlana hobetu.

Gaur egun, kartzela barruan eta kanpoan, sare desberdinetakoak diren hainbat zerbitzu dira alor honetan parte hartzen dutenak:

- . espetxe bakoitzeko sendagile-taldea, Erakunde Penitentiarioen menpe dagoena;
- . drogamenpekotasunaz arduratzen den lantaldea, Justizia Sailaren menpekoa;
- . Erakunde Penitentiarioekin egindako kontratuagatik edota erakunde horrek ordainduta, edota beste ekimen batzuen barruan, kartzelara joaten diren sendagile adituak;
- . osasun-talde ambulatorioak, Osakidetzaren menpekoak;
- . ospital-taldeak, Osakidetzaren menpekoak, hauek ere.

Kasu askotan, berez sortuz joan diren beharrei erantzuteko hasi dira lanean zerbitzu horiek, eta, oro har, kartzeletan ematen den osasun laguntzaren hobekuntza lortu dutela esan daiteke.

Kartzeletako biztanleentzat osasun laguntzarako eredurik onena zein den eztabaidatu gabe -nahiz eta eztabaida hori guztiz beharrezkoa izan-, gomendio honen bitartez bai azpimarratu nahi dugu beharrezkoa iruditzen zaigula zerbitzu horien guztien elkarlana hobetzea, gutxienez, eta horretarako beharrezkoa dela administrazio arduradun guztien arteko adostasuna lortzea. Seguru aski, erantzun orokorra eman beharko zaie presoen osasun arazoei, zerbitzu hobea eskainiz eta gizarte osoarentzat dauden osasun baliabideak aprobetxatuz. Hori lortuz gero, beste era batera aurre egin ahal izango litzaieke gaur egun kartzelen barruan ematen den osasun laguntzan antzeman ditugun muga batzuei (langile, tresneria eta espezializazio falta, etab.)

43. Espetxeetan bertan dauden osasun zerbitzuak hobetu.

Gure ustez, komenigarria da espetxean bertan eskaintzea presoei ematen zaien lehen mailako edo ohizko osasun laguntza. Dena dela, ikuspegi horretatik, beharrezkoa da txosten honetan behin baino gehiagotan adierazi ditugun akats batzuk zuzentzea:

- **eritegiak:** haien kokapena, ohe kopurua eta egoera;
- **osasun alorreko plantilak:** tamaina, egonkortasuna eta lanaldia;
- **kontsultak egin eta osasun laguntza programatua emateko sistemak;**
- historial klinikoan informatizazioa eta **preso bakoitzaren segimendua...**

44. Espetxeetako sendagileen eta osasun langileen egoera profesionala hobetu.

Heziketa alorreko langileen kasuan bezalaxe (ikus heziketa alorrari buruzko 29. gomendia), hiru puntu azpimarratu nahi ditugu:

- haien egoera profesionala argitu (1986ko apirilaren 25eko Osasun Lege Orokorraren 44.1 artikulua, azkeneko bigarren xedapenari dagokionez, jasotako aurrikuspenak aurrera eraman);
- prestakuntza iraunkorra eta garapen profesionala lortzeko aukerak eskaini;
- Osasun alorreko lantaldea espetxeko bizitzan txertatu.

Hitzarmenean espreski jasota dagoen puntua denez gero, osasun langileen **prestakuntza iraunkorra** azpimarratu nahi dugu hemen ere; berez, Osakidetzaaren ardura da hori, baina, txosten honetan azaldu dugun bezala, oraindik ez da aurrera eraman.

45. Arreta berezia eskaini eta beharrezko baliabideak ipini arazo psikopatologikoak dauzkaten presoentzat eta gaisotasun sendaezinak dauzkatenentzat.

Txosten honetan nabarmenduta geratu dira arazo mental larriak dauzkaten pertsonen ospital-laguntza emateko dauden zailtasunak, bai eta Arautegi Penitentiarioko 60. artikulua aplikatuz gaisotasun sendaezinak dauzkatenen kartzelatik irteten uzteko ere.

Dauden alternatibetako bakoitzaren alderdi on eta txarrei buruzko bestelako iritzirik eman baino gehiago, gomendio honekin berriro azaldu nahi dugu premiazkoa dela era honetako egoerei erantzuteko baliabide egokiak ugaltzea. Gauzak zehaztuz, horrek esan nahi du halako ezaugarriak dauzkaten behar adina **ospital-postu** ipini eta **harrerako laguntza-sare bat** osatu behar dela gertatzen diren egoera desberdinei aurre egin ahal izateko.

46. Kartzeletako osasun eta higiene egoera hobeto zaindu.

Orain arte, osasunari dagozkion gauzak aipatu ditugu batez ere. Baina, gure 3. gomendio orokorrean adierazi dugun bezala, badira osasunarekin zerikusia duten beste alderdi batzuk ere, akats handiak dituztenak: guztiek erabiltzen dituzten lekuetako garbitasuna, isurketak garbitzeko sistemak, janariak...

Arartekoak garrantzi berezia eman nahi dio puntu honi, zeren eta osasun alorrerako hitzarmen berriaren arabera Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetzak halako betebeharrak batzuk baitituzte arazo horren kontrolean; hori **lan-esparru berria da euskal Administrazioarentzat**, alderdi hori ez zegoelako jasota 1994an izenpetu zen hitzarmen nagusian.

Hortaz, Erakunde honek **eskari berezia egin nahi die Osasun Sailari eta Osakidetzari**, Erkidegoko espetxeetako osasun eta higiene egoera aldiro zaindu eta kontrolatzeko betekizun horretaz arduratzen has daitezen ahalik eta azkarren, batez ere *«Ingurugiro-osasuna eta janarien kontrola»* izenburuko zatian aipatzen diren puntuei dagokienez, hitzarmen horretako laugarren klausulako 9. atalean jasota dagoen bezala. Atal horren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Administrazioak honako betebeharrak hauek ditu, besteak beste: *«Sukalde eta jantokien egoera zaindu eta ikuskatzea; espetxeoko beste lekuetako osasun egoera zaintzea; janari-manipulatuzaileak eta karnet-prestatzaileak trebatzea; janariak eragindako intoxikazio eta infekzioak ikertzea; instalakuntza hidraulikoak aztertzea; aldiro, edateko ura eta ur zikinak kontrolatzeko analisiak egitea; sendagai hondakinak jaso, tratatu eta suntsitzea.»*

3.2.6. **LAGUNTZA SOZIALAREN ALORRARI BURUZKO GOMENDIO BEREZIAK**

Kartzeletako preso gehienen egoera sozialari buruzko datu argigarri batzuk eman ditugu orain arte txosten honetan. Gehienetan aurkitzen dena langabezia, drogamenpekotasuna, pobrezia, familia apurtuak, bazterkeria, eta abar izaten da.

Hori horrela izanik, laguntza sozialen alorreko ekintzak -bai presoentzat, bai haien familientzat egiten direnak- oso garrantzitsuak dira Legeak sistema penalari ipinitako helburua lortu ahal izateko, hots: presoak bergizarteratzea.

Egia da aipatu ditugun ezaugarri sozial horiek ez direla maila berekoak kolektibo guztietan. Adibidez, hitzarmen nagusian bertan esaten da lehentasunezko arreta emango zaiela drogamenpekoei, emakumei eta gazteei. Ikusiko den bezala, Arartekoak lehentasun horiek beste kolektibo batzuetara ere zabaltzea proposatzen du, ondo baitakigu horrela preso gehienei lagunduko zaiela, gehienek arazo larriak eta laguntza soziala jasotzeko behar handia baitituzte.

Horregatik, bergizarteratze hori lortzeko, Arartekoari beharrezkoa iruditu zaio honako gomendio hauek egitea:

47. Presoentzako eta beraien familientzako laguntza soziala emateko dauden giza eta material mailako baliabideak ugaltu.

Gaur egun laguntza soziala behar adinakoa eta eraginkorra izateko dauden arazo eta mugetako batzuk nabarmendu ditugu txostenean, bai preso dauden pertsonentzako eta bai beraien familientzako laguntzari dagokionez.

Oraingo baliabideak ugaltu behar hori, hiru esparrutan nabari da batez ere:

- Espetxeetako **gizarte-langileen plantilan**; izan ere, beraien eginkizunak betetzeko daudenak gutxi dira.
- Pertsonen **harrera egiteko dauden lekuetan**; kartzeletan egon behar duten lekuez aparte, berriro esan nahi dugu kanpoan ere behar direlako horrelako lekuak, baldintzapeko askatasunean daudenek eta familiek erabiltzeko.
- Harreman pertsonalari **eskaintzen zaion denbora**. Plantilak handituz eta orain langileok egin behar izaten dituzten lan burokratikoak arinduz, harreman zuzenagoa eta jarraituagoa lortu eta zerbitzuko ordutegia zabaldu egingo litzateke (kontuan izan kasu askotan presoek familiekin edukitzen duten kontaktu bakarra bisita-egunak aprobetxatuz egiten direnak direla, asteburuetan normalean).

48. Laguntzarako dauden sare desberdinen arteko elkarlana hobetu.

Aurreko gomendioan egin dugun aukera espetxe barruan laguntza soziala emateko lanetan diharduen pertsonala gehitzea izan da. Neurri hori beharrezkoa da berez, baina gainera zerbitzu sare ohizkoak (penitentiarioa ez denak) eskaintzen dituen laguntza aukerekin loturik egon behar du; bestela esanda, oinarrizko zerbitzu sozialek, zerbitzu anbulatorioek eta kanpoko beste ahalbide horiek hobeto aprobetxatu behar dira.

Zer esanik ez, preso dauden pertsona asko urrutiko lekuetatik iritsitakoak izaten direnez gero, are zailagoa izaten da beharrezko elkarlana; bestalde, hori beste arrazoi bat da kartzela zigorrak norbere bizilekutik hurbileko espetxeetan bete daitezela proposatzeko (ikus bosgarren gomendio orokorra). Nolanahi ere, laguntza sare koordinatu bat osatuz, etekin handiagoa aterako litzateke gaur egun dauden baliabideetatik, eta profesionalen harreman pertsonaletan nagusi izaten den borondate on hutseko eskemak gainditu ahal izango liriateke, batzuetan ez baitago beste eskemarik.

49. Baldintzapeko askatasunean daudentzako eta beren zigorra zentro alternatiboetan betetzen ari direnentzako laguntza handiagoa lortu.

Gutxienez, hiru dira beren zigorra espetxetik kanpo betetzen dituzten kolektiboak -edo hiru egoera desberdin daude, bestela esanda-, eta horiei,

beraz, arreta berezia eskaini behar diete laguntza soziala emateko dauden zerbitzuek. Honako hauek dira:

- . **beren zigorra zentro alternatiboetan betetzen dituztenak** (kasu gehienetan, drogamenpekotasunari uzteko prozesuetan sartuta);
- . **gaisotasun sendaezinak dituztenak**, baldintzapeko askatasunean, Arautegi Penitentiarioko 60. artikulua dioenari jarraituz;
- . **baldintzapeko askatasunean egonda**, lanpostua lortzeko edo laguntza soziala eskuratzeko arazo handiak dauzkatena.

Argi dago kolektibo hauei behar bezalako arreta eman ahal izateko, beharrezkoa dela **kartzelatik kanpo ere lan egitea**. Kanpoko lan hori ohizko sareetako langileek har lezake beren gain, edota, bestela, espetxeetako pertsonalak berak; kasu honetan, erraztasunak eman beharko litzaizkieke kartzelatik kanpoko lan hori aurrera eramateko, gaur egun dauden arazo batzuk konponduz.

50. Pobrezia latzean bizi direnentzat dauden diru-partidak eta laguntza-egitarauak handitu.

Preso askoren eta beraien familien kasua da hau. Horregatik, gomendio honetan aipatzen ditugun diru-partidak eta laguntza-egitarauak hainbat dira: gizarteratzeko soldadak (gizarteratzeko gutxienezko dirusarrerak), bidai gastuetarako dirulaguntzak (bisitak, baimendutako irtenaldiak, kartzelatuak...), telefono-elkarrizketak egiteko erraztasunak...

Gutziz larria iruditzen zaigu aipatu diren partidak edo egitarau horietako batzuk, dirutan handitu ordez, gutxitu ere egin izana.

Berriz ere gogoratu nahi dugu hemen **familia ingurutik urrun egoteak** -berez familientzako zigorra izateaz gainera- **pertsona pobreen eskubide batzuk eragozten dituela**, esate baterako senitartekoekin aldiro harremanak eduki ahal izatea.

51. Atzerritarrak eta behartsuak lehentasunezko laguntza soziala eman beharreko kolektiboen artean sartu, eta neurri bereziak hartu hitzarmenean jasota dauden lehentasunak benetan gauzatu ahal izateko.

Gogoan izan behar da hitzarmen nagusiak hiru kolektibo sartzen dituela lehentasunezko laguntza eman beharrekoen artean: **drogamenpekoak, emakumeak eta gazteak**. Gure aldetik, antzeman ditugun arazoak ikusita, gure gomendio honen bidez planteiatzen dugu beste bi kolektibo sartzea aurrekoen artean: **atzerritarrak** eta **behartsuak**.

Gainera, berriro esan nahi dugu kolektibo hauentzako neurri eta egitarau bereziak ipini behar direla martxan, hori baita lehentasun horiei erantzuteko era bakarra, asmo-azalpen hutsean geratu nahi ez bada.

Dena dela, halako kolektibo bati lehentasunezko arreta eskaini behar zaiola esaten denean, kontutan izan behar da kasu askotan arreta hori banan-banan eman behar dela, hau da, preso bakoitzari. Izan ere, alde batetik, kolektibo horietan kartzeletako preso gehienak daude sartuta, eta horren arabera «denak» izango lirateke lehentasunezkoak. Beste alde batetik, ezin da ahaztu pertsona batzuek lehentasuna eskatzen duen egoera bat baino gehiagoren ezaugarriak dituztela: emakumeek, gazteek, atzerritarrek, behartsuek...

Orain aztertzen ari garen laguntza sozialaren alorrean, emakume multzo osoak dauzkan arazo eta beharrez gain, **ume txikiez arduratzen diren emakumeenak** azpimarratu beharra dago. Euskal Erkidegoko hiru espetxeetako bakar batean ez dago amak beren umetxoekin bizi ahal izateko gutxienezko baldintzarik, eta beraz Legea ez da betetzen; horregatik, beste espetxe batzuetara aldatu beharra egoten da. Beste alde batetik, ahalik eta erraztasunik handiena eman behar zaie pertsona hauei espetxetik kanpo komunikatzeko, eta espetxe barruan gertatzen denean, umeentzat egoki eta ulergarri diren baldintzetan komunikatzeko.

52. Gizarte eragileek laguntza lanetan duten partaidetza kemen handiz bultzatu.

Laguntza sozialaren barrukoak izan ohi diren zereginetako batzuk (adibidez, gaisotasun sendaezinak dituztenei laguntzea, edo autolaguntza taldeetan parte hartzea) oso interesgarriak izan daitezke borondatezkoentzat. Horrek ez du esan nahi Administrazioari dagozkion betekizun horiek pertsona horien gain uztea, baizik eta haiekin elkarlanean aritzea. Horregatik, espetxe barruan zein kanpoan egiten diren ekintzetan borondatezkoen parte hartzeari ahalik eta bultzadarik handiena ematea proposatzen dugu, lan hauek profesionalizatu beharra eska dezaketela ahaztu gabe.

3.2.7. ERREGIMEN IREKIARI BURUZKO GOMENDIO BEREZIAK

Gaur egun, kartzela zigorra betetzen ari den pertsona bati hirugarren gradu penitentiarioa ezartzen zaionean, aukera dauka erregimen irekia deitzen denaz gozatzeko. Pertsona horietako batzuk egunero ateratzen dira espetxetik kanpoan lan egiteko edota sendabide-tratamenduren bati jarraitzeko..., baina gauero kartzelara itzuli behar dute lo egitera. Beste batzuk, kanpoan lanik ez dutenek, astean kartzelan egon eta asteburuan baimenarekin irteten dira. Eta, azkenik, badira beste pertsona batzuk, beren zigorra zentro alternatiboetan betetzen dutenak, normalean drogamenpekotasunari uzteko zentroetan.

Nabamenak eta jakinekoak dira erregimen irekiak gizartearekiko zuzeneko harremanak errazteko eskaintzen dituen aukerak. Horregatik, argi dago erregimen irekia oso lanabes garrantzitsua dela presoak bergizarteratzeko. Gure legeria penitentiarioak egoerarik desiragarriena eta zabaldu beharrekoa irizten dio,

kartzela zigorrek presoak bergizarteratzeko eduki behar duten helburuaren ildotik. Alabaina, planteiamendu hau ez dator bat gure zentroetan aurkitu dugun errealitatearekin: gaur egun, Erkidegoko espetxeetan preso daudenen artetik %15 baino ez daude erregimen irekian. Portzentaia hori are apalagoa da Langraizko kartzelan (%6), eta dexente jaitsiko litzateke Basauri eta Martutenen, haietan dauden intsumiso preso gehienak hirugarren graduan sartuta ez baleude.

Hortaz, kartzela zigorra erregimen irekian betetzeko aukerak benetan gehiago izan daitezten, erakunde honek ondoko gomendioak egin nahi ditu:

53. Espetxeetako atal irekietako baldintzak hobetu, batez ere Langraizko Espetxearen kasuan.

Gomendio honek proposatzen dituen hobekuntzak honako hauek dira, batez ere:

- **atal irekien kokapena** (gaur egun kartzela barruan daude, baina hobe litzateke kanpoan egotea eta independentzia handiagoa edukitzea gainera: pisuak, egoitzak...);
- espetxe bakoitzeko pertsonalak (hezitzaileek, gizarte laguntzaileek, etab.) **atal honi eskaintzen dion lan-denbora;**
- **atalaren beraren egoera eta antolakuntza** (sarrera-aukerak, ordutegiak, ekintzak...).

Gogora dezagun **ez dagoela atal irekirik emakumeentzat**, eta beraz emakumeak egoera okerragoan daudela, eta hori kaltegarria dela beraientzat.

54. Era ezberdinetako egoera pertsonalei erantzun nahi dieten bestelako tratamendu egitarau batzuk abian jartzeko behar diren baliabideak berehala bilatu.

Gaur egun, erregimen irekiak bi zutabe ditu: atal irekia, eta drogamenpekoentzako sendabide-etxeak. Baina baliabide gehiago eta era gehiagotakoak (**eguneko zentroak, hiesdunentzako egoitzak, harrera-pisuak...**) ez daudenez gero, pertsona askok ez daukate erregimen irekia lortzerik.

Bide alternatibo horien falta azpimarratu beharra dago. Are gehiago kontutan hartzen badugu haietako batzuk lehenago martxan egon direla baina gaur egun bertan behera utzita daudela (adibidez, Donostiako harrera-pisuak, edota Gasteizen emakumeentzat zegoena).

55. Hirugarren graduan daudenei lanean aritu ahal izateko baldintzak erraztu, eta «lan» bezala beste zeregin batzuk ere hartu.

Gomendio honetan, elkarki lotuta dauden bi egoera bildu ditugu:

- Batetik, lanean aritzeko baldintzak erraztu behar zaizkie hirugarren graduan dauden pertsonari. Horretarako, **ordutegi malguak antolatu**,

bidaiatzeko laguntza eman eta enplegua sustatzeko neurriak hartu beharko dira, gutxienez.

Langraizko kasuan, kontutan izanik hiriburutik urrun samar dagoela, Arartekoak honako neurri hau proposatzen du: espetxea eta Gasteiz arteko autobus lerro bat jartzea martxan, baita ordutegi mugatuarekin bada ere.

- Bestetik, proposatzen dugu «lanen» artean (hau da, espetxetik irteteko aukera ematen duten lanean artean) beste zeregin batzuen ere sartzea, hala nola beste pertsona batzuk zaintzea, etxeko lanak egitea edo ikastea (heziketa alorreko 31. gomendioan esan dugun bezala).

56. Elkarte, talde eta bestelako erakundeen elkarlana bultzatu eta haien partaidetza aktibo eta sistematikoa errazteko bideak ipini.

Izan ere, gaur egun erregimen irekiak ematen dituen ahalbideetako asko erakunde horien partaidetzari zor zaizkio, haien sendabide-etxeak edota laguntzarako lanpostuak eskaintzen baitizkiete presoei.

Gizarte barruko sare horiek hobetzea oso garrantzitsua da, ez bakarrik ematen dituzten alternatibengatik, baina baita ere nolabaiteko lokarri lana egiten dutelako pertsona horien eta gainontzeko gizartearen artean.

Elkarte, talde eta erakunde horien elkarlana lortu ahal izateko, beharrezkoa da **baliabide ekonomiko gehiago edukitzea** haientzat, bai eta **haien partaidetza suspertzeko tresnak eskaintzea** ere (lantaldeak, batzordeak, kontseiluak...), hartzen diren erabakietan eta Administrazioak sustatzen dituen egitarauetan parte hartzeko modua izan dezaten.

57. Ametzagaña Unitatearen gaur egungo egoera aztertu, hobeto aprobeztatu ahal izateko.

Txosten honetan aditzera eman dugun bezala, gazteentzako unitateak -antolaketari dagokionez, hurbileko Martuteneko kartzelaren ardurapean dago eta Ametzagaña Fundazioak gestionatzen du- egoera eta zerbitzu oso egokiekin batera, baditu halako muga batzuk ere, batez ere bere **kokapenagatik** eta **hartaz baliatu nahi duten gazteei ipintzen zaizkien baldintzengatik**. Horregatik, Ametzagañarekin dagoen hitzarmen bereziaren baldintzak aztertzea proposatzen dugu, eskura dauden postuak hobetu aprobeztatu ahal izateko.

Ametzagaña Unitateari buruzko gomendio berezi honek dioena betetzearekin batera, inolako arazorik ez du egon behar gazteentzako zerbitzu berri gehiago ere martxan jartzeko (emakumeentzat eta gizonentzat), beste probintzietan (Araba eta Bizkaian), pertsona multzo horren ezaugarrien eta gehienen jatorriaren arabera.

3.3. AZKEN GOGOETAK

Arartekoaren txosten berezi honekin Euskal Erkidegoko kartzelen egoera zein den jakinarazi nahi diogu gizarteari. Txosteneko zati bakoitzak helburu horri erantzuten dion ekarpen bat egiten du: besteak beste, halako azterbide baten azalpena, kartzeletako arazoan azalpen zehaztua, horri buruzko ikuspegi desberdinak, arazo horien sustrai sakonei buruzko azterketa edo diagnostikoa, lehen-tasuna duten ekintza-lerro batzuen zehaztapena, preso dauden pertsonen bizibaldintzak hobetu eta haien eskubideak errespetarazteko gomendio batzuen proposamena...

Dena dela, ezin da ahaztu era honetako txosten batek halako muga batzuk ere badituela. Haietako batzuk erabili den metodologiaren ondorio dira. Beste batzuk, ordea, Arartekoa bezalako erakunde eskubide-bermatzaile batek beti dituen mugen ondorio. Gure eginkizuna Administrazioaren iharduera **zaintzea** eta pertsonen eskubideak **babestea** da. Eta Administrazioaren betekizuna, aldiz, legeak betetzen eta eskubide horiek errespetatzen dituen politika penitentiarioa **prestatu eta aurrera eramatea**. Hortaz, **hemengo gomendioak egitarau edo ekintza zehaztutan jasotzeko betekizuna administrazio arduradunei dagokie**.

Bat baino gehiago dira gure kartzeletako egoera eta han aurkitzen diren arazoan konponketa ikuskatzeko nola edo halako aginpidea duten administrazio edo erakundeak. Batez ere, alde batetik, **Estatuaren administrazio penitentiarioa eta Herri-Defendatzailea**; eta, bestetik, **Eusko Jaurlaritza**, eta bereziki haren **sail** batzuk (**Justizia, Osasuna, Hezkuntza**). Baina alor honetan badute ardurarik, nahiz eta txikiagoa izan, bai **foru aldundiek** (Gizarte Ongizatea) eta **udalek**, bai beste erakunde batzuek ere, hala nola **botere judizialak** eta **abokatu bazkondeak**.

Arartekoak erakunde eta administrazio inplikatu guztiei bidaliko die txosten hau. Baina gainera konpromezua hartzen du **euskal administrazioei** eskatzeko -dagozkion ofiziozko espedienteen bitartez eta bere aginpide-esparruaren barruan-txosten honetan bildu diren gomendioak bete ditzatela dagokien neurrian. Era berean, konpromezua hartzen du gomendio horien betetze-mailaren segimendua egiteko eta hurrengo txostenetan horren berri jakitera emateko.

Bukatzeko, **eskerrak** eman nahi dizkiegu txosten hau osatzen lagundu diguten pertsona, erakunde eta elkarte guztiei, eta berriro ere euskal gizartearen eta bere erakundeen **konpromezuari dei egin** nahi diogu, bete-betean uste dugulako giza eskubideak errespetatuz aurrera egin nahi badugu, **penitentiarioa dena gutxitu** eta kartzela bera ere -bai eta eragiten duen giza kostua ere- behar-beharrezkoa den mailaraino mugatu beharko dela.

DOKUMENTU OSAGARRIA

KARTZELA BARRUKO DROGA-KONTSUMOARI ETA GAISSUN INFEKZIOSOEN KUTSAPENARI BURUZ ARARTEKOAK EGINDAKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUNAK

Vitoria/Gasteiz, 1995eko abenduak 1

Agur t'erdi:

Joan den urriaren 19an, erakunde honek Martuteneko espetxera bisitaldi bat egin zuen, hango presoekin elkarrizketa batzuk egitearren; egun hartan, intsumiso taldearen ordezkari bat elkarrizketara etorri zen eta ondoko egunetan Presoen Zaintzarako Epaille andreari aurkeztu behar zioten errekurso-kexa baten kopia eskuratu zigun; dokumentu horretan, kartzeletara xiringak sartzea debekatzen duten barne-arauak aldatzea eskatzen zen. Kexarekin batera, txosten zabal bat ere bazegoen, bai eta Basauri, Langraitz, Iruñea eta Martuteneko espetxeetako ehundaka presoren sinadurak ere, haien adostasun seinale gisa. Bestalde, eskari bat egin zioten Arartekoari, txostenari erantsitako gutun batean: alegia, dokumentazioa irakurri eta ahaleginak egin zitzala haren berri zabaltzeko eta haien proposamenak aurrera ateratzen laguntzeko. Antzeko eskaria egin ziguten kolektibo bereko beste ordezkari batzuek, Basauri eta Langraizko espetxeetan geroago elkarrizketa egin genienean.

Beste alde batetik, joan den uztailetik hona, erakunde honek hainbat bisitaldi egin ditu gure Erkidegoko espetxeetako presoen egoera hobeto ezagutzeko eta hobekuntzak proposatzeko asmoz. Ikustaldi horietan, hiru espetxeetako ehun preso baino gehiagorekin hitz egin dugu, eta solasaldi horietako gehienetan azaltzen zen drogaren arazoa, eta, batez ere, kartzelan xiringa gutxi dagoenez gero, gaisotasunak kutsatzeko arriskua; haien ustez, hori da kartzeletako arazo latzenetariko bat. Batzuek arazo pertsonala dela uste dute, baina beste batzuek, aldiz, lekuko gisa ikusten duten arazoa, egunero aurkitzen dutena haien ondoan.

Egindako elkarrizketa ugarietan jaso dugun informazioaren arabera, honi dagokionez, gure Erkidegoko espetxeetako egoerak honelako ezaugarriak ditu:

- . kartzeletan droga ugari dago;
- . nahiko erraza da droga eskuratzea;

- . preso asko drogaren inguruko arrazoiengatik daude kartzelan;
- . kartzela barruan, asko dira droga kontsumitzen jarraitzen duten presoak, kasu askotan zainetatik sartuz; hau da, asko dira zainetaratu egiten den droga kontsumitzen duten presoak;
- . presoen arteko portzentaia handi samarra HIESduna da;
- . preso hauek oso xiringa gutxi daukate, eta horregatik dauden apurrak elkarbanatu eta behin eta berriz erabiltzen dituzte, edota droga zainetaratzeko sistema txar eta arriskutsuagoz baliatzen dira;
- . erabilera horien ondorioz, gaisotasun infekziosoak (HIES, hepatitis, tuberkulosia...) kutsatzeko arrisku handia dago, batez ere kontuan hartuz kartzeletako masifikazioa eta haietan aurkitzen den osasun eta higiene egoera;
- . egoera horren eraginez, presoen arteko harremanetan ere arazoak sortzen dira (presioak, mehatxuak, borrokak...);
- . egitarau alternatiboetan edo arriskua gutxitzeko egitarauetan (metadona...) parte hartzeko arazoak daude.

Eman dugun ikuspegi honetan hainbat zehaztasun sar genitzake, aldeak baitaude kartzela batetik bestera, bai eta espetxe beraren barruko modulo batetik bestera ere. Dena dela, jaso ditugun lekukotasun guztiak bat etorri dira esan dugun honetan, eta ez bakarrik elkarrizketatu ditugun presoek berek eman dizkiguten azalpenak, baina baita espetxeetan lan egiten duten profesionalek (sendagileek, hezitzaileek, terapeutek...) emandakoak ere.

Bestalde, garbi dago nolako zailtasunak dauden kartzela bezalako leku batean xiringak sartu edo trukatzeko egitarau bat aurrera ateratzeko, behar den bezalako zabaltasunarekin gainera. Horretarako lege edo arau aldetik dauden arazoak, bai eta era honetako ekimen baten alde on eta txarrak behin baino gehiagotan jorratu ditugu Ararteko erakundeko kideek gure Erkidegoko hiru espetxeetako lantalde profesionalekin egin berri ditugun bilera eta eztabaidetan.

Dena dela, arazoak nabarmentzen diren bezala, garbi utzi behar da kartzela bezalako erakunde itxi batek aukera egokia eskain dezakeela osasun eta gizarte laguntza emateko beraren ezaugarri soziodemografikoengatik gabezia handiak izan dituen pertsona multzo bati (gehienak gazteak dira, ikasketarik gabeak edo kultur ezagutza gutxiak, lanik gabeak, famili arazoak dituztenak, etab.). Egoera latz horietan bizi diren pertsona horietako askorentzat, kartzela zenbait egitarau ezagutu eta haietan parte hartzeko eduki duten lehen aukera izan daiteke, edo beharbada tratamendua jasotzeko edo beraien osasunerako arrisku gutxiagoko ohiturak berenganatzeko aukera bakarra.

Izan ere, kartzeletan xiringak banatzea ez da berez helburu bat, bitarteko bat baizik, jakina; hau da, kartzelan dauden pertsonen osasuna zaintzeko eta

zenbait ohiturak dauzkaten arriskuak ahalik eta gehien murrizteko modu bat, hori baita lortu nahi den helbururik funtsezkoena.

* * * * *

Horiek horrela, ez dugu eztabaidatzen hasi nahi espetxeak drogarik gabeko leku bihurtzeko aukerarik badagoen ala ez, edo hori komeni den ala ez, batez ere gure kartzeletako egoera zein den jakinda; gainera, ondo dakigu eragin handiko arazoa dela hau -jende asko ukitzen duelako, eta funtsezko eskubide batzuk (osasuna eta bizitza) jokoan daudelako-; horregatik, Ararteko honek arazo honen irtenbidea bilatzen lagundu nahi du, eta horretarako honako gomendio eta iradokizunak egiten ditu:

1. Presoentzat egiten diren ekintza guztiek zintzotasun osoz errespetatu behar dute **osasun eskubidea**, pertsona bati ezin baitzaio eskubide hori mugatu kartzelan dagoelako, Konstituzioko 15. eta 25. artikuluek dioten bezala; eskubide hori pertsona guztiek dute, eta, beraz, baita drogamenpeko edo HIES gaitza dutenek ere, eta horregatik pertsona horiek eskubide osoko hiritartzat hartu behar dira, berez horixe direlako.
2. **Presoen bizitza eta osasuna zaintzea** administrazio penitentiarioaren betebeharra da ezer baino lehenago, Lege Penitentiario Orokorren hirugarren artikulua dioen bezala.
3. Arazoaren handitasuna eta dauden baliabideen urritasuna ikusita, konponbidea ezin da sistema penitentiarioaren gain bakarrik utzi; aldiz, **hainbat administrazioen ahalegin bateratu eta osagarria behar da** (osasun eta gizarte alorretakoena, autonomikoena), **eta gizarteko beste maila batzuen lankidetzaren handia ere** (governuz kanpoko erakundeena, esate baterako).
4. Presoen osasun eskubidea benetan gauzatzeko modua egon dadin, eta kartzeletan drogarekin eta HIES gaitzarekin dagoen arazoaren erantzun gisa, Munduko Osasun Erakundeak (Kartzeletan HIES gaitzari aurre egin eta kontra egiteko neurriei buruzko kontsentsu-bilera. Geneva, 1987ko azaroak 16-18; eta Global Programme on AIDS. Who guidelineez on HIV infection and AIDS in prisons. Geneva, 1993ko martxoa) jarritako irizpideei jarraitu behar zaie, egitarau eta bitarteko jakin batzuk abian jarri, beti ere kontutan hartuz ondoko irizpide nagusia: **«Nazio bakoitzean HIES gaitzaren aurka antolatzen diren egitarauetako jarraibide orokorrak komunitate guztiarekin bezala aplikatu behar dira kartzeletan»**. (Adostutako adierazpenaren c. atala.)
5. Jakina den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan **prebentziozko egitarau alternatibo batzuk jarri dira martxan** azken urte hauetan, droga-

kontsumoak eta gaisotasun kutsagarrien hedapenak dakartzaten **arriskuak gutxitzeko**: esate baterako, metadona kontrolpean banatzeko egitaraua, edo xiringak trukatzekoa.

6. Gure Erkidegoan aurrera eraman diren egitarau horien garapenari buruzko **balorazio orokorra** -egitarauen ardura izan duten erakundeek berek jakinarazia-, bai eta lortutako emaitzei buruzkoa ere, oso **positiboa** izan da, eta horregatik beste esparru batzuetan -kartzelan, adibidez- ere sartu edo zabaldu beharko lirateke egitarau horiek.
7. Gure artean egin diren ikerlan guztien arabera, **xiringak elkarbanatzea** gaur egun HIES gaitza eta beste gaisotasun batzuk odolaren bidez kutsatzeko **arrisku-faktorerik handiena** da; horregatik, Arartekoaren ekimen hau eragin duen proposamena bezalakoak kontutan hartu eta aztertu egin beharko lirateke gutxienez.
8. **Kartzelan xiringak trukatzeko egitarau bat martxan jartzeko aukera ezin da aldeztetik baztertu**, Munduko Osasun Erakundeak aitortzen duen bezala, honakoa esaten duenean: hots, «segurtasun neurri hain zorrotzak ez dauzkaten espetxe batzuen kasuan, komenigarria izan daiteke orratz hipodermiko esterilizatuak banatzeko aukera aztertzea».
9. Era horretako egitarau bat martxan jartzeko orduan, ondo ateratzeko **baldintza guztiak zaindu eta behar diren bitarteko guztiak ipini behar dira**: zentro barruko harremanen ezaugarriak, kartzela inguruko biztanleentzako informazioa, lantalde profesionalen partaidetza, erakunde laguntzaileen elkarlana, egitaraua burutzeko baldintza esperimentalak...; hori dela eta, beharrezkoa izan daiteke fase desberdinetan zehar banatzea, edota esperimendu gisa ekitea egitarauari, baina hori ezin da egitaraua baztertzeko aitzakia moduan erabili, hura abian jarritz bakarrik jakin baitaiteke nolako emaitzak dauzkan.
10. Gure datuen arabera, **Martuteneko kartzelak** dituen ezaugarriengatik (tamaina, presoentzako tipologia, harremanak, lantalde profesionalen jokamoldea, baliabideak, gizarteko kolektiboen partaidetza...), aukerako lekua izan daiteke xiringak aldatzeko egitarau bat esperimentatzeko; horretarako, barne-arauak aldatu, eta Eusko Jaurlaritzak gaur egun sustatzen duen xiringa-aldaketarako egitarauetan sartu beharko litzateke.
11. Xiringak edota zainetaratze-tresna antzuak erabiltzeko aukera kontutan hartu arren, ezin da ahaztu badirela **beste alternatiba batzuk ere, beharrezkoak direnak eta erabil daitezkeenak kartzelako osasun arazoak gutxitzeko; esate baterako: osasunerako heziketa, drogarik gabeko egitarauak, kartzela zigorra zentro edo baldintza alternatiboetan betetzea (harrera-etxeak, eguneko zentroak, lanpostu babestuetan**

aritzea, famili-harrera...), drogari uzteko eta kalteak murrizteko egitarauak, drogagaiak sendagilearen kontrolpean banatzea, baldintzapeko askatasuna ematea gaisotasun sendaezinak dituztenei...

12. Aukera eta bide horiek erabiliko badira, **informazio** zuzena eman beharko zaie presoei ahalbide horiei buruz, tratamenduak jasotzeko **motibazioa** bultzatu beharko da haien artean, eta **behar diren bitartekoak** ipini beharko dira; izan ere, informazioa, motibazioa eta bitartekoak egotea ezinbesteko baldintzak dira drogamenpekoen partaidetza lortzeko eta legearen arabera kartzela zigorrak izan behar duen bergizarteratzeko helburua bete ahal izateko.
13. Arazo hauek guztiak ezin dira ikuspegi bakar batetik begiratu; **diziplinarteko arreta** eskatzen dute, eta horrek dagokion islada eduki beharko luke espetxeetan lan egiten duten profesionalen arteko elkarlanerako dauden barne egituretan (Drogamenpekotasunei Aurre egiteko Taldeetan edo antzekoetan).
14. Espetxeetako lantalde profesionalaz aparte, **euskal administrazioaren menpeko zerbitzu batzuen eta gizarte barruko beste baliabide batzuen partaidetza ere beharrezkoa da** -elkarlanerako hitzarmenen edo bestelako bideen bitartez-, bai presoen osasun zainketa orokorrari eta gizarte ongizateari begira, bai presoek kartzelaratu aurrean edo ondoan zeuzkaten tratamenduekin jarraitzeko eta haien familiei laguntzeko ere.
15. Era honetako arazoei aurre egin eta horretarako behar diren egitarauak martxan jarri ahal izateko, beharrezkoa da herri-aginteak **gizarte zibila informatu eta kontzientziatzeko lan pedagogikoa egitea, gizartean dauden elkartasunaren aurkako iritzi edo jokamolde batzuk aldatzen laguntzeko.**

* * * * *

Hortaz, kontutan izanda Ararteko honek bete behar duen egitekoa, hau da, euskal hiritarren eskubideak bermatzea eta administrazioak administratuen beharrezkoei ematen dien erantzuna zuzena izan dadin zaintzea, erakunde honek:

1. Azaldu ditugun gomendio eta iradokizun hauek helarazi nahi dizkie Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari eta Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzaren Sailari; orobat, Justizia Ministerioarekin izenpetuta eta indarrean dauden akordioen ildotik, proposatzen die ahalik eta lasterren neurri egokiak har ditzatela, gure kartzeletako oraingo egoerak beraietan preso daudenen osasunerako dakartzan arriskuak murriztu ahal izateko.

2. Herriaren Defendatzaileari ere bidaliko dio txosten berezi hau, Administrazio Penitentiarioari eska diezaion, beharrezkoa iruditzen bazaio, behar diren neurriak hartzea.

ARARTEKOA

Xabier Markiegi Candina

Proposamen hau 1995eko abenduaren 1ean bidali genien erakunde arduradunei. Geroago, horietako gehienek proposamena onartu dutela erantzun diote Arartekoari, eta erakundearteko lantalde bat martxan jarri dela adierazi digute, gure Erkidegoko kartzeletako batean xiringak trukatzeko programa esperimental bat ezartzeko asmoz.

IV. ERASKINAK

I. ERASKINA: ELKARRIZKETETAN INFORMAZIOA JASOTZEKO PROTOKOLOA

Elkarrizketa:

Eguna:

egoera:

- . kultur ekintzak
- . lan ekintzak
- . osasun laguntza
- . janaria
- . higiena
- . leku-aldaketak
- . kirol ekintzak
- . abokatuen laguntza
- . miaketak
- . kontaktak
- . zeldak: intimitatea
- . leku amankomunak

irizpideak:

- . lantokietan aritzeko aukera
- . bisitak
- . aurrez aurreko komunikazioak
- . parteak
- . zelda banaketa/aldaketak
- . diziplina neurriak
- . destinoak

aukerak:

- . erreg. irekiko tratam.
- . lan heziketa
- . kontratazioa (3. gradua)
- . gizarte-baliabideei b. infor.
- . ikasteko erraztasunak
- . lana eta ordainketa
- . drogamenpekoen errehabilitazioa
- . esped. pertsonalari b. infor.
- . sartzean jasotako informaz.
- . partaidetza
- . kritikak, kexak, eskariak
- . zigorrak (defentsa/errekur.)
- . lan kooperatibak
- . ekonomatoaren kontrola
- . familiarekiko harremanak
- . kanpoarekiko harremanak

Interesguneak:

Arazoak, kexak:

balorazioa:

- . familiarentzako giz. laguntza
- . HIES arazoak
- . sariak eta zigorrak
- . ordutegia
- . drogen eskuragarritasuna
- . banda antolatuak
- . funtzionarioekiko harremanak
- . enkargugilearen zerbitzua
- . zaintza-epailea, harremanak
- . epailaren autoak betetzea
- . tratu txarrak
- . presoekiko harremanak
- . ekintzetako partaidetza
- . protestetako partaidetza
- . lanaren balorazioa
- . eskariei emandako erantzuna
- . kartzelari buruzko iritzia
- . proposamenak, iradokizunak

Eman daitezkeen pausoak:

II. ERASKINA: INFORMAZIO ITURRI DESBERDINAK TRIANGULATZEKO AUKERAK

Elkarrizketak Bilerak Hitzarmentzen puntuak	Kartzelako zuzendaria	Beste aukerak Tratamendu taldea	Presoak	Irakasle taldea	Sentagile taldea	GKEak, elkarreak	Beste aukerak
1. Informazio alorra	x	X	x			x	- Abokatu bazkondeak - DGIP (EPZN)
2. Heziketa alorra	x	x	x	X			- Hezkuntza bazkondeak - EHU-UHUN / UBEI / HHI zentroak
3. Lanerako prestakuntza eta enplegu alorra	x	x	x	x			- INEM - Udalak - Aldundiak - Hezkuntza Saila
4. Suspertze pertsonalaren alorra	x	X	x	x		x	- Monitoriak - Udalak - Aldundiak
5. Osasun laguntzaren alorra	x		x		X	x	- Osasun Saila / Osakidetza - Drogamenpekotasunaz arduratzeko taldeak
6. Laguntza sozialaren alorra	x	x	x			x	- Gizarte laguntzaileak - Aldundietako gizarte ongizate sailak - Justizi Saila
7. Erregimen irekia	x	x	x			x	- Ametzagaria segimendu batzordea - Osakidetza
Hizarmenaren alderdi orokorrak	X						- Justizi Saila: Giza Eskubideen Zuzendaritza

III. ERASKINA: ZENTROETAKO ZUZENDARIEKIN PRESTAKETAK EGITEKO BILERAREN ESKEMA

ADIBIDEA: BASAURIKO ESPETXERAKO BISITA PRESTATZEKO BILERA (1995eko irailak 6)

1- LAN PROPOSAMENAREN AURKEZPENA

- . Arazoa planteiatu duten taldeak (kartzela-uzterako plataforma / HIESdunak / atzerritarrak / intsumisoak).
- . Alor penitentziariorako hitzarmen nagusia, ekintza-esparru eta azterketarako iturri bezala.
- . Prestaketa lanak:
 - Justizia Ministerioarekin egindako gestioak;
 - hitzarmen nagusiari buruzko azterketa;
 - bisitarako proposamen metodologikoa prestatu;
 - proposamenaren puntu batzuk eztabaidatu Langraizko Espetxeko langileekin.
- . *Proposamenaren oinarrizko puntuak:*
 - a/**Hiru uneentzako** eta haietako bakoitzean egin beharreko ekintzetarako arreta berezia:
 - bisitaldien aurretik;
 - bisitaldiak egin bitartean;
 - bisitaldien ondoren.
 - b/Bisiten **garapen kronologikoa**;
 - 1. Zentroko zuzendaritzarekin bildu.
 - 2. Instalakuntzak eta ekintzak ezagutu.
 - 3. Ezaugarri desberdinetako presoekin hitz egin.
 - 4. Zentroko langileekin bildu eta hitz egin: tratamendu taldearekin, sendagile taldearekin, irakasleekin, beste funtzionarioekin, zuzendariarekin.
 - c/**Hitzarmen nagusian** jasotako puntuen eta zentroko egoerako **beste gora-behera batzuen** arteko aldeak eta harremanak.

2- ZENTROKO ZUZENDARIAREKIN EGITEN DEN LEHEN BILERAN ZEHAZTU BEHARREKOAK

2.1. Aldez aurretiko datuak lortu

- Presoei buruzko datuak:

- . guztirakoak
- . graduz graduko sailkapena, prebentiboak, erregimen irekia
- . ezaugarri soziologikoak: sexua, adina, ikas-maila, jatorria
- . kondena mota (delituak, denbora...)
- . kartzelaldiko batz besteko denborak (adib.: prebentiboena)

- Espetxearen egitura eta antolaketa-aukerak:

- . barne-sailkapenerako irizpideak (moduloka, atalka...)
- . atal berezien erregimena
- . banakako zeldetan bakarrik dauden presoek kopurua
- . presoak/zeldak ratioa, moduloz modulo

- Instalakuntzei buruzko datu orokorrak:

Edukiera, antzinasuna, egoera orokorra, egoera higienikoa, egindako edo egiteko diren obrak, berokuntza, garbiketa, erabilera maila...

- Espetxeeko presoentzako laguntza **egitarauetan parte hartzen duten elkarte eta kolektiboak.**

2.2. Egutegia finkatu

- instalakuntzak eta ekintzak bisitatzeko;
- presoekiko elkarrizketak egiteko;
- espetxeeko langileekin bildu eta hitz egiteko;
- informazioa «itzultzeko».

2.3. Elkarrizketatuko diren presoak aukeratzeko sistema:

- moduloz modulo egindako zerrendak eta erreferentziatzko tipologiak;
- borondatezkotasuna eta isilpekotasuna bermatu;
- jasotzen duten informazioa zaindu.

IV. ERASKINA: INSTALAKUNTZAK ETA EKINTZAK EZAGUTZEKO ERREFERENTZIAZKO ZERRENDA

1. Instalakuntzak eta zerbitzuak (erreferentziazko zerrenda; X batez markatuta daude hitzarmenaren alorrekin lotura zuzenagoa dutenak):

- X eritegia
- X ikasgelak
- X liburutegia eta irakurgelak
- X ekintza aretoa
- X kirol instalakuntzak
- X aisialdirako instalakuntzak
- X lantokiak: produktiboak / lanerako prestakuntzarakoak / profesionalak
- X atal irekia
- X iragarki taula
 - . modulo desberdinetako zeldak
 - . isolamendu zeldak
 - . modulo guztiak
 - . jantokiak
 - . denda/salgai-biltokia (ekonomato)
 - . presoen lekualdaketetan erabiltzen diren ibilgailuak
 - . telefonoak
 - . erlijio-ospakizunetarako lekuak
 - . patioak
 - . bisita eta elkarrizketak egiteko gelak
 - . mintzatokiak
 - . aurrez aurreko bisitetarako gelak
 - . bisitaldientarako itxarongelak
 - . kanporako informazio saila
 - . dutxak
 - . ileapaindegia
 - . garbitokia
 - . arropategia
 - . zerbitzu higienikoak
 - . galeriak
 - . bulegoak (sarrerak, lekualdaketak, parteak)
 - . funtzionarioentzako instalakuntzak
 - . zaindariantzako instalakuntzak

- * *Behaketarako gaiak: lekuen tamaina, aireztapena, edateko ura, argi naturala, argi artifiziala, berokuntza, kontserbazio egoera, garbitasuna...*
- * *Azterketarako irizpideak: Legeak eta arautegiek ezarritakoak.*

2. Ekintzak:

- . kartzela barruko lantokietan egiten den lana
 - * lantoki produktiboak
 - * lanerako prestakuntzarako lantokiak
 - * lantoki profesionalak
- . heziketa ekintzak (klaseak)
- . kultur ekintzak
- . kirol ekintzak
- . kartzelatik kanpo egiten diren bisita eta ekintzak

V. ERASKINA: PRESOEKIKO ELKARRIZKETAK EGITEKO ERREFERENTZIAK

1. Erreferentzia mota. Laginaren ordezkagarritasuna neurtzeko egoerak:

[Modulo desberdinetan]

- . prebentiboak eta gradu desberdinetako zigorpetuak
- . erregimen irekian daudenak
- . isolatuta edo inkomunikatuta daudenak
- . eritegian daudenak
- . urtean parte asko jaso dituztenak
- . atzerritarrak
- . ETArekin zerikusia dutenak
- . HIES gaitza dutenak
- . gaiso psikikoak
- . gaiso drogamenpekoak
- . intsumisoak
- . ume txikiren bat daukaten amak
- . gazteak
- . zaharrak

2. Uki daitezkeen gaiak (erreferentziak):

egoera:

- . kultur edo kirol ekintzak...
- . osasun laguntza
- . lana
- . janaria
- . lekualdaketak
- . egoera higienikoa (norbere buruaren garbiketarako gaiak dohain jaso...)
- . abokatu laguntza (abokatuekiko harremana)
- . miaketak (duintasunarekiko errespetua)
- . kontaketak (gauzez eginak)
- . zelden egoera: intimitatea
- . instalazio amankomunak

irizpideak:

- . lantokietan aritzeko irizpideak
- . irteteko baimenak onartu edo ukatzeko irizpideak
- . bisitetarako irizpideak
- . aurrez aurreko komunikazioetarako irizpideak
- . parteak egiteko irizpideak
- . moduluak eta zeldak banatu eta aldatzeko irizpideak
- . zigor neurriak hartzeko irizpideak
- . sailkapena egiteko irizpideak
- . destinoak eta lan salbuespenak egiteko irizpideak

aukerak:

- . erregimen irekiko tratamendua jasotzeko
- . lan heziketa jasotzeko
- . kanpoan kontratuak lortzeko (hirugarren gradua)
- . gizarte baliabideei buruzko informazioa lortzeko
- . ikasteko (erraztasunak)
- . lan egiteko eta soldata jasotzeko
- . drogamenpekoak errehabilitatzeko
- . espediente pertsonalari buruzko argibideak jasotzeko
- . kartzelan sartzean informazioa jasotzeko (erregimena, eskubideak, betebeharrak, diziplina arauak, eskariak, kexak edo errekursoak egiteko bideak) (ahoz, idatziz)
- . parte hartzeko (batzordeak, zerbitzuen eta ekintzen gestioan...)
- . kritikak egin edo kexak eta eskariak aurkezteko bideak
- . zigorretan defentsa jaso eta errekursoak egiteko aukerak
- . lan kooperatibak badauden ala ez
- . ekonomatoko salgaien kalitatearen eta salneurriaren kontrola
- . familiarekin harremanetan egoteko
- . kanpoarekin komunikazioak edukitzeko (gutunak, telefonoa...)

balorazioa:

- . senitartekoei ematen zaien laguntza
- . HIES gaitzaren inguruko arazoak
- . sariak eta zigorrak emateko sistema (nolako sariak, nolako zigorrak, zigorrak arindu edo kentzeko irizpideak)
- . ordutegia
- . drogen eskuragarritasuna
- . banda antolatuak badauden ala ez
- . funtzionarioekiko harremanen maila
- . profesionalakiko harremanak (hezitzaileak, sendagileak, laguntzaileak...)
- . enkargugile zerbitzua
- . presoen zaintzarako epailearekiko harremana
- . epaileen ebazpenak betetzeko arintasuna
- . gerta daitezkeen tratu txarrak
- . beste presoekiko harremanak
- . antolatutako ekintzetan dagoen parte hartzea
- . protestaldietan dagoen parte hartzea
- . lan penitentziarioari buruzko balorazioa
- . egiten diren eskariak jasotzen duten erantzuna
- . kartzelari buruzko **ikusmoldea**, erakunde bezala
- . proposamen alternatiboak, iradokizunak...

[Irizpideak: elkarrizketatu bakoitzaren interesen eta mintzamenaren arabera bideratutako elkarrizketa/iritzi guztiak onartzea/proposamenak egin ditzaten bultzatzea/ arazoak konpontzeko itxaropenak galaraztea...]

VI. ERASKINA: ESPETXEETAKO LANTALDE PROFESIO-NALEKIKO BILERETAN LANDU BEHARREKO GAIEN ESKEMA (adib.: tratamendu taldea)

1) HITZARMEN NAGUSIARI BURUZKO BALORAZIOA:

- * Aukerak/ betetze-maila/ baliabideak/ koordinazioa/ gauzatzeko lanabesak...
- * Alor bakoitzari buruzko ikuspegia (1. informazioa/ 2. heziketa/ 3. lanerako prestakuntza eta enplegu sustaketa/ 4. suspertze pertsonala/ 5. osasun laguntza/ 6. laguntza soziala/ 7. erregimen irekia)

2) ELKARRIZKETATUTAKO PRESOEK AZALDUTAKO KEXAK, ARAZOAK ETA PROPOSAMENAK LANTALDEAREN IRITZIA-REKIN ALDERATU

- * Lantalde bakoitzaren ardurapeko alorrari buruz jasotako kexa, arazo eta proposamen aukeratu batzuk.

3) TALDEKIDEEK AURKEZTU NAHI DITUZTEN ARAZO, KEXA EDO HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

- * Tratamendu taldearekin egingo den bilerarako erreferentziazko gaiak:
 - **beraien eginkizun bereziei** buruzko ikuspegia
 - beharrak, eskariak, lan baldintzak
 - lanarekiko konformidade maila
 - presoek tratamenduarekin duten lankidetzeta: tratamendua prestatu eta emateko orduan duten partaidetzeta
 - banakako tratamendu eta diagnostikoak egiteko aukera
 - tratamendurako metodo eta bitartekoak
 - preso bakoitzaren egoeraren aldizkako ikuskapena (gehienez sei hilabetez behin) (tratamenduari buruzko ebaluaketa, sailkapen berria...)
 - beste funtzionarioekiko eta presoekiko harremanak
 - **zigorren** errebisioan duten partaidetzeta
 - barne-sailkapenean, eta lantaldearen, atalaren edo zeldaren banaketan duten partaidetzeta
 - askatasun proposamenetan duten partaidetzeta (epaiketa, «azken pronostikoa»)
 - presoen gradu aldaketan duten partaidetzeta

- erregimen eta administrazio batzarrean duten partaidetza
- batzordeetan duten partaidetza (kultur ekintzetan, kirol ekintzetan, lan ekintzetan, laguntza sozialean...)
- Presoen Zaintzarako Epaitegiarekiko harremanak
- lantaldeak beste zerbitzu batzuekin duen koordinazioa

- presoeri buruzko **ikusmoldea**
- kartzelaren betekizunaz, penaz, diziplinaz... duten iritzia
- berreziketa eta bergizarteratze helburu nagusiak benetan lortzeko aukerak
- presoeri eta askatasunean jarritakoei laguntza eta asistentzia emateko aukera
- lanbiderako hobekuntza lortzeko aukerak
- proposamen alternatiboak eta kartzela idealari buruzko ikusmoldea
- drogaren eta HIES gaitzaren inguruko arazoaren balorazioa
- ordutegien balorazioa
- presoen lanaren balorazioa
- partaidetzarako sistemen balorazioa
- presoen bergizarteratzea lortu nahi duten hiritarren eta elkarteen partaidetzari buruzko iritzia
- kartzelen betekizunak gizartean duen balorazioari buruzko ikusmolde kolektiboa (gizartean zerbitzuari buruz dagoen iritzia)
- erregimen irekiko atalari buruzko iritzia

(Antzeko eskemak erabil daitezke sendagile taldearekin, irakasle taldearekin...)

VII. ERASKINA: PRESOEZ ARDURATZEN DIREN GIZARTEKO ELKARTE, TALDE ETA ERAKUNDEEN ZERRENTA

- ADSIS-Bestalde elkarte (Gizartearen Ekimenezko Zerbitzuen Elkarte)
- AGIPAD (Drogen Abusuaren Prebentzio eta Ikerketarako Gipuzkoar Elkarte)
- Alcohólicos Anónimos
- Ametzagaña Fundazioa (Ametzagaña Pedagogi Zentroa)
- Amnistía Internacional
- Amnistiaren Aldeko Batzordeak
- Andikona elkarte
- Arabako HIES Gaitzaren Aurkako Hiritarren Elkarte
- Arabako Bergizarteratze Erakundea (IRSE-Araba)
- HIESaren Aurkako eta Gaisoen Aldeko Hiritar Batzordea T-4
- Bietxeak elkarte
- Bilbo Etxezabal (atzerritar emigranteak hartzeko elkarte)
- Bitarte elkarte
- Bizitegi (egoera txarrean dauden pertsonen bergizarteratzen laguntzeko elkarte)
- Bizkaiko HIES Gaitzaren Aurkako Hiritarren Elkarte
- Bizkaiko Bergizarteratze Erakundea (IRSE-Bizkaia)
- Cáritas (PAEX)
- D.E.E. (Drogak Eragindakoen Elkarte)
- Deustua-San Inazioko Modulu Psikosoziala
- Etorkintza
- Euskal Kriminologi Erakundea
- Euskal Herriko Giza Eskubideen Aldeko Elkarte
- Foronda elkarte
- Gipuzkoako Bergizarteratze Erakundea (IRSE-Gipuzkoa)
- Gipuzkoako HIES Gaitzaren Aurkako Hiritarren Elkarte
- Gipuzkoako Pelota Federazioa
- Gizabidea
- Gizakia Helburu
- Gurutze Gorria
- Hiru herrialdeetako abokatu bazkondeak (TAP - Presoentzako Abokatu Laguntzarako Txandak)
- Kakitzat
- Kontzientzi Eragozleen Mugimendua (MOC-KEM)
- Lagun Artean elkarte
- Lan Penitentziarioak
- Mundo Nuevo
- Pastoral Penitenciaria

- Remar elkarte
- Salhaketa
- Senideak
- SOS-Arrazakeria
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- Zubia
- 70 urtetik gorako presoek eta gaisotasun sendaezinak dituzten presoek askatasunaren aldeko plataforma

(Oharra: elkarte zerrenda hau baliteke osoa ez izatea, bakarrik gurekin harremanetan egon diren taldeak edo Ararteko erakundeak ezagutzen dituenak sartu ditugulako.)

ESAPIDE
JURIDIKO-PENITENTZIARIO
OHIZKOENEN GLOSARIOA

PRESO PREBENTIBOAK. Arau penitentiarioetan zigorpetuak eta presoak bereiztu egiten dira, azken honetan sartuta daudelarik delitua egiteagatik kondena irmoa jaso ez dutenak ere. Kartzelaldi prebentiboa, beraz, zera da: auziperatuari askatasuna kentzea, instrukzio epaileak badaezpada hartutako neurri bezala, auziperatuak justiziaren ekintzatik ihes egin ez dezan eta, horrela, epaiketa burutuko dela bermatzeko.

Lege Penitentiarioaren arabera (7. eta 8. art.), preso prebentiboek eta zigorpetuek banatuta egon behar dute. Horretarako, lehenengoentzat aproposak diren kartzela batzuek egon behar dutela dio, baina prebentiboentzako zentro horietan posible izango da kondenak betetzea *egiatan egin beharreko presoaldia sei hilabetetik gorakoa ez denean*.

Preso prebentiboak -edo, kartzelako hizkeran, «epaiketaren zain» daudenak- egoera berezian daude, nagusi izanik errugabeak direlako ustea. Horregatik, ezin zaie tratamendu penitentiariorik ezarri, baina bai ordea, eta salbuespen gisa bakarrik, erregimen itxia (ikus *lehen gradua*). Badaezpada hartutako neurriaren ezaugarriak kontutan izanda, preso horiek ezin dute irteera-baimenik jaso ez eta erregimen irekira sartu ere.

TRATAMENDU PENITENTZARIOA. EKren 25.2. artikulua dio askatasunik gabe uzten duten zigorrak bergizarteratzera bideratuak egon behar dutela. Artikulu hori garatuz, araudi penitentiarioak helburu hori lortzeko bidea arautzen du: tratamendu penitentiarioa, alegia, *zigorpetuen berreziketa eta bergizarteratzea lortzera zuzenean bideratuak dauden ekintzak* (ELOO, 59.1. art.).

Tratamendua, zigorpetuaren izaera aztertzean oinarritzen dena, banan-banakoa izango da, etengabea eta bizia, eta bergizarteratzea errazago lortzen lagunduko duen edozein bide erabiliko da tratamendurako, beti ere zigorpetuaren konstituzio eskubideak errespetatuz.

Kartzeletako erregimenaren -barne antolamendua- helburu nagusia berorietan giro egokia lortzea da, tratamenduak arrakasta izan dezan. Horregatik, erregimenezko zereginak bitartekotzat hartu behar dira eta ez, berez, helburutzat (ELOO, 71.1. art.).

TRATAMENDU GRADUAK. Lege Penitentiarioaren arabera, preso bakoitzak banakako tratamendua jaso behar du, eta, horregatik, zigorpetu bakoitzaren behaketa egin ondoren, sistemak dituen «gradu»etako batean sailkatu behar dira.

A) Lehen gradua. Lehen graduan sailkatuta dagoenari kondena betetzeko baldintzarik zorrotzenak ezartzen zaizkio. Arautegi penitentiarioan agintzen denez, gradu horretan sailkatuta daudenak erregimen itxiko kartzeletara -edo ataletara- bidali behar dira; horrek esan nahi du, alde batetik, amankomuneko ekintzak mugatu egingo zaizkiela, eta, bestetik, etengabe zainduta eta kontrolatuta egongo direla eta beren komunikazioak murriztuta edukiko dituztela batez ere. Erregimen itxian ezin da irteteko baimenik lortu. Erregimen itxiaren zorrotzasun handiagatik, lehen graduko sailkapenak salbuespena izan behar du.

B) Bigarren gradua. Erregimen arrunta da. Zigorpetuta dauden preso gehienak tratamenduko bigarren graduan daude, baina ez Lege Penitentiarioak berez hala agintzen duelako, baizik eta erregimen irekiko zentro nahikorik ez dagoelako, batez ere. Tratamenduan egiten diren aurrerapausoen arabera, preso hauek irteteko baimenak eta onura penitentiarioak deitzen direnak ere lor ditzakete (ikus beherago).

C) Hirugarren gradua. Sailkapen honetan daudenak erregimen irekiko zentro -edo atal- batean sartzen dira. Askatasun erdiko erregimena ere deitzen zaio eta ELOOko berritasunik garrantzitsuenetako bat da, hain zuzen ere kondena betetzeko eredu hau kasu gehienetara zabal litekeela esaten baitu. Legeak dioenez, zigorpetuta daudenak hasiera-hasieratik sar daitezke hirugarren graduan, aurrekoetatik igaro gabe. Nahiz eta, berez, hirugarren graduarekin kartzelatik kanpo lan egitera joateko aukera egon, pertsona guztiek ez dute aukera horretaz baliatzerik, eta horregatik kasu askotan hirugarren gradua asteburuetarako baimen arruntak ematera mugatzen da. Hori dela eta, hirugarren gradua eta erregimen irekia bereiztu ohi dira; azken honi «45. art.» deitzen zaio, erregimen hori arautzen duen agindua horixe baita.

D) Baldintzapeko askatasuna. Tratamenduko azken gradua da eta, bere izenak dioenez, askatasunean betetzen da. Kode Penalaren arabera, baldintzapeko askatasuna lortu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharra dago: a) hirugarren graduan egotea; b) kondenaren hiru laurden bete izana; c) jokamolde ona eduki izana eta bergizarteratzearen aldeko irizpena merezi izatea. Presoen zaintzarako epaileak erabakitzen du baldintzapeko askatasuna, eta berak utz dezake indarrrik gabe erabaki hori zigorpetuak beste delituren bat egiten badu baldintzapeko askatasunean dagoen bitarteko epean; epe hori kondena osoa amaitzeko geratzen den denbora guztian luzatzen da.

TRATAMENDU TALDEA. Legeak «Behaketa eta Tratamendu Taldea» deitzen dio presoa behatu -preso prebentiboen kasuan, hau besterik ez-, sailkatu eta tratatzeaz arduratzen den aditu talde berezituari. Tratamendu taldea osatu behar dutenak honako hauek dira gutxienez: legelari kriminologo bat, psikologo bat, gizarte laguntzaile bat eta hezitzaile bat -preso bakoitzari dagokion taldeko arduraduna; Legearen arabera, lantalde horiek 20-40 pertsonak osatu behar dituzte-. Era berean, beharrezkotzat jotzen den gizarte laguntzaile eta hezitzaile kopurua ere erantsiko zaio. Gazteentzako zentroetan, aldiz, lantaldean pedagogo bat ere egon ahal izango da eta, oro har, «*presoen kopuruaren, tratamenduaren berezitasunaren eta ematen zaion garrantziaren arabera edukitzea*

komeni diren beste espezialista batzuk ere egon ahal izango dira». Dena dela, legeak agintzen duena gainezka eginda dago, gaur egun kartzeletan dagoen masifikazio handiaren arazoagatik.

ARAUTEGI PENITENTZIARIOKO 57.1 ARTIKULUA. APko 57. artikulua zentro berezien -hau da, batez ere «izaera asistentzialekoak diren zentroen»-erregimena arautzen dutenen arteko bat da; zentro horien artean ospitaleak, psikiatrikoak, etab. daude. Artikulu horren lehen leerroaldian atxilotuak, presoak eta zigorpetuak ospitaleetan sartzeko modua jorratzen da, eta haren azken zatian honako hau agintzen da:

«Hirugarren graduan sailkatutako zigorpetuek, tratamendu berezia behar badute drogamenpekotasun arazoak edukitzeagatik, Zuzendaritza Orokorrak baimena eman ahal izango du presoari asistentzia emateko kartzelaz kanpoko zentro egokietan, publiko zein pribatuetan; horretarako, Presoen Zaintzarako Epaileari jakinarazi beharko zaio. Dena dela, presoak berak onartu beharko du, bai eta zin egin ere errespetatuko dituela bera hartuko duen zentroko bizimodua eta zuzendaritza-zentroak ezarriko dizkion kontrolak ere.»

Xedapen honetan oinarritzen dira zenbait presori ematen zaizkien baimenak drogamenpekotasunari uzteko zentroetan egon daitezen, kondenaren zati bat kartzelatik kanpo betez. Askotan, egitarau hauetan parte hartzen duten pertsona edo taldeek «kondena betetzeko alternatiba» edo «kartzelaren ordezkotako zentroak» deitzen diete, baina izen horiek ez daude jasota Legean.

Batzuetan, instrukzio-epaileak berak erabakitzen du halako pertsona bat desintoxikazio-zentro batean sartzea, kartzelaldi prebentiboaren ordezkotako beste batzuetan, ordea, kondenaren ordezkotako «segurtasun neurri» bat izaten da (zigorpetuak bere erantzunkizuna mugatuta duenean bere drogamenpekotasunagatik edo antzeko arrazoiengatik). Kasu horietan, pertsona hori ez da iristen kartzelara sartzera, eta beraz aplikatzen den xedapena ez da APko 57.1 artikuluko, nahiz eta antzeko helburua eduki.

ARAUTEGI PENITENTZIARIOKO 60. ARTIKULUA. Agindu honetan, baldintzapeko askatasuna emateko kasu berezi bat araututa dago; izan ere, presoaren zertzelada pertsonal bereziengatik, bertan behera uzten da kondenaren hiru laurdenak beteta edukitzeko baldintza, honelako kasuetan:

«Aurreko artikuluetan esandakoa gora-behera, hirurogeita hamar urte beteta dauzkaten edota kondena bitartean beteko dituzten epaitutakoak proposatu ahal izango dira baldintzapeko askatasunean jartzeko, baldin eta kasu hauetarako dauden baldintza guztiak betetzen badituzte, kondenaren hiru laurdenak beteta edukitzeko izan ezik.

Halaber, medikuen txostenen arabera gaisotasun oso larriak edo oinaze sendaezinak dauzkatenekin ere erabiliko da irizpide hori.»

Azken lerro honetan oinarritua eman zaie kartzela uzteko baimena azken faseko HIES gaitza daukaten preso batzuei, nahiz eta erabiltzen diren irizpideak beti berdinak ez izan.

KONDENA KITATZEA. Bete den kondena zatiaren kalkulu eguneratua da, kontutan hartuz bai kartzelaldi prebentiboan igarotako denbora, bai gerta daitezkeen onura penitentiario desberdinak. Informazio hori oso garrantzitsua da preso dagoen pertsonarentzat, gutxi gora-behera baldintzapeko askatasuna noiz lortuko duen edo, behintzat, bere kondena noiz amaitzen den jakiteko modua ematen diolako. Kondena kitatzea zailagoa gerta daiteke pena bat baino gehiago daudenean eta «delitu batuketa» delakoari buruz dauden xedapenak aplikatu behar direnean; dena dela, argi dago laguntza informatikorik ez egoteak areago zailtzen duela prozesu guztia.

DESTINOAK. Kartzela barruko zerbitzu desberdinetan lan egiteko dauden postuei deitzen zaie horrela; adibidez, ekonomatza, ileapaindegia, sukaldea, garbiketa, «enkarguak» egitea, argindarra konpontzea, igeltsero lanak, sarrailak konpontzea, iturgin lanak, etab. «Destinoaren» ezaugarrien arabera, lanaldiaren iraupena eta maiztasuna desberdinak izan daitezke. Normalean, lan horiek ez dira dirutan ordaintzen -nahiz eta, batzuetan, hori legearen kontra joan-, baina presoek asko estimatzen dituzte, alde batetik horrela zerbait egin dezaketelako, eta bestetik lanaren bidez beren kondena arintzeko aukera ere badutelako (ikus «kondenaren arintzea»).

KONDENAK LANAREN BIDEZ ARINTZEA. Orain arte indarrean egondako Kode Penalean araututa dagoen aparteko onura bat da eta, legeria penitentiarioan desagertaraztea aurrikusita zegoen arren, oraingoz eutsi egin zaio, Kode Penal berria indarrean sartzearekin batera indargabetuta gera dadin arte. Onura horren bidez, presoak egiten dituen bi lanegunen truk kondenako egun bat kentzen zaio, horrela arindutako denbora baldintzapeko askatasuna emateko orduan ere kontatzen delarik. Kondenak lanaren bidez arintzeko aukerarik ez dute beren kondena apurtzen duten edo apurtzeko -hau da, ihes egin- ahaleginak egiten dituzten presoek, ez eta kartzelan jokamolde txarra daukatenek ere. Praktikan, kartzelako lanpostuak gutxi direnez gero, onura hori beste ekintza «gizarteratzaile» batzuetan -ikasten, etab.- aritzen direnei eta bigarren graduan egonda jokamolde ona daukatenei ematen zaie.

ONURA PENITENTZARIOAK. Arautegiaren arabera, kartzelaldia egiatan laburtzeko dauden bide batzuei deitzen zaie honela. Bide horien artean dago lehenago aipatu dena, hots, kondena lanaren bidez arintzea. Dena dela, esapide hori berez eskubide penitentiario hutsak edo kondenak betetzeko sistemaren funtsezko osagarriak direnak izendatzeko ere erabiltzen da -gaizki erabili ere-. APko 256. artikuluan esaten denez, erregimen batzarrak presoek zaintzarako epaileari eska diezaioke ontzat har dezala egiazko kartzela-urte bakoitzeko baldintzapeko askatasuna lau hilabetetaraino aurreratzea, denbora horretan

honako baldintza hauek betetzen dituztenentzat: a) jokamolde ona; b) lanean aritzea; eta c) berreziketa ekintzetan parte hartzea. Onura hori jasotzen dutenek ezin dute beraien kondena lanaren bidez arindu, biak bateraezinak direlako; nolana ere, bata zein bestea Kode Penal berriarekin desagertu egingo dira; azkenaren ordez, hau da, baldintzapeko askatasuna aurreratzeko ahalbidearen ordez, kondenaren hiru laurdenak bete ondoren askatasuna lortzeko aukera -apartekoa- baino ez da egongo.

Bestalde, APko 257. artikulua araber, erregimen-batzarrak presoentzako zaindari eska diezaioke indulto berezia emateko eskaria bidera dezala, lehenago esandako baldintzak betetzen direnean «*etengabe, gutxienez bi urtez eta apartekotzat jo daitezkeen gradu batean*».

PARTEAK. Normalean, funtzionarioek halako diziiplina-huts bat, zigor-espeditua irekitzera behartzen duena, egin dela salatze osatzen duten idazkiari deitzen zaio horrela. Presoari halako zigor bat ezartzen zaionean gertatzen diren ondorio txarrak, bai eta funtzionarioen hitza beti egiazkotzat edo, gutxienez, salatutako pertsonaren hitza baino sinesgarriagozat hartzen delako ustea ere, presoentzako artean oso zabalduta dagoena, txosten honetan gai honi buruz bildu diren kexa askoren arrazoiak dira.